

Aranaz'tar-Lezo'ko - Jose

Nere Laguna







NERE LAGUNA
URTEKO JAI GUZIETARAKO ITZALDIAK



NERE LAGUNA

Aranaz'taf (Lezo'ko) Jose

Aba Kaputxinoak egindako itzaldiak.

(BIGAREN URTEA)



NEKETAKO AMA-BIRJIÑAREN IRARKOLAN,
IRUÑA'N, 1926

Nihil obstat
P. Franciscus. Gorosterrazu, C. SS. R.
Censor.

Imprimatur
L. † S. *Matthæus, Episcopus Dampilonensis*

Immi. Domini mei mandato
Dr. Aloysius Goñi Urrutia
Magister Scholæ, Secretarius

R. P. Didacus ab Alzo
Censor Ordinis


Imprimatur
Fr. Joachim a Beriain
Minister Provincialis

**Iruña (Pamplona) ta Muskeria (Tudela)'ko
apezpiku agurgafi, zintzo ta ezin ohea dan
Mujika-Ufetzarazutar Mateo Jaunari.**

Jauna: Ez gaude aspaldi-ontan Berori
bezelako apezpiku euskaldunik ikusten oi-
tuak. Bedoñen menpeko guziak, Bedori eto-
ri ta pozez leftu izan badira; euskaldun
gixaxoaz ¿zer esan ote Jauna?

Itz gutxikoak omen gera; baño beñi bio-
tza agintari darabilgu. Euskaldun guzien
izenean bada, ta batez ere asko baño asko
maite diogun Kaputxinoen izenean poza-
ren-pozez eskeintzen dio liburuxo au

EGILEAK.



NERE LIBURUTXOAKIN

—Ongi etofi, enetxoa; baño ¿zergatik eldu zera ain nekatu ta izerditua?

—Bai, Jauna, alaxen da: asko ibili beaf izan det eta.

—Eta ¿pozikan al zatoz?

—Denetatik daukat: Jauna.

—Eman zaizkidazu orain zure befiak: eta zu ez geiegi nekatzeo neronek egingo dizkizut galderak.

¿Ezagutu al dezu apaiz asko?

—Bai Jauna: batez ere Napafo ta Gipuzko aldcan: eta geienak abegi ona egin izan didate: beren efietan oi dan jantzia naramala ta. Bizkai-aldean befiz eta Bidasotik aruntz ez naute ain maiteki begiratu: aientzako afotz antzean nentofela ta; baño batez ere lruñako apaizgai-tegian.

—¿Seminarioan ote?

—Bai: leku zoragafi artan eskuz-esku ibili izan naute: ta ea bafuko mamia edef ote zitzaieten ala ez nik jakin ez afen, bada-kiit Gipuzkoerako jantzia edef zaietela: Napafo ta Gipuzkoako izkuntzak berdin xamañak omen dira ta.

—Eta ¿zurekin daramazkizun utsaz zer diote? ¿Asko daramazkizula edo?

—Ez didate ainbestekorik esan; uts egitea gurekin daramagula ta, ez dira ez afitu «*ote*» batzuek eta *Olibeteko mendia* ta *Jerusalengo eria* ta onelako uts batzuek ikusi ondoan.

—Nik ere ori bera esaten det orain. Ez uste izan era ortako «*ote*» zale naizenik; baño nik baño askoz geiago dakien euskalzale batek esan bai zidan «*nork ote egingo du*» onela esan ez-kero indaf geiago izango zuela ¿*Nork egingo ote du?* esan da baño, ofegatikan jafi izan diut *ote* batzuek. Emendik aufera ordea ez du inork ofelakorik esango; oraingoan txukun-txukun jantziko zaitut eta. Gero....*Olibeteko mendia*, *Naimgo eria* ta gisa ontako esaerak-erderakada itsusia diranezkero, afazoia daukate ez dala ofelakorik esan beaf diotenak; zuk enetxoa, ofela esan izan dezu, apaiz jaun geienai *Taborko mendia* ta *Jerusalengo uria* entzun diezulako bakafik.

—Jauna; apaiz-jauñ gazteak erne ta azkar eldu dira gero; ta euskalzale okitu pufukatuak datoiz.

—Ofegatik bada zuk bigafen aldi ontan txukunago atera be-
arke. ¿Eta esan al dizu norbaitek *senziluegi* zaudela?

—Bai Jauna:

—Eta ¿asefatu?

—Ez orixen; esan bai zifidan ez ifiorekin asefatzeko; ta guxtiago apaiz jaunakin.

—Befiz ere esaten badizu norbaitek *senziluegi* zatozela esai-ozu niketz ez dezula «*uts*» ori kenduko; ez dezula kendu nai ere; bada nere ustean euskaldun geienak euskal-liburuak eta alik efaxenak nai dituzte.

Zoritzafez ez gaude oraindikan euskaldunak euskeraz irakurtzen oituak.

¿Noiz egongo ote gera? Jaungoikoak daki.

«*Mami gutxi*» dezula ta zauden baño sendoago bizi zifietekela ta gisa ontako «egiak» entzun badituzu ere, ez gero asefe jafi; guzi-guzia egi aundia bai da.

Edozein gauza emango nuke nik gizon oiek egindako *Homi-//* liburuen bat irakurtzeagatik.

Dana dala, enetxoa, nik oraingoan ere euskaldun gixaxoai ogi mamia apuf apuf eginda eman nai diet; gero emendik ogei urtera edo—bizi banaiz—ikusiko det nola eman.

Orain beñiepein zoaz lengo aldian bezin «*sensilo*».

Juan bada befiz mundu bafenera; ta eman eskef bero beroenak guziai; aztu gabe ordea asko baño maite bear dituzun apaiz jaunak; eta ez gero utzi agurtu gabe zure lagunzale auek:

Euskalzaindia	(Academia Vasca)
Azkoitin	Epeldetaf Juan Jose
»	Azpiazutar Miren
Donostin	Zulaikataf Jose Antonio
»	» Bizente
»	Ufetataf Mikel
»	Muñoatar Mikel
»	» Juan
»	Elorzataf Julian
»	Loiditaf Bizente
»	«Argia»
Durangon	Goroztizataf Leona
Bilbon	Zuluetaf Felipe-(G. B.)
»	Rotaetxetaf Iñaki
»	Lafinagataf Bitorina
»	Sotataf Ramon
Tolosan	L. Mendizabal Isaka
•	Azkuetaf Basilio
Zumaian	Zelaitaf Bitoriano

Iruñian	Kanpiondat Arturo
»	Olaso S. Julian Jokin (G. B.)
»	Arantzaditaf Imanol
»	Blanco Garmendiataf Angel
»	» » Mikel
»	Espartzataf Serapio
»	Lafatxetat Felix
Bertizen	Zigataf Pedro
Leizan	Lizafagataf Jose Mari
Aoizen	Amitxitaf Rafael
Lizafan (Estellan)	Irujotaf Imanol
»	Lizafagataf Karmelo
»	Martineztaf Biktor
»	Orbetaf Felix
S. Martin de Unxen	Muruzabaldaf Luis
»	» Leoncio
Argedasen	Floristan José
Tudelan	Moneotaf Kontzetxi
»	Sibelotaf Kandida
»	Oixoataf Klara
»	Erbittaf Sebero
Efenderin	Udalak (ayuntamiento)
»	Ilafamenditar Ramon
Olazagutian	Etxabafitaf Juan
«	» Mikel

Guziai eskefak ematen dizkie Egileak.

Muskeria (Tudela), 1925'ko Uztailan.





Dominica Adventus

2.ª HOMILIA IN DOM. 1.ª ADVENTUS

I

N. a. m. ¿Ez al zaizkizute azken egunekó befiak toki ontatik maiz adierazi? Bai noski; ofa bada zergatik deritzaidan alpef gauf befi oiek befiz adieraztea; ez ditut esango egun ofen aurfetik etofiko diran lu'f ikarak, eguzki ta ortze guziaren ilunpetak ez da izate osoaren nasketak ere.

Oso entzuna da gaurko Ebanjelioa; ta askotan gogoratzen dezute noski ¿zertarako esan bada beti prest bizi bear degula? ¿Ez ote dakizute Jaungoikoaren egun ikaragafia guk uste ez degunean etofiko zaigula?

Egi aundia danezkero ez det esango Jaunaren itza *beti beti* bete egiten danik; ala ere gero to geiago siñistu dezazuten begira nola bete izan ziran gure Jaunak Jerusalemenez esandako gauza ikaragafia; oartu nola esan izan zuen Jerusalem'go eliz-nagusia pu'fukatu ta amilka erori egingo zala; ta etzala iñor befiztu zezakenik izango; ikusi Ebanjelioak igarritako *guzia*; ta aobatez esan dezakezu Jaunaren esana beti bete egiten dala. ¿Ikusiko ote ditugu guk Jaunak gauf esaten dizkigun gauza ikaragafi auek? Baliteke.› Dana dala; go-goan eduki bear ditugu beti; azken eguna lapu'f antzean uste ez degun garaian etofiko zaigula Jesus onak esaten bai digu.

Mundua egun auetan ofen nastua, ain eroria ta ondatua ikusirik badirudi gaurko ondamen-negar nasteke-ta-guda-gose-izufite-bofoka-elkar ezin ikusi ta luf-ikarak adierazi nai dutela azken eguna oso urbil, txit gertu daukagula. Entzun orain Jesus onaren itzak.

II

«Ortze-lufak aldakofak dira; ez ordea nere esana.» Jaunaren itza ta esana ba ¿nola bete ez, Jaungoikoarena izan ezker? Gizonak gaur diotena biar ukatu egiten dute; aldakofak bai dira; Jaunak diona befiz bete egiten da; Jaunaren esana «Bera» bezin iraunkofa da ta. Guk bada, kristauak geranezker, esan beaf degu: «Jesus onaren esana egi utsa bai da, atsegin zait; eta gauza ta esan osasungafi bikañ-bikañak biotz-biotzean gorde egiten diran eran, nik ere Bere esan eta aginduak gordeko ditut.» Jaunaren itzak su dario; bere gaf-txinpa-fetan kiskaldu beaf gera beraz.

Tabor mendian Betiko Aitak esan izan zuen: «Jesus au nere seme kutuna danezker entzun zaiozute; ta bete Bere esanak. *Testimonia tua dilexi nimis*, esaten zuen befiz Dabid efegek: Ori bera esan beaf degu kristauak ere. Jaunaren esanak maite badituzu, egin eta auffera.»

Gure Jaunak azken egunaz gaur esaten diguna egia dalako, ta beti prest egon beaf degula ere badakigun ezker, egun ikaragafi ari kezkarik gabe begiratzeko, aztertu (examinatu) egin beaf degu gure burua; ta pekatu uts-utsa besterik ez gerala ezagutuaz gaizki bagabilz ondu gaitezen; Jaunak ori nai du ta.

III

¿Galdetzen al du orain norbaitek ea azken egunean zergatik etofiko ote dan gure Jauna ain agintari ta epai-

Ikari (juez) zofotz? Entzun. Gizon egin eta gure aragiz jantzi egin zanean, zerutik jetxi zan guri zeru-bidea erakusteagatik bakarik; eta, zeru-luf-gizadi oso-osoaren egile ta jabe bazan ere-beartsu-txiro, auf-txiki eran etofi zitzaigun; eta bere etxera, bere mundura, bere jauregi edefera etofi afen, ala ere etzuten bereak, bere aurfak bere senie-alabak ezagutu, ontzat artu ere ez; gutxiago ostaturik eman nai izan. Etzuten juduak eta entzun nai Jesus Jaungoiko zanik ere. ¿Ori Jaungoiko ote? esaten omen zuten. «Bai zera! Ofenbesteko gauza aundiak eta alatz (milagro) afigafiak badagizki (egiten baditu) ere, Belzebuk lagundu egiten diolako, egiten ditu; Jaungoiko balitz gurutzetik jetxiko litzake noski. ¿Ori Jaungoiko? Gezurti aundia bai ordea.»

Judu zital madarikatu aiek Jesus gezurti zala uste zutelako ojuka zioten: *Nolumus hunc regnare super nos*; Ez degu Jesus agintaritzat nai.»

Etzuen gure Jaunak orduan ezer esaten, ixil-ixil egon bai zan. Orduan bada orain bezela ixilik bazegoen, ez da azkeneko egunean ofen otzan eta ixilik egongo; bada azken eguna asefe-biziko eguna, Jaungoiko irakiñaren egun ikaragarria izango danik ¿zeñek ez daki ba?

Egun ikagafi onen ondoan ¿zer ote ziran Noe ta Sodomako egun aiek? Jesus zofotzak «*egun ori*» aukeratu dauka bizi-izan diran guziaz esateko: «¿Ez nintzala ni Jaungoiko? ¿Eztitzaidala neri siñistu beaf? ¿Gezurti nintzala? Eta ¿nere esan-agindu, erakutsi guziak gezur utsak zirala?»

«Begira nazazute orain; pixtu bitez oraintxe bertan il guziak; betoz judatafak,» eta esango die aiei: «Zuek efiotza ikaragarria eman ziñidaten: Betoz siñistu nai etzidatenak» eta esango die: «Orain ikusi egingo dezute ea

gezurti ote naizen»; egun artan bada, n. a. m., auzia guzian aurfan erabakiko da.

Befiz ere galdetzen badidazute ea zergatik datoñen Jesukristo ofen agintari esango dizutet ofela datoñela bere burua garbitzeko; ta ez dala egundaño gezurti izan mundu oso-osoari jakiñerazteko.

Jesus onak Olibete mendian galdetu zien juduai ta: «¿Noren bila eldu zerate zuek?» eta «*Jesusen bila gatoz*» erantzun omen zioten madarikatu aiek. «Ni naiz» erantzun zien Jesus onak; eta dakizuten bezela Judu amartu aiek «*Ni naiz*» entzun orduko zefaldo erori egin ziran.

Arira ba! Jesus epaikari zorotzak gaiztoai esango dienean «*Jesus, zuek goñoto aundia, amoro ikaragafia izan zihloten Jesus ura ni naiz*» ¿zer egingo ote dute orduan kristau ustelak, biraulari amofotuak, pekatari ondatuak? ¡Ura lotsa! ¡ura ikara! ¡ura bildura!.

Esan, kristauak, al badezute esan ea ¿nola egongo ote diran egun aietan Herodes, Pilatos, Anas, Kaifas, Neron, Diocleciano ta beste pekatari aundiak. Gai au ondo baño obeto datorkigu, bañan azkenerako adierazi nai dizutet, bidenabaf bada ere, Jesus onak orduan bere zuzentasuna ere agertu naiko duela.

IV

¿Nori deituko ote diogu zuzen zuzena bere erabakietan norberari ala bakotxari dagokiona argi ta garbi eman egiten dionari ez bada? Ez aztu gaizkileak argitik iges dagiela (egiten duela). Jesus onak, ona bai da, gauza ta auzi guziak argi ta garbi erabaki naiko ditu beraz. ¿Il eta berealaxen Jaunak epaituko gaituela esango af det? ¿Zertarako? Il ta gero arima Jaunagana juaten da; baño azken-egunean gorputzak ere arimakin batean ze-

goelarik egindako pekatuen kontua eman egin bearko du; beraz ba Jaunak gorputza ta arima batean epaitzea-
rekin bere zuzentasuna agertuko du.

Ona beste afazoi bat. Arazo ala zeregin aundi batean batez ere efi aundi bati dagokion arazoan zer edo zer erabaki bea? danean ¿ez alda geienetan agiri zabalean erabakitzen? Bai, ta ofela egin da norberak bere burua garbitu egiten du. Orobat egingo du ba gure Jaunak; agertuko omen ditu oroen gauza on eta txafak; guzien oldozpen, gogamen edo pensamentuak; itzak, esanak, egintzak; eta oroen afean jafiko omen ditu, ea bera erabaki ta epaian zuzena dan ala ez guziak (orok) ikusi dezaten. Norbaitek burua garbitu naiko balu, bidea emango omen zaio, baño egun artan ¿burua garbitu ote? ¿aitzaki-maitzaki ibili? Bai zera. *Justus es Domine, et rectum judicium tuum* guziak esanez, ixildu egingo gera ta. ¡Ene! ¡orduak ikusiko ditugunak! Goi goi egongo zirala uste giñituenak bean ikusi ta, zer esango ote degu? ¿Gaiztoa zala guk uste izan eta Jaunak ontzat daukala ikusi? ¡Ene! Lazaro zeruan eta Epulon aberatsa befiz infernuan ikusiaz ikasiko degu ez diola Jaunak diruari begiratzen, baizik munduan egindako gauzai. Zorionekoak mundu ontan kristau onak izan ezkerro.

Ala izan bedi.



ELGAROKO BIGAREN IGANDEA

2.^a HOMILIA IN DOM. 2.^a ADVENTUS

11

Gaurko Ebanjelioan esaten zaigu Juan Batista deunak biali zizkiola Jesus altsuari bi jafaizale ea Bera ote zan etorkizun zegoen Mesias ala beste bate on baten zai egon bear ote zuten galdetzera. Juan ziran ba; ta azkeneko agur-aldian esan omen zien gure Jaunak; «Esan Batistari emen entzun eta ikusi dituzuten guziak; esan itsuak argi daudela, gofak aditzen dutela, ta badabiltzala elbafituak; eta Ebanjelioa bazter guzietan zabaltzen ari dala.» Ofelako befi pozgafiak entzunda, Batista deuna asko poztuko zan noski; Jaunaren lengusua bai zan. Gero jafaizale aiek abiatu ziranean, Jaunak onela esan zion efiari: «¿Zertarako zuazte zuek lekaro edo basamortura? ¿Iastoki auskofen bat ikustera edo? ¿Ala txukun txukun jantzia dagon gizonen bati diosala egitera ala ikertzera? Ziñetan esaten dizutet ez dala, ofelako gizonik basamortuetan bizitzen. ¿Ala juaten al zerate igarlien bat ikusteagatik? Ofela baldin bada, ongi dago; Juan igarle baño geiago bai da. Ziñez dala Batista aundia; bada bizi diranen artean ez da bera añakorik.»

Gaurko Ebanjello ontaz ¿zef esan ote? Batista deunari txaloak jotzen dizkion Ebanjelioa dala ¿noski? Begira nolako gorespenak ematen dizkion. ¿Gizon zibil

edo aldakofen bat ikusteko edo basamortura juaten al zerate? ¿Zef esan nai ote digu gure Jaunak ori esan da? Batista *basamortuan* bizitza egin eta mundutik ufuti egon da, Jaunak maite duen lekuan bizi dala edo? ¿Ala esan nai ote digu, bein artutako bizieran irauten baze-kiela? Ez dezakegu jakin garbi zef esan nai ote zuen etzala kañabera bezin zibila edo auskofa esaten due-nean; dana dala gure onerako badagokigu jakitea etsaik aundiena gure burua degula; ta zerurako irabazi aundiak nai baditugu, Batista deunak basamortuan bezela guk gure burua ilduratu egin bear degula.

Batistak basamortuko biziera artan iraun zuen giltza-pean sartu arteraño; beraz esan diteke iraunkoña zala. ¡Guk ere era berean on-bidean irauten bagenekii! On-bidean asi orduko nekerik ez baletorkigu!! jaspertuko ez bagña!! kañabera bezin zibil eta buru-gogo ariñak gera orde; ¡ez baidegu bizitzeko basamortu leku ixilik nai!!

N. a. m. Jaunak norbaiti gutaz galde egingo balio onela: «Etxe artara zoazenean ¿zertarako zoaz? ¿Gizon kristau okitu ala emakune zintzo-garbi-ona ikustera edo?» Guk ¿zef erantzungo giñioke? Alketu edo lotsatu egingo giñake noski; ez bai dago gu baño kañabera zibilagorik, aldakofagorik; ara ta onera aizeak darabilkien aizeofatza dirudigu ¿ez da ala? *Nunquam in eodem statu permanet*, erantzungo lioke noski; ta jegitan! bada ez da, gauñ kristauen artean Batista deunaren antze- korik; ilargia baño aldakofago baigera. Gauñ pozaren pozez bagaude, biañ mutuf kopetilun egoten gera gei-entan. Badira gure artean arazoak-eta ondo dijoazkiete- nean Jauna ezin geiago goersten dutenak; eta esku on- gileari muñ-egiten dakitenak; baño adu (suerte) txafen bat izan ezker... ¡aiek espak! ¡aiek birauak! ¡aiek mar- mafak! Etzan Batista deuna ofelakoa; bada giltzapean

egon da ere, pozik egoten zan beti; bakartasunean egon afen beti alai; bere burua etsaiez ingurutua ikusi ta ere izorionekoa betil ¿Zergatik? *Fiat voluntas tua*, Jaunaren naia ura zala guk baño obekigo zekielako; gu baño iraunkofago zalako. On-bidean bada iraunkofak ez izan ezkerro, ez det uste Jauna gurekin pozik egongo danik.

III

Gero galdetu zion Jesusek efiari: *«Zertara juaten zerate basamortura? Apain-apain jazten dan gizona ikustera edo? Ofelakorik ez da basamortuan bizitzen, jauregietan bai ordea.*

Itz auek esan nai digute Batista egi-esale zala; ta egi-zale zalako, etzan ainbeste gezuf esaten dan jauregietan bizi; etzuen bizi nai ere txurikazale ta itxuralari asko izaten diran etxe aberatsetan; bada nunbait bizitzekotan, bizi nai izan zuen egiaren jauregi ta etxea dan basamortu ixilean.

Orain galdera bat egin nai dizutet. Batista deuna basamortuan bizi beafean Herodesenean bizi izan balitz ¿uste aldeute ainegizale izango zanik? Oso gutxi omen dira efergeri jauregietan egia esaten ausartzen diranak; egia esan da burua galdu egin ditekela ta. *«Non licet tibi* argi ta garbi esaten zion Batista deunak Herodes efege lizunari; eta ori esaten ziolako bere burua galdu egin zuen; Herodesek gixaxoari lepoa moztutzeko agindu zuen eta.

«Non licet tibi» esateko Batista deunaren antzera basamortuan eta ezef galdu ez diteken lekuan bizi-beaf da beraz.

Ona emen Batista deunaren antzeko egi-esale izan beaf degunak: Leku ontara igo egiten diran guziak; bada leku au egi-lekua da; gero gurasoak, eta azkenean

agintariak era berekoak izan beaf dute; egia esateko eskubidea badegu ta. ¿Zertarako ote dira artzaiak? artaldea zaintzeko. Otsoa ikusi ta artzaiak iges-egingo balu ¿artzaiia ona izango al litzake? Ez noski; bada artzaiak beti artzai izan beaf du; ofegatik esaten da ba «*Non potest esse pastoris excusatio si lupus oves comedit et pastor nescit.*»

IV

«*Apain-apain jazten diranak jauregietan eta bizitzan dira.*»

Badira nonai, aberats egon afen, oso onak diran kristauak; baita ere ez dira gutxi aberats-egoteagatik inpernu-bidean daudenak; eta auek dira munduko lizunkerietan itorik bizi diranak. Aberastasunak bere neufian egon beaf du; ta bere neufitik atera egiten bada, gauza txara izaten da. ¿Nola ote ba? Apainkeri edo lujo bidea izaten bai da; ta ¿nork ez ote daki apainkeria galbidea danik?

Arestian entzun ditugun Jaunaren itzak, egiak badira ere, badirudi gauñ ikusten ditugun gauzak etzituela Jaunak gogoan. Guk bada esan dezaiokegu orain Jaunari: «¿Zef dio, Jauna? ¿apain apain jantzi egiten diranak jauregietan eta bizitzen dirala? ¿Nola diteke ori beartsu asko aberatsak baño askoz txukunago jazten badira? ¿Nola izan diteke ori, noñ dan aberatsa ta noñ beartsua gauñ ezagutu ta jakin ez baditeke? ¡Apainkeria bai dago! agintari! Ez dakit ba Jaungoikoa ofelako kristauakin pozikan dagonik; ¡ez, ez, ez dago pozik!

V

Eremu aldera jo ta igarlien bat ikustera jotzen al dezute? Igarle baño geiago da Batista deuna.

¿Zergatik ote zan igarlerik aundiena? ¿Jesusen len-

gusu zalako edo? Ez noski; Jesus bezelaxen efugabe izan eta beñe burua iñork bezela makurtu egiten zuelako baizik; baita ere bere burua ilduratzen bazekielako.

Nere iritzian, igarle guziak ortzetik (zerutik) txintxilikan dauden izaf argitsuak dira, baño edefena, argitsuena, aundiena Batista deuna da. Juan deuna bere Ama Isabelen sabelean zegoela eskef, mesede (*graziz*) bete beterik arkitu zan; gure Jaunak Bera bataiatzeko aukeratu egin zuen; eta Jaunaren antzekoa izan bear zuelako, gofiak ikusi beaf izan zituen. Beraz ondo baño obeto datorkio Batistari, Jesus onak damaion «aingeru» izena.

Geroztik bada guk ere Jaunaren aúfean aundiak izan nai badegu, Bere ondoan ibili beaf degu beti; Jaunaren ondoago ta obeago; bada onela Jaunagandik datozkigun eskef mesede ontarteak gero ta gelago beteko gaituzte. Guri ba dagokiguna auxen da: Jesus Jaungoikoari jafaitu; ez ordea Pedro deunak bezela *a longe*; baizik deun guziak bezela ufbil, gertu; onela egin ezke-ro Jaunarekin bat egiñak egongo gera ta saria zeruan ikusiko degu.

Ala izan bedi.



ANDRE MARI GARBI GARBIAREN EGUNA

2.^a HOMILIA IN FESTO IMMACULATÆ CONCEPTIONIS

I

Nor izan zan Ester guziak badakizutelakoan nago; bada gogoan daukazute judu guziak iltzeko Artajerjesek eman zuen agindua; ta Ester juduen aldez jafiaz negarka asi zitzaiola ere badakizute. Ester emakume zintzo ura judatarā zan; eta jakin zuenean efegeak juduak il egin nai zituela negařez asi omen zitzaion eta efegeak onela esan omen zion: Baña ¿zu negatez? ¿Zergatik ote? ¿Ez al dakizute nere emaztea zerala? Ez bildufik izan; bestientzako eman detan legea zuretzako ez da ta.

Gure Andre-Maria goretsi nai degunean Ester bezelakoa dala esaten degu; ta ¿zergatik ote dan ori? gaurko egun zoragafi ontan ikusi diteke. Badakizu gaur zer jai dan. Andre Mari garbi-garbiaren jai.

Artajerjesek Ester bezela gure Jaunak Andre Maria jatofizko pekatutik askatu zuela siñisten bai degu; baita ere sinisten degu Andre Maria ofegatik efurik gabe sortu egin zala; ta ofelaxen da; bada orok (guziok) jatofizko pekatuakin kutsatuak eta zikinduak sortu egiten geran bitartean Andre Maria elufa bezin zuri sortu egin zan ez bai zuen Andre Mariak ofelako pekatuak izan; mundu ontara Jaunaren adiskide etofi zan eta.

In peccatis concepit me mater mea. Guk esaten degu, Mariak ordea: *Ezurik gabe sortua naiz.*

Artajerjesek emandako agindu zofotzak judu guziaz ařapatzen zien; baita goiko Jaun onak jatofizko pekatuari jafitako isunak ere gizon guziak ařapatzen ditu; bařo efege-afek Ester agindu artatik aldendu ta askatu zuen bezela, baita Jaunak ere Andre-Mariari aldendu ta askatu egin zion. Orain bada gaurko jai eder au zertan dagon badakizute.

II

Inimicitias ponam inter te et mulierem. Ire etsai aundiena emakume bat izango dek, esan zion gure Jaunak gure etsai gaiztoari. *Ipsa conteret caput tuum. Ire burua berak puřukatuko dik.* Emakume au Maria da. Jatofizko pekatua bataioak kendu zigun. ¡Bataiorik eza-gutu ta izan ez duten aur gaixoak bai dirala negarga-fiak!

Egi aundia da Juan Batista bere amaren sabelean zegoela ondasunez bete beterik arkitu izan zala; ta Andre Mari garbia Isabel bere lengusuari ikustaldi bat egi-tera Juan da Batistari jatofizko pekatua kendu zitzaioa ¿nork ez daki? Jordan ibaian gure Jaunari bataiatu egin bear zion Batista Andre Mariaren bitartez pekatu gabe jaiio bazan ¿ez ote zan gure Ama garbi bera eluřa bařo txuriago ura bařo garbiago jaioko?

Guziak Maria ezik pekatari sortu gera; bada Adanen aurfak geranezkero, afek egindako pekatu ikaragafia guregarařo etofi izan da; ta orain galdetuko baziřidate-ke ea bai ote zegokion Andre Mariari efurik gabe sortu izatea-baietz erantzungo dizutet; Jaunari ama garbi bat eta efurik gabe sortua zegokion eta.

Gure Jaunak esaten digu: «Lots izan zaiezu gura-

soai. » Jesusgan bada eredu ala ispilu edefa degunezke-
ro Andre Mariak bere ama izan bear zuelako, Andre
Mariari aunditasun et edertasun guziz apaindu ta jantzi
nai izan zion; eta ortarako agindu zion *efurik gabe sor-
tzeko*.

Kristau guziak bada siñisten degu Andre Maria
efurik gabe sortu egin zala; eta egi ori adierazteko ona
emen txiki-txikietatik esaten oitu gerana. «Ave Maria
purisima.» Esan onekin esan nai diogu Andre Mariari
Grabel goi-aingeruak berari esandako au: «*Ave Maria
gratia plena.*» «*Agur Maria eskefex betea.*»

Eta Andre Mariari esan nai diogu elurá baño zuria-
goa dala, ta efurik gabe sortu izan dala; ta zesango al
det auxen dala Andre Mariari guk eman dezaiokegun
gorespenik aundiena?

Zein ederki ematen duen etxe batean sartu ta «Agur
Maria» agurtzeko esaten duen Kristauak!! Zein ederki
dagon apaiz jaunak ikusi ta apaizak agurtzeko esaten
dan «Agur Maria» Aitortzekoan ere ondo baño obeto
ematen du esaten degun Agur Mariak. Ez dizutet esan-
go ere Andre Mari garbiak aldi oietan pozik aundiene-
takoa artzen duenik; egia bai da.

III

Jaunak bere ama garbi-garbiarekin egindakoa gogo-
ratzen detanero nere baitan esaten det «Ez dago ez eta
etzegoen lenago ere Jaunarentzako eziñezkorik: geroz-
tik Jaunak nai ezkerro jaio erazi zezakean Andre Maria
txit aberats, eta ondasun guziz bete apaindua; etzuen
ordea gure Ama kutunentzako ofelako apaintasunik nai
izan; eta beartsu jaio bazan ere pekaturik gabe sortu e-
razi izan zuen; eta onekin ikasi egin bear degu Jaunak
naiago gaituela pekatu gabe aberats baño.

Badira zuen artean seme-alabak biotz-biotzez maite dituzutenak; ondo dago maitasun ori; baño etziñateke guraso onak izango ez baziñituzteke seme-alabak pekatu bidetik alde-eraziko.

Jaunak Andre Maria jaiotzean pekatu gabe maite izan zuen; geroztik esan bear da ez diotela lufezko gauzak Jaunari atsegiñik ematen; berak nai zuena pekatu gabeko ama zan eta.

Beartsuak zeratela ta zer? Beartsu izatea pekatuen bat al da edo? Obe da beartsu bizi, pekatari baño. Beartsu bizi ta ere, pekatari aberatsak baño zorionekoago izan diteke; bada zoritxafean bizitzeko naikoa da pekatari izatea. Beartsu bizi afen, baño, onak izan ezkeroriorionean biziko gera; gaiztoak bagera beñiz eta-aberats egon da ere zoritxafean. Andre Maria beartsu bizi izan zan; garbi-garbia ordea.

Ona emen gaur ikasi bear degun beste gauza on urakofa.

Jaunak Andre Mariagan bizi bear izan zuelako esker on eta grazi guziz apaindua ta betea nai izan zuen; eta Andre-Mariak aberaski, diru-ondasunak alde batera utzi bazituen, etzituen ordea ontasunak eta *birtuteak* aztu izan; ¿nola ote aztu; Jauna nunbait bizitzekotan arima onean bizitzen baldin bada?

Badira zuen artean laguntzarako nor-edo nor aukeratu ta artu beafean arkitzen diranak; eta ortarako, (esan nai det aukera ona izateko) zeri begiratzen diozute geiago?

Esan nai det.: Langile mofoi, neskame, mirabe menpeko bateonbaten beafean egon ezkerorioriolakoak nai dituzute? Eta zuen seme-alabentzako lagunena bat aukeratzekotan ¿zein egongo ote da agintari? ¿biotza ala burua?

Ez aztu, ta ez gogotik beñere kendu ez duela zuzaitz txafak igali (fruta) onik ematen. Menpekoak ez badituzute onak, ez gauza onik itxaron; eta ez badezute seme-alabentzako lagun-on-zintzo elizkoirik aukeratzen, ez det uste gauza on aundirik iritxi dezazuketenik ere; onelako arazo aundietan biotzari ondasunari baño geiago begiratu bear bai zaio.

Etzuen Betiko Aitak bere seme-bakafentzako ama pekatariarik nai izan; ez dituzute zuek ere zuenentzako on zintzoak besterik bilatu ta aukeratu bear.

Gai eder au aipatu detanezkero ez det gaufko itzal-di au bukatu nai, zer edo zer gazteai esan gabe.

IV

Zer jai,¹ dan gaurko au zuei galdetu,¹ ezkerro Andre Mari-garbiaren jaia dala erantzungo ziniñdateke. Bada-
kit Andre Maria, zuen zaindari maitea dalako, asko ta neufigabeko maitasunakin maite dezutela; eta ¿zergatik maite, dezute? gargi-garbia dalako? Beraz zuei ere garbitasuna atsegin zaitzute; baita Jaun onari ere. Andre Maria garbi-garbia izan ez balitz, ez litzake Jaunaren ama izango ere. Gu ere garbi-garbiak ez bagera, ez gera Jaunarentzako atsegingafi izango. Garbitasuna guzientzako ona da; batez ere zuentzako, gaztientzako. Ez du iñork lore-zikin-usteldurik nai; lore guziak garbi-garbiak izan bear dute ta. Ori bera esan diteke gazteaz. Garbiak ez bazerate, etzaituzte iñork maite izango; ta batez ere Jaungoikoak gofotatuko zaituzte. Zuen- apainkai-edefena garbitasuna izan bedi bada.

Errotzat daukat nik bizitzarako lagun-on bak aukeratzekoan garbia bilatzen ez duena. Emazte-garbia nai ta, nor da erorbidean jartzen duena? Etxe-batean bizi nai duenak etxeko tresna ta ederkaiak maite ditu; maite ba-

da zuen buruak daukan ederkairik edefena dan garbitasuna. Oritarako daude otoitzak eta elizakoak; neketan galduko da elizkoi dan gaztea; Jaunak eta Andre Mariak lagunduko bai diote. Ez da garbitasuna bat-batean galtzen; pixkaka, pixkaka baizik-Gauza txikietan erne dabilenak eta beregain gauza autsikofa daramala oartu ta laguntza ta indar bila Jaunagana jotzen duenak garbi-garbi iraungo du nunbait.

Azkenerako: Gaur zuek Andre-Mariari eskeintzen diozuten bizitza nolakoa ote da? ta zermaten diozuten biotza ta arima befiz? Andre Mari garbi-garbiari zerbait ematekotan, garbi-garbia eman bear zaionik ez gero aztu; gauza ustel, zikin-loi nazkagaririk ez eskeindu geroztik. Zorionekoak Andre-Mari garbi-garbiari gaur biotz on, eder garbia ematen diotenak.



ELGAROKO IRUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 3.ª ADVENTUS

I

Gaurko Ebanjelioak dakartzkien galde-erantzunak oso politak eta txit jakingariak dira. Juduak Juan deunari bialitako gizonak Batista deunarekin izketan ari dira; ta Batista deuna oso aritu ta dago.

¿Nof zera zu? esan zioten gizon aiek [Batista zintzoari, esazu afen; ori jakiteko bidali gaituzte ta. ¿Mesias al zera? ¡Bai zera! erantzun zien Batistak. ¿Elias ote? Ez da ere. ¿Igarle ote? Ez da. ¿Nor zera bada? Ni eremuan deadaf dagien abotsa naiz. Gertu Jaunaren bideak.

Ebanjelio guztiak erakusketa edefak ematen badizkigute gaurkoak befiz ezin edefagoa ematen digu; Batista deunaren apaltasuna agertzen bai digu. Afoak beti itzontzi; apalak beti uzkuñ eta itz gutxikoak beti. *In multiloquio scurrilitas*, itzontzia beti ergel, txoro, kaskarin. Batista deuna ain apala zalako oso labur-labur erantzuten zien judu aiei; ¡guk ori ikasiko bagenu!

II

¿*Ez bazera Mesias zergatik bataiatzen dezu?* Juduen artean Fariseotafak ziran nazkagafienak; on-iru-

di egiten txit ederki oituak zeuden eta; etzituen ba gure Jaunak ofegatik ikusi nai ere. N. a. m. Batez ere fariseoak omen ziran Kalbario mendian Jesus ona il egin zutenak, legeak ori agintzen zuela ta. Juduak Batista apal-umilari bidalitako gizonak ere fariseotafak omen ziran; beraz maltzuf-maltzufak. Begira zein maltzufak ziran. Juan deunaren befiak jakin nai zituzten; eta zearka-zearka asi ziran galdetzen ea Mesias, Elias, edo ote zan bera. Etzala ofelakorik entzun ala, berealaxen esan zioten: «*Ofelakorik ez bazera ¿zergatik bataiatzen dezu ba?*» esan egingo baliote bezela: «*¿Zergatik sartzen zera bada bear ez dan gauzetan?*» Bazekiten geroztik gizon zital aiek Mesiasek bakañik izango zuela bataioa emateko eskubidea; ala ere Jesus-Mesias etofi ta etzioten nai izan; afo-afuak bai ziran.

Ona Batistak aiei apal-apal erantzundakoa: «*Urutsez bataiatzen det nik; zuen artean dago ordea zuek oraindik ezagutzen ez dezuten Mesias.*»

¿Zer esan nai ote dute Batistaren esan auek? Bere burua makurtu egin nai izan zuen gixaxoak ori esan da. Beste edozein bere lekuan egon izan balitz, erantzungo lieke onelatsu: «*¿Zuei zer zaizute bataiatzen badet ere? ¿Kalteren bat egiten al dizutet?*» eta asefe bizian erantzungo lieke; Juan Batistak ordea etzien erietan eman izan nai; entzun dezutena apal-apal erantzun zien eta.

Afela erantzun eta aitortu zien aiei etzeukala arimak garbitzeko eskubiderik, etzala Bera Mesias eta; baño aien artean zegoela arimen garbizale zan Mesias.

¿Zein itz edefak diran oiek!! Juduen artean omen zegoen Mesias eta ¡jaiek jakin gabe!!

III

¡¡Bai!! Alaxen zan; Jesus Jaungoiko ta Mesias jaioa zegoen; ala ere juduak ¡jakin gabe! ¡ezagutu gabe! Ba-

zeukaten bai Jesus aurfaren befia; baño aurf ura ikusi ta esaten omen zuten: «*¿Ez al da ba au Jose zurgifaren semea?*» ta Jerusalengo eliz-nagusian gizon jakintsuen artean egon eta esaten omen zuten aiek: «Baño iñon ikasi ez, ta ¿nola ote daki onek ainbeste?» Gurutzean il egin zutenean aitortu zuten egia esanaz: «*Egitan zala Jaungoikoaren Semea.*»

Orain pixtuko balitz Batista deuna ¿ez al liguke Juduai esandakoa guri ere esango? Esango baligu Mesias gure artean dagola, ta ez degula ezagutzen, egia esango al luke? ¡Bai noski! Eta ¿gero esan kristauak gerala? ¡Ez orixen! Baño... ¿ezagutzen al degu guk Jaungoikoa? Ez dira guda-mutil bikañak beren nagusi-agintaria ezagutzen ez dutenak; eta beren artean badago ere, ez ezagutu ezkerro, neketan bixkortuko dira. Kristauokituak izatekotan Jauna ezagutu beaf da; ta agintariak eta guraso diranak beren menpekoai adierazi bear diete nof eta nolakoa ote dan Jaungoikoa; bada negargafiak izango zifiateke zuetaz esango balitzake: «Zuen artean, zuen etxean, zuen efian egon Jauna ta ¿nof dan, nolakoa dan zuen menpekoak, etxeokak jakin ez? ¡Gurasoak bada! seme-alabak jakin dezaten Jauna nor dan, kristau-*dotriñara* beti bidali, ekafi. Eta etxean dituzutenean ¿zef erakusten diezute? Zuen seme-alabak eta etxeokak baldin badakite zein dan Jesu-Kristo, baita Jesu-Kristo gure Jaunak ere jakingo du nof diran zuen seme-alabak; eta etxeokak, eta efikoak, ezagutzen badute Jesu-Kristo baita Berak ere ezagutuko ditu; ta ¿zef uste dezute, ez dirala mundu ontan ezagutzen Jaunaren ezagunak? ¡Aixa ala ere! Seme zintzoa, alaba garbia, ezagun adiskide leiala, ta langile okitua orok maite degu; ¿zergatik? Maitegafiak diralako, ta ¿zergatik dira maitegafiak? Zintzoak eta onak diralako; ta ¿zergatik

dira zintzoak eta onak? Kristau onak diralako; ta zergatik dira kristau onak? Nor dan Jesukristo gure Jauna dakitelako; ez du inork kristau txarrik maite izaten; onak befiz guziak maite ditugu.

IV

«*Nere ondotik etofiko da ni baño lenagokoa dana: ta ez naiz ni inor bere onetako lokafia lasatzeko ere.*» Jesus Mesiasez esan zituen Batista deunak itz oiek. Oartu nola makurtu egiten duen Batistak bere burua; ofenbesteko apaltasunak gero ta geiago aritu egiten nau. ¡¡Auek esanak!! *Etzala bera inor etzala onetako lokafia askatzeko ere.* Egiazkoak ote ziran esan auek? Bai, n. a. m.; bada Jaunaren aunditasuna ezagutzen duenak nai ta naiez bere ezereztasuna ezagutu egin bear du. Gizona jakintsua, altsua, aberatsa izan da ere ¿zer ote da Jaunaren ondoan? Ezer ez noski; autsa baizik ez; eta... burua erakutsi ta goretsi naian ibili ote? ¡¡Ori burugekeria!!

Batista deunaren apaltasuna judu aiek ikusi bazuten ere, etzuten *umil* izaten ikasi; afo-afo iraun zuten eta. Zorigaiztokoak geroztik.

Batista deunak bere burua makurtu egiten zuen bitartean badirudi Jaunak gero ta gorespen aundiagoak ematen zizkiola; bada al zuenero al añako aintza ematen zion. Oartu bestela gaurko Ebanjelioak esaten duena; ta ez aztu Jordan-ibaian gertatutakoa. Ez du beraz Batista deuna Jesus-Jaunak aña inork goretsi izan.

Txoro-ergelak dira geroztik Jaunari gorespina eman beafean berentzako gorde egiten dutenak.

¿Jauna añakorik nor ote? esaten dute Batistaren esan guziak, eta ona emen guretzako eredu edefa; egin zangun beti afeak bezela, ta Jaunak lagunduko digu.

Ala izan bedi.

ELGAROKO LAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM 4.ª ADVENTUS

I

Etegea norabait dijoanean bai omen dijoaz afean bere mezulariak; eta auek izaten omen dira efegentzako safera ta beaf dan guzia prestatu egiten dutenak. Jesukristo gure Jaunak, ere zeru lufaren jabe ta efege zanezkero, izan zituen bere mezulariak; eta guziak daki-gu igarleak edo «profetak» izan zirala. ¿Esango al ditutet arazo ontan Juan Batista deuna goi-goiena egon zala?

Igarle on zintzo onek ere eremuan zegoela zegien Jesus-onak egin beaf zuen biziera ber-bera; ta gero gaurko Ebanjelioak esaten digunez Jaunaren deia somatu zuenean, eremutik atera ta alde egiñaz Mesias efegeren etoferako bideak «prestatzen» aritu omen zan. ¡Ofa non dabilen! Jordan ibaian dago orain. ¿Zertan ari ote da? Bataiatzen. ¿Zef dio? *Facite fructus poenitentiae* «Gaurdaño pekatari izan bazerate damutu zaitzete» *Appropinquavit enim regnum Dei*. Jaungoikoaren agintaldia badator eta. Gero esaten omen zuen «*Rectas facite semitas ejus.*» Beraz Jaunari eguefitan safera ona egiteko Batista deunak esandakoa egin beaf degu guk ere.

II

Emendik gutxira eguefitan gaude; gabon zoragafia gertu bai dago. Guk gabonak arimarentzako osasungafi nai izan ezkeru, ta Jesus aurtxoari ongi etofi xamura eman nai badiogu gure biotza prestatu beaŕean arkitzen gera.

¿Zef ote dagi (egiten du) aingeru aŕek zorioneko baratz edef artan ezpata zofotza eskuan daukalarik? Jaunak agindu diolako leku artatik gure lenbiziko gurasoak jaurtigi edo bota izan ditu; itxi egin ditu zoriontasuneko atea; eta Betiko Aitari giltza emanik Jaunak giltz ura gorde egin du. Ez gera beraz zoriontasuneko lekuan sartuko gu; jatofizko pekatuak galerazten digu ta. ¿Ez ote da iñor gutaz efukituko? ¿Noŕ ote? ¿Jauna bera ez bada beintzat... Ez bai da gure artekorik iñof ortarako egokia. Noŕ edo noŕ izatekotan ba Jesus Jaungoikoak berak izan beaf du, ta ¡ziñez! Bera biotz-biotzean josiak gaituena bai da. Berak erosi nai gaitu; berak artu egin nai ditu bere gain gure oben eta pekatuak; eta ortarako gurutzea sorbaldan arturik Kalbario mendira dijoa; ta guregatik Kalbario mendian il egiten da; aŕezkeroztik zeruko atea zabal-zabal ditugu.

«*Rectas facite semitas ejus*» esaten digu Batista deunak gaurko Ebanjelio edef ontan. «*Semitas ejus*» oŕek, zerutatzeko gure Jaunak erakutsitako bideak esan nai du; ta biderik zuzenena gurutzea dai da kristau guziak «gurutzedun» izan beaf degu.

III

Guziak dakigu zef dan gurutzea ta gurutzea ikusten degunero bertan dakusgu (ikusten degu) gurutzean ilegin zan Jesus efukitsua.

Baño esaten zaigunean zerurako biderik zuzenena

gurutzea dala adierazi nai zaigu: *Per multas tribulationes oportet nos intrare in regnum Dei*, zeruratzekotan neke-negar-naigabe bidetik juan bear degula. Gure Jauna ofelaxen sartu zan. *Oportuit Christum pati, et ita intrare in gloriam* eta ¿guk uste al degu lasai-lasai bizi ta zeruan sartuko gerala? ¡Ez! ¡ez! «*Si sustinebimus*», nekeak eta negafak ematen diguten gurutzea ondo ba daramagu «*et conregnabimus*», zeruan sartu egingo gera; bestela ez.

Ez da mundu-bidea zeru-bidea; gurutz-bidea, neke-bidea, negar-bidea baizik. *Nere jafaile izan nai badezute ar zazute gurutzea ta atozte*: esan au Jaunarena da; beraz egi utsa. ¿Gogora dala? Azken-egunean gurutzearen etsaiari esango zaiena gogoragoa ta ikaragarriagoa izango da. Egun izugari artan etsaiari esango die Jaunak: «*Recedite a me ¡Ut emendik! Etzaituztet ezagutzen*». ¡Auxen bai dala esan gogora ta ikaragarria! Gurutz-bidea bada oroi on zaigu.

IV

Gure Goiko-Jaun onak mundua ta egin zituenean esan omen zuen: *Vidit cuncta quae fecerat et erant valde bona*. Geroztik Jaunak egindako gauza guziak txit onak dira; ¿gizonaz ordea beste ainbeste esan al diteke? Badira munduan gizon afo-ergel, lizun-gaizto-txañ eta Jaunaren etsai asko; ta mundua, Jaunak egindako mundua ona ta edefa bada ere, ez dira ta ez gera gu Jaunak nai gaituen erakoak; gaiztoak gera ta. Auek esan nai det ofelako giza-txañak ere zerua galerazten digute; beraz bada auekandik ufun ibili beañ degu; mundua gaiztakeria darion tokia bai da.

Badakargu gogora Jeronimo deunak Jesus onaren zerura igoerako egunaz esandakoa, gogoratuko degu esan au «*Jesu-kristo gure Jaunak zerurontz jo zuenean*

afi baten gañean utzi zituen bere oñen aztarnak edo siñaleak eta Jaunak onekin, Jeronimo deunak diogunez, adierazi nai omen zigun munduko gauzak eta atsegiñak oinperatzen ikasi beař degula. Ez det uste egitan oinperatzen dituztenak asko diranik; ofegatik oso gutxi omen dira zerura zuzen dijoazenak.

¿Zef esan ote munduko sal-erosketan eta itoak dabilzanaz? Ez auei ezef galdetu zeruko bideaz; ez bai dakite ezef; galde-egin ordea diruetxeko gora beraz eta ikusiko dezute zein ederki dakiten ori. Berekoiak bai dira maltzurkeriz eta *tranpař* beterik daude beti; ta ezef egingo ez balute bezela!

Orain, bidenabar bada ere, ofelakoai esango nieke: Norbaitek ukafak edo *limosnak* ematekotan ¡zuek! ta ¿zergatik ote? galdetuko baziñidateke esango nizuteke zuek nik baño obeto jakingo dezutela zergatik. *Rectas facite semitas ejus.*

Eta ainbeste emakume, neskatx eta munduko apainkerietan eta ikusirik ¿zef esan ote? ¿Oiek ondo ote dabilta? ¿Zertarako ainbeste diru ergelkerietan xautu edo gastatu? Beartsu ta Jaungoikoären izenekoai laguntzeko, ta elizan beařeko danen bat erosteko aitzaki-maitzaki ibili beti, ta gero ergelkeri ta apainkerietako ofenbeste diru xautu? *Nolite diligere mundum neque ea quae in eo sunt.* Ez izan munduaren adiskideak, ofelakoak Jaunaren etsaiak dira ta.

V

¿Esango al det Jaunaren esanak egin eta bete ezkeru zeru-bidean egoten dala? Gogoratu orain ea zeruratzeko zer egin beař ote zuen Jaunari galdetu zion gizon ura; ta gorde, gorde biotzean Jaunak aři erantzundakoa: *Serva mandata.* Eta ¿bete beař al ditugu Jaunaren esa-

nak? ¿Zergatik ez Jaunaren seme-alabak baldin bagera? ¿Ez al da Jauna gure agintaria ta aita maitegafia? ¡Jauna! ¡Jauna! bakafik esaten dutenak ez uste izan zeruratuko diranik; bere agindu zofotzak egiten dituztenak bakafik zeruratu egingo dirata. ¿Jaunaren aginduak malda gora egiten zaizkigula? ¿Eta zer? neketsuak badira ere egin beaf ditugu; Jaunak ori agintzen digu ta. Ez aztu zeru-bidea gurutze, neke, naigabe-bide danik. Egi aundia da zeru-bidea malda-gora dagola; baño Jaunak agintzen badigu ere lagun kaltegafiai barkatzeko, ta gorputz-grifñak ezitzeko ta gure burua ilduratzeko ta ofelako gauza neketsuak agintzen badizkigu ere bera datofkigu laguntzera; ta ortarako esku ematen digu; ta berak lagundu ta guk bakafik ez dezakeguna berakin batean egin dezakegu. Dana dala irabazi bear degu zerua.

Israeltafen buruzagi zan Moises gogoratzen detanero bilduf ikaraz bete egiten naiz; bada Jaunaren agindua agindu orduko egin etzuelako, Jaunak esan omen zion: Esaneko (obediente) zintzoa izan etzeralako etzera nik zuei eskeindutako luf-aldean sartuko; ta jafitu, n. a. m! basamortuan afelako gauza afigafiak egin izan zituen Moises ura etzan eskeñitako luf-aldean sartu izan. ¿Nola ordea ezagutu Jaunaren naia? Aitor-entzulearen menpeko dana zeruratuko da. Zorionekoak gu Jaunari ongi-etofi egiteko ondo prestatzen bagera.

Ala izan bedi



EGUERITAN

2ª HOMILIA IN FESTO NATIVITATIS

I

¡Gaurko Ebanjelioa bai dala pozgafia! Jesus jaio zaigu; ta aingeruak «Gloria in excelsis» abesten dute. Artzaiak badijoaz Belen aldera; ta badijoaz elkafi esanaz: *Videamus hoc Verbum*.

«Videamus hoc Verbum» artzaiak esan zutenean agertu zuten jakintsu guziak baño geiago zekitela; bada orduko jakintsuak etzekiten Jesu-kristo gure Jauna «Itza»zanik.

Gaur Jesus aurtxoa askatxo batean ikusten detala baderitzait erakusle antzean dagola; ta esaten diguna egingo bagendu asko poztuko litzake noski.

Agustin deunaren iritzian *Christus non solum loquendo, sed etiam nascendo magister fuit*; etzan Jesus ez irakasle (maisua) itz egiten zuenean bakafik; baizik baita ere bere jaiotzean.

Gurutzean zegoela gauza asko erakutsi zituen; eta gaur askatxo batean dagola ere gauza asko esaten dizkigu.

Badira bi gisako izlariak; batzuek izlariak; eta besteak eginlariak; azkeneko auek esana egiten dutelako, ez al deritzaizute esan bai eta «*egin ez*» egiten dutenak baño obeak dirala?

Itzak asko dezake; egin onak ordea geiago; beraz gurasoak eta agintariak beren menpekoai itzakin baño askoz geiago egite onakin erakutsi bear diete.

Gure Jaunak, Belengo estalpean ixilik egon afen, edozein sermolarik baño geiago esaten digu; ez du mingaflak ezer esaten, bere apaltasun, beartasun, ixiltasun eta eruapenak ordea esaten dizkiguten gauza edefak ¿nork adieraziko ote ditu?

Origenes jakintsu aundia omen zan; eta ikasleak ziotenez geiago ikasten omen zuten aiek Origenes ikusita berari entzun da baño; guk befiz Jesus ain beartsu ikusi ta ¿noiz ikasiko ote degu mundua, oinperatzen?

Gauf gure Jaunak erakutsi nai dizkigu «*Mors vitiorum eta via virtutum.*»

II

Jesus mundura baño lenago munduak zituen pekatuak nazkagafi-nazkagafiak ziran; mundua txit usteldua ta ondatua bai zegoen. Gero gure Jaunak, mundura etofi ta, pekatu aiek kendu egin nai izan zituen; beraz «Christi nativitas» Jesus onaren jaiotza esan bear da pekatuen eriotza zala ta alaxen zan; bada Jesus mundura baño lenago etzekiten mundutafak zeru biderik; ez bai zekiten zer ziran apaltasuna, beartasuna, eruapena ta oien kideko ontasunak; Jaunak bada ori guzia ta askoz geiago ere erakutsi nai izan zien.

Munduko aundinaikeria oinperatzeko etzan Jauna aundi-antzean agertu; ta munduko jakinduria uskeri aundi-ustel zala adieraztekò etzuen jakintsu antzean azaldu nai ere; gero munduko jauregiak, ontzufeak eta uskeri zirala guziak jakiteko beartasunez jantzi egin zan; eta beartsu, txiro, gixaxo bat bezelaxen jaio zan; eta adiskide ta maitale gutxi izango zituela bazekielako

baita ere beartsu geienak eruapen gutxikoak izango ziralako gogoan zeukalako, ofegatik beartsu jaio, beartsu bizi ta beartsu il nai izan zuen.

Orain bai esan ditekela Jesus aurtxoaren antzekoak ez bagera, ez gerala zeruan sartuko.

III

Jesus efege danik ez dezake inork ukatu; ta Jaungoiko danezkerok efege ere da. Orain bada esan ditekela Bernardo deunakin: *¿Ubi aula regia? ¿ubi thronus?;* ¿non daude bere jauregia ta bere aulkia? ¿Non? Belenen. Bere jantzi ta aulkiak *«pretisiores omni purpura»* purpurak baño edefago dira, ta askatxo ori befiz *«auratis regum solis»* egegien ufezko aulkia baño ta atsegingafiagoa.

Beude efege agintariak beren jauregi ta efi nagusian beude bai afo ta agintari; gure Jesusek beinepein ez du ofelako agintasunik nai. Jesus aurtxo txikia Belengo estapean efege guziak baño aundiagoa da; munduko jauregi, aunditasun eta apainkeri guziak baño gorago bai dago; ofegatik esaten da gaur: *«Magnificatus est Rex pacificus super omnes reges universae terrae.»* Baño nola izan ditekela ori? ¿ain beartsu jaio ta ain goi egon?

Ez afitu, bada Jaunak ukitu egiten duena zero biurzen du. Belenen aurtxo txiki bat besterik guk ikusi ez afen, aur ori Jaungoiko da.

Bere legeak ez dira beste egegen legeak bezelako bidegabekoak; eta menpekoak Berari beti men-egiten diote; izate osoa bere esanekoa bai da.

Ez ditu Jaunak bereak Beragandik ufuti nai: il ta gero Beragana deitu egiten ditu ta. Menpekoak efege ta agintariai lotsa ta itzal aundia izaten diete; Jaunari befiz egegok eta agintari berak lotsa diote; Jesus aurtxo

txikia bera Belenen dagola efege guziak baño aundia-
go da; ta laster etofiko zaizkio iru efege jakintsu mun-
duari esatera «*auf ori Efege dala*»

Epifanio deunak uste omen zuen Belengo estal-
peaz itz egiten zuenero etzuela zeruaz baizik jarduki-
tzen; Jaungoikoa dagon lekua zerua bai da. Jesus jai-
o zanean geroztik zerutar guziak Belenen zeuden; beraz
Belen egun aietan munduko jauregiak baño ederago
zegoen.

Jesus gure biotzean egon ezkeru ere zeru biurtzen
zaigu biotza; ta zerutar guziak gure biotzean daude or-
duan; Jauna dagon lekuan zerutafak ere bertan ego-
ten bai dira.

¡Belen! ¡Au leku negargafia! ¿Zergatik ote? ¿Zeru
dalako edo? ¡Ez! ¿Zergatik bada? Zeru izan da mundu-
tafik ara ez dijoalako. Jesus bere efitafen artera etofi
ta *sui eum non receperunt*, efikideak etzuten ontzat
artu ¡gauza negargafiagorik! ¡Ene! ¡Agintari, aberats
eta efege altsu antzean etofi izan balitz gure Jauna!

N. a. m. Ez daki munduak nolakoa dan Jaungoikoa;
baleki, guziak Bere atzetik juango lirake noski ta. Ain
apal agertu ta guziak Bereganatu egin nai zituen. Zo-
rionekoak abegi ona dagiotenak, bada azken orduan
Jaunak ontzat artuko ditu. Zorigaiztokoak beñiz artu nai
etzutenak.

IV

«*Deus factus est homo, ut homo fieret Deus:*» Jaun-
goikoa gizon egin zan, gizona Jaungoiko egiteko; ala-
xen dio Anselmo deunak. ¿Gauza aundiagorik zer ote?
Luzifefek eta Jaungoiko nai izan zutelako, Jaunak dea-
bru biurtu zituen; Jesus onak beñiz zerutar nai gindue-
lako, gu Jaungoiko biurtzeko etofi zitzaigun. Ez bagen-

du Jaungoikoa biotz-biotzez maiteko, oso zitalak izango giñake apike; ofa ba zergatik esaten duen Paulo deunak: *Si quis non amat Dominum Jesum Christum, sit anathema*. Madarikatua izan bedi Jesus Jaungoikoa maite ez duena.

N. a. m. Gizonak bere burua goretsi nai izan zuen eta Jaunak makurtu erazi zion. ¿Zein ote da gaur Jesus aurtxo txiki beartsu ikusi ta bere burua goretsi naiko duena?

Ala izan bedi.



EGUERI ONDOKO IGANDEA

2ª HOMILIA DOM. INFRA. OCT NATIVITATIS.

I

¡Jerusalen! ¡Jerusalen! oso uri edefa zera zu. Zure baruan ikuskizun gauza miragafiak daude: antzin-antziñekoak Salomonek eta Jaunari eman egiten ziotena zure eliz-nagusi ofek ikusia dauka; zure aldareak mintzatu tuko balute esango liguteke zein sutsuak ziran apaizak Jaunari egiten ziozkaten otoiak. ¡Jerusalen! ¡Jerusalen! Gure Jaun eta Jaungoikoak asko maite duen efia bera zu. *Gaude et laetare*; Poztu ta alaitu zaitetz; Jesus Jaungoikoak gaur lenbiziko aldiz zure eliz edefean sartu beaf du ta.

Gaurko Ebanjelioak jakin erazten digu Jesus aufaren eliz-safera. Sartu egin da. Begira bertan dauden Simeon igarle ta Ana emakume alarguna; oso alai daude biyek aspalditik ikusi nai zuten Mesias ikusi bai dute. Andre Mari garbia befiz ilun dago. ¿Zergatik ote? ¿Zertarako esan? guziak baldin badakigu? «Ama garbia:-esan zion Simeonek gure Ama on-onari--begira semetxo au; berakin oso pozikan zaude zu; baño ezpata zofotz-zofotza izango zaizu; bada etsai amofatu-ikaragafiak izateko jaioa bai da, gizon-gaizto-pekatarari zital oiek ezpatak baño zofotzago zulatu ta pufukatu egingo dute zuen biotza. Eruki zaitut bada.

¿Nork esan ote ordu artan Andre-Mariak bere biotz bigun-beratx-beratxean somatu zuena? «Ana» amonatxo zafak befiz Jaunari aintza-ospea (*gloria*) ematen omen zion; aurtxo txiki afetaz oroi ondo itz egiten ziela. Ona emen gaurko Ebanjelio onek Anaz esaten diguna: *Confitebatur Domino*. Kristau guzientzako itz eta esan edefa noski. Entzun orain zuek esan ofen esan nai duena.

II

Ez du esan nai amonatxo afek Jaunari bere utsak eta pekatuak agertu egiten zizkionik; bada «Confitebatur Domino» Ebanjelioak esaten digunean esan nai digu Anak Jaunaren aunditasuna guziaz jakin erazten ziela ¿nola ordea? Bere biziera ona ta zintzoaren bidez; ez bai dago Jaunaren aunditasuna ta adizkidetasuna agertzeko biziera ona agertzea baño gauza egokiagorik. Gau ta egun egoten omen zan amonatxo ura Elizan; eta ¿uste al dezute zekustenak etzerala afituko? ¿uste al dezute etzutela bere kolkorako esango gutxi-gora bera onelatsu «Atxo-zaf au bai dala egitan Jaungoiko-zale; beti emen dakusgu; jotoi egin *erezatu* bakarik egingo ez balul biziera ona ere egiten bai du ordea.» Guk bada uste izan dezakegu amonatxo ura an ikusi ta, ikusleak gero ta geiago Jaungoikoz zaletuko zirala; ta alaxen izango zan noski; bada bestien gauza onak ikusteak guri ixilik esaten digu: «*Eta zuk befiz zef egiten dezuz?*»

N. a. m. Elizan otoizka egotea gauza ona da; bañan etxekeo lanak alde batera utzi ta elizan] «*egon eta egon*» egiten dutenak ez dute ondo egiten; ez bai du Jaunak ofelakorik nai.

Ana ura-alargun bai zegoen eta etxean zer egiñik gabe egongo bai zan, egon zitekean luzaro elizan; etxean befiz zer egiñiak eta gañera aurfak eduki ta, oiek alde

batera utzirik beti elizan sartuak dauden oiek, Jaunari atsegin eman beafean ez diote amofu baizik ematen; eta etxeakoak, auzokoak eta beren lepotik ez dute maf-maf besterik egingo. Gai ontan bada erne ebili beaf degu.

Amonatxo afek bada Jaunari eskef bero-beroak ematen zizkion. *Confitebatur Domino* ofek ori esan nai du beñipein; eta orixen dala gure eginkizuna esan ezkerro ez det uste ez dakizuten gauzarik esaten detanik. Elizak eta ortarako daude; ta elizan gaudenean ori egin beaf degu «Ana» ura gogoan degula.

Jaungoikoa gogo utsa (espiritua) danezkero toki, leku bazter guzietan dago ta, beragana nonai jo ta erebere deiak nonai entzun egiten ditugu; baño-non edo non maitekiago entzutekotan, **elizan** noski; eliza Jaunaren jauregi berezi-berezia bai da. Elizara juatekotan bada Jaunari otoiak eta eskefak ematera jo bear da; ta ortarako ez dijoazenak, elizak zertarako dauden ez daki-tela adierazten dute.

Bidenabar bederen ¿zer esango degu «sermoikoan» elizatik atera egiten diranaz? Kristauak: Jaungoikoaren itza entzun nai ez duen arima aurki ta uste ez duela ilko da; ta makaldurik erori egingo da; bada ¿nork ez ote daki janaririk artzen ez duena il egiten dala? ¿Ez al da bada pekatu-lafi-aundietan eroriko Jaunaren itzik entzun nai ez duena? ¡¡Aixa ala ere!!

Zorionekoak amaika aldiz gu, eliza Jaunaren etxea dala oarturik, bertara otoi egiteko joaten bagera. Gai au aipatu detanezkero ez dizutet onekin esan nai, otoiak egiteko iztunak edo itzontziak izan bear degula; ¡¡ez!! ez ofelakorik sinistu; Jaunak itzai baño biotz on eta eskaleari begiratzen dio ta. Otoitzetan, eskari, afenetan

agintari biotzak egon bear du; mingaňak ordea ez. Ona emen Agustin deunak gai ontaz esaten diguna: «*Sicut os hominis loquitur ad aures hominis, ita cor hominis ad aures Dei*» Mingaňak diona gizonak entzuten degun bezela, Jaunak biotzak diona entzuten du. Ořa fariseotara ta Publikano-Zergalari-gizonak. Lenenengoa itzon-tzi utsa; bestea befiz itz gutxikoa. Ez aztu gixaxo oni Jaunak entzun zionik. Jaunak naiago du ba «Pekataria naiz; eta nitaz eřuki bedi, Jauna» esaten duen Publikano apala, esan gogoangariak eta leunak esaten dituen fari-seotar afoa baňo.

III

Gero esaten digu Ebanjelioak Jesus, Jose ta Mari deunak Nazaret aldera jo zutela; ta aurtxo txikia jakituriz eta Jaunaren eskeřez beterik gero ta aundiagotzen ari zala.»

Zorionekoak gu ere gutaz beste-ainbeste esango balitzake.

«*Jesus azitzen arizala*». Ebanjelioak au esatean Agustin deunak esaten duenez esan nai omen digu, Jesus gu bezel-bezelakoa zala; ta gure aragia zeramala, baňo gogo, arima, zeukan aldetik Jaungoiko zanik ez omen degu aztu bear; beraz Jaungoiko zanezkero etziteken azi; ĩnola ote? Jaungoikoa azkengabekoa izan ezker?

N. a. m. Gu ere Jesus auřaren antzera urtietan auřeraka goaz eta ĩon-bidean ere urtien ariora auřeraka ote goaz? ¡Ez! zařago ta makurřago noski. Jaun eřukitsuak doan edo utsean eman dizkigun egun-aste-il-urteak, ontarte esker aundiak diranik ĩzertarako esan oiek ondo uztiatu edo (aprobetxatu) ezker? Jaunaren oldea

ala naia beteko degula baldin badakizute? Urteak bada igeska badijoazkigu ¿zergatik goaz gu befiz beti on-bidean atzeraka? Urteko azken-egun auetan galdetu bear diogu geron buruari *ea nola ote goazen*; eta «*mea culpa*» esan ondoan eskatu zaiogun Jaunari auferaka juateko ontarte-mesede-eskefa.

Jesus aurtxo txikia Nazaret eflan bizi omen zan; jakin orain guretzako Nazaret kristautasuna dala. Onak ez bagera efua (kulpa) gurea izango da; bada—Jaunak gure alde berak al duena egin eta—ez bagera obeak, ez da Jaunak laguntzen ez digulako izango; baizikan guk nai ez degulako.

Gure zaindariak edo babesleak Jesus, Jose ta Mari deunak dira; ta on-onak izan gaitezen ofatx non dauden Jesus onak gure onerako ipiñitako elizakoak. ¿Maiz artzen al dituzute? Aurten Jauna zenbat aldiz artu izan dezute? Zuen artean baldin badaude egunero Jauna artu egiten dutenak baita ere izango dira noski urtean bein bakafik Jauna artuko dutenak; ez det uste Jauna ofelakoekin pozik egongo danik. Badakizki bai Jaunak gure bafu-bafuko asmo-susmo-naiak; beti onak, zintzoak eta legezkoak izan ditezela bada. On-bidean auferaka ez bagoaz galduak gaude. Zoritzafekoak egun auetan auferaka juateko asmorik artzen ez duten kristauak. Urte befia badatorkigu; aurfian daukagu, ez burutik kendu urte-befia Jaunak efukitsu emana daukagunik; ¿datoñen urtean aurten baño obeak izango ote gera? Nai izatea beintzat al izatea da.

Ala izan bedi.



URTE BĒRIA

2.ª HOMILIA IN FESTO CIRCUNCIS.

I

Gauf zortzi gogoratu genduen Jesusen jaiocra; ta orduan aingeruak poz-ekarle izan ziran; gaur beřiz, aurtxo txikia negafez ikusiko degu ta agirian dago ez daudela aingeruak pozik; bada Jaunak negar badagi ¿nork negar egin ez?

«Zirkunzisioa» judu guziak artu egin bear zuten; legeak agintzen zien eta. Esaten badizutet orain jatofizko pekatua (originala) kendu egiten zuela esango didazute noski «¿Zergatik egin zioten Jesuseri *zirkunzisioa*? ¿Ez al zan bada Jaungoiko? Pekaturik izan ez eta *zirkunzisioa* egin?»

Egia diozute; Jesus ordea gizon antzean jaiocra izan zan; eta gure alde z lenbaitlen jasutzen (sufritzen) asinai zuen; eta *zirkunzisioa* egin ba-zioten ere, legea betetzen guri erakusteagatik artu nai izan zuen.

Izenez «Jesus» jafi zioten. Ez dizutet esan nai Andre Mari garbiak ta Jose deunak aurtxo txikia negafez ikusita biotza xamur-xamur edukiko zutela. Ofa Fefertar Bizente deunak jai ontaz dioguna: «Jesus aurtxo txikiak egun ortan ixuri egin zuen Jaungoiko odola Andre Mariak oial edo zapi garbi-garbi batean artu egin zuen» eta jafek orduan Jesus aufari esango ziozkan itz xamur

biguñak! Gaur zer edo zer esan nai dizutet «Jesus» itzontaz.

II

Jakobek aingeru batekin bofoka egin zuan; eta Jakobek aingeruari galdetu zionean ea zer izen ote zuen, aingeruak onela erantzun omen zion «*Cur quaeris nomen meum quod est admirabile*» (Gen. 32, 29). ¿Zergatik eta zertarako jakin nai dek nere izena? ¿Ez al dakik miragaría dala?

Jaunaren izena ain afigaría dalako etzeukan David éregek adierazteko izen egokirik; eta ofegatik esaten zuen «*Quam admirabile est nomen tuum in universa terra.*»

«Jesus» izen au Jaungoiko izena da; Betiko Aitak Semeari emandakoa da ta. ¿Afitu egingo al zerate esaten ba-dizutet «Jesus» izen onek badaukala etsai-deabruak pufukatzeke indafa? Ez noski; Mikel goi-aingeruak, aingeru afo-biuri-gaiztoak Jesusen izenean oinperatu, pufukatu ta zapaldu, ondatu egin zituela badakizute ta.

Gero gure Jaunaren jaraizaleak beren irakasle jaunakin jardukitzen zutenean ona ermen bein batean esan ziotena: «*Jauna zure izenean deabruak ere membratu egiten ditugu.*» Gure Jaunak ori entzun zuenean eratzun omen zien berealaxen: *Satanas deabrua tximista bezela ikusi nuen zerutik amilka erortzen.* Esan izan balie bezela: ¿Ofegatik afitzen al zerate? Ez afitu ez; bada etsai-deabruak *Satanas* buruzagi zala neronek nere izenean zerutik jaurtigi nituen. Beraz «Jesus» izen onek, etsaien aurka (kontra) asko dezake; «Jesu» izenean etsai guziak izu-ikaratu-ondatuak gelditzen bai dira; ofegatik Dabid igarleak esaten zuenean *Sanctum et te-*

rribile nomen ejus «Jesus» esan onen indar aundia adierazi nai izaten zuen.

Badatorkigu orain Justinianotar Lorenzo deuna esaten: «Etsaia bere eraso ta ekin-aldi ikaragafiakin noiz-bait ba datorkizu ez estutu; ez ofegatik bildufik izan: esaiozu etsalari: Etsaia itxas ekaitzari ta agintzen zion Jesusen izenean jut emendi! eta ez uste izan zu garailari aterako etzeranik.»

Bost dira «Jesus» itz onen izki (letrak); eta bost ere izan ziran Goliat gizon ikaragafi ura zapaltzeko Dabid artzaiak artu zituen afiak. «Jesus» izen aundi eder zoragafi onek dituen bost izki indartsuaren laguntzakin etsai-deabru guziak ¿guk garaitu ez? ¿oso efax ala ere!

III

Ez baderabilgu Jesusen izena maiz ezpañetan ez degu kristau on geranik adiraziko; ta ¿zertarako adirazi ta esan afen ondurako beaf-beafezko zaigula? ¿Ez aldakizute ba «*Omnis enim quicumque invocaverit nomen Domini salvus erit?*» Jaunaren izena ezpañean darabile-na *salbatu* egingo dala?

N. a. m. Ez da munduan izan «Judas» baño giza txaragorik. Oartu bere Jauna juduai saldu egin zienean Judasek aiei esandako itz auek «*Zenbat emango didazute*» ori «*zuen menpean jartzeagatik?*» Oartu nola etzuen esan «*Jesus zuen menpean jartzeagatik*» *baizik jgizon ori!* *zuen menpean jartzeagatiz.*

?Zergatik etzuen bada esan «Jesus?» Entzun: jakin-gafia da ta.

Judas zital zekenak «*ori: gizon ori*» esan beatean «Jesus» izen maitetsu-bigun-goza esan izan bazuen,

ez omen zuen egindako saldukeririk beñere egingo; ala dio beñepein jakintsu batek; baño ez baizuen «*Jesusen*» izenik aipatu ere, ofegatik «*Jesus*» esan beaŕean «*ori; gizon ori*» esan omen zuen.

Arestian entzun dezute «*Jesus*» izen au ezpañetan darabilena zeruratu ala *salbatu* egingo dala; ez gero uste izan izen ori oarkabean darabilena *salbatuko* danik; bada zeruratzeko «*Jesus*» izen eztitsua batez ere biotz biotzez esan eta biotzean josirik eraman egin beaŕ dala egi aundia da.

III

«*Jesus*» izen onek etsai guziak garaitu egiten ditu; beraz gauza guziak bere aŕean aozpezturik erori egiten dira; «*omne genu flectatur*» belaunikatu egiten dira ta. Guziak badakigu zenbat zezakean Jesusek zeruan ¿nork ez ote daki zeruko eguzkia *Jesus* dala? «*Jesus*» izena zeruan entzun ala zerutafak pozaren pozez omen daude; ta inpernuan aditu ta inpernuko etsaiak bildufikaraz daŕ-daŕ jartzen omen dira.

Begira «*Jesus*» kristau guzientzako zein itz eztitsua dan, eta begira ere nola dabiltzan *misiolariak* eta mundu baŕenean «*Jesus*» izena zabaltzen edo predikatzen.

Bageneki Bernardino deunak «*Jesus*» izenean zenbat eta zenbat pekatari biufi on-biurtu ta zerurako irabazi zituen, aoa zabalik geldituko giñate apike.

Deun (santu) en bizitzak oso aŕigafiak dira; ta aiek egindako alatzak (milagroak) befiz aŕigafiagoak noski; Jasinto, Raimundo, Birino, Martiniano ta beste deun asko itxaso-gañean, bide beŕi zabal batean bezela, ibiltzen ikusten ditugunean esan dezakegu: ¿*Zenek ematen ote zien ofela ibiltzeko eskubidea?* «*Jesus*» onak; *n. a. m., Jesusen laguntzak; Jesusen adishidetasunak.*

Beste deun batzuek su gañean efe gabe ikusirik galdetu diteke: ¿Zergatik ote ofela? ¿zer? ¿Ez al daki-zute «Jesus» izenak eřetzeko indařa suari kentzen ziola? Krisostomo deunak dionez munduan egin izan diran gauza afigafiak «Jesus» izenean egin omen dira, ta ona emen deun jakintsu ařek Josue juduen gidari azkafaz jardukitzean esaten dituen itzak: *Josuen garaian itxa-soak eta ibaiak legortu egiten ziran* eta uri aundi sendoak beren ařotxak (muralak) pufukatuaz befiz Josue-ren menpean gelditu; eta eguzkiari ere agintzen zion gelditzeko; ta ařek nai zuen guzia lortzen zuen ¿zergatik ote? «Jesus» izenean.

Esan orain «Jesus» onaz esan ditezken gauzarik aundienak; eta jakin ez dirala ezertxore «Jesus» izen onek bakafik esan nai duen ondoan; bada «Jesus» bakafik esan eta-esaten oi dira Jaunaz esan ditezken gauzarik aundienak.

Badakizutelako ez dizutet esango gure Jauna mundura bařo lenago deabrua agintari zegoela; ta Delfos, Lesbos, Delos, Efeso, ta beste lekuetako gezufezko Jaungoikotxoeren bitartez deabruak mundutafakin jardukitzen zuela; bařo «Jesusen» izena munduan ezagutu zanean, Jaunak agindu ta aiek guziak ixildu egin ziran. ¿Guk orain zer egin ote? Ez dezakegu Jesus onagatik Bernardo, Bernardino ta Teresa deunak ařako lanik egin, bařo Jaunaz gaizki esaten danean, eta birauak entzuten ditugunean ¿ez al gera Jaunaren alde jafiko? Begira gero gu lotsatu egiten bagera, baita ere Jauna gutaz lotsatu egingo dala. ¿Ofelakorik gertatuko ote zaigu? Ez noski.

Ala izan bedi.

EREGE - EGUNA

2. HOMILIA IN FESTO EPIPHANIAE (Matth. 2)

I

Kristauen artean jai au audienetakoa bezela egi-
ten da. Jesus aurtxo txikia jaio ta lenengo egun aietan
etzekien ifiork bere befirik; ofegatik garai artan bizi
ziranak deritzaizkit, ufezko meatza (mina) bat non arki-
tzen ote dan ez dakiten antzekoak.

¡¡Ura juduentzako lotsa!! Jesus nor zan jakiteko, ta
aurtxo txiki ura egiazko Jaungoikoa zala adierazteko
magoen beafa izan bear. ¡¡Ura lotsa!!

«Epiphania» deritzaio gaurko egun oni; ta itz onek
esan nai du: *Jauna agertu zan eguna*; bere auditasu-
na ta Jauntasuna Jesus onak gaurko egunean agertu
nai izan zuen eta.

Gaur jakin izan zuen munduak Jauna bere artean
zeukala; ta Magoak befiz, aurtxo txiki ura Jaungoiko za-
la besteak baño obekigo zekitelako, Belen aldera beren
Jaungoikoari gur egitera juan ziran.

Beren maite-erakutsiak Jesus aurtxoari eskeñi ta
¡¡jura magoak artu egingo zuten poza!! Jaunak befiz or-
daiñez aien biotza esker mesede ontarte ugariz beteko
zuen noski; ta efegeak Jaunari emandako gauzak ede-
fak izan baziran ere, Jaunak ordaiñez eman zizkienak
aundiagoak eta txit edefagoak izango ziran nunbait.

Zorionekoak baita ere gaur beren biotz-gogo-ari-
ma oso-oso Jaunari ematen dioten kristauak.

Gaurko itzaldiak iru zatitxo izango ditu. Lenengoan
Magoai agertutako izafaz itz egingo dizutet.

Bigafenekoa Jerusalemen iru efegeai gertatuta-
koaz.

Irugafenekoa beñiz Belengo estalpeaz.

II

¡¡Magoak!! Ez du itz onek esan nai sorginkeriak
eta egiten dituzten gizonak.

Faraonenean zeuden gizontxo aiek ofelakoxeak zi-
ran bai; baño ez dira gure mago auek iru efege on-jakin-
tsu ta zintzoak besterik; eta gure artean eta Ebanjelioak
<iru mago> esatea, *iru efege jakin jakintsu* esatea be-
zelaxen da.

Jakintsuak ziralako berealaxen izafa agertu orduko
ezagutu izan zuten izar befi aiek adierazi nai zuena; ta
ofegatik izar edefari jafaitu ta Belen aldera jo zuten.

Bazekiten bai nolakoa zan izar ura, bada Herodes
eroak ea zergatikan jo izan zuten Jerusalem aldera gal-
de-egin zitetenean, onela erantzun omen zioten: <*Sort-
aldean bere izar edefa ikusi bai degu;*> beraz esan one-
kin adierazi nai izan zuten etzala berak ikusitako izar
ura besteak bezelakoa; Jaunak berariz agertu-erazita-
koa zala ta.

Orain norbaitek esan dezake: <Baño ¿ez al da Jaun
ber-bera izar guzien agintaria?> Bai; alaxen da; iru efe-
gek ikusi izan zuten izafa ordea txit berezia zan; bada
Jaunak agertu-erazi izan zuen munduko guziaz adieraz-
teko Mesias edo etorkizun zegoen Jauna jaio egin zala.

Etzuen ez munduak izar ura ezagutu; ta iru efegeak

beñiz ikusi orduko esan zioten beren buruari: «Auxen, auxen dek *Mesias* jaiotzekoan agerkizun zegoen izafa; Jaio zaiguk geroztik *Mesias*; eta goazen Belen-aldera.»

Gavisi sunt gaudio magno. Gaurko Ebanjelioko itz auek esan nai digute iru eñegek, izafa ikusi ta, poza-ren pozez zeudela: ta ¿bai al dakizute zergatik? Jesus jaio zala jakin izan zutelako.

Oso gogoangafia da Bernardo deunak gai ontaz esaten duena. *Stellam videbant, stellam habebant*, esaten du deun eztitsu arek.

Iru eñegek gorputzezko begiz ikusten omen zuten izafa; baño arimazko begiz Jaungoikoa; ta Jaungoikoa gizon egiña gañera.

Au guzia jakin eta, esan zaiogun gure buruari: Gauza guziak, eguzki-ilargi-izar-odei-menditontor-zelai-itxaso-eñekak mutu badaude ere, esaten didate: «Ibili adi beti Jesusen bila.»

N. a. m., Meltxor eta Gaspar eta Baltasar eñegek ekin zioten Belen aldeko bideari; ta jafaitu zioten izafari Belen-arteraño.

Izadi osoak Jaunagana garama; batez ere ortarako (esan nai det) Jaunagana eramateko ditugu gure Goi-ko Jaun onak gure onerako bidaltzen dizkigun argiak edo inspirazioak; jafaitu beti berai; Jaunagana garamate ta.

III

Magoak izar edefa gidari zutela bideari zintzo zintzo ekin ondoan, Jerusalemenera iritxi ziran; eta Erodeseñean zeudelarik Jesus aurtxoaz galdetu zuten; eta izafa beñiz bitarte edo une artan eskutatu omen zan. ¿Zergatik ote eskutatu?

Agustin deunak dionez izar eder ura *lingua caelorum* omen zan; eta efegeai esaten omen zien Jesus jaiò egin zala; ta gero Mesias ez erosoago itz egin zezaten eskutatu omen zan.

Jaunaren jaiotza artzaiak jakin erazteko aingeru talde eder bat bidali zuen betiko Aitak; iru efegeai befiz izar bat bidali zien; eta gero Erodesek eta bere menpekoak ere jakin zezaten Mesias jaiò zala, bidali zizkien berai iru efege. Auek Jerusalemene zeudela txit ausartiak zeuden; bada oso ausarki galdetzen zuten «*ea non ote zegoen efege jaiò-beñia.*»

Ofelako galdera entzun da zer esango ote zuen Erodesek? eta çjudu zitalak befiz? *Zesar* besterik efegetzat nai etzutenak, ofelako galdera entzun da, zer esango ote zuten? *Gure efegea jaiò omen da. Zer efege dek ori?*

Gero iru efegeak esaten omen zieten aiei: ¡¡Bai!! ¡¡bai!! Jaiò da gure efegea. *Vidimus stellam ejus...* ta jaiò dalako ta bere izar edefa guk ikusi degulako *berari gur egitera gatoz.*

Artu itzagun guk esan auek era edo gisa ontan ba-leude bezelaxen: «Ez gera gu alderdi ontakoak; sor-aldean jaiòak bai gera. Zerbait ikusi degu; baita ikasi ere, ta Mesias etorkizun dagola liburu deunak bai dio, igar-leak gaztigatutako Mesiasen izar beñia guk ikusi izan degu; ta egia da beraz Mesias jaiò dala; ofegatik ba *Venimus adorare eum; Berari gur egitera eldu gera orain.*»

Oartu Krisologo deunak diona: Etzuten ez iru efegeak ea Mesias jaiò ote zan galdetzen; baizik ea non ote zegoen; eta galdera onek lotsa aundia eman bear zien juduai; bere efegea jaiò ta, jaiò zanik ere ez baizekiten.

Krisologo deunari entzun nai badiogu befiz, ona emen berak dionez Magoak juduai esan nai zieten: «¿Zergatik dago zuen efegea estalpe batean? ¿Ez ote du bere bizitzak dan baño askoz edefago izan bear? ¿Zergatik ez diozute erian ostaturik eman izan nai?»

Iru efegeak bada Jerusalenen oso sutsu egon ziran; beraz guk ere Jaungoiko gure Jaunaz jarduki edo mintzatu bear degunean ikasi bear degu ez lotsarik izaten. ¿Zergatikan ote lotsatu? Menpekoak, mofoiak, seme-alabak eta beren agintari, jabe ta gurasoaz itz egitean lotsatu egiten ote dira?

Gero esaten digu Krisologo deunak: *Venimus adorare eum, magoak* esan zutenean, jakinerazi nai zutela Jaunagatik odola ixurtzeko ta bizitza emateko ere prest zeudela.

Erodes eta aren menpekoak iru efegeai entzun da asko bildurtu omen ziran; *Herodes turbatus est et omnis Hierosolyma cum eo* (Mat. 2). ¡¡Gixaxoak!! ¿Mesias mundura zalako bildurtu?

IV

Salomon jakintsu atigafia zalata Saba'ko efegifiak ori jakin zuenean, jo omen zuen Salomon ikustera. Iru efegeak befiz Mesias jaio zala ta jo zuten bai Belen aldera, ez ordea Jesus aurtxoak ikusteko bakafik, aufari gur egiteko balzik.

Aurtxo txikia zegoen lekura iritxi ala *proidentes* aozpezturik, *adoraverunt eum*, gur egin zioten.

Badakigu etzutela Magoak esku utsik Belen aldera jo; Persatafak oi zuten gisara, Jaunari maite-erakutsi edefak egin zizkiotela esaten bai digu gaurko Ebanjelioak.

Magoak aurtxoari eskeiñitako kedatzak (inzienzoa) aien bere-biziko fedea esan nai du; ufeak eta mifak be-fiz aurtxo txikiaren efegetza ta gizontza.

Guk orain ¿zer eskeiñiko ote diogu? Zorionekoak gure biotz-oso-osoan ematen badiogu, biotz-garbi-garbia da beñiepein eman dezaiokegun gauzarik edereña.

Oñela egin ezker Jaunari atsegin aundia emango diogu; ta Goiko Jaun onak Magoen antzekoak ikusten bagaitu, aiek bezela egiatzko poz-atsegiñez bete egingo gaitu.

Ala izan bedi.



EREGE ONDOKO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. INFRA OCT. EPIPH.

I

Ez da amazko biotza bezelakorik. Ez diteke beraz arkitu biotz gogofeko amarik; eta balitz, ez litzaioke «ama» onelako izen zoragaririk eman bear; ama guziak biotz legun-bigunekoak dira ta.

Kain zitalak Abel zintzoa il zuenean, negar zerion Eba gaixoak.

Ona beste ama bat basamortuan negar mafasketan. ¿Zergatik ba? Ismael bere semea il-zorian daukala ta.

Eta egunero mendi tontof artara seme kutuna nondik ote datorkion ikustera dijoan amatxo ura zein ote da? Ana; ta Tobiasen ama zoragarria danik ez aztu. Semea ufun-ufun juana dauka; badaki bere aideakin eta dagola; ala ere onelaxen dio: ¿Non ote zaude, enetxoa? ¿Zertan ari ote zera orain? ¿Zer bideari ekingo ote diozu onerakoan?

Gogoratu Rakel; eta bere Jose ta Benjamin berakin etzeudelako negafez dakusgu. Egia da ama guziak biotz beratx-beratxa dutela; baño Andre Mari garbiaren biotz ondoan ¿zer ote dira amazko biotz-guziak? ¿Nor ote Andre Mariak Jesus aña beren semeak maite izan dituen ama?

Txit jakingafiak dira gaurko Ebanjelioak dakarzkien befiak.

Jesus amabi urtekoa zala ta Jerusalemen galdu zala ta... «entzun» «entzun» Jose ta Mariak ziotena; oso minduak dabilta, negar dariote. Azkenean Jerusalemgo eliza-nagusian ikusi ta arkitu izan dute; ta ona emen Andre Mariak semeari diona.

II

Bezeneki, enetxoa, zu gurekin egon ez ta ofegatik izan ditugun istiluak. Gau ta egun zere bila ibili gera. ¿Zergatik egin izan dezu ofela?

Ebanjelioak onela dio: «Amak esan zion.» Geroztik Andre Maria Jesusen ama garbia zan eta beraz Jesus Jaungoikoa Andre Mariaren semea.

Amak semeari esandako itzak ez dira asefetako itzak; eta etzion amak efietan semeari eman izan nai.

Arestian esandako Andre Mariaren itzak era ontan esanak bezelaxen artu beaf ditugu: «Enetxoa, badakizu zenbat eta zenbat maite zaitugun, zu gabe ezin gu bizi; bazeneki bada zu galdu ta izan ditugun gau ta egunak.» Ez dute, n. a. m., onelako itz xamufak kopet ilunik adierazten, egundaño entzun ditezken esan xamuf-xamufak bai dira.

«Zure ordezko aita ta ni negar-malko saminez be-terik zure bila ibili gera.»

Amak esaera onekin adierazi nai izan zion aulari, Bera gabe egon eta artu izan zuten miñ atsekabea aulari zioten maitasunaren ariorakoa edo neufikoa zala; etzutela iñork berak aña maite; ta galdu zutelako edukitako miñ atsekabea neufi-gabea zala.

Andre Mariak Joseri «Jesusen aita» deitzen dio; ta

«ordezko aita» zala jakin aŕen ala ere bere ezkon deunari gorespen eta aunditasun geiago emateagatik «Jesusen aita» esaten dio. «Ori Mariaren apaltasuna» dio Agustin deunak. Bere baitan al guzia daukan Jaunaren ama garbia Maria izanaz, Jose deunaren izena berea baŕio lenago jartzen du: *Ecce pater tuus et ego*, gaurko Ebanjelioak esaten bai du.

Betoz orain senar-emazteak Mariak Jose deunari dion begiramentu ta itzala ikustera; ta ikasi dezatela senafa biotz biotzez maite izaten. Ezkondu ziiŕate-nean esan zizuten apaiz jaunak: «Aŕ zazu senafa Jaungoiko ordekotzat; eta egin beti bere aginduak.» Ez du esan onek esan nai emazteak neskatx mofoi izan beaŕ duenik, ez; Jaunak senafari emakumea laguntzat ematen dio ta.

Etxetan eta izaten diran ezdabaidak non ote daukaten itufia eŕax jakin diteke; ta jakiteko ikusi zef nolako izakera duten senaŕ-emazteak.

Senafak beti agintari egon nai ezkerro ta emaztea beŕiz berekoia izan da, ez ditezke pakean bizi; eta seme alabak zer ikasiko ote dute? Elkaŕen utsak nunbait eraman onean eraman beaŕ badira etxean noski. Maiz dagokie senaŕ-emazteai «ez ikusi» ta «ez entzun» egitea; ofela pakea izaten bai da.

Bazenekiten lenagotik ezkontza uztari astuna zala ta ezkondu baŕio lenago esan zizuten ezkontza askatzeko ta austeko koropiŕo gaitza zala; eraman beraz elkaŕen neke atsekabeak eroapen (pazienzi) aundiz.

Etxe askotara eramaten da sendi deuna (sagrada familia); ta txit txalogafia da oitura ori; baŕio bere aŕfean pixtutako argizariak eta esaten diran otoitzak baŕio zer al deritzaizute obeago Jesus Maria ta Jose deuna-

ren antz-bidea (imitazioa)? Beraz sendi deunak etxeko otoiitzak baño naiago du elkar arteko pakea.

III

Andre Mariak bere enetxoari itz eztitsu aiek esan ziozkanean erantzun omen zion Jesusek: «¿Nere bila ibili zeratela? ¿Zergatik ba? Ez ote zenekiten dagokidala neri nere Betiko Aitaren agindua betetzea?»

Itz auek guk biotz biotzean gorde egin bea ditugunak dira. Etzien Jesusek esan nai bere bila ibili ta gaizki aritu ziranik; baizik Berak Betiko Aitaren esanak batez ere egin bea zituela.

Baditugu guk ere mundu ontan gurasoak; goian ordea dago gurasoak baño gurasoago zaigun Jaun ona. Gurasoak asko maite bea dira; Jauna ordea gurasoak baño geiago. Gurasoen aginduak beti egin bea dira; Jaunarenak befiz gurasoenak baña lenago.

Galde egin gazte askoi, ea zergatik uzten ote dituzten beren gurasoak, anai-afebak, ondasunak eta munduko gauzak; eta erantzungo digute Jaunaren agindua egin nai dutelako.

¿Ez al dakizute Jesus onaren antzera oiei ere dago kiela Jaunaren deia entzutea?

Gero Jose ta Mari garbi-garbiak Jesusen esan ura etzutela ulertu ta afitzen bagera, onekin adieraziko genduke ez dakigula zein sakon-sakonak diran Jaungoiko gure Jaunaren esanak eta erabakiak. Afezkeroztik Jose deuna ta Mari garbiaren adimena ta biotza egunsenti gozoaren antzera gero ta geiago edertzen asi ziran; eta geroxeago Jaunaren eguzki legun antzeko jakinduriak argitu ta kiskaldu izan zituenean, orduan ulertu edo aditu izan zituzten Jesus aufaren esan eta egite guziak.

V

«Iruak elkartu ta Nazaretera jo zuten; eta Jesus Jose ta Mariaren menpean Nazareten bizitu zan».

Badakigu ba orain non bizitu zan sendi deuna; baita ere badakigu Jesus Jose ta Mariarentzat gazte ona ta zintzo-zintzoa izan zala; ez ditugu gero aztu bear esan auk: «Jesus Jaungoikoaren begietan jakituriz eta adiñean auferaka zijoan.» ¿Gutaz noiz esango ote da ori? Urtietan gero ta lasterka goazen bitartean, onbidean ¿nola ote goaz? Atzeraka noski.

Seme alabak ondo juango dira «Et erat subditus illis» beraz esaten baldin bada. Orduan gurasoen esaneko izatea gaztientzako on-bidean ondo ala txarki ote dijoazen ezagutzeko biderik egokiena da. Gurasoen esanekoa (obediente) dan seme-alaba ondo dijoa; baita Jaunaren esanekoa dan kristaua ere.

Ezin geiago estu lafitu omen ziran Jose ta Maria Jesus galdu ta. Pekatu egin da Jesus Jaungoikoa galdu egiten degula ta orduan ez bazera kezka betetzen ijene!!

Pekatu egin da Jaunak gugandik iges egiten du ta zorigaiztokoak Bere bila ez bagabiltz!! Zorionekoak Jaunaren bila dabiltzanak.

Ala izan bedi.



EREGE ONDOKO BIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 2.ª POST EPIPH.

I

Gaur ikusiko degu Jesus ona Galileako «Kana» deritzaion efian.

«Kana» itz au entzun orduko badatozkigu gogora an izandako ezteiak; eta guziak dakigu eztei aietan gertatutakoa: Maikideak ardorik gabe gelditu zirala ta Jaunak bere amak eskatu ta ura ardo goxo biurtu zuela. Gure Jaunak eztei-aietara jua da ezteiak deundu (santifikatu) nai izan zituen.

¡¡Jauna bada nonai ongile!! ¡¡beti on egiten!!

II

Jesusek agindu zien mofoiai ur-ontziak urez betetzeko; ta mofoiak bete egin zituzten; eta Jesus onak ardo biurtu zuen ur-ura. Gero guziak jakin zezaten gauza miragafi bat egin zuela, «Haurite nunc» esanaz agindu zien guziaz edateko; ta guziak edan zuten; dirudienez mofoiak lenbizi; ta gero esan zien, mofoiai mai-buru egiten zuenari eramateko. Mofoiak dastatu (probatu) orduko oartu zuten Jaunak ura ardo biurtu zuela; ta txit afituak gelditu ziran.

Gizonezko gauzak, afigafiak badira ere, pitin-pitinka, poliki-poliki egiten dira; gaur piska bat; biyar beste pi-

tin bat; eta ofelaxen guzia. Jaunak befiz gauza miragafienak izan da ere bat-batean egiten ditu: «Sortu bedi argia» esan orduko argia sortu egin zan; «ura ardo biurtu bedi» ta ardo-biurtu zan ura.

Guziak ardo ura dastatu ala ezagutu zuten Jaunak bere eskubide aundiakin alatz aundi-aundi bat egin zuela. Guk ere egunero meza erdikoan ofelako gauza miragafia ikusten degu; bada ¿nork ez ote daki apaiz-jaunak Jesus onak azkeneko aparian esandako itz-berberak esan da, ogia Bere gorputz, eta ardoa befiz Bere odol biurtu egiten dituela?

Guk ori guzia sifiisten degu; ta gure baitan esaten degu: «Jesus onak Jaungoiko zalako bazeukan Kanar ura ardo biurtzeko eskubidea; baita apaiz-jaunak ere Jesus Jaungoikoaren izenean ogia Jaunaren gorputz eta ardoa Jaungoikoaren odol biurtu dezakete.» Mai-buruak ardoa dastatu (probatu) ondoan onela esan omen zien ezkonbefiai.

III

«Gaurdaño ardorik onena bazkari-asieran jafi izan da; ta maikideak poliki edan ondoan orduan ekafi izan da ain ona ez dana; zuek ordea ez dezute ofela egin: lenik txafena ta gero onena eman diguzute ta.»

Krisostomo deunak esaten du Jaunak gauza miragafiak egiten zituenean gauza guziak ziran baño askoz obeagoak biurtzen zituela. Ortarako zan Jaungoikoa; ta Jaungoiko zalako ta dalako, atsegin zaizkio beraz gauza onak eta edefak; eta bere eskuz ikutu egiten duen guzia ondu ta edertu egiten omen da.

Pekatarari geranezkero bagenekiki pekatuak ematen digun itxuskeria ta nazkagaritasuna nolakoa dan!! Jaunak:

pekatuentzako gofoto aundia du; ez du ez ta ikusi nai ere. Baño pekatariak nai ezkerro ta Jaun erukitsuari biotz-biotzez eskatu ta Jaunak gure biotzean miragafi bat egin dezake; gure arima edertu dezake ta. Guk ordea ori biotzez eskatu ta nai izan bear; bada nai ez bagendu, ez bai luke Jaunak ofelakorik egingo; ofegatik bada Agustin deunaren esan eder au: «Qui fecit te sine te, non salvabit te sine te» esan nai du: Jaunak ifioren beafik gabe egin zaitu; etzaitu ordea zure beafik gabe zeruratuko; ontarako zure beafa badauka; ta zuk egin-alak egin bear ko. ¡¡Zein ederki ematen duen David igarleak «*Cor mundum crea in me Deus*, Eman zaidazu Jauna biotz garbi-garbi bat» Jaun erukitsuari apal-palki eskatzen dionean!!

IV

Ebanjelioko esan onek «Lenik ardo-onena jartzen da; gero txafena» asko baño asko erakusten digu.

Gure etsaiak gauza atsegingafiak eskeintzen dizkigunik ez zalantzan jafi ere; ardo goxo-goxoa eskeintzen digu noski; gero ordea datorkigu txafena; bada pekatuak ematen dizkigun miñ-atsekabeak oso samiñak diranik ¿zeñek ez ote daki? Etsaiak lenik gauza goxoak eskeintzen baditu, azkenean ematen ditu egun gofi-gofiak eta naigabe aundiak. ¡¡Erne egon bada!!

Jaunak betiz ez du onelakorik egiten. Mundu ontakoak ez gerala ta munduan ito ez gaitezen, lenik bidaltzen dizkigu arantza zofotzak, bañan ez estutu, kristauak, afosa edefak arantzen artean egoten bai dira. Mundu ontan bidaliko dizkigu bai Jaunak naigabeak eta; baño azkenean arkituko degu ardo ona, egiazko atsegiña, betiko pakea, zeru edefa. Kanako ezteietan

Jaunak ardo ona azkenerako nai izan bazuen, baita gu-
retzako ere ori bera nai du; obe zaigu beraz mundu on-
tan ardo-txafa edan eta gauza guziak eraman onean
eraman.

Lazaro gixaxoak munduan negar zerion; Epulonek
befiz poz-alaitasuna; beste munduan ordea Lazarok
poz-dario, Epulonek beriz negafa ta txit samiaña gañera.

V

Jaunak egindako lenengo alatza (milagroa) Kana-
koa omen zan; geroxeago ikaragafiak egin izan zituen.

Eta ¿zertarako dira alatzak? Fedea gero ta geiago
sendotzeko noski; bada gauza miragafiak ikusi ta gaiz-
toak ondu egiten dira; onak befiz obetu.

Antziñ-antziñeko kristau garai aietan alatzak egun
auetan baño bear bearezkoagoak ziran; eta ofegatik
lenago gaur baño alatz geiago ikusten zan. Garai arta-
ko fedea landaratxo me ta lore zimeltxo antzekoa bai
zan; beraz loreak eta aunditzeko ta sendotzeko ur go-
zoa bear duten gisara fedeak ere lenago *milagroen* urgo-
zoa bear izan zuen; ofegatik ba lenagoko alatz ugariak.

Ez dira egiazko kristauak on-bidean irauteko ta
ibiltzeko gauza miragafiak bear dituztenak.

Ez degu guk sinisteko alatzik bear; egunero bai di-
tugu. Ortzean (firmamentuan) egunero agertzen zaiz-
kigun eguzki ilargi izafak esaten digute Jaunaren egin-
tzak dirala; ta mezakoa ikusi ta jakin ondoan ¿zer alatz
bear degu geiago?

Gauza guziak gure onerako dira; esker-gabeak izan
ezkero obe jaió ez bagiaña.

Jaunak gorde gaitzala.

Ala izan bedi.

EREGE ONDOKO IRUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 3.ª POST EPIPH.

I

Gaurko Ebanjelioak esaten digun legenarduna bere burua garbi-garbi ikusi ta bai poztuko zala. Lenago bere efikidengandik ufuti bizi bear; eta sendatu ondoan... ¡¡berien artean!! ¡¡jura poza!! Lenago gaitz nazkagafia-kin egon eta gero... ¡¡iñoiz ezer izan ez balu bezela gelditu ¡zer alaitasuna!!

Legenardun gixaxo afeak Jesus sendagiñe on utsa ikusi zuenean esan omen zion: «Zuk nai ezkerro, zein garbi geldituko nintzake, Jauna!!» Jaunak maite maiteki begiratu ondoan eskuz ikutu ta erantzun omen zion: «Nai det bada; sendatu zaitetz» eta sendatu egin zan legenarduna. Gero esan omen zion gure Jaunak: «Ez gero iñori esan ¿e? Jo apaizagana; ta adierazi berari guzia; legean agindua dagona emanaz.»

Garai artan legenardunen bat sendatu egiten zanean apaizak jakin-erazi bear omen zuen sendatu ta zegoela; ta arezkeroztik bizi omen zitekean gixaxoa bestien artean; bestela ez; legean debekatua zegoela ta.

Ofegatik bada legean galerazia ta debekatua zegoe-lako, Maria Moisesen afebak legenar gaitzak jo egin zunean, bizi bear izan zuen gaitzak joak bizitzen ziran toki-leku ufutian. Mafmafa geroztik gaitz ikaragafia da;

bada Jaunak Maria, marmar egin zuelako, ofela zeatu (kastigatu) zuen.

Oartu legenardunak Jaunari egin izan zion eskaria: «Zuk nai ezkeru, oraintxe bertan sendatu egjngo nintzake, Jauna.»

Guk ere onelako eskari otoitzak egin bear dizkiogu Jaunari beti esanaz «*Zuk nai ezkeru,*» bada onela esan da, *on bazait eman zaidazu* esaten bai da.

II

Gaurko Ebanjelioak badakar ondo baño obekigo eldu zaigun beste zatitxo bat ere. Badakizkigu Zenturionen befiak; mofoi bat iletsia zeukala ta Jaunak aren etxera juan gabe sendatu zezaiokela ta ori guzia aspal-ditik ikasia daukagu. Zenturion gixaxoak orduan Jaunari esandako itzak txit edefak izango ziran nunbait; kristauak *Jauna artzekoan* esaten bai ditugu. Ona: *Jauna: ez nais ni iñor zu nere. etxetxoan sartzeko; esan ordea itz bat bederen; eta nere mofitxoia sendatu egingo da.*

Gure Jaunak onelako gizon sinismen aundikoa ikusi zuenean bere jafaizalei esan omen zien oso afitu ta zegoela, *Israel oso-osoan ain gizon fededunik arkitu etzuela ta.*

Norbaitek bere biziko fedea izatekotan Israeldafak noski; bada Jaunak nunbait miragafiak eta egin izan bazituen, Israelen izan zan; eta Israeldafen artean egin izan zituen.

¡¡Ura judu ta Israeldafentzako lotsa!! Aiek ainbeste-ko mesede esker eta ontarte Jaunaren eskutik artu izan, eta gañera Jesus beren erikide izan afen, jentil batek fedean irabazi ¡¡jura lotsa!!

N. a. m., Jaunari eskefak euskaldunak gera, Euskal-erian jaiok gera ta; zañetan bada odol-euskotafa daramagu. Euskaldun guziak biotz ona izan bear degu. Agirian dago Jaunak maite gaitula; guraso on-zintzo eta kristauak izan ditugu ta.

Ez gero iñork ukatu *erlijioa* gure erietan iñon baño obeto erakusten danik; eta agiri zabalean esan euskalduna sortzen danetik Jaungoiko-zale sortu egiten dala.

«*Filii sanctorum sumus*» esan dezakegu beraz. ¡Ura lotsa! Jaunak gutaz ere esango balu: «Ez det Euskal-efi oso-osoa *kanpotar* au añako fededunik arkitu.»

Euskaldun maiteak: Asko eman zaigu; Jaunak bada ordaiñez asko eskatuko digu. Ez da ez aski «*Euskaldunak gera; fededunak gera*» esatea. Abrahamen seme-alabak—Jaunak dionez—Abrahamek egindakoa egin bear omen dute ta.

Txoko polit-eder ontan jaiok geralako ta kristauak geranezkero Jannari esker bero-beroak eman bear dizkiogu bai; baño ez da aski ori; fedeak agintzen diguna egitea bear-beafezkoa zaigu ta. Ez uste izan *fedea* *bakarik* zeruratuko gaituenik; zerurako batez ere egin onak bear bai dira: ona bada emen euskaldunai dagokiguna: Zaindu, gorde beti beti gure oitura onak: iraun beti gure antziñekoak bezela on-bidean; eta ortarako anai-afeba zintzoak elkar maite izaten duten bezela, elkar maite dezagun guziak. ¿Nola ordea? Gure ontasuna guziaz erakutsiaz; ikasbide onak emanaz; ta kristau okituak izanaz.

Euskaldunen bat dagon lekuan ezagutu dedila euskalduna bere ontasunagatik; bere zintzotasunagatik; bere maitegafitasun eta biotz edefagatik.

Birau zikiñiak eta esan loiak kristauen artean oso gaizki ta itxusi ta afas txarki daude; askoz gaizkiago ta

txarkiago daude euskaldunen artean; ez bai du gure euskera zoragafiak birau zikiñik, itz urderik. ¡Utikan ba gugandik euskaldun ustelak, eta kristau txar-gaiztoak! ez baditugu guk nai, Jaungoikoak gutxiago nai ditu ta.

III

«Kanpotar asko etofi ta exeriko dira Isak eta Jakoben ondoan; eritafak befiz negar eta otz-ikara dagon lekura jaurtigi edo botako dira». ¡¡Ori esan ikaragafia!! ¿Zer esan nai ote digu Jaunak esan onekin? Jesus onak zerurako nai gaituela, ta bere efikideak judu zitalak eta ajol-gabeak zirala ta Jaunari miñ ematen zion onek; eta kanpokoak bere efikoak baño obeak ziralako, miñez beterik esan zituen itz oiek. Guretzako ere dira esan ikaragafi oiek; bada norbaitek ona, fededuna izatekotan guk izan bear genduke.

Badira Txina ta Japon-aldean, guk añako erakus-biderik eduki ez afen, gu baño obeak diranak; eta oiek zeruan goi-goi toki garaian gu baño gorago egongo dira; gu befiz lotsa dariogula bei-beian; otza ta negafa dagon leku ikaragafian; Jaunak norberari munduan irabazi izan duen neufiko saria emango bai dio.

IV

¡«*Egitan esaten dizutet ez detala Israel osoan gizon au añako fededunik arkitu*»; eta gero esan zion Zenturioneri: «*Juan zaitet; eta egin bedi zuk nai dezun gisara; ta mofoitxo orduantxe bertan sendatu egin zan.*»

Fede bizi-bizia eduki ezkeronai dan guzia iristen da. Sinagogako nagusi bat juan omen zitzaion bein Jaunari; ta esan omen zion bere etxera juan da bere eskuz

alabatxo ıla ikutzen bazuen ziur-ziur zegoela alaba pixtuko zitzaiola; ta alaxen gertatu zan; etxera jua da Jesus onak gazte ura pixtu egin zuen eta.

Odola zerion emakume Emofoisak ere Jesus onaren soñekoak ukitu orduko sendatu egingo zala ta jua zan Jaunagana; ukitu ziozkan soñekoak; eta bat-batean sendatu ta gelditu zan.

Zenturion onek ere uste izan zuen bere etxera jua gabe Jaunak mofoitxoa sendatu zezaiokela; ta alaxen gertatu zitzaion. Ez bada gurekin ofelakorik gertatzen, gure efuz da; gure *kulpa*; ez bai degu fede bizirik.

Begira zein indar aundia daukan fedeak. «Fede bizikoak izan ezker—dio Jesu-Kristo gure Jaunak—esango diozute mendi aundi-aundi bati dagon lekutik aldatzeko; ta aldatu egingo da.» Gogoratu orain Gregorio deuna; ta ikusiko dezute nola aldatu zan mendi aundi bat berak agindu ta.

Pekatuak bai daukatela mendiak baño zama aundia-go; pekatua oso astuna da; pekatuak dakarzkien neke-miñ-naigabeak miñak eta astunak bai dira. Fededunak izan ezker botako ditugu gugandik pekatuak; eta Jauna maiteko degu. Noe, Abraham, Daniel eta fededunak ziralako Jaunak lagundu zituen; etzan Noe eurite ikaragafi artan ito; Abraan atsegin zitzaion; eta Daniel eta bere iru lagunak leoi-artean egon afen etzuten kalterik izan. Izan gaitezen gu ere fededunak; Jaunak onela lagunduko digu ta.

Ala izan bedi.



EREGE ONDOKO LAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 4.ª POST EPIPH.

I

Iñoiz bezin altsu agertzen zaigu gaur gure Jauna; itxasoko ekaitzak ere bare-barezen ikusten degu ta. Gaur arte ikusi izan degu eriak sendatzen, legenardunak garbitzen, ilak pixtuerazten, eta, on utsa besterik ez bai zan, bazter guzietan on egiten.

Jesus ona bere jafaizaliakin txalupa batean zegoela ofa nondik itxumustuan bezela jasotzen dan asko ikaratu zituen ekaitz aundi bat; ikaragafia izango zan apike, bada jafaizale aiek afantzaleak izanik asko ikaratu omen ziran. Aizea txistuka, itxasoá mafuka ta jafaizale gixaxoak *eneka* zeuden bitartean Jauna patxada aundian, lotan omen zegoen. Esnatu zuten bereak; eta ona Jau-nak esan ziena: «Fede gutxikoak ¿zergatik bildurtu ainbeste?»

Agindu zion ekaitzari bare-bare gelditzeko ta itxasoá bare-bare gelditu omen zan.

Ez diot gaur iñori jakinerazi nai Jesus Jaungoiko danik; bada munduko gauza guziak bere baitan eta menpean daukana orok dakigu Jaungoiko dala. Jaunari eskefak ez da gure artean iñor «itxasoak eta ekaitzak men egiten dioten au nor ote da» esaten duenik; ala ere zer esan beaf det, eta oartu erazi nai dizutet «*Motus*

magnus factus est in mari esan onek adierazi nai duena.

Gure biotza itxaso zabal antzekoa dan ezkerero, biotz edo *konzienzi* txafaz zer edo zer esango dizutet bada.

II

Zuen artean daude *konzienzia* bare-bare daukatenak; eta biotz bare ta paketsua baño gauza edefagoñik ¿zer ote? Onelako biotza duena munduan bizi afen zeruan dago, zerua pake-lekua bai da. Kristau onak pake-tsu bizi dira beti, ¿nola bizi ez, Jaunaren adiskide bizi ezkerero? Pekatariak befiz ez du pake atsedetik; beti kezka bete bizi bai da.

Pekatu-pean dagon arima, Isaias igarleak diogunez, oso nastua ta geldirik egon ez diteken itxasoa omen da, gutxi gora bera izango da Jesusen jafaizalari ofenbesteko ikara sartu izan zien ekaitz antzekoa.

Ezagutzen badituzute pakean eta patxada aundian bizi diran pekatariak ¡jakin! negargafiak dirala. Badirudite pakean daudela, patxada aundikoak dirala; ta edozeinek esango luke bere biotzeko itxaso zabala bare-bare dagola; baño *Tranquillitas illa tempestas est*; barretasun ori, Jeronimo deunaren iritzian, ekaitza da, ¿Zergatik ote?

Begira; oñean, eskuan, aragian edo arantzen bat sartzen bazaigu miñ aundia ematen digu: *baño.. noizbait atera diteke*; ta atera ezkerero ez da oñazerik.

Pozioa artu ta gogait egin diteke; ta bota egiten da, baita eri egon ezkerero ere sendatu diteke, baño eri gaudela ez jakin ezkerero ere ¿sendatu ote diteke? Ez noski ta eri daudela, ta pekatu egin da pozioa artur egiten dutela ta gaizki daudela ez dakiten pekatariak ¿nola ote

sendatu? Arantzak eta geziak (fletxa) baño miñ geiago ematen duen pekatua ¿nola ote kendu, pekatu-pean daudela ez jakin ezkeror?

Pekatu egin da pekatari dirala dakitenak sendatu ditezke; baño pekatua ura ta edari goxoa bezin erax edaten dutenak zorigaiztokoak dira; bada lenengo oiek ondu baditezke, bigafenekoak ez ditezke on-biurtu; ofegatik bada Jeronimo deunaren esana: *Tranquillitas illa tempestas est.*

Eskatu zaiogun ba Jaunari egunero, pekatu pean bagaude esnatu gaitzala; ta somatu dezagula beti biotz-afá edo *remordimientoa*. Norbaitek ez baleki zer ote dan ori, entzun beza.

III

Gure lenbiziko gurasoak Jaunaren agindua egin nai etzutela ta Jaunaren etsai biurtu ziranean, kezka bete izan ziran; lotsa zerioten, batez ere Jauna berai deika somatu zutenean. «Lotsatu ta gaude, Jauna» erantzun omen zioten. Ofa non dagon biotz-afá.

Kain zitalak bere anai gixaxoa il egin du; ta bilduf dabil; norbaitek bidean arkitzen badu ilko duela ta; ofegatik dabil mendiz-mendi, txit urduri, iñon geldirik egon eziñik. ¿Zergatik ote? Somatzen bai du biotz-afá.

Ori bera esan diteke pekatari guziaz; bada agirian dago pekatu egin da oiek somatzen duten biotz afá ikaragarfia dala. Antioko efegearen antzera pekatu guziaz begi afean eduki ezkeror ¿nola biotz-afik somatu ez?

Guziak dakizute zein zan Antioko. Azkenekoetan zegoela deitu omen zituen adiskide ta lagun guziaz, eta onela esan omen zien: «Ezin lokartu ni gauaz; beti estu daukat biotza; ta nere baitan beti esaten ari naiz: ¡¡Ene!!

Ni lenago ain zorioneko efegea; ta orain befiz ¡¡pakerik gabe!! ¡¡beti itun!! ¡¡beti *triste!*!! ¡¡Auek egunak!! orain orain datozkit gogora Jerusalemene egindako gaitzak; *Nunc reminiscor...*

Oso negargafiak dira ba bere buruakin pakerik ez dutenak. Auek izaten dituzten kezka ta naigabien ondoan ¿zer ote dira Jesusen jafaizaleak itxaso artan izan zituzten estu ta lafi-aldiak? Ezer ez noski.

Zerua pekatuakin inpernu litzake; inpernu befiz pekatu rik gabe zeru biurtuko litzake. Pekatu pean dagon arima beraz inpernu antzekoa da; Jaungoikoa beragandik oso ufun bai dago.

III

Gaizki dabilena beti bildurri. Kainek uste zuen bidean opatzen zituen guziak etsai zituela ta il egingo zutela; ¿nola ez ba epaikari ta boferorik zofotzena dan pekatua bafuan eraman ezkeru?

Lapufak eta agintariagandik iges egin dezakete, bafuan daramaten pekatuagandik ordea ez; itzalak gizonari jafaitzen dion erara pekatu-afa gure atzetik bai dabil beti. Ala etxean ala kafikan, ala jolasketan, non-nai pekatu egin ondoan gurekin batean daramagu kezka, miña, afa.

Kristau ona ta zintzoa ondo dijoa beti, gaiztoak befiz ez du ordu onik.

Entzun gai ontaz Agustin deunak diona: «Naigabe guzien artean ez da pekatuak ematen duen naigabea bezelakorik.» Eriotzen bat egiten duenak gorputza iltzen du; pekatuak befiz arima il egiten du.

Efomako agintaria zan Tiberiok esaten zuen: Ofelako kezkaz beterik bizitzea baño askoz naiago nuke eriotza.

Beste agintari batek ere gutxi gora bera ori bera esaten zuen onela esatean: «Azkeneko eriotza baño lenago eriotza asko izaten ditut.» Auxen berbera esango liguteke pekatari guziak, egia esan nai balute.

Au guzia jakin da ez aldeakegu esan pekatu pean dagon arima itxaso nastu-nastua dala.

V

Jesus onaren jafaizaleak, ain estu ta lafi zeudela, esan zioten Jaunari: *Salva nos; perimus.*

Guk ere ifiskoetan eta gaudenean ori bera esango bagiño, aurki aterako giñake pekatutik.

Ezagutu zuen bai Kainek bere pekatua, baita Nabukodonosofek ere, baita ere Judasek; etzioten ordean Jaunari barkaziorik eskatu ta galdu egin ziran.

Zein txoro ergelak izango giñake, pekatu pean gaudela jakin eta pekatuan iraungo bagendu.

Pekatu pean egon ezkeru alpefik daude otoitzak, alperik eskari afenak, alpefik baruak, alpefik guzia; ez bai zaigu oiekin pekatu rik barkatzen.

Pekatu pozoi-eden-arantza kentzeko *konpesioa* daukagu. Zer nolako pake atsedena ematen duen konpesioak jakingo dezute *konpesio* on bat egin da.

Ala izan bedi.



EREGE ONDOKO BOSGARREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 5.ª POST EPIPH.

I

¿Zerrek ez daki Jaunak gaur aipatzen duen zalkea deabruak ereiten duela? Ongi egin izan ditu Jaunak gauza guziak; ez da Berak egifitako gauza txafik.

Gizona zerurako zala ta eman ziozkan zeruratzeko bear zituen gauza guziak; eta gero ta irabazi aundiagoa izan dezagun, eman izan digu gauza egiteko ala ez egiteko eskubidea; beraz on egin ezkeru zerua irabazten degu.

II

Badauka bai Jaunak ardura; ala ere ez bai dago etsaia beñere lotan, Jaunak gure biotzean azi ona erein orduko zalkea ereiten du etsaiak.

Ez du Jaunak mundutik zalkea kendu nai; zalke nazkagafia diran kristau txafak mundua mundu dan bitartean onen artean bizi bear dutela ta. Azken egunean onak eta gaiztoak bereziko omen ditu gure Jaunak; bitartean onak eta gaiztoak elkafekin bizi beafko beraz.

Baditu Jaunak iru gisako soro aundiak: bat beti azi ona dagon zerua; bestea bete azi txar txafa dagon inpernua; irugafena befiz bertan azi ona ta zalkea nastu ta dauden mundua.

¿Zergatik nai ote ditu Jaunak mundu ontan onak eta gaiztoak elkar nastu ta? ¿Zergatik ez ote ditu gaiztoak pila bat egin da mundu ontatik kentzen?

¡¡Itxoin!! ¡¡Itxoin!! Jaunak guk baño eroapen aundiagoa du ta.

Bota izan zituen Jaunak zerutik aingeru biufi gaiztoak; badirudi ez duela gurekin ofen zofotz egon nai; ez bai ditu gaiztoak oraindik zeatu (kastigatu) nai; ala ere oso zofotza ta ikaragafia da gure Jauna; epaikari zuzena bai da.

Pekatu lafi eda *mortalian* erori orduko botako balu Jaunak pekataria inperua dan su-leizera, izango lirake noski onelatsu liotekenak: «Jauna zofotzegia da; ez bai dirudi zein erorkoiak ote geran dakienik; ¿nori ematen dio buruak pekatu bakar bategatik inperura botatzea? Ez diteke ori.»

¡¡Bai!! Jauna, pekatari biufi afo aundi asko munduan egon afen, ixil-ixilik dago; ta ez ikusi egiten ere badaiki; ta onela egon da ¿bai al dakizute zer nai duen? Ea pekatariak Jaunaren eraman ona oartuaz Beragana biurtzen ote diran ikusi. Egon omen zan Jauna iru urte pikuondo bat nolakoa ote zan ikusten; eta azkenean etzuela pikurik ematen oartuaz agindu omen zuen ebakitzeko.

Guri ere egun-aste-il-urteak ematen dizkigu Jaunak «ea Beragana noiz jotzen ote degun ikusi nai duela ta.»

III

Zalkea sustraietatik atera nai zuten mofoiai esan omen zien nagusiak: «utzi, utzi igitai garai arteraño.»

Garai ori azkeneko ordua da; orduan norberak eramango du munduan irabazi duena.

Eupolo izenez zeukan gizon ifi-par-egileak Alzibiades agintariaren lepotik naiko ifi-pafa eta iseka egiten omen zuen; adafa jotzeko *bersuak* ere idazten omen zituen; eta bitartean.....Alzibiades ¡¡ixil-ixilik!! ¡jezer ez baleki bezela!! baño bein batean ezin geiago eramanaz odola irakiten zuela ta ařapatu erazi omen zuen; ta itxaso erdi-erdira bota esaten ziola: «Zuk askotan iseka-ifi pafaz ondatu izan nauzu; nik ordea bein bakařik eta betirako gařera ondatzen zaitut orain.» Jaunak ere ori bera egingo du pekatariakin; eta ederki egiřa izango da.

Jaunagana biurtzeko onak dira egun guziak; batez ere onelako -egi mamitsuak toki ontatik esaten diranean gorde bear dira esan guziak; ondo datozkigu ta.

«Utzi, utzi zalkea; utzi pekatariak, ea ontzen ote diran ikusi nai det eta.» Auek itz ederak!! Jaunak onak eta gaiztoak ¿zertarako nai ote ditu elkar nastuak?

Onakin elkartzen dana noiz edo noiz ondu ditekela ta, on zaie gaiztoai onakin elkartzea; ta makiřa bat pekatari ondu izan dira, onakin elkartu egin ziralako.

Paulo kristau etsai ta ařapatzale ura on egin zan; Agustin ere bai; Kortonako Margarita ere lenago lizunki bizi afen gero ondu zan; eta lenago gaiztoak izan da gero Jaunaren besoetara joan izan diranak zenbat ote diran jakin nai ezkerro, luzaroko kontua izango litzake noski.

Ez dago eziftezkorik Jaunarentzako; ta onegin nai duen pekatariari Jaunak lagunduko dio beti. Gaiztoak beraz Jaunak onen artean nai ditu, ea onen erakusbideak ikusirik ontzen ote diran ikusteko: orduan kristau onak ikasbide ta erakusketa onak eman beařean arkitzen dira. Gure Jaunak ebanjelioan dio «argia» goi-goi jaritzeko, au da guziak ikusi dezaten eran; onekin esan nai

du kristau gaiztoak erakusketa onak ikusi ta ondu ditez-
kela ta kristau onak ikasbide onak eman bear dituztela.

Pekatoriak onen artean daudenean baru-bafuan so-
matzen dituzte Jaunaren deiak; eta entzuten dituzte la-
gun onen esan onak; eta asko dira ofegatik Jaunagana
biurtutakoak.

Geroztik bada, n. a. m., ondo ibili beti, ondo eraku-
tsi; ea onela iraun eta pekatariak ondu egiten ote diran.

IV

Baita ere beste gauza baterako nai ditu Jaunak onak
eta gaiztoak elkarfekin. Agiri zabalean dago, Jaunak,
urea labe gorian bezela, onak neke, atsekabe ta miñetan
garbitu nai dituela. Munduan guziak on puskak bagiña,
ez ikusi nairik ez balitz, odol-txafeakorik ez balego, aldi
gaiztokorik ere arkituko ez bagendu ¿zer irabaziko ote
genduke zerurako? Gutxi, oso gutxi; ezer ez noski; ofe-
gatik ba Abel zintzoaren ondoan Kain egon bear; Da-
bid gixaxoarenean befiz Saul zitala; Jose onak anai gaiz-
toak izan bear: esate batean esateko, gure aldamene-
an, gure ondoan izango ditugu beti bere izakera, esan
eta bizierakin ezpata zofotz eta ezten mingafi izango
zaizkigunak; eta zerurako irabazia nai bagendu ¿zerta-
rako esan oiek emango digutela?

Antziñ-antziñeko kristauak eta *lekukoak* (martiriak)
ez balute ainbeste etsai izan ¿uste al dezute gaur zeru-
an ain goi-goigongo lirakela?

V

«Utzi-utzi itai-garai-arteraño; orduan esango diet nik
itailariak guzia ebakitzeko, zalkea efetzeko, ta garia ga-
ritegira eramateko».

¡¡Itz ikaragafiak dira gero auek!! Bakoitxari sari emateko garaia etortzen danean, aginduko omen die Jau-nak aingeruai onak eta gaiztoak berezteko; eta azke-nekoak (gaiztoak) zugatz (arbol) legoñak izan bai dira ta zalke utsa gañera ¡¡sutara!!; onak befiz, kristau zintzoak izan diralako, saritzat zerua izango dute.

Gaurko Ebanjelioko itz auek «*Alligate in fasciculos, zalkea bildu ta pilaka jafi,*» Gregorio deunak dienez esan nai omen dute lizunak lizunakin, lapuñak lapuñakin, zeken-zikoitzak zeken-zikoitzakin eta norbera bere kidekoakin egongo dala.

Gaurko Ebanjelioa onentzako txit pozgafia da; gaiztoentzako befiz ikaragafia. ¿Ontzat artuko al gaitu Jau-nak gure azken orduan?

Ala izan bedi.



EREGE ONDOKO SEIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 6.ª POST EPIPH.

I

Bi zati ditu gaurko Ebanjelioak: lenengoan esaten zaigu zero antzera artu bear degun gure erlijioa zeape antzekoa dala; asi aldian oso txikia, gero ordea txit aundia.

Bigarrenekoan esaten zaigu erlijioa orantza ala legami antzekoa dala.

Emakumeak artu ta iru irin zakuetan gorde omen zuen; ¿zertarako? orea ta ogia sasoiari uzteko edo artzitzeko. Ebanjelio laburra da; baño mami aundikoa.

II

Ebanjelioak aipatzen duen emakumea, ala gure arimen ogi osasungarria dan erlijioa gordetzen duen emakume ori, zein izango ote da *Eliza ama Santa* ez bada?

Erljioa da munduan daukagun gauzarik edereena; ta Jaunaren odol bikañakin sendotu ta dagolako biotzbiotzean gorde egiten degu.

Apaiz jaunak eta erlijioa zaintzeko dira, erlijioa dagon lekuetan antxen bai daude Jaunaren ordezeko diran apaizak eta; beraz artzaiak artaldeari begiratzen dioten lez, apaizak eta erlijioari begiratu egiten diote. Auxen da beren eginkizuna.

¿Emakumeak zertarako gorde ote zuen legamia?
«Bere garaian ogiari botatzeko.»

Eta apaizak eta Jaunaren ordezkioak ¿zertarako gor-
detzen ote dute legamia dan erlijioa?

N. a. m. Legamiak ogia sasoi-sasoian jartzen omen
du; baita erlijioak ere gure egin on guziak bere neufi-
neufian jartzen ditu; ta apaiz jaunak Jaunaren ordezkio
daudenezkero, arazo ortan ari dira beti; gauza guziak
ontzen eta bere neufian jartzen.

Ez balitu erlijioak gure egintzak neufian edo sasoi-
an jafiko, gutxi oso gutxi irabaziko genduke zerurako.
Gure egintzak bada legamia bear dute; ezperen (beste-
la) irabazi beafean galdu egingo genduke ta.

Ontan dago legami au:

III

«*Gauza guztiak kristau eran egitean.*» Paulo deu-
nak esaten digu: «Egiten dezuten guzia, egin zazute
Jaungoikoaren; edo Jaungoikoari begira.» Esan nai du
gauza guziak Jaungoikoagatik bakafik egiteko; ta onela
egin ezkero Jaunak artuko ditu gauza guztiak obeago
egitiak bezela.

Badaude gure egintza edo *obretan* «ez onak eta ez
txafak» diran batzuek; esate baterako, ibil-aldi bat egi-
tea; eguzkia artzea. Gauza auek zero-begira ez dira ez
onak, eta ez txafak. Baño Jaunari begira egin ezkero,
ta berak ematen duten poz-atsegiña Jaunari eskeindu
ezkero, Jaunaren begietan irabazi aundia izan dezake-
gu; ta Jaunari begira egiten ez duenak baño geiago ira-
bazi diteke. ¿Zergatik? Erlijioak ibil-aldiari eta damaion
legamiagatik.

Gero legamiak bere neufian jartzen omen du egu-
nero jaten degun ogia.

¡¡Ogia! Itz onek gogora dakarkigu beste zeruko ogi osasungari bat.

Asko dira zuen artean egunero Jaungoikozko ogia artzen dezutenak. Ogi deun ofek gordetzen gaitu, zaitzen gaitu, zeruratuko gaitu; Ilunpean bagabiltza argi egingo digu; aunaturik egon eta sendotuko gaitu: ilik egon ezkerro, pixtuko gaitu. Jaungoikoa ez-ilkor danezkerro, *Komunitokoa*n Jauna artzen degunak ez-ilkortasuna artzen degu.

Beste «elizako» (sakramentu) deunen artean baditu gure erlijioak «*bi batez ere*» ondo ta kristauki artu ta irabazi aundia ematen dutenak; eta auexek dira: *aitortza* (konfesioa) ta Jauna-artzeko elizakoa (komunioa). Ondo artu ezkerro, ondo goaz; zuzen gabiltza; zeru-aldera goaz.

Ez aztu ordea beñere lokartzen ez dan etsai amofatu bat badegunik. Ondo aitortu ta bear dan eraz Jauna artu ta izan ditzakegun irabazi aundiak kentzeko, ona emen etsaiak egiten diguna: kendu erlijioak Jauna ondo artzeko gorde ta daukan legamia; ta kendu baita ere ondo ta kristauki aitortzeko ipiñia ta agindua daukaguna. Pixka bat azaldu nai dizutet gai au.

Legamia samin-gafatza danik ¿nork ez daki? *Konfesioa* ere alakoxea dirudi; malda gora egiten zaigu beintzat; eta etsaiak kendu nai dizkigu *konfesio* onak ematen dizkigun irabaziak; ¿nola ote? *ez ongi aitortzeko* esanaz; eta ortarako *lotsa emanaz*; baño etzaio entzun beafik; gezurri aundia da ta. Aitortzekotan bada ondo ta lotsarik gabe aitortu; ta ¡¡auferral!

Baita Jauna artzeko ere ipiñi izan digu gure erlijioak legami pitin bat.

Badira bai aldiro Jauna artzean kristauki artu egiten dutenak; baita ere ez dira gutxi, kristau onak izan

añen *kõmuniotik* bear añako irabazirik ateratzen ez dutenak; bada Jauna artzekotan alik ederki ta maitekiena artu bear dala-ta afontean edo oitura daukagulako bakafik eta ondo emateagatik edo Jauna artzera bagoaz, asko galtzen degu. ¡¡Zein irabazi aundiak izango giñitukean *elizako* guziak kristau okitu onari dagokion eran artuko bagiñitu!!

Ez uste izan kristau onak izateko ta zerurako irabazi aundiak edukitzeko gauza asko egin bear danik; bear beahezkoa bai da egiten diran gauzak alik ederkiena egitea. Geroztikan ez da iñor «*santu*» egingo gauza asko egiten dituelako, baizik egiten duena ondo egiten duelako.

IV

«*Erne egon fariseotafan legamiakin*» esaten zuen Jesu Kristo gure Jaunak.

Gure erlijioak ematen digun legamiak on aundia egiten digu: fariseotafai befiz bereak kalte aundia egiten zien; aien legamia, Jaunak diogunez, *hipokrisis* bai zan, beraz Fariseotafak on guziak, otoitzak, baruak, ukafak (limosna) eta on-irudia egiteagatik bakafik egiten zituzten eta etzituen ofegatik Jaunak ikusi nai ere.

¡¡Ipokritak!! ¡¡Bi arpegiko gizonak!! ¡¡Itxuralariak!! Auek bai dirala nazkagafiak.

Jaunak zintzo-zintzoak nai gaitu.

Hipocrisis legami zikiñ onek ukitzen duen guzia nazkagafi biurtzen du; usteldu egiten du. Erne egon bada Jaunak dion legami nazkagafi ofekin.

Ez da ez kristauen legamia munduak eskeintzen digun bezelakoa.

On-irudia noiz edo noiz egiten badegu, noizbait da-

mutuko zaigu; ez bai da kristau-gauza: jantzi ori kristauari beñere ondo ez datorkioria bai da.

Oso nazkagafiak dira benetan on-irudia ain ederki egiten ikasi duten oiek!! Gauza bat izan eta beste bat agertu nai; lagunai beti ziri sartzen egon; jori bai dala gauza itxusia!!

On-iruditzeagatik egiten diran gauza guziak Jaunaren begi afean egiñak ez baleude bezelaxen dira; ore-gatik Jaunaren afean jjesku utsik!! jjezer egin ez balute bezela!! arkituko dira *ipokrita* guziak; «*zure saria munduan artu zenuen*» Jaunak esango bai die.

jjUtikan emendik!! Jaunak beste munduan *ipokritai* esaten dienean ¿nora joko ote dute oiek? jjUra- lotsa!! «Recepisti mercedem tuam» aditu ta.

Gure Jaunak gure biotzean nai duen legamia bada lenago aipatu dizutedan Paulo deunak agintzen diguna da. Gauzak egitekotan egin Jaungoikoagatik, nekean eta eramatekotan eraman Jaunari begira, ukar-ematean eman Jaunaren izenean, esate batean esateko, egin gauza guziak zeru begira; ta azkenean artuko degu betiko saria.

Ala izan bedi.



IRUROGEI TA AMARKAROKO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. SEPTUAGESIMAE

I

Gaurko Ebanjelioa irakufi ta kristaua bilduf bildurtia izan da ere pozez beaf da. Entzun: Masti edo ardantze bateko nagusia langile bilketan omen zebilen; bidean arkitzen zituen guziak bere mastirako nai zituela. Bartzuek goiz aldian opatu zituela ta besteak beriz beranduxeago ta azkenean lanerako aftu zituenak oso alpef omen zeuden; eta onela esan omen zien auei: «Garai ontan zuek ofen alpefik eta ezer egin gabe?» ta erantzun omen zioten: «Alaxen da, Jauna ez gaitu iñork lanerako bilatu ta ementxen egon beaf.» «Atozte zuek ere nere ardantzera, esan omen zien nagusiak, eta ordainduko dizutet zuei ere.»

Juan omen ziran lanera auek ere; besteak baño beranduxeago ordea; ta ilunabafean esan omen zion nagusiak bere orde zegoen agintariari: «Deitu langile guziak eta eman bakoitzari irabazi izan dutena.»

Goiz goizean lanean asi ziranak, oartuaz berak baño geroago lanean asitakoak ere beren saria irabazi zutela, asi omen ziran marmarka, ura gaizki zegoela ta esanaz.

Orduan nagusiak erantzun omen zien onela: «¿Eman al zaizute irabazi dezutena? Bai; ez dezute orduan espadiderik. Nik besteai nai detana ematen badiet ¿zuei

zer? «Kalteren bat egiten al dizutet?» eta ixilerazi omen zituen.

Gaur gure Jaunak gure biotzak alaitu nai ditu, ta gaurdaño kezka bete ta egon bagera ere, emendik auffera beste erakoak nai gaitu.

Jaunak kristau-mastian langile zintzo bila dabil; eta guziaz eskeintzen die irabazitako saria.

II

Marmarka asi ziran langile aiek zer ote digute? Zeruan ere marmafak badirala edo? ¡¡Bai zera!! Donokian (zeruan) «*non murmur resonat, non querimonia*»; ez da ez marmafik ez ta negafik ere.

Gutxi gora bera gaurko Ebanjelioak auxen esan nai digu: «Ezagutu izan dituzute noski goiz goizetik (txikitxikietatik) kristau onak izan diranak; ofelako oiek nik asko maite izan ditut. Beste batzuek ere ezagutu izan dituzute nunbait gaztetasun txafa izan dutenak; eta oiek kupidagafi zaizkit. Azkenean oiek ere ondu ziran; eta berandu xamar izan da ere baita oientzako ere zerua prest daukat; eta saritzat 'zerua daukate. Zerukoak bekaiztiak (enbidiosoak) izan ezkeru esango lidateke: «Jauna oso efukitsua zerala ta ez genduen ordea uste ainbeste zifianik. Gu txikitatik zure esaneakoak izan eta pekatuak beñere egin ez; eta zuk befiz oiei guri añako zerua eman.» Nori ba? «Lapur onari; Paulori, Madaleneri, Agustineri ta.

«Oiek len gaiztoak izan eta zeruko lanetan gu baño askoz beranduago asi ta, ala ere ¡¡guk añako zeru izan!! Ezagun da biotz efukitsua dezula».

N. a. m. Ez da zeruan onelakorik gertatuko; zerua pake-lekua bai da; mundu ontan befiz bekaizkeri ta go-

foto aundia dago; ta ez dira gutxi Jaunaren aurka marmar egiten dutenak; batzuek Jaunak ari neri baño geiago laguntzen diolako; besteari osasun geiago ematen diolako; ta ortan Jauna beren ustean gaizki ta oker dabil.

Ofelako txatxo-año ergelai ¿zer esango ote die Jaunak? Obe lutekela ixilik egon.

Besteak gu baño gaiztoagoak dirala ta ala ere ¿Jaunak guri baño geiago laguntzen diela? N. a. m. ¿Zer gera gu Jaunaren erabaki sakonetan sartzeko? Biotzak eta somatzen dituen, Jauna da; ta munduan guk uste degun txafena, baliteke Jaunaren begietan onena izatea.

Ez ba Jaunaren aurka (kontra) jañi, ez marmafik egin. Jaunaren erabakiak nolakoak ote diran iñork ez baidaki.

III

Nagusiak bere langileak marmarka ikusi zituenean esan omen zien: «Baño... ¿kalteren bat egin al dizutet nik? ¿Ez al dizutet irabazitako saririk eman? Azkene-ko auei zuei añako saria eman izan badiet ¿zuei zer?»

Ez aztu, n. a. m., mastiko nagusia Jauna danik. Itz oiek adierazten digute Jaunaren efukitasuna ta zuzentasuna.

Jaunak bat-batean barkatu izan zion Dimaseri; damutu bai zan; beraz beste *santu* askok luzaroan lan da lan aritu ondoan irabazitako zerua lapur areek oso laster eta agudo irabazi izan zuen. Beste askoz ere ori bera esan diteke.

¿Ea nola ote diteken ori? Eta ¿neri galdetzen al didazute? Zuek, Jaunaren efukitasuna neurtu ondoan, norañokoa ote dan esaten badidazute, orduan erantzungo

dizutet nik. Jaunak dagiena (egiten duena) ongi dago; ta gu ixildu bear gera; bere erabakiai burua makurtzen degula.

Langile marmarzale aiek ixilerazteko, ona masti-nagusiak esan ziena:

«*Ixildu zaiteste. ¿Ez al dizutet irabazitakorik eman? Ixo ba.*» Bai, n. a. m., Jaunaren begietan, beste askorenean lez, badira ordu batean besteak lau ordutan baño lan geiago dagitenak, eta beraz geiago irabazten dutenik ¿zertako esan? Jauna zuzena ta zofozta bai da, norberari irabazi izan duena eman egiten dio. Oni guri baño geiago ematen baldin badio ¿guri zer? Ematen dionean irabazi duelako izango da noski. ¿Egiten ote digu ofekin guri kalteren bat? Guri ematen badigu guk irabazi izan deguna, besteai befiz berak irabazi izan dutena ¿guri zer?

IV

Ez al dezazet nik nai detana egin? Jaunaren itzuek esan nai digute Jaunak gauza guziak «mesedez» ematen dizkigula; osasuna ta ondasunak eta eman izan dizkigun gauza guziak «doan» «utsean» emandakoak ditugu; ta daukagun guzia mesedez emandakoa da.

Guketz ez degu gogorapen edo *pensamentu* bat bakafik ere egiteko eskurik; eta Jaunak ez lagundu ezkerro ta lagunduko ez baligu, ez genduke gauza onik egingo; al guzia beraz goitik datorkigu.

¿Au zergatik eta beste ura zertarako Jaunari galdezteko, zein ote da mamofa nafastia baño nazkafiagoa dan gixontxoak?

Oñi neri baño osasun obeagoa ematen badio, zerbaitetik izango da; beste ari neri baño geiago laguntzen

badio ere, bere afazoa izango du Jaunak; eta neke-lan latz-beltzak bidaltzen badizkit neri, on zaizkidalako izango da noski.

¿Zergatik au ta zergatik ura Jaunari guk galde egin? Berak nai duena egin dezala ¡¡ta kito!!; Jaunak dagiena beti ondo egiña dago ta.

Gure antuste ta afokeria aundiak dira; ta beti atzitu ta ziria sartzan digute; ¡¡jakin ba!! gure ustezkoak geralako, uste izaten degu maiz ez dagola inor munduan gu bezelakorik. ¡¡Txatxoagorik!! ¿Gu baño obeak? guziak noski.

V

Deituak asko dira; autuak befiz gutxi. Itz auek gogoan josi ta eduki dear ditugunak dira; itz ikaragafiak benetan.

Deituak asko dira; onek esan nai du Jaunak zerurako nai gaituela; ta nai ezkeru jua gindezkela; nai ez badegu befiz, Jaunak nai badu ere ez gera zeruratuko.

Aukeratuak befiz oso gutxi dira. Auek bai dirala itz ikaragafiak. Egia da Jaunak zerurako nai gaituela; balta guri laguntzeagatik esker-mesede aundiak egiten dizkigula ere; bañan zeru-bidea estua ta oso neketsua dala ta asko omen dira bide ertxi ofi ekin beaŕean bide zabal eta lasaiari ekin egiten diotenak.

Zeruan bada leku-toki asko badago ere, ez omen dira zeruratuko Jaunak zerurako nai dituen guziak; ez bai diote Jaunari bide medafetik, gurutze-bidetik jaraitu naiko.

Bein batean Jaunak jakinerazi omen zion «santu» bati elur-egun gogor batean elufa erortzen dan erara

erortzen zirala gaiztoak inpernura. Zeru-bideari jafaitzen diotenak zintzoak dira; txoro-ergelak befiz jafaitzen ez diotenak.

Ez dizutet emen adierazi nai zeru-bidea 'gurutze-bidea, neke-bidea, kristau-bidea danik; zuzena dalako bertatik zoaztela pozikan dakust (ikusten det) eta.

Ez gero atzera begiratu; ez gero bide erdian gelditu; juan beti, ibili beti; jauferaka! ordea; ta aspertu ga-be gañera.

Ala izan bedi.



IRUROGEIKAROKO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. SEXAGESIMAE

I

¡Ebanjelio edefa gaurkoa!! Bertan Jaunak itz gutxitan asko erakusten digu; ta esaten digunean badira-la *sermoiak* entzun eta Jaungoikoaren itza gordetzen ez dakiten kristauak, esan eta jakinerazi nai digu, zer eta nolakoa dan Jaunaren itza.

Jaunaren itza gogoan eduki bear degu; siñistu bear degu te berak diona egin bear degu; auxen da gaur azaltzeko artu izan detan gaia.

II

Jaunaren itza gogoan eduki bear degu. Gure biotza ontzi antzekoa omen da; ta zulatu ta dagon ontzia ezertarako ez bada ¿zertarako izango ote da, gauza onak eta Jaunaren esan osasungafiak gordetzen ez dakien biotza?

Gauza bikañak eta *balio* aundikoak ain zintzo-zintzota ain ederki gordetzen baditugu, munduko gauza guziak baño geiago balio duen Jaunaren itz mamitsu osasungafia guk zergatik gorde ez? Gure Jaunak dionez, Jaungoikoaren itza azia omen da; bizimenaren itufia beraz. Azi-alerik ez izan ezkero, ez diteke ez landaretxorik ez da zugaitz (arbolik) ere izan; eta Jaunaren itza ez en-

tzun ezkeru, ez diteke zeruko bizimenik izan; Jaunaren itzak zeruko bizimena ematen bai digu.

Nekazariak ez baditu bere lur-soro landak sasoi sasoiean, ez dezake erein ezertxore; eta guk ere ez badegu gure biotza Jaunaren itza entzuteko sasoi onean jartzen, ez dezakegu bertan gauza onik erein; eta ereiten badegu ere, etzaigu ale onik aziko; geroztik Jaunaren itza, gauza bikañena dala ta, munduan ereindako ale ta azi guziak baño irabazi aundiagoa ematen digula ta, gorde bear degu beti biotz-bictzean.

Lufezko azi-aleak lufezko irabaziak dakarzkigute; Jaunaren itzak befiz zerukoak.

Lufeko ale-aziak ustelkofak dira; beraz ezin eman gauza iraunkofik; Jaunaren itzak ordea ustelkofik ezin eman; iraunkofak befiz bai.

Nekazariak lugin deitzen diran gisara, *sermolariak* zerugin deitu ditezke; bada ale ona gure ariman erein da, arima txukundu ta edertu egiten digute; Jaungoiko gure Jaunak bere seme Jesus onaren antzeko biotza daukagula ikusirikan, onetsi ta bedeinkatzen gaituela. Eta sermolariai ta begiramentu ta zor aundia izan bear diegula ¿zertako esan? Ez dago ez mundu oso-osoan Jaungoikoaren itza baño azi-ale bikañagorik.

Agustin pekatuetan leporaño zebilela ta Jaunaren itza entzun da pekatutik iges egin zuen; Madalena emakume kaskariña zala ta Jaunaren itzak on-bideratu zuen; Paulo kristau etsaia Damaskoko bidean kristau afapaketan ari zala ta Jaunaren itz deiak ere Jaunagana biurtu izan zuen. ¿Zertarako jafaitu geiago, baldin bada-kizute Jaunaren itzaren indafa? Al badezute bildu itza-tzute donokian (zeruan) dauden *santu* guziak: eta ea nolatan zeruratu ote diran berai galdetu ezkeru, erantzungo liguteke: «*Jaunaren itza gogoan eduki ta.*»

III

Gauza asko erakutsi zizkigun Jaunak munduan bitzitu zanean; eta entzuten ziotenak damutu ta miñ artu beafean poz atsegin aundia artzen omen zuten, Jaunaren itza entzuten dutenak poz-atsegiña dariote ta.

Dabid igarleak onela dio: «Nere biotzean gorde nituen zure esanak.»

N. a. m. ¿Nola gorde ez ain pozgafiak bazitzaizkion? ¿Zertarako eman ote digu Jaunak oroimena, ez bada bere esan osasungafiak gordetzeko? Ez dezake itxas-gizonak itxas-ofatzik gabe ezer egin; bear beafezkoa zaio ta. Eta kristauak ¿zer ote dezakegu Jaunaren itza entzun gabe? Itxas-bafenean dabilzanai zer erakusten ote die itxas-ofatzak, bide zuzena baño? Eta Jaunaren itzak zer erakusten digu munduko itxaso marulari ontan gabilzanai? Zeru-bidea noski. Ez uste izan bada Jaunaren itza entzun ez ta zeruratu ditekenik. ¿Nola zeruratu kristaua, ez badio zerubiderik iñork era kusten? Eta ¿noiz edo noiz adierazten bazaio ere, azkenean atzendu ala aztu egiten badu? Ez afitu ez kristau asko ilunpean ikusi ta. Txikietan guraso zintzoen menpean egon ziran bitartean, *dotriñak* erakutsi ta agindutakoa ikasi egin zuten; baño... gero? dotriña geiena (guzi-guzia ez esateagatik) aztu ondoan ¿zer ote dakite, zertarako jaio ote diran ere aztu ta badaukate? Kristauak dirala esan afen ez dute kristau antzik; arimarik ezpalute bezela bizi dira ta.

Begira Andre Mari garbiak ematen digun ikasbide edefa. Iriki Ebanjelioa ta onatx irakufiko dituzuten itzak: «Jesusen amak biotz-biotzean gordetzen zituen itz guziak.» Jesus onaren itzak ziran Ebanjelioak aipatzen di-

tuen itz oiek; eta Jesusen amak biotzeko txokorik politenean gordetzen omen zituen.

N. a. m. Ez dira *sermolar* guziak esaten dizkiguten esanak Jaunak antziñeko garai artan erakutsi ta esan zituenak baizik; eta Jaunak esan ta ain indartsu ta arigafiak izan baziran, orain guk elizan entzun da guretzako gisa berekoak izan bear dute.

Ez gero elizatik atera Jaunaren itzak gogo-gogoan txit ezafiak eta josi-josiak eduki gabe; ta bein entzun ondoan beñere gogotik kendu ez ditezen erabili beti gogoan.

¿Zergatik esan txalogafiak dirala elizan entzundakoa etxean esan eta jakinerazten dutenak? Jaunak bai artzen duela atsegiña ta poza gurasoak eta ofela egiten dutela ikusi ta.

IV

Baita ere siñistu bear zaio Jaunaren itzari. Ez litza-ke Jaungoiko gure Jauna Jaungoiko izango, gezurtia izan ezkerro; bada gezurtiak biotz txafa ta ustela azaltzen dute. Ez da gure Jauna ez gezurtia ez da bekaiztia ere.

Jaunaren ondoan zer ote da izate osoa? ¿zer ote gizon jakintsu guziak? ¿Zer dakite auek Jaunaren ondoan? Ez da ez gure Jauna gezurtia; beraz bere esan guziak egi utsak dira, orduan ikasleak *eskolan* dauden mutilkoskofak irakasleari entzun eta siñistu egiten dioten erara, guk ere Jaunari era berean siñistu bear diogu.

Ez atzendu ala ez aztu Betiko Aitak Tabor mendian Jesus onaz esandakoa. Odei edo artatik atera omen zan onela zion ots zoli-zoli bat: «*Ipsum audite; Entzün Berari.*» Jesus ona siñisgafia danezkero «*entzün Berari*» esan zuen aspaldiko garai artan Betiko Aitak. *Berari*

entzun, esaten digute orain ere Jaunaren ordezkioak diran apaiz jaunak.

Ez da seme-alabai gaizki erakusten dien gurasorik; eta ¿Jaunak noizpait erakutsiko ote digu gezufen bat? Ez; Jaunagandik datofen guzia egia ta ontasun utsa bai da. Oartu bestela Jaungoikoak eta *sermolariak* erakusten dizkiguten gauzak; gogoratu orain legeak agintzen diguna; ta lenengo aginduak asi ta amargafenekorako aginduak aztertu edo *examiñatu* ondoan, esan ea zer erakusten ote digun Jaungoiko gure Jaunak; adierazi zer agintzen ote digun; eta *sermolariak* eta zer esaten ote diguten? On zaiguna besterik ez.

Gure biotza munduko poz-atsegiñak asebate ez dezaketen ondo-gabeko putzua danezkero, jakin Jaungoikoak bakarik asebate dezakela.

Orain bada Jaunaren itza entzuten degunero gure buruari ona esan bear dioguna: «Elizan nago; Jaunaren etxean beraz: ez det Jaungoikoa ikusten; ala ere somatzen det bere esan osasungafia; ofegatik emen leku deun onetan esaten diran gauzak Jaunaren esan eta aginduak entzuten ditudalakoan entzun bear ditut.» Siñistu bai, siñistu Jaunaren itzari; egi utsa bai da.

Bat baño geiago dira, *sermolariak* nola itz egiten ote duten ala zer esaten ote duten jakiteko elizara datozenak; baita ere badira ea *utsen batean* sermolaria arapatzen ote duten ikusteko etortzen diranak. ¿Zer esan oietaz? ¿Elizara bear dan bezela etortzen dirala edo? Ez orixen; elizara etortzekotan Jaunaren etxera bezela etofi bear da ta.

Sermolariak itz egiten degunean, zuek entzun bear dezute Jauna bera izketan balego bezela: ta zer edo zer oartu ta begiratzekotan, begiratu ta oartu zazute esaten

zaizutena bakañik; ez ordea ondo ala gaizki ote dagon esateko; baizikan esaten dana egiteko.

Jaunaren begietan txit nazkagariak ditugu on-irudia egiteagatik elizara datozenak; ez lirake oiek bere go-goz beñepein etofiko; baño lagunak, aideak, etxeoak, efikoak gaizki ikusiko lutekela ta... ¡¡juan bearko!! ¡¡elizara bearko!!

N. a. m. Zerbait egitekotan, egin beti Jaunak nai duelako, Jaunak agindua daukalako.

Eta ¿apainduak baño erdi jantzi ta eldu diranaz zer ote? Eta bere burua agertzeko etortzen diranaz? Eliza Jaunaren etxea da; bertan Jaunak entzuten digu. Zorionekoak elizan elkartzen geran bezela, zeruan elkartzen bagera.

Ala izan bedi.



BEROGEITA-AMARRAKO IGANDEA

2. HOMILIA IN DOM. QUINQUAGESIMAE

I

Txit erukafia da gaurko Ebanjelioak esaten digun itxua. Jauna Jeriko alde zijoala bidean omen zegoen itxu gixaxoa; ta galdetu omen zuen ea zer zan bazter aietako zarata aundi ura.

«Zer izango dek? erantzun omen zioten. Jesusen atzetik zetofek jendeketa ikaragafia, motel.» Itxuak, somaturik bere ondotik igarotzen zala Jauna, esan omen zion: «Jesus Dabiden semea, efukitu mesedez nitaz.» «Ago ixilik» esan omen zioten lagunak. ¿Ixildu ofegatin itxua? ¡¡Bai zera!! Asi omen zitzaion befiz kafasika: «Jauna, Jauna, efukitu mesedez nitaz.» Jaunak galdetu omen zion orduan: «Zer nai dek ik?»

— «Ikusi, Jauna.» «Ikusi zak bada.» Jaunak ori esan da argitu omen zitzaizkion begiak, Jaunari eskerdun jafaitzen ziola. Au da gaurko Ebanjelioa.

¿Zer esan gaur Ebanjelioak dakañen gai'edefaz? ¿Itz egingo al degu ifñauteri egunetan ofen itxu ta dabilzan kristauaz? ¿ala adieraziko al det egun auek Jaungoikoa poztu beafean asefe bizian jartzen dutela? ¿Zertarako esan egun auetan egiten diran pekatuak? Egund auek kristau onentzako otoi-egunak izan bear dute; ta ofelakoxeak dira zuentzako ere. *Iraun, iraun beti zuen otoi sutsuetan.*

II

Bere lagunak esaten omen zioten itxuari *ixilik egoteko*; baño gixaxoak gero ta geiago esaten omen zion Jaunari: «Dabiden semea, efukitu mesedez, efukitu nitaz.»

Gure otoietan ere itxu aŕen antzekoak izan bear gera; sutsuak, setatsuak, iraunkofak. Askok esango digute noski *ixilik egoteko*; txatxoak izango giñake oiei entzun ezkerok; bada gure arimako zer-egifietan oso gerezkoak izan beaf gera; ixildu beafean bada ojuka ta deadarka esan bear diogu Jaunari: «Jauna efukitu mesedez, efukitu nitaz.»

Norbait ondu naiaz dabilenean, eta pake ta atsedean bila ari danean, eta dan baño ohea izan nai duenean, nondik edo andik sortuko zaizkio, ta sortzen zaizkio onelatsu ariko zaizkionak: «Zer ari aiz, motel? ¿Zer egin bear dek? ofela ari ba aiz, erotu egingo aiz.» Ondu nain dabilen kristauak gaurko Ebanjelioko itxu antzera eragozpen eta esames eta «ago ixilik» eta onelakoak izango ditu bada; ta ugari ala ere; ta ¿makufenak? bere etxeokak, bere aideak, *domestici ejus*.

«Ago ixilik, esaten zioten itxuari bere lagunak; jixol bestela erotzat artuko aute ta.» Bazekien ordea itxu gixaxoak etzegokiola ixilik egotea; bazekien on zitziola otoitza, eskaria; ta ixildu beafean deadar aundiagoak zegizkion Jaun onari.

Omnes qui pie volunt vivere persecutionem patientur. On-bidean dabilenak eta kristau ona nai izan ezkerok, eragozpenak, esamesak, isekak, marmafak eta izan bearok; ez gera ordea ofegatik aspertu bear; beti auferra jo bear degu ta. Begira orain itxu aŕi gertatutakoa.

Lenago «ago ixilik» esaten ziotenak, geroxeago

esan zioten: «*Animaequior esto; surge; vocat te. Azkartu adi, motel; ua, goale, deitzen au ta.*»

Guri ere beste ainbeste gertatuko zaigu. Gaur on biderako eragozpenak eta jartzen dizkigutenak biar izango dira noski txalo aundiagoak joko dizkigutenak. Onelakoa da mundua. «Gaur ixilik egoteko», biar befiz itz egiteko, juateko, azkartzeko, *ta bildurik gabe on bidean ibiltzeko* ¡¡au mundua!! Itxu gixaxo afek egin izan ez balio Jaunari ojurik, ¿entzungo ote zion gure Jaunak? Ez dakit ba; *eskatu, eskatu; emango zaizute ta*, Ebanjelioak bai dio.

Guk zer edo zer iritxi nai degunean, eskatu bear diogu Jaunari; beti; beti, ordea; ta aspertu gabe gañera; aspertu egiten danak nagikeria ta epelkeria adierazten bai du; ta ¿gañera otoi-eskarietan epel-epel dagon eskaleak egia ote da benetan eta biotz-biotzez eskatzen duenik? ¡¡Ez orixen!! Ez dira eskale epelak benetako eskaleak; ondo eskatzeko, gogo-gogoz eta biotz-biotzez eta sutsu eskatu bear da ta.

Eskaleai bada dagokie aspertu gabe eskatzea, iraunkor izatea; bada iraunkorak izan da gaur ukatzen dana, biar ematen da.

Ez aztu iraunkor izan da nai dana iristen dala.

Gure Jaunak gure apaltasuna ta leialtasuna ezagutzeagatik askotan eta maiz «ez entzun» egiten omen du; badirudi orduan ez digula jaramonik edo *kasorik* egin nai. ¿Maite ez gaituelako edo? ¡¡Bai zera!! baizik gaurko Ebanjelioko itxuak bezela gero ta deadar aundiagoak guk egitea nai duelako. Ez du ez Jaunak kristau epeilik nai; gure otoieta sutsu, gartsu ta batez ere iraunkor nai gaitu ta.

¡¡Bageneki nola poztutzen dan gure Jauna itxu gixaxoaren erara eskarietan iraunkor ikusten gaituenean!!

¡¡Bageneki zer poza ematen diogun orduan!! Askotan «ez entzun» badagi (egiten ba du) ere, egiten omen du ea aspertzen ote geran ikusi nai duelako bakafik.

III

¿*Zer nai dek?* itxuari galdetu omen zion Jaunak; eta itxuak erantzun omen zion: «*Jauna, ikusi.*»

N. a. m. ¿Gogoan al dezute Josuek eguzki edera gelditu erazi zuen egun ura? Asko zezakean, dirudienez, israeldafen gidari azkar afek; eta itxuaren deadafak eta gixaxo afen ojuak befiz *Zuzentasunaren eguzkia*, *Sol justitiae* dan Jesus altsua gelditu erazi zutelako, esan bearko nai ta nai ez indar aundia zeukatela.

Etzuen itxu gixaxoak ezer ikusten; argia nai zuen bada; ta ortarako «argi garbia» zan Jesus ona geldierazi omen zuen; eta Jesus ona gelditu omen zitzaion bidean, galdetzen ziola: «*Zer nai dek.*»

Oartu galdera ori: «Baño, Jauna, esan zezaiokean itxuak, ¿ez al daki bedofek gose dagonak janaria nai duela; egafi dagonak ura; gofak entzunmena; ta ni bezelako itxuak befiz ikusmena, argia.» ¿Ez al zekien ori gure Jaunak? ¡¡Jakín gabe!! ¿Zergatik egin ote zion ba galdera ura?

Bazekien gure Jaunak, itxuak argia nai zuela; ala ere ea nola eskatzen ote zion ikusteko galdetu zion «ea zer nai ote zuen.»

Baita era badirudi onela galdetu izan ziola beste gauza bategatik. Ona emen: Jesus onari jafaitzen omen zioten garai edo ordu artan ozte ala jendeketa izugariak; zarata aundia ateratzen omen zuten eta. Ez det us-te jafaizale guziak egiazko jafaizaleak izango ziranik; aien artean mota edo gisa guzietakoak izango ziren eta.

Batzuek Jesus «Jaungoikotzat» izango zuten; beste batzuek begiratuko zioten ez «Jaungoiko» bezela; baizik gauza miragafi asko egiten zituen gizon afigafi baten erara. Auei bada erakutsi nai zien Jaunak, zer nolakoa zan Bera; bada itxuari entzun ziotenean Jaunari esaten ziola *Dabiden semea*, beren kolkorako esan zezaketen aiek: «Zein ote dek gizon au? itxuak *Dabiden semea* deitzen dionean, ofelakoren bat izango dek noski.»

IV

Zer nai dek ik? itxuari bezela Jaunak guri galdetuko baligu, guk ¿zer erantzungo giñioke?

Aukeran ditugu goi aldeko ta beiko gauzak. Goiko gauzak eskatu eskeroz, utsean eta doan emango dizkigu Jaunak. Baldin gure artean balego goiko gauzak utzi ta luñezko gauzak nai litukenen bat «*itxu dago, ilunpean dabil; utzi utzi; zer eskatzen duen ere ez baidaki*» ori esango genduke; ta alaxen da.

Onelako onek bada, itxu gixaxo onek ez lioke Jaunari gauza jakiñik eskatu bear; baizik esan: «Jauna; itxu nago ni; ta zer nai ote detan galdetu didazun ezkerro, nik luñezkoak eskatu egin dizkizut; itxu nago, egia da; ez bai det goiko edertasunik ikusten; ofegatik kendu jafen! arimako lañoak, argitu mesedez nere arima.»

Bai; munduan erbestetuak bezela gabiltzan bitartean, itxu gaude; mundukerietan itoegi gabiltza ta.

¡¡Ai!! zein eskari edera dan Agustin deunak Jaunari egin oi zion au: *Noverim te, noverim te: Ezagutu nai zaitut, Jauna; ezagutu nai zaitut.*

¡¡Jauna!! ¡¡Jauna!! ¿Zer nai ote degun guk? Ezagutu nai zaitugu, ezagutu; ezagutu ta biotz-biotzez maitatzeko.

Ala izan bedi.

JOSE DEUNAREN JAIA

2.ª HOMILIA IN FESTO STI. JOSEPH.

I

¡¡Zein ederki lan egin ondoan guziak eskef ona erakutsiko baligute!! Ori ikusiko balitz munduan ez litzake mundua mundu izango; bada ez genduke ainbeste eskef gabekorik munduan ikusiko. Mundua beti eskef gabe izan dalako, gauza onen bat ala mesede ontarteren bat egiten degunean, Jauna gatik bakafik egin beaf degu; Jaunak bakafik eskefak egiten eta saria ematen daki ta.

¿Jaunaren alde zefeek egin ote zuen Jose deunak baño lan geiago? Gogora ekafi Belenen, Egiton, basamortuan, Nazareten eta Jose deunak Jesusen alde egin dakoak; eta ikusiko degu guziak, ez ditekela Jose añakorik ta Jose deunaz ben-benetan eta egitan esan diteke ez dala gizakumekandik Jose añakorik sortu.

Jose deuna azken-ordurako aldezlari ona dala ta, gai ontaz jarduki nait det gaur.

II

Azken orduan miñik samiñena bizitza txafak ematen omen du; ordu ikaragafi ortan pekatariak gofiak ikusten dituela ta. Onak ordu artan estu ta lafi badabiltza ¿nola ibiliko ote dira pekatari biufiak?

Ilarion deunak, agure on puska zala, azkenekoetan

onela esaten omen zion bere buruari: «Irurogeitamar urte egon Jaunari *serbitzen*; eta ¿orain bildufez?» ¿Pekatoriak zer esango ote du? Eta ¿zer esan Jose deunaren eriotzaz? Bere bizitza oso ona zala ta, eriotza ere gisa berekoa izan bear beraz.

Etzion Joseri ezerk bildufik ematen; ez bai zuen bizitza osoan pekaturik egin. Garai artan gogoratu ta oroituko zan Jesusengatik eramandako neke atseka-beaz eta Ilarion deunak baño obekiago esan zezakean: «Bizitza osoan ez ditut gauza onak besterik egin; orain ba pozaren pozez nago; Jaunagana noa ta.»

¿Oartu al dezute zer nolako poza izaten duen aspaldian etxetik ufuti egon da atzera befiz etxera biurtzen danak? Jakob gixaxoak jakin zuenean Jose bere seme maitea bizi zala, poz aundia artu omen zuen; aundiagoa izango zan Jose deunak artutakoa, zerura zijoa-la ezagutu zuenean.

Zorionekoak Jose deunaren antzeko bizitza dagitenak; azken orduan ez baidute bildufik izango. Badirudi gaur Jose deuna esaten ari zaigula: «Exemplum enim dedi vobis. Nere bizitza ikasi ezkeru. ikasbide edefa dezute.» Asko maite degu guk Jose deuna; egin zagun ba berak eginiitako bizitza.

III

Ez digu iñork azken orduan lagunduko; norbaitek laguntzekotan Jaunak bakafik; eta, n. a. m., noizbait lagun bila ibiltzekotan ordu ikaragafi artan noski.

Bakafik dabilena itxutua dabil; eta askoz geiago baldin badaki etsaiez inguratua dabilela. Azken orduan etsai amofotuaz inguratu ta gaudenean, eta gurasoak, anai-afebak, lagunak eta guri ezin lagundu ta bakar ba-

karik uzten gaituztenean, orduan ¿bai al dakizute zein etofiko zaigun laguntzera? Jauna ta maite-maiteki gañera; ta Berak emango digu beste inork eman ez dizaikegun laguntza.

Jose deuna il zanean aldamenean eta bere ondoan Jesus ona ta Mari garbia izan zituen; ¡iguk ere lagun oiek izango bagiñitu!!

Apaiz jaunak eta etofiko zaizkigu guri laguntzeko; ta ez uste izan gizon txatxo ta ergel batzuek uste dutena; ez uste izan, ez, apaizak eta eriotza eriarri auferatuegiten diotela; ez uste izan apaiza eriarri dijoakionean ta elizakoak ematen dizkionean eriak nai ta naiez il bearduela; ez uste izan ofelakorik; eri asko elizakoak artu ta sendatu egiten dira ta. Ez gero aztu, elizakoa on bazaio eriarri, osasuna ematen diotela; bada apaiz jaunak gixaxoaren aldezko otoizak egiten dizkiote Jaunari; ta Jaunak, on bazaio, eriarri osasuna ematen dio.

¡¡Ura Jose deunaren eriotza gozoa!! ¿Zergatik deitzen ote zaion Jose deunari eriotzako orduan? Garai artan Jauna bear degu; etsaiak ordu artan inoiz baño maltzufago bai daude, beraz aspalditik ikasi bai degu Jose deuna ordu ikaragafi artako aldezlari ta babeslari onena dala, ofegatik deitzen zaio Jose deunari.

Txit ederki ematen du oi-buruan Jose deunaren irudia daukan etxeak; eta ¿zer esan Jose deuna ofenbeste maite duten kristauaz? Ezer ez; baizik guk Jose deunari ainbesteko esker-ona ta egiazko maitasuna agertzen badiogu, «*cum sancto sanctus eris*» egia dardetzkeru, gurekin ere Jose maitegafia era berekoa izango dala; auxen da ba Jose deunak Bera maite dutenentzako gorde ta daukan sari-ordainketa.

Ikasleak bere ikaskizunetan daudenean, ez dute ikas-taroko azken eguna burutik kentzen; eta txapela irabaz-

teko lefenak dagizkrite. Guk ere beste ainbeste egin bear degu; bada gure azken orduan ondo ateratzen bagera, betiko bizitzan zorionekoak izango gera. Badirudi Jaunak esaten digula: *Ite ad Joseph*; Badakit nola zabilatzaten. Badakizkit *Aita gurekoan* «tentaldietan eta ez erortzeko» esaten dizkidazuten otoitzak; bai ta nere Ama garbi garbiari «*Agur Mariakoan*» esaten dizkiozuten itz xamur-xamur auek ere «*orain eta gure eriotzako orduan*» atsegin zaizkit; orain bada nai dezutena iritxi nai badezute «*Ite ad Joseph Joan Jose deunagana*» nere esker mesedeak bere eskuetan utzi ditut eta».

Bai, n. a. m., joan gaitezen Beragana; ta eskatu zaigun beti eriotza on bat.

Teresa deunak esaten digu Jose deunari eskatutako esker guziak iritxi zituela; ta gure uste oso-osoaz Beragana joateko; Jose deun afigafia ta eskubide aundikoa dala ta. Jose deunaz ari geran ezkeru, bidenabar bada ere zazpi igandeaz zerbait esan nai dizutet.

IV

Kristau onen artean oso gutxi dira zazpi igandeak egiten ez dituztenak; eta esaten badigute ere Jose deuna asko baño asko maite dutelako egiten dituztela, guk esango giñieke egia izango dala ori; baño Bere bitartez ontarte eta mesede asko iritxi edo lortu nai dutelako ere egiten dituztela.

Jaungoiko gure Jaun berak esaten digu Jose deuna aundia ta esku zabala dala; bada Jesus munduan zebilela etzion Jose deunak ezer ukatu; beraz berez datofen gauza da ez diola Jaunak zeruan eskatzen dionik ere ukatuko; ofegatik bada zazpi igandeak.

Etxeko pakea nai duena, joan bedi Josegana; ta eskatu dezaiola Nazareten Jesus Jose ta Mariak izan zuten erakoa.

¿Badirala etorkizun begira zer erabaki ote ez dakitena gazteak? Joan ditezela Josegana; berak argi egiten badaki ta. ¿Badaudela munduko arazoetan estu-estu dabilzanak? Josegana joan ezker oiek ere izango dute bere laguntza. Eta ¿eriotzako orduak ikaratu egiten gaituela? or dago Jose deuna orduan guri laguntzeko. Garai guzietan Jose deuna gure begira baldin badago ¡orduantxen! bai edukiko degula gure aldez!! Jaunak ortarako aukeratua bai dauka.

Zorionekoak geroztik Jose deuna biotzez maite dutenak!!

Ala izan bedi.



BEROGEIKAROKO LENENGO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 1.ª QUADRAGESIMAE

I

Gaur Jesus gure Jauna ta Jaungoikoa gizon antzean agertzen zaigu; lekaro edo basamortuan otoi ta otoi ta baru-barurik befogei egunez agertzen zaigu ta. Etsaiak ekin izan dio; ez du ordea ezer erdetsi; gure Jaunak be-ti ta aldioro garaitu izan bai du.

Etsaiak lenengo eraso edo tentaldian esan omen zion: «*Jaungoiko seme ba aiz, ogitu itzak ari auek.*» Etzuen gure Jaunak garai artan Jaungoiko zanik agertu nai; ta erantzun omen zion etzala gizona ogiz bakafik bizitzen; Jaungoikoaren itza ere bear zuela ta.

Gero eliz-nagusiko galdufera eramana, esan omen zion bildufik gabe bere burua andik botatzeko; Jaunak bere aingeruak bidaliko ziozkala ta. Jesus onak erantzun omen zion, ori egia bazan ere, idazti deunak ziola: «*Jaungoikoa ez beñere iradokitzeko, tentatzeko.*»

Azkenean munduko edertasun guziak menditontor-tontor batetik erakutsi ta onela esan omen zion: «*Aoz-peztu ta gur egiten badidazu, au guzia zuretzako.*» Orduan su ta gar erantzun omen zion Jaunak: «*Utikan, Satan, gur Jaungoikoari bakafik egin bear zaio ta.*» Gaur erakutsi nai dizutet: Etsaia, deabrua oso ezereza dala; Jauna beñiz altsua. Etsaia, deabrua oso aula dala; Jauna beñiz indartsua. Etsaia, deabrua oso gezurtia dala, Jauna beñiz egi utsa.

II

Etsai deabruak bererik ez dauka ezer; zer edo zer berea izatekotan gaiztakeria ta maltzurkeria bakafik. Lenago (esan nai det) Jaunak aingeru sortu zuenean, bazeukan zerbait; baño Jaunak bere afokeriagatik zerutik jaurtigi (bota) zuenean gauzarik ezer-ezena biurtu egin zan. Gaur beñeipein onelekoxea agertzen zaigu: beartsua, txiroa, ezereza.

Jauna goseak zegoela ita Jaunarentzako jatekorik izan ez! Izan bazuen, etzizkion Jaunari itz auker esango: *Ogitu itzatzu ari auker*. Etsaiak Jaunari pekatu egin erazi nai izan bazion, ¿zergatik etzizozkan janari ta edari gozo garestiak eskeñi? Ona eskeñi ziona: *ogi utsa*; ta ori beñiz *afiak ogi biurtzen bazituen*. Eskeintza onek jakin erazten digu deabrua oso beartsua dala; ta ez duela bererik ezer.

Beartsu guziak erukigafiak dira; baño bere ustezkoak eta aundinaiak izan ezkeró, eruki ta kupida eman beafean amofó ta nazka ematen dute; ta onela agertzen zaigu gaur deabrua: afoa, zitala, aundinaia; beraz nazkagafia; bada *Hæc omnia tibi dabo, au guzia iretzako* afo-afo Jaunari esan da etzuen afokeria besterik erakutsi izan.

Guk esan genezaioke orain deabruari: «Aizak, irea al dek mundua? Mundua irea izan da ¿ez al dek Jaun ofentzat ogirik?»

Satanas'ek ez duena Jaunari eskeintzen dion erara, zeken eta zikoitzai ere eskeintzen dizkie diru-zizku ta ontzufe galantak; aundinai ta afoai aintza gorespen eta txaloak; berekoiai al aundiak eta eskubide aundiagoak; lizunai naikeri ta atseginkeriak; eta guziai norberak nai duena; baño gauza bat da eskeintzea ta bestea

ematea. Agindu, eskeiñi ta ¿gero eman ez? Ori bai dala gauza itsusia.

Ez uste izan bada txefena (deabrua) aberats dagonik. Zer edo zer eskeintzen badizute ere, jakin eskeintzetik ematera alde aundia dagola. Baleude munduko gauzak bere menpean, ez legoke munduan beartsu txirorik; eta bere adiskide lagun guziak aberats egongo lirake apike; baño beartsu bai dago ta gauza guziak be-fiz Jaunaren pean, ez uste izan beraz etsaiak lagundu dizaigukenik.

III

Jaunak bakafik ditu gauza guziak bere baitan edo menpean; aspaldi artan opaz (sakripizioz) eskeintzen omen ziozkaten beiak, idiak, ardiak, zikiroak eta; baño abere, arkume, bildotx aiek ziran Jaunak berak eskeintzale berai emanitako gauzak; bada Jaunarenak dira guk ditugun gauza guziak.

IV

Deabrua oso aula da: bada baleuka nai duena egi-teko añako eskubidea, onezkero mundua ta bertan bizi geranak ondatu ta geundeke; alaxen dio beintzat Basilio deunak; ez dezake ordea ezer; eta Jaunak oin eskuz lotu ta dauka.

Gaurko Ebanjelioan beifitepein oso makal eta aul agertzen zaigu. Eraman zuen bai Jauna galdur goi goi batera; etzion ordea bultzik egin; ez da buruz bera bota ere; ori egin beafean *Mitte te deorsum*, Jaunari *bere burua botatzeko* esan bai zion.

Etsaiak eskeiñi lezake pekatua; ta zofitxarez bein

baño geiagotan eskeintzen digu; baño guk ez nai ezke-ro, ez degu pekatu rik egingo.

Ibiliko da bai etsaia leoi mafulari antzera jira-biraka gure ondoan; baño Jaunak lagundu ta gogor egiten baldin badakigu, ez dizaikegu etsaiak ezer egin.

Plinio gizon jakintsu batek *Galotafaz* dio gudakoan lenengo ekin-aldietan oso kementsuak eta txit pixkofak izaten zirala; ta ez omen ziruditen gizonezkoak ziranik ere; gizonezko baño aundiagoak ziruditela ta; gero ordea aspertu egiten omen ziran, auldu ta bildur-bildurti biurtuaz.

Orixen bera gertatzen omen zaio etsaia zaigun deabruari.

Jesus mundura baño lenago, oso kementsu ta ausarti omen zebilen; ¿gero beñiz? Jaunak lotu ta auldu izan zuen.

Jakintsuak omen diote, badagola itxasoan *itxas-espata* izenez daukan afai ikaragafi bat; ikusten dutenak asko ikaratzen omen dira; baño itxuraz ain ikaragafia ta bildufafia izanaz ez omen diote beste afaiak ezeren bildufik: deabrua ere ofelakoxea omen da; itxuraz ikaragafia; *espata-afai antzekoa* ordea.

Zakur zaunkaria gutxitan ozkaria; deabruari ere ori bera esan dezaiokegu; *latrare potest, sed mordere non potest nisi volentem* esaten du Agustin deunak; guk ez nai ezkeru, ez omen digu etsaiak kalterik egingo ta. Nor edo nor altsu izatekotan ba Jaungoikoa bakafik.

V

Etzaitzuet aspertu nai esaten etsaia gezurti dala. Esan dezatela gure lenbiziko gurasoak; esan dezatela Adan eta Ebak; erdi-erditik atzipetu izan bai zituen; ez bai zien gaizki ziri edefa sartu izan.

Emen ikusten dituzun gauza guziak nereak dira; ta aozpeztu ta gur egiten badidazu zuretzako guziak.

¡¡Ori gezufa!! ¿Bererik zer ote du etsaiak gezurkeria ta malzurkeria ez bada? Ona Zipriano deunak esaten dio-na: «¿Baño, Satanás, irerik emateko bai al dek zerbait?»

N. a. m. Deabrua ta kidekoak gezurtiak dira; ez da-kite egirik esaten; ez bai dute ifon ikasi izan. Etsaiak askori gauza ugari ta edefak eskeñiaz ziri galantak sartu izan dizkie. ¡¡Balekite gixonak zer nolakoa dan deabrua!!

Aztiak eta efietan ziri asko sartzen dutelako astin-gariak eta makilgariak badira, a! zer astin-aldiak eta nolako makilakadak jo bear gifiñozken gezur utsa dan deabruari!! Ez siñistu, kristauak, beñere etsaiari; gezur utsa da ta.

¿Eta Jaugoikoaz beñiz zer esan ote? Berak bein itz-eman ezkeru, ez du itzik jaten: betetzen bai du beti. Iriki liburu deunak; eta Jaunak bein esana ikusiko degu betetzen badakiela. Etsai amofatu ta Jaunaren artean beraz neufigabeko aldea dago. Ez du etsaiak beñere egirik esaten; Jaunak beñiz ez du ifioiz gezufik esaten. Etsaiaren gezufak galtzen gaituzte, Jaunaren egiak beñiz zerura garamazki. *Utikan emendik, Satanás, gur Jaunari bakarik egin bear zaio ta.* Auxen bera bere eraso-aldiak somatu ala esan bear diogu guk ere etsaiari.

¡¡Utikan gezur utsa aiz eta!! ¿Uste al dek afapatu-ko naukela? ¡¡Ez!! Jaunari jafaitu nai diot eta.

Ala izan bedi.



BĒROGEIKAROKO BIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 2.ª QUADRAGESIMAE.

I

Orok dakigu Taboŕen gertatutakoa. Badaude gogoz gogoratzen ditugun mendi batzuek; eta aipatu orduko badakigu bertan gertatutako guzia. «*Moria*» esan ala gogora datozkigu Abran eta Isac. *Sinai* entzun bezin laster oroitzen gera Jaunak Moiseseri emandako legediaz. «*Olibet*» ¡jau mendia!! «*Kalbarioa*» befiz?

Tabor mendiaz itz egiten zaigu gaurko Ebanjelioan; eta buruz dakigu mendi artan gertatu zan guzia.

Gure Jaunak bere izatea aldatu egin zuela, ta mendi ura zeru biurtu zala, ta Pedro deunak an iru bizitza egin nai zituela, ta Moises eta Elias bertan agertu zira-la, ta Betiko Aitak itz egin zuela ta ¿zer ote da gai ontaz kristauak ez dakiguna? Gaur zer edo zer esan nai dizutet Jaunaren izate aldatzeaz.

II

¿Zergatik aldatu ote zuen Jaunak bere izatetasuna?

Etzan Jauna, ez, aundinaia; ez da bere uestezkoa ere; etzekien beraz zer ote zan aundinaikeria; Jauna oso apal-umila zan eta. Au guzia egi aundia izanaz ¿zergatik agertu ote zan Taboŕen ain afigafi? Gure fedea ala sinismena sendotu nai zuelako noski; ta ortarako era-

man izan zituen nunbait ara iru jafaizale aiek; andik gutxira mundu-bafenean aiek berak Ebanjelioa zabaldu bear zutela ta: ofegatik ere Jesus ura Jaungoiko zala gero ta geiago siñistu zezaten entzun izan zuten aiek Aitaren esan au: *Au da nere Seme kutuna; entzun Berari*. Afezkeroztik jafaizale aien siñismena sutsuago jafiko zan nunbait; eta orduraño garbi-garbi ez bazekiten zein ote zan Jesus ura, Betiko Aitaren esana entzun da jakin izan zuten etzala Jaun ura nolanaikoa, Jaungoikoaren Semea zala ta.

Eta *Espiritu Santuaren* beñirik ez bazuten, gogora ekari zazute Jordan ibaian agertu zan Goteuna edo *Espiritu Santua*, uso txuri antzean agertu omen zan eta.

Gero Pentekostes igandean suzko mingain gisara agertu zala dakigunak ¿ez al dakigu gaurko Ebanjelioak esaten duen au? *Odei zuri-zuri batek estali zituela guziak?*

Jakintsuak diogutenez bada Goteuna Tabor artan agertu izan zan; eta odei eder artan gañera.

Gure Jaunak bada egun zoragafi artan sendotu nai izan zuen jafaizale aien siñismena; ta guk baño geiago dakitenak beñiz diogute, Jaunak—bere izatetasuna mendi artan aldatu ta—erakutsi nai izan zigula gure azkenpixtuera; siñisten bai degu azkeneko epai-egunean guziok pixtu bear degula. Egun ikaragafi artan geroztik onak pixtuko omen dira eder-edertasunez jantzirik; baita ere bere izate-aldatze afekin jakinerazi nai omen digu Jaunak ez dagola Beretzako eziñezko gauzarik; eta Berak bere izatetasuna aldatu egin zuen bezin efazki, guri ere pixtuerakoan izatea aldatuko digula. Badirudi esan nai zigula: «Zuek ere onak baldin bazerate, azken egunean orain ni bezela bezelaxen edertasunezko argiz jantzi ta pixtu egingo zerate.»

III

Idazti deunetan esaten zaigu zein zan Moises; baita ere bertan irakufi diteke bere eginkizuna zer zan. Israeldafak Egitotafen menpean zeudela ta Jaunak askatzeko agindu ziola ta basamortu-bafena eramanaz azkenean Kanaanera eraman zituela ta guziak dakizki-gu Moisesek egindako gauza miragafiak.

Judu edo Israeldar aiek txit biufiak omen ziran, eta bein baño geiagotan Moises gixaxoaren lepotik naiko marmar egin izan omen zuten, Moisesen afeba zan Maria buru zutela. Basamortu artan zebiltzala ba asper-tu etzitezen eta Jaunak oiei eskeñitako lur-aldea jori-joria ta aberatsa zala ikusi zezaten, bidali omen zituen Moisesek Josue ta Kaleb gizon azkañak lur-alde ura ikus-teko; ta siñistu zezaten oso edefa ta ezin ohea zala, ekafi omen zituzten itzultzekoan mats-mordo eder batzuek. Israeldafak ura ikusi ta siñistu omen zioten Moiseseri guzia.

Badirudi gure Jaunak ere ori bera egiten digula; bada badirudi egun ontan esaten ari zaigula: «Begira zein eder ta argitsu arkitzen naizen ni enien; zuek ere onak izan ezkeru, noizbait ni bezela egongo zerate. ¡¡Auffera ba!! Ni emen nago zuek zeruan onak izan da arkituko zeraten eraz. Zeruko edertasuna noraño-koa ote dan aterako dezute emen ikusten dezutenetik.»

Ona emen bein gidari azkar batek bere menpekoen artean zegoela egin izan zuena. *Soldadu* aiek ala bere guda-mutilak asper-tu etzitezen eta etsaiari gero ta gogofago ekin egiteko, erakutsi omen zizkien guziai ederkai, ontzufe ta aberaski asko, bitartean onela esaten ziela: «Mutilak, gure etsaiari gogor ekin ezkeru onelako

gauza edefak eta aberatsak danak danak zuentzako; ez aspertu bada, ta jo beti aufera.

Orixen bera esaten digu Jaunak ere: «Badakizute etsai asko dituzutela, gogofak dira bai ta or nunbait ibiliko zerate garaitzeko; baño gogor egin eta ona emen garaitu ezkerro ta bofokan irabazi ondoan izango dezutena» ta sarizat erakusten digu Tabor mendian Berak izan zuen zeruko edertasuna.

IV

Mendi bat da gure Jaunak bere izatetasuna aldatu izan zuen lekua. Mendi bat da, Tabor mendia.

Non-nai aldatu zezakean bere izatea; baño mendi bat aukeratu zuen.

Etsaiak Jauna mendi batera eraman zuen; eta bertatik munduko edertasuna erakusten ziola guzia eskeiñi izan zion, berari gur egitekotan ordea.

Gure Jaunak ere eraman izan zituen *iru apostolu* aiek Tabofera, zeru antzeko edertasuna erakutsi nai ziela ta.

Deabruak eskeiñi ziozkan Jaunari lufezko gauzak; Jaunak befiz zerukoak eskeintzen dizkigu: Jesus gure Jaunak bada jafaizale aiek mendi batera eraman zituen ezkerro adierazi nai digu bere jafaizale geran kristauak goi-goi nai gaituela mundutik ufuti; ta zerutik gertu ta urbil, au da Tabor mendiak erakusten diguna. Jo ba beti goi aldera; Jauna goi-goian bai dago; ta laguntza Beragandik datorrigula ez beñiere aztu.

V


Jaunaren edertasuna ikusi ta aozpez erori omen ziran iru jafaizale aiek. Jesus onak ordea: «*Ez bildufik*

izan» esanaz jaiki erazi omen zituen. Gu ere erortzen bagera Jaunak jaikitzen gaitu. Indařík ez degulako erortzen gera gu; ta noizbait aspertu egiten bagera ere esaten digu: Ez bildurtu; nik lagundu ta ez baizaizute ezíñezkorik izango.

Jaiki ondoan ez omen zuten iru jafaizale aiek Jesus baizik ikusi. Guk ere pekatutik atera ondoan ez degu Jauna baizik ikusiko; gure lagun, adiskide leial zintzoa Bera baida.

Iriki begiak; eta Goiko Jaun ona non nai dagon ezkerero leku guzietan gur-egin zaiogun.

Ala izan bedi.



BEROGEIKAROKO IRUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 3.ª QUADRAGESIMAE.

I

Ez baleki norbaitek nolakoak ote diran mundutafak, irakufi dezala gaurko Ebanjelioa ta ikusiko du maflariak dirala.

Gutaz esaten diran txakurkeriak eta iñon diranak jakin erazten dute, ez dala munduan mafla ta gaizki-esana besterik.

Jesus onaren garaian mundu osoa menperatu ta zeukan deabruak; eta arkitu omen zuen Jaunak ofelako batean deabruak mutu ta zeukan gixaxo bat; efuki aundia emango zionik ez dizutet esango, Jaunak zein biotz beratxa zeukan badakizute ta. Jaunak agindu omen zion etsai deabruari gixaxo ari pakean uzteko ta beragandik berealaxen alde egiteko; ta Jaunak agindu ala mutu gixaxoa askatu-ta gelditu omen zan.

Oartu orain gauza oarfari bat. Mutua sendatu ta ikusi zutenak, batzuek ezin geiago goretsi izan zuten gure Jauna; besteak befiz zioten Belzebuk laguntzen ziola-ko egiten zituela Jaunak gauza miragafiak; eta marmar aundiak zegizkiten Jaunaren lepotik.

Ofelakoxea degu mundua guk ere; batzuek gutaz ondo esaten duten bitartean besteak gaizki ariko dira.

Batzuek ba Jaunak egindako afigariagatik eskefak ematen ziozkaten; besteak befiz marmar zegiten.

Ona Jaunak, guzi-guzia bazekiela aiei adierazteko; esan ziena: «¿Ez al deritzaizute nastu-nastu-ta dagon efiá berez ondatu egingo dala? ¿Ez al da egia puskaka erortzen ari dan etxea aurki osoa amilka ereriko dala? ¿Nola ote iraun Satanasek, etsaiak elkafeñ artean nastu-nastuak badabiltza?

Belzebuk neri lagundu-ta nik egiten baditut egiten ditudan gauzak ¿zeiñek laguntzen ote die zuen semeai, etsaiak eta jaurtigitzen edo botatzen? Jaungoikoak laguntzen badit, etofi izan da beraz zuengana Jaunaren agintaldia.»

Oso mamitsua da gero gaurko Ebanjelio au; ta beste gauza askoren artean ikasi bear degu gutaz gaizki esaten danean guzia eroapen (pazienzi) aundiaz eramaten; bada gure Jaunaz ofenbesteko txakurkeri esan baziran ¿zeñek usteko du ez dala gutaz esango?

Marmar-biderik eman ez eta marmar egiten badigu-te; marmar-bidea eman ezkerro... ¿zer gertatu ote litzai-guke? Oartu esan auek.

II

Nastu ta dagon efiá berez ondatu egingo da. Oso jakintsua omen zan Salomon; landaratxo ta izate guziko gauzak ere bazekizkiela ta.

Jesus ona ere ona bezin jakintsua zan; eta ala ere Salomon baño jakintsuagoa; etsaien asmo ta gogorazioak ere igartzen bai zituen.

Ez omen ziran Jaunaren etsai madarikatuak ziran judu gaizto aiek ausartzen agirian Jaunaz marmar egiten; lagunak eta efiak asko maite zutela ta. Baño bazekien bai Jaunak zer nolakoak ziran etsai aiek; eta igartzen zizkien ¡jaixa ala ere!! ixilpean zegizkiten marmafak;

eta bazekiela guzi-guzia berai agertzeko, esan zizkien itz oiek: *Nastu-ta dagon efiá ondatuko zala ta esanaz bezela*; «Esaten dezute zuek ez balit Belzebuk lagunduko, ez nukela gauza miragafirik egingo; ta zuek uste dezute nere gauzak ikusten dituztenak ain afituak badaude dala Belzebuk lagundu ta nik egiten ditudalako. Nik befiz esaten dizutet neketan izan ditekela ori; bada ez dabilta deabruak elkafen artean ondo Belzebuk laguntzen badit neri; nastu-nastu ta daudela ofek esan nai du ta; geroztik elkafen artean ofela badabilta, laster ondatuko dira. Gauza onak egiteko Belzebuk laguntzen badit, ene!! ¿noiztik nora ondu egin da etsai guzien agintari ori?»

Esan ofekin esan nai izan zien gure Jaunak berak egiten zituen gauza guziak Jaungoikoak lagundu ta egiten zituela; bera Jaungoiko zala ta bazeukala zegizkien baño askoz gauza miragafiagoak egiteko eskubidea. Erotu ta zeuden noski judu aiek, deabruak Jaunari laguntzen ziola uste izateko.

III

Artu itzagun orain Jaunaren itz oiek guretzako esanak baleude gisara.

«Nastu ta dagon efiá berez ondatu egingo dala?» Bai; ta laster ala ere. ¿Zer dira efiak? ¿Zer izan bear dute efiak? Efiak ez du izan bear sendi edo pamili bat besterik. Sendian ez badago pakerik eta etxeakoak nastuta badabilta, ta nagusia menpekoakin eta menpekoak nagusiakin eta guziak elkafekin bofokan eta on-damuz badabilta ta ari badira, ¿zer esan *pamili* artaz? ¿Era artako etxe-pamili, efiá Jaungoikoak nai duen erakoa

da edo? ¡¡Bai zera!! Nola izan pakea agintari ez bada-
go? ¿Nola izan, pake gabeko lekuan ez baditeke Jaun-
goikoa egon? Ez uste izan ez, etxe ofek asko iraun de-
zakenik. ¿Nola iraun, ez bada Jauna bertan bizi? ¿Nola
iraun, Belzebu agintari egon ezkeror? ¿Nola iraun dea-
brua etxe nagusi badabil? Eta ¿nolakoa ote da era or-
tako etxeak dituen eria? Erukigaria, kupidagarria noski,
ez baida bertan pakerik izango, ez da atsedunik ere; ta
¿zertako bizi pakerik ez dagon erian? Efi geienetan ba-
dira elkar ikusi nai ez aundiak; elkafekin zakur amofot-
tu antzera dauden sendiak edo *familiak*; eta ¿auek efi-
ko aberatsenak badira ¡¡jene!! ¡¡efi gaixoa!! ¡¡efi negar-
gafia!! ¡¡inpernu antzeko eria!!

Ona nola bizi bear luteken efikide guziak; erleak
eultzian bizi diran gisara: elkar maitatzen, elkar lagun-
tzen, elkafen aldez jartzen; eta guziak efiaren aldez lan-
egiten.

Ez balego efi batzuetan aundinaikeririk, eta antuste
ta afokeria uruti baleude zero biurtuko lirake nunbait.

Ez aztu, n. a. m., batu egoteak indara ematen due-
nik; ez da ere ez aztu osasuna ta sendotasuna indafetik
datozenik: ¿zertarako esan efiaren osasuna zoriona ta
langiletasuna diranik?

IV

*Nik Belzebuk lagunduta deabruak aienatzen badi-
tut zuen semeai zeñek laguntzen die?* ¡¡Oartu!! ez du
esaten Jaunak nere jafaizaleak; baizik *zuen semeak*.
Zuen semeak esan da esan nai zien onelatsu; Zuen iri-
tzian nere Jafaizaleak nere izenean jaurtigitzen dituzte
deabruak; eta ez ba dezute «*zuen semeaz*» ezer esaten
zuen odolekoak diralako edo; ta ongi baderitzaizute
oiek dagitena ¿zergatik nitaz ofelako txakurkeriak?

«Kristal» txuriaz ikusten diran gauzak txuriak deri-

tzaizkigu; ta beltzaz begiratu ezkerro *dana dana* beltza agertzen zaigu; guk bada gauza miragafiak egin-afen etsaien bat izan ezkerro gauza guziak alde txafera botako ditu; ez gero ofegatik estutu Jaunak norberari dagokiona emango dio ta.

¡Zein ederki adierazi izan zien Jesus onak juduai Bere agintaldia etofi zala! Deabruak aienatzen baditut Jaungoikoak lagunduta izango da, beraz munduan agintari Jauna dago; ofegatik siñistu bear dezute Jaungoikoaren agintaldia etofi izan dala.

Egi utsa zan Batista deunak ziona: Zuen artean dago; ta zuek ezagutu ez!

Argi aski esan zien Jaunak juduai eta *Bera zala Jaungoikoa ta* bazeukala ofegatik deabruak ere botatzeko eskubidea; juduak ordea itxutu ta egon; eta ez jakin Jaunak esan nai ziena.

Bera zala Jaungoikoa gero ta geiago siñistu zezaten ona emen esan izan zien ipuia.

V

Etxeko zaindaria azkafa ta indartsua baldin bada, etxeakoak egon ditezke bildufik gabe; baño bera baño azkafagorik baletorkio... ¡¡ene!!

Jesus ona mundura baño lenago agintari munduan deabrua zegoen; Jesus mundura etofi zan ordea; ta deabrua baño azkafagoa zanezkero Jaunak menperatu zuen etsaia, ta jakin nai bezenduteke noiz agertu izan zuen batez ere deabruaren *kontrako* eskubidea, oartu gaurko Ebanjelioa; ikusi deabruak mutu-ta zeukan gixaxoa; ta jakingo dezute. ¡¡Zorionekoa mutu gixaxoa! Zorionekoa gu ere mutuari bezela Jaunak pekatutik askatzen bagaitu!

Ala izan bedi.

BEROGEIKAROKO LAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM 4.ª QUADRAGESIMAE

I

Guziak badakigu badaukala Jaunak txorikume ta pizti guzien ardura; ta gizonena ere baduela norbaitek ez baleki, nik esango nioke: «Atoz basamortura ta ikusi nola ase-betetzen duen gure Jaunak 5 ogi ta bi afaiakin ainbesteko gizakume pila. Baderitzait neri gizapilakagarafi artan nabaritu edo galenduko zirala beartsuak, txiroak ala *probeak*; bada Jesus ona geienetan oien artean zebilen ezkerok; ta bere adiskide aundienak zirala ta, basamortu artan naiko beartsu egongo zan noski.

«Pilipe, esan zion gure Jaunak bere jafaizale bati; giza pil aundi oni bazkaria emateko edo alikatzeko janari aundia ta asko-bearko ¿e?»

«Jauna, erantzun omen zion Pilipek, aberats aberatsak bagiña ere ez genduke ainbesterako dirurik.»

An zegoen Andres beste jafaizale bat; eta onek esan omen zion Janari: «Badago *jendien* artean bost ogi ta bi afai dituen bat, baño ¿zer egin diteke ofen gutxikin? Ez dago ez da asitzeko ere.» Eskatu zituen Jaunak ogi ta afai txo aiek; eta jendeketa afigafi ura exerieraziaz asi omen zan Jaun ongilea Betiko Aitari eskefak ematen; eta janari pitin-pitin ura bendeinkatuaz eman omen zien berakin guzi-guzi aiei jaten; eta guziak, ederki bazkaldu ondoan oraindikan ere afai ta ogi geia-

go gelditu omen zan. Gure Jaunak agindu omen zuen gelditu ziran ogiak eta araiak gordetzeko.

II

¡¡Jauna janari txiki ura jendeari eman baño lenago bedeinkatzen!! ¿Kristauak ere ori bera egiten al dute? Oitura edefa da beintzat; eta Jaunak atsegiñez beterik ikusten duena. ¡¡Eta eskefak eman omen zizkion Betiko Aitari!! Gu ere bizitza oso osoan Jaunari eskefak ematen egongo bagiña ere, ez giñiozke bear añakorik emango; neufi gabeak bai dira Jaunak guri emandako mesedeak. Gizonak, batez ere kristauak, beti esker ona erakutsi bear diogu Jaunari.

Jesus gure Jauna Jaungoiko zan; eta Jaungoiko zanezkerok al eta eskubide aundia zeukan; eta gizon zan aldetik befiz zor zion Betiko Aitari gizon guziak zor diogun menperatasuna ta begiramentua; ofegatik ogi araiak bere afean zituela Jaunagana begiak eta biotza jasoaz eta Jaunari eskefak eman ondoan *bedeinkatu* egin zituen; guri esan eta agindu niaz bezela zer edo zer artu edo jan baño lenago ura bera egin bear degula. Ilak pixtutzean, eri gaixoak sendatzekoan, eta itxaso mafularia ixil-eraztean etzion Jësusek Jaunari eskefik eman; gauza oiek Jaungoikozko gauzak edo miragafiak zirala ta; baño gaurko Ebanjelioan dakusgun gauza arigafia egin baño lenago, ogia eskuan artu ta Jaunari eskefak ematen ikusten degu.

Gizakume zan aldetik bada beti zeukan Jaungoikoa begien afean; eta ¿guk era berean ote degu? Eguneroko ogia goitik datorkigu; *Aita gurekoan* eguneroko ogia Jaunari eskatzen bai diogu; ta Jaungoikoak ona dalako laguntzen digu eguneroko janaria emanaz; ¿zer-

gatik bada eskefak egiñaz ogia bidaltzen digunari eskuan muñik egin ez?

Ez dira ez kristau onak Jaunak gaur erakusten digun oitura edefa ez dutenak; eta ikasi badute ere janaria ta bedeinkatzen lotsatu egiten diranak ez dira ere Jaunaren begikoak: Obe ez palira ainbeste abere antzera bei-aldera begiratzen duten kristauak. Begira baso-oianean ezkurketan dagon unaia. Ezkur ondo gañean dago. Beian ditu beñere goi-aldera begiratzen ez duten abere batzuek.

Unaiak goitik bera ezkuñak eta bota afen ez uste izan abere aiek goi-aldera begiratuko dutenik. Jaun onari eskefik ez damaion kristaua çzeren antzekoa ote da beraz?

III

Antzineko Eфомatafen artean aspaldiko oitura au gordetzen omen zan: Jatorduan bazkaldar edo maikidien artean nagusi egiten zuenak bazkaltzen asi baño lenago artzen omen zuen eskuan «baso» ardo bat; eta Goiko Jaun onari eskefak emateko eran goi aldera begiratu ondoan ardo tanta batzuek botatzen edo isuritzen omen zituen luferra. Eta guk janaria ta edaria goitik datzokigula jakin eta çzergatik goi aldera Jaunari eskefak emateko begiratu ez?

Orain ez dala asko arkitzen omen ziran Austriako ostatuetako jateko geletan ur bedeinkatu ontziak; baita Jesus eta Andre Mariaren antz-irudiak edo *kuadroak*. Ez det ezer esan nai oitura eder aietaz; gureak ere era berekoak izan bear luteke ta.

Entzun izan ez badezute bein bazkaltzekoan Benito deunari gertatutakoa jakin orain; eta entzun:

Bein batean bere etsaiak jafi omen zioten edontzian

edo *basoan* edena edo pozoia; ta berak oitura zuen eran onetsi edo bedeinkatu omen zuen edan baño lenago; ta bedeinkatu orduko pufukatu ta autsi omen zan berez *basoa*. Beraz Jaungoikoaren aúfean oitura eder au ere ona ta edefa da noski, *joraingo* kristauak befiz ori egiten lotsatu!

IV

Ez det esan nai ezer gure Jaunaren biotz efukitsu ta beratxaz; agirian bai dago basamortuan egindako miragafiak egiazko ta benetako biotz efukitsua adierazten duela. Jaunak asko eman afean etzaio sakelik ustutzen. Ez da ba ez Jauna mundutafak bezelakoa; auek aberats pufukatuak izan da ere, agudo aspertzen dira ematen; ta bildufez dabilta ea noizbait zerbaiten beafean arkituko ote diran; Jauna befiz emaleago ta aberatsago. Asko eman afean ez da ez Jauna beartsu biurtuko.

Bost mila or nunbait izango omen ziran basamortuan Jaunak jaten emanak; eta guziak jan izan zituzten Jaunak ugaritutako afaiak eta ogiak. ¡Ura gauza miragafia!! Bost ogi ta bi afaiakin jaten eman bost milen bat lagunai!

«*Manducaverunt et saturati sunt*» esaten du gaurko Ebanjelioak. Jan zuten eta ase bete egin ziran.

Ez aztu, n. a. m., Jaunak prestatutako jan da edanak bakafik asetzen gaituela; beraz biotza asebetetzeko ez beñere jo bei aldera, lur aldera; baizik lufezko ondasunak eta ez bai dezakete gure biotzik ase bete, jo beti ba Jaunagana; bere janari-edariak osangufiak izanik gure gogo edo arimak bear dituen gisakoak bai dira.

Ofatx non dagon *Nabot* zintzoa; zoriontasunez leporaño betea. ¿Zergatik? Ardantza edo masti txiki baten jabe dalako.

Oña beste aldean Akab efegea; aberats dago: baño txit urduri dabil; eta kezka bete. ¿Zergatik ote? Nabot bera baño poz geiagorekin bizi dalako. Bera efege izan deta Nabot beartsua bezin zorionekoa izan ez!!

Oña beziz nondik datoñen Jezabel emakume befitsu ta afoa. Naboten zoriontasuna berak ere ezin eramanaz; azkenean Akab efegeak eta Jezabel efergiñak il erazi dute Nabot gixaxoa.

¡Zein ondorengo txafak dituen bekaizkeriak (inbidia); Jaunaren janaria dan biotzeko pakeak geroztik ase betetzen zuen Naboten biotz apal-umila; mundu ta deabru janaria dan afokeriak beziz kezkaz beterik zituen Akab eta Jezabelen biotz zitala.

Obe zaigu bizi, gutxi izan da ere, zorionez bete dagon Nabotekin, asko izan afeñ kezkaz beterik bizi diran Akab eta Jezabelekin baño.

Norbera daukanakin pozik egon ezkeru ondo bizi da; ez du geiago ezer beafik.

V

Gelditu edo *sobratu* ziran afaiak eta ogiak agindu zuen Jaunak biltzeko. ¿Zer ote? ¿Ain zufa ta eutsia ote zan Jesu-Kristo? ¿Zergatik bada agindu ori? Oartu, kristauak, ogi ta afai aiek Jaunaren esku-bitartez ugarituak zeuden; Jaungoikozko gauzak ziran geroztik; beraz Jaungoikozko gauzak beti gorde egin bear dira.

«Gorde guzia; galdu ez dedin.» Ori bera esaten digu Jaunak guri ere. Gorde nere mesedeak; gorde nere deiak; gorde nik esandakoa; gorde dana; galdu ez dedin.

Baita aberatsai ta aixa bizi diranai ere esaten die Jaunak: «Beartsuak goseak il ez ditezen geiegiren bat badezute, eman gixaxo auei; eman nere izenean; lagun-

dü neri lagunduko ziñidateken bezela; ta ez uste ofegatik beartsu biirtuko zeratenik; gero ta geiagø aberastuko zerate ta. Zuek nere seme maiteak diran beartsuak zaintzen edo begiratzten badituzute; nik ordaiñez zaindu ta begiratu egingo zaituztet.» N. a. m., Ofelaxekoa da Jauna: onakin ona.

VI

Basamortuko gizakume aiek ofelako alatz aundia ikusirik esan omen zuten: «*Auxen*» «*auxen*» *dek etorkizun zegoen Igarle aundia*: baita ere efege egin nai omen zioten.

Lagunak gureganatu nai ezkerofa bide ona. Txakurfa ogi puska bota ezkerofa adiskide degu; bildotxa be-lar pixka bat eman da gure atzetik etofiko da; mutilkoskofak intxaur eta goxoak eman ezkerofa jipozik!! eta gure adiskideak, berealaxen maiteko gaituzte bai guziak esku-zabala ta biotz maitekofa erakutsi ezkerofa. Jaunagana guziak eramateko ona bada non daukaten aberatsak eta bide eder-edefa. Dirua inpernu bidea izan diteke; baño dirua Jaunaren antzeko biotz efukitsua duten gizonen eskuetan askoentzako zeru-bidea izango da.

Jaunak jakin zuenean «*efege*» egin nai zutela iges egin omen; zuen etzuen beraz bere gorespenik nai; ez bilatu ba, kristauak, munduko txalorik; baizikan Jaunarenak.

Ala izan bedi.

BEROGEIKAROKO BOSTGAREN IGANDEA

2ª HOMILIA IN DOM. PASSIONIS

I

Gaurko Ebanjelioa luze xamafa bai da ez dizutet mamia baizik esango, ta asiko naiz esaten judu zital aiek Jaunarentzako gaiztoak eta biotz-gogofak zirala; bada Jaunak afelako gauza afigafiak egin da ere etzioten jaramonik egiten; ezer egingo ez balu bezela irauten omen zuten eta. Ori gutxi balitz, *samaritafa ta deabruak menperatua* ere deitu omen zioten. Etzuen gure Jaunak ofelakorik entzun nai izan; eta mundu guziari bere Jaungoikotasuna jakin-erazteko, ta aiek jakin zezaten Bera zerutik jetxitako gizona zala ta etzala gañera aiek uste zuten erakoa, ona Jaunak esan ziena: *Ez dago deabrurik nigan; bada nik gur egiten diot zuek gurtu (adoratu) nai ez diozuten nere aitari.*

Gero Jaungoikozko itzaren bikaintasuna noraflokoa zan adierazteko esan izan zien: «Egitan esaten dizutet *ez dala ez ilko nere esanak gordetzen dakiena.*»

II

Geroztik ez-ilkoak izan nai bagera, badakigu zer egin: entzun, gorde, ta egin Jaunaren itzak dioguna. Jaunak entzun zuenean *Samaritafa* zala, etzjon esan oni jaramonik egin; etzjon ofek ajolik; onelako izen

goitiak eta esan nazkagariak entzuten oitua bai zegoen; baño *deabruak menperatutakoa zala ta*, ori entzun ala miñ artu izan zuen; eta bere burua garbitzeko, agertu zuen bere Jaungoikotasuna esanaz: *Ez da nere esanak gordetzen dituenik ilko* esango balie bezela: Zuen iritzian, samaritaña deitu didazutenezkero, giza-txafenetakoa naiz; ¿ta gañera *deabruak menperatu izan duen gizona naizela?* Begira: nere itzak eta esanak gordeko baziñituzte, etzenduteke ofelakorik usteko; nere itzak gordetzen dituztenak ez-ilkofak dira ta.

Jakiña: orduan biotz gogofeko aiek, Jaunaren apaltasuna ikusi ta, aitortu egin bear zuten bere obena ta esan txaña; baño ¡¡bai zera!! esan zioten befiz: Orain bai ezagutzen degula *deabruak menperatu-ta aukala*. Abran il ukan; igarleak ere bai, ta ¿ik esan orain ire itza entzun da ez dala iñor ilko?

Etzekiten judu afo zital aiek Jaungoikozko gauzetan ezer, eta etzuten siñisten beste mundurik bazegoenik ere; Jauna ba ezilkortasunaz mintzatzean, etzioten *tutik* ere ulertu (entenditu).

Jaunari eskerak badakigu guk zertan dagon gure ezilkortasuna; kristau onak izan da betiko bizitza zeruan izango degula ta.

¿Eta zer ote da Jaungoikoaren itza? Esango banizute betiko bizitza ematen digulako, ta zeruko atearen giltza zaigulako, dala munduan dagon gauza bear-beafena, ezer esango ez banizute bezelaxen izango litzake; ez bai da iñor Jaunaren itzaren bikaintasuna zenbaterañokoa ote dan azaldu dizagukerik.

Ofen bikaña dan ezkeroztik ¿nola entzun Jaungoikozko itza? Entzun Agustín deunari: «Bildufak gaude Jaunaren gorputz deuna artzekoan; eta ainbesteko begiramentu ta itzalaz bagoaz Jauna artzera ta *osti* pitin»

bat bederen lufera erori ez dedin «*ain kontuz*» bagabil-tza; baita Jaunaren itza entzuteko ere (dio Agustin deunak) erne ta kontuz ibili beaf degu, itz bat ere galdu ez dedin.» Beraz Jaungoikoaren itza goitik gure arimara eldu zaizkigun esker eta mesede bidea da. Ez bada emendik aufera Jaunaren itzari eragozpen edo *trabarik* jafi.

III

Moises eta beste igarleak baño aundiago ba aiz, nor ote aiz? juduak onela esan zioten Jaunari; ta Jaun otzanak erantzun omen zien: *Ez det nik nere gorespelik bilatzen; ez bai da nere gorespena ezer.* Zuen Jauna dala esaten dezuten *nere Aitak berak goretsiko nau.*

Juduak Jaunari esan ziotenean Abran, Moises eta beste igarleak il zirala egia zioten; bada sortutakoen artetik il ez danik zein ote da? *Baño i Moises eta antzinekoko igarleak baño aundiago al aiz?* galdetu zioten befiz Jaunari; ta erantzun zaigun orain guk: Jaun maitegafi ori Moises eta igarle guziak baño aundiago nola izan ez, aiek Jesus onen antz-irudia besterik ez izan ezkerok? Etzan izan Moises Jesus onaren irudia baizik. Moisesek atera zuen Jaunaren efa Egitotafen menpetik; Jesus on onek befiz atera izan gaitu pekatuen menpetik. Igarle guziak ez dira Jesus ofen mofoiak besterik izan. Zuek, judu zitalak, siñistu egin bear diozute zuen efege ta Jaungoiko dan Jesus onari; mundu ta gauza guzien jabe bai da.

IV

Nere burua neronek goresten badet, izango da deus ere egingo ez banu bezela. Esan nai izan zien etzuela

Berak bere aldez ezer esan nai, ta zeru bidea erakutsi nai zuela ta beti apal egon eta iraun nai zuela.

N. a. m., oso gaizki ematen du bere burua afotu egiten duen kristauak. Fariseo afen antzera gure burua afotu naian bagabiltza, Jaunak ondatu egingo gaitu. Etzuen gure Jaunak beñere bere bururik afotu izan; eta Betiko Aitak ofegatik goretsi izan zuen Tabor mendian eta Jordan ibaian ere gorespen aundiak ematen ziozkala; eta ¿Jaunak zegizkien mirariak zer ote ziran, Betiko Aitak semeari ematen zizkion aundi-bideak baño?

Jesus onak Jaunaren aunditasuna besterik nai etzuen bitartean gu gurearen bila ari gera, ta iristen ez badegu, zein itun jartzen geran ¿ez ote?

Ez bagaituzte gizonak goresten ¿guri zer, Jaunak goresten bagaitu? ta gizonak bai ta Jaungoikoak befiz ez egiten badigute ¿zertarako dira munduko txalo guziak?

Zeruko *santu* guziak etzuten munduko txalorik nai izan; aize-apar utsak zirala guk baño obekigo zekiten eta. Munduko ta munduaren txalo-gorespenak gezur utsak dira; ta oso gaizki ematen du beren atzetik dabilen kristauak.

V

Zuen aita Abraanek nere eguna ikusteko gogo aundia zeukan; eta ikusi ondoan asko poztu izan zan. Lenago galdetu zioten juduak: «Baño Abraan baño aundiago al aiz i?» Baietz erantzun zien gure Jaunak.

Orain galde egin dezake norbaitek: «Zein egun ote da Jesus onak berea deitzen duen egun ori?»

Krisostomo deunak dio Jesusen jaoteguna zala. ¿Eta Abraanek ikusi al zuen egun ura? Bai; bada mundu osoa zorionez bete bear zuen gizona Beragandik sortuko zala

Jaungoikoak gatzigatu zion Abraaneri; ta arek siñistu zuen; ofegatik antzin-antziñetik Abraanek ikusi izan zuen Jesukristo gure Jauna; ta bere odolekoa zala ikusirikan ¿etzan ba poztuko?

Jesu-Kristo jaió zanean ¿uste al dezute etzuela Berak Abraan zegoen leku ura pozez bete izango? ¿Uste al dezute Abraan eta beste *santu* aiek beren askatasuneko egunaren begira ilunpean zeuden leku ura uste al dezute etzuela Jesus onak argiz bete izan? Eta ¿Jaunak ilen artetik pixtu zanean ez al ¿zuen zuzen zuzen jo Abraan eta beste igarleak zeuden leku artara? ¡¡Bai!! Ori guzia badakigu. Ofatx bada zergatik esan zizkien Jaunak juduai Abraanen beñi aiek. Gero esan omen zien onela: «*Abraan baño lenagokoa naiz ni*»; ta erantzun omen zioten: «*Ez dituk oraindikan befogeitamar urte ta ik Abraan ikusi?*»

¡¡Zein itxutu-ta zeuden judu aiek!! ez bai zuten siñistu nai Jesus ura Jaungoikozko gizona zanik.

N. a. m. Norbaitek biotza usteldu-ta eduki ezkeró, lañopean dauka adimena ere, ofegatik ez dezake Jaunaren itza ulertu.

Azkenean ezin zutela Jaunakin eta afika eman nai izan zioten; baño Jauna eskutatu ta elizatik atera omen zan.

¿Baño zein ziran judu aiek, Jaunari afika emateko? Jaunak agertu zezakean egun artan bere esku gogofa; ala ere etzuen nai izan.

Eta gu afazoirik ez degunean ¿zergatik asefe bizian jafi? ¿Zergatik ojuka ta asi? Zergatik esan gaizki?

¿Ez al dezute maiz entzun izan auzietan eta asko asefatzen danak ez duela geienetan afazoirik izaten? Norbait asefe dagonean utzi pakean; ez beñere bere *kontra* jafi; bada batek nai ez duenean ez dira bi asefatzen.

Ala izan bedi.

ABAR-IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. PALMARUM

I

Guziak dakigu gaurko Ebanjelioa. Gure Jauna Jerusalemene umil-umil eta astotxo gañean sartzen ikusi-ta esaten degu gure baitan; «Jesus bezin umilak balira munduko agintariak!! Gure Jaunaren apaltasuna guziak ikasiko bagendu!!» Jerusalemadak befiz adierazi nai izan zuten Jaunarekiko zeukaten maitasuna; ta ortarako kafiketari eta bidietari zabalduomen zituzten oialak, lur guzia zugaitz abafaz eta lorez betetzen zutela. Badijoa ba Jauna Jerusalem bafena; ta gañera oial-lore ta zuaitz-abafan gañetik dijoa; guri adierazi naiaz bezela lufezko gauzak eta oinperatu bear dirala. ¡¡Hossanna!! ¡¡Benedictus!! ¡¡Gora!! ¡¡Ongi etofia!! ta abar maite-maiteki entzuten ditu; dana Jaunari eskeintzen diola.

Guri ere txaloak eta atsegin zaizkigu; aundi-naiak eta gerekoiak gerarik ez diteke ukatu beraz. Gure lenbiziko gurasoak nai izan zuten ez-ilkortasuna, guk ere gura (nai) degu geroztik; eta erdetsi ala lortu afen lenfenak dagizkigu. Gaur ikasi egin bear degu gure Jaunak erakusten diguna; gaur ikasi bear genduke munduaren txaloak ere ezertaz artzen, eta dana Goiko Jaun onari eskeintzen.

Zorionekoa ni, ori egiten gaur erakutsiko banizuteke.

II

Mundua esan da ez det esan nai Jaungoikoak guretzako egin izan duen ludi eder au; Jaunak egiñitako gauza bai da, on edefa ta maitegafia izan bear beraz; ludi eder ontan dakuskigun gauza guziak jakinerazten digute Jaun onaren aunditasuna: ta emendik atera bear degu gure onerako gure buruari esatea: «Jaungoiko gure Jaunak egiñitako gauza guziak ain polit-txukun-eder-atsegingafi zoragafiak baldin badira ¡jene!! ¿zer nolakoa izango ote da gure Jaungoikoa?

. N. a. m. ¿Zefiek adierazi gure Jaunaren aunditasuna, edertasuna, maitegafitasuna, esate batean esateko, gure Jaunaren Jaungoikotasuna ¿zefiek, zefiek azaldu ote?

Mundua, gure bizi-leku au, ofen edefa ta ikusgafia bada ere ¿zergatik esaten da negafezko ibafa dala? ¿Zerk biurtu ote du negar-leku?

Oso gutxi dira munduaz ongi jarduki edo mintzatzzen diranak; asko dira befiz gaizki esaten dutenak; eta gaizki esaten degu ez mundua atsegingafia ez dalako, baizikan bertan bizi geranak txafak, gaiztoak, aundinaiak eta afoak geralako.

III

Afokeriak eta gük gofotatu egin bear ditugu; on egin beafean kalte aundia egiten bai digute. Gero afoak eta aundinaiak ¿nork nai ote ditu? Ez ditugu inork adiskidetzat beintzat nai. Jesus ona Jerusalemen ain apalumiñ sartu zalako guziak maite izan zuten; afo afo ta agintari aundi-nai antzean sartu izan balitz, orduko maitegafitasuna ta ongi-naia gofoto biurtuko litzake noski.

Mundua bada Jaunak egindako gauza danezkero oren maitegafia baldin bada, mundutar afoak eta giza-txafak gofotogafi egiten dute. Mundua atsegingafia dala esate-afen eskeintzen dizkigute bai mundutarak gauza asko; ¿baño nolakoa ote da munduak eskeintzen diguna?

Beñepein ez digu egiazko gauzarik eskeintzen: izu-nak eta gezuzezkoak eskeintzen bai dizkigu. Gauza oiek aize-apar ikusgarrien antzekoak deritzaizkit neri; lenengo begira-aldian txit politak, agitz aundiak, eta oso atse-gingafia; baño pixka bat geroxeago ¡jezer ez!! ¡apar-aizeak!! ¡Ke utsa!!; ez bai dago munduan gauza iges-koñik baizik.

Mundua gero ta geiago oartu ta munduko gauzak sakondu ezkeru, esan bearko mundukeriak eta ilargi antza daukatela; aldakor-aldakofak dira ta; gaur bera, biyar gora, ta gero ¡jezer ez utsa!!

Entzun Salomon jakintsuak dioguna: *Jerusalenen bakaldun (efege) agintari ni nengoen.* Baño ¿zergatik esaten ote du «nengoen» eta ez «naiz»? Efege zanezkero obe zegoen esan izan balu «efege ni naiz» eta ez «efege ni nengoen». Egia diozute; baño itz oiek gero oso sakonak eta txit sogafia omen dira; bada «efege nengoen» ofek esan nai omen du ez dagola munduan egotezko gauzarik; guziak igeskoñak dirala ta. Salomon bakaldun, efege zan bai; etzan ordea asti edo denboraren jabea; ofegatik munduko gauzak ezer ez balira bezelakoak dirala ta «efege nengoen» ofek asko esan nai digu. Bazekien bai Salomon jakintsuak agintaldiak eta efegetasunak ematen duten aunditasuna laster baño ariñago dijoala; ta ofegatik ere beste esan au: «Vanitas vanitatum et omnia vanitas» «Dana aize-apafa.»

Mundu ontan *iradu* edo *presaka* gabilitza; ez degu ezertako ere astirik. Ez du zekenak (abaruak) beñere

«*aski da*» esaten; mundutafak ere era berekoak dira; gero ta aundiagoak izan naiak.

Orain bidenabar bada ere esan nai dizutet Seneka jakintsuak esaten diguna: ¿Ikusi al dezute gose dagon txakufik? ¿Oartu al zerate nola juaten dan jatera nagusiak ematen edo botatzen dion ogi-puska ala aragi zefa? Artu orduko guzia iretsia dago: ta gero gelditzen da befiz ea beste pusken bat botatzen ote dion begira.»

Ori bera gertatzen zaigu guri ere: aseago ta jaleago. «Bi» izan ezkeru, «lau» nai ditugu; lau izan ezkeru ¡¡amar!! ¡¡oge!! ¡¡jeun!! ¡¡mila!!; ez bai da gure biotza ezeferkin asetzen!!

Gaur Jerusalematarak gure Jesus ¡¡«Hosanna», ka!! ¡¡goraka!! zerabilten; baño Jesus ona beti apal, beti zintzo, beti umil; gauza guziak oinperatzen, eta (lenago esan detan bezela) *dana* Jaunari eskeintzen. ¡¡Bejondeizutela Jerusalematarak!! ori guzia Jaunari dagokio ta.

¡¡Itxoin ordea pixka bat!! Emendik bost egunera Jauna isekatu, astindu ta gurutze batean josi egingo dutenak ¿zer? ¿Jerusalendar oiek izango al dira? ¡¡Bai!! Orixen, orixen da mundua; ta ofelaxekoak mundukoak.

IV

Mundua bildurgafia da bai; ta guziak beti agintari egon nai gañera. ¡¡Agintari egon nai!! ¡¡Balekite mundutafak agintari onak zintzoak eta kristau erakoak buruan darabilzkiten neke, naigabe, estualdi ta buru-austea!!

Ez gera afitu bear ainbeste gizon zintzo ta argiak agintalditik igeska ikusi ezkeru; ez afitu, ez; txalogafiak dira ta. Igeska ibili ta beren jakituria ta zintzotasuna agertzen badizkigute ¿zergatik txalo aundiak oiei jo ez?

Gogoratu orain apezpiku, gotzai, ta eliz-agintari ez izateagatik igeska ibili izan ziran gizon zintzo ta jakintsuak; eta galdetu ea zergatik zebiltzan igeska; ta erantzungo digute Krisostomo deunaren esan au gogora ekartzen digutela: *Miror an fieri possit ut aliquis ex superioribus sit salvus* (in c. 13 ep. ad Hebr.); esan ikaragafia, batez ere agintari izan nai dutenentzako.

Orduan aundinaikeria ikaragafia danik ez diteke zalantzan jafi ere; ta beti beti agintzen egon nai dutenak negar erazi bear liguteke. Zerura nai badegu bada, obe-zaigu menpeko izan agintari baño.

Israeldafak egin omen zuten bein gaiztakeri bat, eta Jaungoikoa asko asefatu zala ta, gaizkileak zeatu (kastigatu) nai zituela ta, deitu omenzien aginduz *nagusiak afapatu ta urkatzeko*. Baño gaizkileak, Jauna, ez dira agintariak. Egia, menpekoen pekatuak ordea agintari ta nagusien gain daude.

¿Zergatik zeatu (kastigatu) Eli ain gogorki? Bere semeak zuzentzen etzituelako. Ez da beraz apaltasuna baño gauza edefagorik. Mundurakoan etzan Jauna efege antzean etofi; etzan Jerusalemene ere agintari afo eran sartu; baizikan Jerusalemefak lufera botatzen zizkioten oialak eta oinperatzen zituela. ¡¡Onela begira zein maitegafi zitzaien Jerusalemefai!! ¡¡Utikan ba gugandik afokeria!! ¡¡Utikan antustea!!

¿Zeruan lenengo aulkiak nai ditugula? Bilatu ba munduan azkenekoak.

Ala izan bedi.



PAZKO-EGUNA

2.ª HOMILIA IN DOM. RESURRECTIONIS.

I

«*Post nubila clarior Phoebus.*» Ekaitz ondoan edefago deritzaigu eguzkia; ta eri gaizki-makal egon da sendatu egiten geranean, osasuna bai daukagula gauzarik edereñetakoa bezela. Inoiz baño edefago ta maitegañago agertzen zaigu gaur gure Jauna; eguzkiak baño argitasun geiago dario gaurko jaiak, eta guziak poztu egiten gera.

Jesus ona ilen artetik pixtu egin da, gu ere era berean eta orobat ilik egon afen pixtuko gera; baño azken-egun artan dagokigu garailari ta zorionerako pixtutzea; *bada inpernurako* izatekotan, obe jαιο ez bagiña.

Juan da garizuma; ta esaten dezutenez *Pazkoæ kunplitu dezute*; ¡¡ederki egiña!! Jaunak eta Eliza ama santak ori agintzen dute ta. ¿Emendik aufera iraungo al dezute on-bidean? ¿Aitortu (konpesatu) zeratenean artu izan dituzuten asmo ta erabaki sendo osasungafiak beteko ote dituzute?

II

¿*Quem quaeritis?* Aingeruak esandako itz auek bi erataratu ditezke: ¿Gaurdaño noren bila aritu zerate? ¿ibiñi zerate? Garizumako itzaldiak entzutera etofi ta ¿zer

nai zenduten? Jaunaren bila ibili zerate bai. «*Non est hic*» ez dago emen; opatu dezute; ta orain zuekin batean dago.

«*Quaerite Dominum*» esan zizuten *Eliza ama santak*; Jaunaren bila ibili ta bazenekiten «*oivet anima vestra*» arimak bizitza arkituko zuela; ta afelaxen izan da; orain bizi zerate ta. Lenago pekatu pean bizi ziranak ilak ziran; Jaungoiko gure Jauna berakandik uruti zegoen eta; baño «*surrexit*», zuen arima ilen artetik pixtu egin da; ez da beraz orain beste pekatariak bezelakoa; aiek ilak bai daude; zuek befiz bizi-bizia; Jaunaren adiskideak zerate ta. «*Vivo ego*» esan dezakezute. Pekatu petik atera izan naiz eta Jauna nerekin batean dago orain.

¿*Quem quaeritis*? Itz auek beste erara ere artu itzazgun orain. ¿Zein ote da egun zoragafi ontan gizon pekatari afen bila dabilena? ¿Zer uste ote du ofek gaurdaño biraulari, marmarlari ta pekatari izan dana Jaunaren begietan orain ere lenago bezelakoa dala edo? ¡Ez orixen!! eta norbait ofelakoren baten bila balebil, nik esango nioke: «*Non est hic, surrexit*» ez dezu arkituko; ondu bai da; bada garizuma ontan beste bat egiña dago. Zorionekoak garizuma ontan ondu egin bazerate. ¿Iraungo ote dezute on-bidean?

Etxe-Jauregi-ola aundia asi egiten, eta gero... utzi bear izatea oso lotsagafia da; ez det uste lotsagaritasun ontan erori nai dezutenik zuek; ortarako ba on-bidean irauteko ta beti onak izateko gorde arau auek:

III

«*Sine me nihil potestis facere.*» Gauza onen bat egitekotan Jaunak lagundu egin bear; beraz Jaunari egu-

neroko laguntza eskatu bear; bada Berak esaten digu «*eskatu ezkerro*» nai deguna (*on bazaigu ¡¡jakiña!*) iri-
txiko degula ta.

On zaigun guzia Jaunak, pozik ala ere, ematen digu; on-bidean irautea baño on zaigun gauzarik ¿zer ote? On-bidean irautea bear beafezkoa zaigu ba; ta ezagutzen badegu on-bidean asi ta gero nekatu ta aspertu ta iraun ez duenen bat, Jaunari eskatu ez diolako aspertu dala ta ofegatik iraun ez duela esan ezkerro ez dizutet gezu-
fik esaten. Era ontako otoitzak indar aundia daukate: batez ere biotz biotzez eta adorez egiten badira: Orta-
rako ere berez datofen gauza da dagokigula pekatu-bi-
dean ez jartzea; ta pekatu bidetik alde egitea; bada ez da alpefikan esaten: «*Deitu Jaungoikoari; ta eutsi ka-
bikoari.*» Ona da otoitza; ohea da ordea on bidean irau-
teko egiten diran egiñalakin batua baldin badago.

Ez gaitu Jaunak epel ikusi nai; nazkagafi omen zaio Jaunari epela; ta epelak omen dira «*otoi egin bai*», ba-
ño pekatu-bidetik alde egin nai ez dutenak; Jaunak lan-
gile sutsu nai gaitu bada.

Bein batean galdetu omen zion Tomas deunaren afebak bere anaiari: «*¿Zer egin ote «santa» izateko.*» Ta erantzun omen zion: *Biotz-biotzez nai izan;* eta ¡¡kito!! ¿On-bidean iraun nai dezutela? Otoi egin; eta nai izan; nai izatea al izatea da ta.

IV

Fugite de medio Babylonis. Ona beste arau ona. «*Babiloniak*» *pekatua, gaiztakeria* esan nai du; beraz on-bidean irauteko pekatuari bildur eta amofo aundia izan bear.

«*Babilonia*» itz onek ere lagun adiskide txar gaiztoak adierazi nai ditu; ta norbaitengandik alde egitekotan la-

gun txafagandik; sagar ustel batek bakafik onak oso efax usteltzen bai ditu. Gazte geienak lagun gaiztoagatik galtzen dira. ¡¡Erne ibili bada, gazteak!! ¡¡kontuz ibili!! Gaztaroa ifiskuz, etsaiez betea dago ta.

Baita ere irakurtzen diran paper txafak eta idazti lizunak *Babilonia* ditugu. Liburu paper-txafak adiskide pař-gile alai eran datozkigu; ta etxean ere era berean sartzen dira; ta iri-pafez dakarte kalte ikaragafia.

Badira *fede-kontrako paper-liburuak*, eta oitura onak eta sinismena ondatzeko bakar-bakafikan idazten diranak; eta onelako paperak esango digute guraso-agintari ta kristau gauzai ez jaramonik egiteko; *umeke-riak eta emakumekeriak* dirala ta. Onelako liburu gaiztoak asko inpernuratu izan dituzte.

Zer edo zer irakuri egin bear dala ta nik esango dizutet ez irakurtzeko paper-liburu onak; baizik onen-artean onenak.

V

Oso erorkoiak gera ordea. Alaxen da: uste gabean ifist egin da pekatuan erori egiten bai gera.

Baño pekatuan bein erori ezkeru, erori orduko jaiki egin bear gera; bada oso samiña da pekatuak ematen duen miña; ta Jaunak ofegatik ematen digu pekatu-samintasuna ta gařaftasuna; pekatuan erori ala jaikitzeke, pekatutik ateratzeko. Negargafiař benetan dira pekatu egin da biotzeko afik, miñik somatzen ez dutenak.

Pekataria geranezkero erori egiten gera bai; baño jaikitzeke, «altxatzeko» daude elizakoak; batez ere aitortza *konpesioa ta komunioa*. Gure uts-pekatuak bear dan kristau eraz aitortu ta Jaunak barkatu egiten digu; ta «*komunlokan*» Jauna artzen degunean gure ari-

ma sendotu-pixkortu ta suspertu egiten danik ez aztu. ¿Erori egiten gerala? Jo Jaunagana: Jaunak damutuak nai ditu ta.

¿Esango al dizutet Andre Mari garbiarentzako ere gorde bear degula egiazko maitasuna?

On-bidean iraun nai duenak jo beza egunero mesede-esker-ontarte bidea dan Jaunaren Ama garbiarengana; jafi beza Beragan uste oso-oso; ta jakin dezala, ez dala egiazko kristaua Bera biotz-biotzez maite ez duena. Zorionekoak on-bidean iraun ezkeru.

Ala izan bedi.



QUASIMODO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. QUASIMODO.

I

Oso bildurgafiak izango ziran noski juduak; bada Ebanjelioak gaur esaten digu «*Propter metum judaeorum*»; juduai bildur zietelako Jesusen jafaizaleak etxe batean ateak itxi ta zeudela.

Afela zeudelarik agertu omen zitzairen Jauna oñ-esku eta saietsean zauriak zituela. Etzegoen an Tomas. Afek lagunai entzun zienean, berak Jauna ikusi izan zutela, ta zauridun gañera, esan omen zien: «Ez badituz neronek bere zauriak eta ikusten, ez det esaten didazutenik siñistuko.»

Beste egun batean agertu omen zitzairen beriz Jauna ta orduan Tomas ere antxen omen zegoen; Jaunak, beti oi zuen bezela, pakea eskeiñiaz esan omen zion Tomaseri: «Atoz eta begira nere zauriak.» Tomasek aozpeztu taesan omen zion: «Ene Jaun eta Jaungoikoa.» Jesusek erantzun omen zion: «Ikusi izan dezulako siñisten dezu: zorionekoak ikusi gabe siñisten dutenak.»

II

Ez det ikusi gabe siñistuko. Tomasen itzak dira auek.

Bazekien gure Jaunak kristauen artean *Tomas asko* izan zirala; ta Tomas jafaizalearen burutik siñisten ika-

si dezagun, esan izan zion oraintxe bertan arestian entzun dezutena.

Eliz-agintariak esaten digutenean siñisgafi dan gauzen bat siñisteko siñistu bear degu; ta oñela egin da Jaunak esango digu: «Zorionekoak, ikusi gabe siñiztu dezute ta.»

Jaunak bein baño geiagotan esan izan zien bere jaizale aiei juduak il egin bear zutela; ta il ondoan atzera irugafen egunean pixtuko zala; bazekiten ori guzia; baita Tomasek ere; ala ere etzuen onek lagunak ziotena siñistu nai izan; berak ikusi ondoan siñistuko zuela ta.

Badirudi Tomasek esaten zuela: «¿Nork esango dit lagunak didatena ez dala irudimen utsa? Baliteke oiek Jaunaren irudia bakafik ikustea; oñegatik bada ez det siñistuko neronek ikusi arte.»

Guk esan dezaiokegu: Tomas, ¿Gogoan al dituzu Jaunak bere pixtueraz eta esandako gauzak? ¿Jauna pixtu danik ere ez al dezu siñisten? ¿Bere zauriak ikusi ta siñistuko dezula? Orduan begiz ikusten dana ta eskuz ukitzen dana Jaunak diona baño erazago siñistu bear.

Asko dira gure artean Tomasen antzekoak; sasi-jakintsuak soroan belaña bezin ugari dira ta.

Asko ezagutuko dituzute noski «ez dutela ikusi gabe ezer siñistuko» diotenak; eta auek paperak eta diotena—gezur utsa bada ere—Jaunaren itza ta esana balitz bezelaxen siñisten dute.

Guk befiz esan dezaiekegu oiei: ¿Ikusi al dezute paperak diotena? ¿Zergatik ba siñistu, ez ikusi ezkeru? ¿Paperak diotelako?

Guri Jaunak eta bere ordezekoak agintzen digutenean zer edo zer siñisteko, badakite oiek paper guziak eta

jakintsu guziak baño geiago; beraz egi utsa erakusten digute eliz-agintariak.

Bai, n. a. m. Bakar bakarik siñistu bear degu siñis-teko agintzen zaiguna. Batzuek esango baliguteke onelako lekuan Andre Maria agertu dala; ta beste batean gurutze batean gauza miragafiak ikusten dirala ta ofelakoak ¿zuk siñistu bear al dituzu? Elizak agindu ezke-ro bai; bestela ez.

Siñis-gaietan «Pranziko» efege zan Luis deunaren antzekoak izan bear genduke kristau guziak. Koldobi-ka deuna efege agintari altsu bezin siñisdun izan zan.

Bere jauregian patxada aundian zegoela, esan omen zioten meza entzutera juan ziran menpekoak «mezerdikoan» ikusi zutela egi-egitan Jesukristo auf edef antzean; eta juateko bera ere ikustera; meza-entzuten zeuden guziak ikusten zutela ta.

¡Egia, egia! erantzun omen zien aiei efegeak; ez da Goiko-Jaun onentzat eziñezkorik; asko poztutzen nau esaten didazutenak; ez naiz ordea emendikan mugituko; bada «fedeari» begiari baño geiago siñistu bear zaio. Zuek begiz ikusitakoa «fedez» ikasitakoa baño efaxago siñisten dezute dirudienez; nik befiz fedeari, begiari baño «fede» geiago ematen diot. Kristauak: Gure fedea ofelakoa balitz.

Tomas (Didimo) bere lagunakin batean zegoela agertu omen zitzaizen befiz ere Jauna; ta onela esan omen zion: «Sartu itzatzu, Tomas, zure beatzak emen; begira nere eskuak; eta sartu zazu zure eskua ere nere saietseko zauri ontan; eta ez izan emendik aufera siñiz-gabea.»

Tomasek «ikusi arte etzuela ezer siñistuko ta ¿go-goan al dituzute Tomasek esaten zituenak?»

Jaunak esan zionean bere beatzak eta zaurietan sar-

tzeko poliki ta maiteki adierazi nai izan zion noski bazekiela berak esandako guzia; ta siñistu zezan esan zizkion itz maitegafi aiek.

Tomasek orduraño uste izan bazuen ere bere lagunak etzutela Jaunaren irudia besterik ikusi izan, afezkeroztik esan zezakean ¡¡bai!! egitan agertu zitzaiola Jauna ta egiazko gorputz eta zauriak gañera.

Ikusi izan degu Jaun onaren maitegafitasuna; etzion Tomaseri, siñistu nai izan etzuelako, etzion efietan eman nai; asefe egin beafean bere zauriak maite-maiteki erakutsi zizkion eta.

Ez ta ere etzuen bestien afean lotsatu nai; *atoz; eta sartu beatzak* xamur xamurki esan bai zion.

Zein besteak edo *diferentiak* diran munduko agintariak, batez ere norbaiten utsak eta okerak zuzendu nai dituztenean!! Ojuka, deadarka, isekaka, ta asefeka ez da ezertxore iristen; ez da deus ere erdesten eta lortzen.

¿Zergatik egin ez beti Jaunak Tomasekin bezela; beti maite-maiteki; ta ez beñere gogorki? Ofegatik deritzaigu guri Tomas deunak Ebanjelioa erakustera Medo ta Partotar artera jua zanean maite-poliki ta xamurki erakutsiko zuela.

¡*Ene Jaun eta Jaungoikoa*» esan omen zion Tomasek Jaunari zauriak ikusi ta gero.

Madalenak Jauna pixtu ta ikusi zuenean «Rabboni» *Itakasle*» deitu omen zion; Tomasek befiz *Jaun eta Jaungoiko.*» Auxen da kristauak ere Jaunari esan bear dioguna; bada kristautasuna ontan dago: Jesus onaren Jauntasuna eta Jaungoikotasuna aitortzean; eta aitortu, ezagutu ondoan maitatzean.

Gregorio deunaren iritzian oso txalogafia omen da

Tomas deuna; Jesusen zauriak eta ikusi ondoan Jaungoikotzat artu zuela ta.

¡¡Ene Jaungoikoa!! esan zion: orobat guk ere Jaunaren zauriak ikusi ta Jaungoikotzat artu bear degu; bada gaituen Jaungoikozko maitasunak egin izan zizkion. Bai, n. a. m. Jaunari ikusten dizkiogun zauri aundi oiek gurekiko zeukan maitasunak egin ziozkan. Zein biotz gabeak izango giflakean biotz-biotzezko maitasunaz ordaindu nai ez bagiñioke!

VI

Zorionekoak ikusi gabe siñisten dutenak. Ez ditugu gauza asko ikusten; ala ere siñisten degu. Zeruko ta fedeko gauzak Jaunak erakutsi izan dizkigulako siñisten ditugu. Ez du Jaunak gezufik beñere esan; gutxiago erakutsi; egi utsa da ta beti egia esaten digu ta erakutsi ere bai.

Zorionekoak, kristauak, munduan Jauna dan bezelakoa ikusi ez afen, siñizten diogulako, gero zeruan ikusiko degu ta.

Ala izan bedi.



PASKO-ONDOKO BIGAREN IGANDEA

2.^a HOMILIA IN DOM. 2.^a POST PASCHA

I

Gaur agertzen zaigu Jauna artzai eran: eta bere artalde guzia ezagutzen duela esan ondoan esaten digu badituela ere bere artaldekoak ez diran ardi batzuek; baño aukeratu ere aurki-laster izango dirala bereak.

Gaur gure Jaunak esatean alogera edo sari ala ordain begira artzai-diranak ez dutela artalderako jabe nagusiak añako ardura edo konturik, esan nai digu ez diola bere artaldeari inork berak baño obekigo begiratzen.

Ez du ez artzai onak otsoa alarauka ta datorkionean ez du ez artaldea uzten; ez da utziko ere; artzai onak ez badu arzanorik, berak ematen bai dio otsoari arpegia ta ardi guzi en erdian jafi ta otsoakin bofokan asi egiten da; ta bear bada bizitza ere ematen du ardien alde. Artzaia onak bada ardi-guziak bere semeak balira beze-la begiratzen ditu.

Goliat gizon ikaragafi ura Israeldafen afean afo-afu aurkeztu zanean ikaratu egin omen ziran guziak; etzan ordea ikaratu ez da izutu ere artzaiketari ibiltzen txit oitua zegoen Dabid gaztea: bada bere efikideak dardarka ta estu ta lafi zeuden bitartean Saul efegea-rengana jua da onela esan omen zion: «Nik il egingo det gizon ori» Efegeak befiz esan omen zion: «Ik il gizon ori? Ikusi orduko garbituko au motel» «Ez orixen

Jauna, erantzun omen zion Dabidek, bein baño geiagotan egona naiz leoi ta otso artean; eta bein baño geiagotan ere pufukatu egin izan ditut.»

Esan bearko geroztik Dabid artzai pixkofa ta azkafa zala; baño Jesus artzai onaren ondoan etzan ezer Dabid; gure Jauna otsoa baño bildurgafiago dan eriotza kin guregatik lotu egin bai zan; beraz Jaunak «*artzai ona ni naiz*» gaur esaten duenean egia garbi esaten du.

II

Nere Aitak ezagutzen nauen bezela nik ere ezagutzen det nere artaldea; ta nere ardiakatik bizitza ematen det.

Onekin esan nai digu Jaunak guregatik il egin zala ta gurekiko neufigabeko maitetasuna daukala.

Bere jauregi edefa zan zerua utzi ta, gure artera gizon egin da etofi zanean, etofi zan gure arimak irabazteko; ta ontan aritu izan zan beti; betiko Aitari poz atsegiña ematen ziola; ta guri befiz bere biotz xamufa agertzen zigula.

Txit ederki ezagutzen zuen Betiko Aitak semea, ta Jordanen beraz esandako itz auek *Beregan ditut nik atsegin guziak* jakin erazten digute: Aitak ezagutzen zuela semea; semeak ere aita; ta ofegatik zion Jesus nere aita ona baldin bada baita ere zofotza da; ta ordaindu nai ditut neronek pekatariak nere Aitakin dituzten zofak,

«*Ezagutzen det nik nere aita*»; ta pekatariak barkatuak izan ditezen nere artaldearen onerako egingo det Dabidek bere ardi gaixoakatik egin izan etzuen; bada gurutzean josi ta il nai det. Auxen auxen da egiazko maitetasuna; ordaiñez ez bagifake bizitz osoan Jaunari

eskefak ematen egongo oso biotz txar ustel kaskafa agertuko genduke.

III

¿Juduak eta kendu izan ziotela bizitza Jaunari? ¿Juduak eman ziotela eriotza? Bai ta ez n. a. m. Maiz afa-patu nai izan zuten Juduak gure Jauna; askotan afika eman nai izan zioten; ¿egin ordea?; ez bai zan oraindikan «*be re ordua ta garaia*»; garaia zetor kietenean Jaunak berak eman egingo zien bere burua; ta alaxen gertatu zan Getsemanin.

N. a. m. Jaunak bizitza gure onerako eman izan zuen ezkerok «*et nos debemus pro fratribus animan ponere*» Joan-3-16; jaraibide eder ori Jaunak aspalditik eman izan bai digu

Berakin ba «*kito*» gelditu nai degula ta, Berakin zofak ziara ordaindu nai ditugula; ta, Beragatik ordaiñez zer edo zer egin nai gendukela ta ortarako bide on bat bilatu naian gabiltzala ta, ona Juan deunak esaten diguna: «*et nos debemus pro fratribus animan ponere*»; bada anaiagatik lagun urkoagatik egindakoa ¿nork ez ote daki Jaunak ontzat eta beragatik egiña balego bezela artu egiten duela?

Ofa or Jaungoikoaren izenekoak (oso itz egokia ta edefa daukagu euskaldunak beartsuai «probeai» deitze-ko. Jaungoikoaren izenekoak dira etxez etxe gure Jaun bezela mundu ontan dabilzanan; Jaungoikoaren izenekoak dira udan eguzki kiskalgafia, ta neguan befiz euriak, kaskabafak izotzak, orma beltzak, elufak eta eraman bear izaten dituztenak; eta munduko geienak beren etxean eroso lasai ta ongi dauden bitartean, gixaxo oiek, Jaungoikoaren izeneko beartsu negafafia oiek or

dabiltza efi, etxez etxe, non jan eta non lo egin ez dakitela; ta gixaxo oiek Jaunaren semeak dira; gixaxo oiek gure anaiak dira; beartsu oiek lagun onenak ditugu; Jaungoikoaren izeneko oiek Jaunak maite ditu, ta maite dituelako gixaxo oiei laguntzeko agintzen digu, ukar emateko ta berari bezela begiratzeko; oiekin guk egin izaten deguna Berak maiteki begirutzen duela ta.

¿Guk Jaun zofotzakin ditugun zofak ordaindu nai ditugula ta? Ez dago ortarako lagun urkoai ta beartsuai laguntzea bezelakorik. ¿Maite nai degula guk Jaungoikoa, ta lagun urkoa guk maite ez? ¿Nola ote ori; bi maitasun oiek gisa berekoak izan ezkeru? ¿Ikusten ez degun Jaungoikoa nola maite, bere antzekoa dan beartsua ta lagun arkoa maitatzen ez badegu?

IV

«*Baita ere badira nere artaldekoak ez diran ardi batzuek; oiek ere begiratu bear ditut*» Jesus onaren Jaungoikotasuna adierazten dute itz auek; eta artu ditza kegu era edo gisa ontan esanak baleude bezela: Oker zabiltzate, judatafak, uste izan ezkeru zuen artzai bakaña naizela; bada ¡¡jakin!! baditutela ere nik zuen jatofizko edo odolekoak ez diran ardiak; eta auek dira mundu osoan bizi diran mota oroetako «*jendeak.*»

Juduak eta jendilatafak elkarantzako gofoto bizia, ta ez ikusi nai aundia zeukaten; eta Jauna guzien Jabe ta Jaungoiko bai zan elkartu nai izan zituen.

¡¡Bai!! aro aro zeuden Juduak; berak Jaunaren efi maitea zirala ta; ofegatik itz oiekin juduai jakin erazi nai izan zien Jaunak jendilatafak ere Jaungoikoaren semeak zirala; ta noiz edo noiz Jaunaren deia entzungo zutela, Artzai onaren artaldea egiñaz.

Gu, Berari eskerak, Bere artaldekoak gera; baño
¿guziak bata bestiak in ondo al gabilta? ¿elkartuak al
gaude? ¿Maitasunezko lokafiak estutzen ote gaitu? *Ez
det artalde bat besterik nai*: esaten du Jaunak; beraz
elkartu ta nai gaitu artzai onak; ez gaude ordea Berak
nai gaituen bezela: ez dala au nere iritzikoa, ta beste
alderdikoa dala, ta afeak nitaz gaizki esan duela ta.
¡¡dala dala!! ez gaude Jaunak nai bezela.

Kristorenak gera; Kristorenak betiko izango gera;
au izan dedila gure ikufiña.

Ala izan bedi



PASKO-ONDOKO IRUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM 3.ª POST PASCHA

I

Oso itun (triste) daude gaur Jaunaren jafaizaleak ¿Zer dala ta? Esan bai die Jaunak berakandin alde egin bear zuela.

«*Emendik gutxira ez nazute ikusiko*» esan zien gure Jaunak; eta ofegatik ilundu egin zitzairen biotza; ta ain ilun jartzen zirala Jaunak ikusirik lasaitzeagatik esan zien bereala: *Baño laster ikusiko nauzute befiz; eta orduan aundiagoa izango da zuen poza.*

Oso jakingafiak dira gero itz auek: oartu *Zuek negar egingo dezute; mundua befiz poztu egingo da;*

Zuek itz onek esan nai du: mundukoak etzerate nak; nik maite zaiztuztenak; nere adiskideak zerate nak «*Munduak*» befiz esan nai du: *Jaunaren etsaiak; kristau txarrik eta ustelak;* geroztik Jaunaren lagunak negar dagiten bitartean ¿beren etsaiak edo mundukoak pafez lertzen egongo dirala? ¡¡Bai!! Bada ¿ez al zenekiten n. a. m. munduko ifi pafak eta kristautenzako negar atsekabe izan bear dutela? Ez aztu kristauak onbidean zintzo zintzo onak ikusi ta munduak iseka-par irain egiten duenik. Orain ikusi zagon zer ote diran kristau negarrik.

II

Pekatu kentzaleak dira; bada bataioak aitortzak eta Jesus onaren neke miñak pekatuak kendu egiten dizkiguten eran damu negafak ere ori bera egiten digu.

Oso garbi, txit txuri gelditzen da arima bataioa artu ta gero; bataioak darion ur gozoak arima edertu egiten bai dute: ¿nola ez ba?; ez bai dago Jaunaren semetasuna baño jantzi edefagorik.

Ezekiel igarleak diomean Jaunak bidaliko digula aras garbituko gaituen ur edefa ta garbia, adierazi nai zigun nunbait ur ori bataioa zala. ¡¡Bai dala egitan eta benetan garbia bataioakoan ixurtzen zaigun ura!!

¿Zertarako zalantzan jafi negar malkoak ere damu negafak izan ezker- garbitu, ta txukundu, ta edertu egiten gaituztela.?

Gogoratu bestela Pedro ta Madalenaren malko samin gafatzak; eta ikusiko dezute beren pekatuakatik negar egin zutelako; ta malko aiek damu malkoak zirako Jaun efukitsuak barkatu zituela.

Amaika bider zorionekoak Pedro ta Madalenaren erara beren utsak ezagutu ta damutu egiten diranak; eta damu-damu daudelako negar dagitenak; Jaunak bere semetasuna ta adiskidetasuna emanik malkoak txukatu egingo dizkie ta.

Oartu itz auek; Jaunak esandakoak diranezkero oso sogariak bai dira. Madalenaz esandako itzak dira. Entzun: «Asko baño asko maitatu izan duelako asko barkatu zaio»: beraz damu negar malkoak pekatu kentzaleak dira.

Negar egingo dezute zuek; mundua beriz postu egingo da. Ez daki munduak zeruko gauzaz ezer. ¿Zer

dakite mundutar txatxo oiek kristau onak beren pekatuakatik dagiten negafaz? ¿Zergatik poztutzen ote da ba? ¿Kristauak itun ikusten dituelako edo? Bai; ofegatik da; ta ori uste duelako ifi par naiko dagi munduak; bera pozez lertzen dagon bitartean kristau onak itun dabiltzala ta; *Kristau bidea neke bidea da*; diote mundutafak; malda gorakoa deritzaigu; neketsua, negaf malkozkoa bai da; ta ez degu ofegatik berakin ezer nai. Efukigafiak dira kristau oiek; poz-atsegiñik gabe bizi dira ta. Ez; n. a. m., ez oiei jaramonik egin; ez ofelakorik beñere siñistu; ez bai da egia.

III

Begira bestela lekukoak edo martirak. Oiek bai izan dirala zorionekoak. Ortzeko (pirmamentuko) izafak ainbat dira zorionean dauden lekukoak. Zerua lekukoz josi ta dago bada. Oiek munduan zeudela mundutafentzako paragafiak, efukigafiak, isekagafiak eta ziranik ¿nork ez daki?

Pekataria, Krisostomo deunak dionez, Pedro ta Madalena antzera negar dariote; ta Jaunaren afean aozpeztu ta daudela oso damutu ta garbaituak ikusten ditugu. Lekukoak befiz negar beafean odola zerioten; Madalenak etzuen bere odollik ixuri izan; ala ere bere damu malkoak negar itufia ziruditen; eta beren pekatuak garbitu ta gelditu ziran «quia istæ lacrymæ sunt velut baptismus sanguinis» negar auek Krisostomoren iritzian odolezko bataioa bezelakoak dirala ta.

¿Lekukoak irabazi izan zutena guk ere irabazi nai degula? Ofa bide edefa; damu negar malkoak.

IV

Ez det esango negafak eta garbaitasunak gure arima Jesus onaren nekaldiak (pasioak) bezela garbitzen digutela; egia bai da. Gure Jaunaren nekaldi ikaragaña gogoratu ezkerro ez badegu negafik egiten izango da arkaitzeko biotza daukagulako; bada Jauna il zanean arkaitzak ere oñazez beterik negar zerioten: oñazeak pufukatu ta erdibitu zituen eta.

Badira bai Jesus onaren nekaldia gogoraturikan negaf dagiten Kristau onak; eta oref agertzen du egiazko damutasuna: bada Agustin deunak orelako damu negaf malkoai deitzen die: «*Passionum Christi vicaria*» Jesus onaren nekaldi (pasio) ordezkoa. Eta ez dizutet esan nai zergatik deitzen dion onela; bada gogoan ezafia daukazute pekatuak *Jesus onaren nekaldiak bezela damu negafak ere kentzen dizkigula*.

¿Ea on ote zaigun pekatuakatik negaf egitea? Itxutu ta egon da ere ikusi diteke negaf ofen ontasuna.

Negaf zegiten Jesus gixaxoaren atzetik zijozzen emakume aiek: ikusten bai zuten Jesus ona ain aul eta oñazez betea zijoala: ala ere esan omen zien Jaun onak «*Ez nitaz negafik egin. Egitekotan egizute zuen pekatuakatik eta zuen semieneankatik*. Esan onekin esan izan nai zien onelatsu: «Nere gain artu izan ditut nik zuen pekatuak: begira nazazute; ta zuek pekatari zera tenezkeroz negaf egin zazute bai; on zaizute ta;» beraz Jesus onaren nekaldia gogora dakarkigunero gure pekatuak ere gogoratu beaf ditugu; Jaunak berakatik ainbeste ta ainbeste neke ikaragafi eraman bai zituen.

Dabid efegea negaf zotinka dago; bere seme kutunkutuna zan Absalon il egin zaiola ta.

¿Baño...: Dabid ikusten zaitugu maiztan negaf zotinka? ¿Zergatik biurtu dira zure begi edef oiek negaf itufi? ¿Zergatik? Ona berak dioguna: Quia non custodierunt legem tuam (Ps. 118.) Jaunaren legea bete etzute-lako.

Negaf egitekotan bada Jauna maitè izan ez degula-lako bakafik egin beaf da.

V

Agirian dago geroztik damu negafak inpernuko atea itxi ta zerukoak iriki egiten dizkigutela

Epulonek inpernuan betirako dagola Abraan zeruan ikusi ta onela esan omen zion: «Abraán lagundu zaidazu mesedez; oso gaizki nago ta» «Esaiozu Lazarori ere bere beatza urean sartzeko, ta uf tanta bat bederen netzat gordetzeko.»

N. a. m. Lazaro gixaxoak munduan egon zan bitartean malko samin asko ixuri beaf izan zuen; ofegatik irabazi zuen zoriona. Epulon aberats afek befiz uf tanta bat bederen eskatzen zuenean Jeronimo deunak dienez damu tanta bat eskatzen omen zuen: ezin ordea eman «Quia in inferno nulla est redemptio.»

Zorionekoak mundu ontan damu negaf dagitenak; bestean Lazaro ta Abranekin batean egongo dira ta.

Ala izan bedi.



PASKO-ONDOKO LAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 4.ª POST PASCHA.

I

Afitu egiten gera gaurko Ebanjelioa entzun da; afgariak bai dira gisa ontako esan auek «Badagokizute zuei ni juatea; ni juan eta, Espiritu deuna zuengana etofiko bai da; ez banoa befiz ez; ez da etofiko.»

Badagokizute ni juatea. Itz edo esan ontaz zer edo zer esan nai dizutet gaur; eta bidenabar bada ere esango dizutet mundukeriak ezertzat artzeko.

II

Egi utsa bai da gaur alai, ta biyar gaixo makal; orain aberats eta gero beartsu egoten gerala, esan bearoko ilargia bezin aldakofak gerala.

Pozikan zeuden Jesus onaren jafaizaleak beren irakasleakin egon ezkerok; lagun ona eta Jaun txit altsua beren ondoan zeukaten eta; baño berakandik alde egin bearoko zuela ta, era ontako esan itunak entzun ala ¡¡ene!! ¡¡nola itundu izan ziran gixaxoak!! Biotza afas ilundua izango zuten nunbait; eta agitz goibelduak e-gongo ziran noski, alaitzeko Jaunak itz auek esan bear izan zizkienean: «*Badagokizute ni juatea.*» Jaunaren esan guziak gure onerako diranezkerok; ta gure Jauna befiz berez eta izatez poz-atsegin itufia danezkerok artu itzagun itz oiek onela: «Ni atsegin utsa naizenezkerok.»

badagokizute zuei noizpenka poz-atsegiñak ere zuen-
kandik alde egitea.»

III

Asko ¡¡jaisa ala ere!! asko dira munduan gu baño lasaiago ta erosoago bizi diranak; eta (gure ustez beñepein) ez gerala gu oiek bezin lasai ta ederki bizi ta zofegatik itun eta kopet ilun jafi ote? ¡¡Ez orixen!!, bada munduko gauza guziak uskeri-uskeriak eta arima-
oñazeak izanik onenik onena zaigu artu gauza guziak Jaunak bidalitakoak bezelaxen; eta ez gero ibili mundukeriaz atzeman naiaz; eta beretan leporaño sartuta bizi naian. Onelako gizonak biotza agintari darabilte; ta biotzaren orde z adimena ta zentzua agintari baleude, edo balebiltza munduko gauzak ezertzat edukiko lituzteke oiek. Ez diteke zalantzan jafi Salomonen biotza izan dala munduan atsegin geiagoz betetakoa; ala izan da ere guziak dakigu bere esan entzun au *Vanitas vanitatum*.

Orain gogoratu nai bagenduke bere garai edo aldian zorientzuenan izan zan Sizilia, Napoles eta Aragongo efege Alfonso, berealaxen gogora etofiko zaigu Alfonso afeke bein beste bati erantzun zion au. «Zure ustean edo iritzian ez da iñor izan ni bezin zorionekorik;» eta dirudienez zuk ni añakoa izan nai dezun ezkerordegorde zure gogoan amaika aldiz nik esango dizuten au; *Jator duan efege au baño lasaiago ta obekigo daude a-bere ak; ¡¡bai ni baño zorionekoagoak dira besteak.*

Gero ¿Karlos bostgafanak bere seme Feliperi esandakoa aztu egin al zaizute edo?»

Eriotza urbil, gertu, ta ufean zeukala ta semeari agintaldia ematekoan esan omen zion; Seme, ez det nere efegetasun oso osoan ordu laurden bat ere lasai

ta paketsurik eduki; eta Antigono agintariak befiz ¿ez al zuen esaten mofoitzik aztunena efege izatea zala? Norbaitek baleki koroiak eta josi- josiak dituzten neke-miñ arantzak zer nolakoak ote diran ez lituke noski- lufetik jaso naiko ere; munduko gauzak gisa ontakoak badira ¿zertarako beren atzetik ibili ba? Askoz obekigo eldu zaizkigu Jaunak onai damazkien atsegin-pozak munduak bereai damazkien atsegin ustelak baño.

IV

Uste dute askok ez dutela onak mundu ontan atsegiñik izaten; eta beti ilun goibel bizi dirala. ¡¡Gezur galantagorik!! Ori egia balitz ez luke Jaunak biotzik izango; ta ez da ofelakorik Jaunagan.

Emango die bai munduak bereai biotzik iñolaz ere ase bete ez dezaken pozo atsegiña; Jaunak ordea bereai ematen dienak poz-atsegiñez bete egiten du biotza. ¿Zergatik ba uste ote dute mundukoak ez dutela onak emen egiazko pake pozik?

Egin zagun-pixka batean bada ere-badagola mundu ontan edateko edo edariz ura bakañik «beti» «beti» artu izan duen bat; gañera uste zagun ere ofek uste duela ez dagola munduan ura baizik edateko; gizon ofek nai ta naiez uste izango du beraz ez dagola ura baño edari onagorik obeagorik; eta esango du beti:» «Ura bai dala edari gozoa.» Baño norbaitek irikitzen badizkio begiak edari gozo-gozoak emanaz; orduan begiak zabal zabal dituela esango du apike. «Badira bai ura baño edari gozoagoak» Orixen bera; n. a. m., gertatzen zaie mundutafai ere; ez da beren ustez mundukeria baño gauz-atsegingafiagorik; baño badira bai; ta dastatu (probatu) izan dituztenak zeruko gauzen gbzotasuna

ikusi ta gero—esan izan dute: «Zein gozoak eta atsegiñak diran zeruko gauzak.»

¡¡Bai!! Baldin baleki munduak nolakoak diran Jai-nak onentzako gorde-gorde ta daukan poz-alaitasuna-mundukoak alde batera utzi ta-on bideari ekingo lioke; ta mundutafak izango lirake diran baño zorionekoa-goak.

Munduan dakuskigun arpegi-makalak, oriak, begi ilunak, odol gabeko ezpañak, eta indar gabeko gorputz aulak esaten digute munduko lizunkerietan ito ta dabil tzanak ondario txafak izaten dituztela. Jaunak eman egiten dituen atsegiñetan itoak daudenak beñiz mundukoetan leporaño daudenak baño osasun ederagoa dute noski.

V

Mundua txit aldakofa da; ta aizea bezin arin dijoa kigu; ez da bertan gauz iraunkofik; mundukeriak aize apaf utsak ditugu beraz; eta ez dezake munduak gauz sendorik eman; osasuna eman beařen kendu egiten du; ta diru bila dabilenak begira ta ikusi bitza mundu gaizto zitalak beartsu biurto izan dituenak; eta poz alaitasun eske beragana jua diranai iri par gozoak eman beařean ere ¿ez ote dizkie eman atsekabe ta neke la-tzak? Ofelakoxea da ba mundua; eskeitzen asko dakiena, eskeiñitakoa ematen beñiz beñere ikasi ez duena; ta noizbait ematen badu ere laster gero kentzen duena.

Irakuri ta josi buru buruan munduan izan diran naste bofaste, matxinada aundiak; eta ¡¡ikasi!! ez dagola bertan aunditasun iraunkorik.

Bazegoen Egito aldian Sesostris izena zuen agintaria; efi asko irabazi izan omen zituen; eta menpekoai eta bere aunditasuna erakusteko egin erazi omen zuen uřez-

ko ta zilafezko gurdi edo «*kotxe*» aundi eder bat; eta buruan sartu omen zitzaion etzuela gurdirako zaldirik bear; zaldi ordez menperatutako efegeak bazituela ta. Zaldi ordez bada aukeratu omen zituen lau efege.

Onelako batean zaldi egiten zuen efege batek gurdi-gurpilari zofotz zofotz begiraka zegoela galdetu omen zion Sesostrisek ¿Zergatik begiratzen diozu ofen zofotz gurpilari? ta erantzun omen zion gixaxoak. Gurpilak gauza asko erakusten didate; ta ofegatik begiratzen diet ¿Zer erakusten dizute ba? ona: Jauna; Gurpila goian ikusi orduko berealaxen beian ikusten det; eta esaten det kolkorako: Orelakoxea da mundua; Gaur goi dagona biyar bian egorr diteke.

Efege afoak ikasi nai izan bazuen ikasi zezakean gixaxo afek esan nai ziona; ta ikasi ez bazuen guk-kristauak gera ta ikasi dezakegu auxen:ez dagola munduan gauz iraunkofik; beraz obe zaigu Jaunaren menpekoak izan.

Maite beti Jauna; oinperatu mundukeriak; eta jo beti atsegin itufia dan Jaunagana, ta etsi n. a. m. obe zai-gula munduan atsegin gabe bizitzea.

Ala izan bedi.



PASKO-ONDOKO BOSTGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 5.ª POST PASCHA

I

Zerura jua bear zuela ta Jaunak onelako gauzak bere jafaizalialai esan zizkielako ¡¡aiek artu izan zuten naigabea!! Gero esan ondoan Espiritu deuna bidaliko ziela agindu zien Jaunak «Betiko Aitari» eskariak eta bere izenean egiteko; ofela egin ezkeró nai zuten guzia iritxiko zutela ta. Geroztik gure Jauna gu ta Betiko Aitaren artean bitartekotzat daukagu; ta Jesus onak gure aldez Betiko Aitari otoi dagionean oso pozik dagio; pekatariak bagera ba, gaurko Ebangelioa entzun da, poztu gaitezen; Jaunak beti lagunduko digula esaten digu ta.

II

Etzan gure Jesus zerutik jetxi munduko jakinduria erakusteko; baizik guri onak izaten erakusteko; ta goian degun Aita maitegafiak badaukala gure ardura guk jakin dezagun erakutsi zigun beste gauza askoren artean kristau guziak biotz biotzez ta egunero esan bear degun «Aita gurea» ¡¡Otoitz edefa benetan!! ¿Nola izan ez ba, bertan esaten ditugun eskari mamitsuak gure Jesus onak asmatutakoak izan ezkeró?

«Aita gureakoan» erakusten zaigu «Betiko Aitari» eguneroko ogia eskatzen; eta eskatu ezkeró ez degu

—eskatu ta—gaizki egiten; bear-beafezko gauzak eskatzeko Jaunak agintzen digu ta. Beste gauzak ondatsunak eta eskatu bear ditugu esanaz »*on bazaizkit*»; eta ez uste izan onela eskatu ezkerro Jaunak ezer ukatuko digunik.

Maiz uste izaten degu guk Jaunak zer edo zer ukatu egiten digunean ukatzeagatik bakafik egiten duela; ta ez da ori egia; bada egin zagun seme batek eskatzen diola bere aitari aitzo edo ofelako laban zorotz bat; oartu egin du ordea aitak semeak laban afeekin bere burua il dezakela, emango baliok ba zondo egingo ote luke? ¡¡Bai zera!! ez baidiote gurasoak semeari kalte egin dezaioken gauzik beñere eman bear. Orduan bada zzer esan gure Betiko Aitaz? zKaltegafi zaigun gauzen bat eman dizakegula edo? ¡¡Ez!! Berak bai daki guk baño obekigo zer ote zaigun on, eta zer kaltegafi; beraz ez digu kaltezko gauzik beñere emango; geroztik zerbait eskatu ta ez badigu Jaunak ematen esan dezaiokegu gure buruari: Etzait ori on; eta Jaunak ukatu egin dit» ¡¡Zorionekoak onela egin ezkerro!!

III

Esker mesede ontarte guziak itufi eder batetik bezela Jauna gandik datozkigu; ta ori bera esan nai digu gure Jaunak esaten duenean *Nere izenean Aitari zerbait eskatu ezkerro iritxiko dezute.*

Egi garbi garbia da esan au, ta gure Jaunak gaur ofen maitegafi ta esku zabal agertzen zaigunezkero zzer esan Jaunagan uste oso osoa jafi beafean gizonagan ipintzen dutenaz? Txoro, txatxo ergel batzuek dirala noski, ta alaxen da; dada Dabid efegek etzuen alpefik esaten: *Obe zait Jauna gan uste oso-osoa jafi gi-*

zonagan baño; ta ederki esana; Jaunaren aldean gizon altsu efege agintariak ez bai dira autsa ta efautsa bairik ¿Eman al dezakegute gizon aberats, agintari efege aundi oiek Jaunak neurtu dizkigun baño egun bat geiago? Txalogafiak dira beraz estu aldietan eta iriskoetan beti Jaunagana jotzen dutenak.

¿Eta zer esan befiz *santuetan* uste dutenaz? Deun edo santuak Jaunaren adiskide lagun aundiak diranik ez ukatu, n. a. m. Badira emen zuen artean Jose deunagatik bi begiak emango lituztekenak, badaude kristauen artean Paduako Antonio doitsuari asko baño asko maite diotenak; eta ¿zein ote da Andre Mariagan uste osoa jafia ez daukana?

Galdetzen al du orain norbaitek ea atsegin ote zaizkion Jaunari *santuai* egiten dizkiegun eskari, afen otoiak? Bai atsegin zaizkio; ta ori nai du Jaunak; bada deunak munduan bizi zirala Jaunaren begi-begikoak izan bai ziran, orain zeru erdi erdian daudelarik gero ta geiago maite oi ditu; ta gure aldez asko dezakete; Jaunaren afean eskubide aundikoak dira ta. Ez gero aztu bitarteko nagusia Jesus ona danik; ofegatik apaiz jaunak eta meza emale guziak onela bukatzen dituzte Betiko Aitari esandako eskari ta otoitz guziak: *Per Dominum nostrum Jesum Christum* Jesus ona bitartekotzat jafiaz, edo ipintzen dutela; baño ala izan da ere ziur-ziur jo diteke deunengana; batez ere Andre Mariagana.

IV

Orain Jesus onak norbaiti esango balio bere jafizaleai bezela *ez diozute gaurdaño nere aitari nere izeanean ezer eskatu* ¿zer erantzungo lioke? Guk esango giñioke ofi: Goian daukagu beti gure aldez dagon Jesus Jaungoikoa; oso efukitsu ta ona da. Munduan zegoela

beti ibili zan esker mesede on asko egiten; eta orain zeruan dagola ere era berakoa da; beti gure aldez dago; jo ba Beragana; ta jafi zure uste-oso osoa beragan; ofelakoai beti ondo dijoakie ta.

Noe, Abran, Jakob, Dabid, Judit, Ester, Susana ta zeruan dauden *santu* guziak orain mundura jetxiko ba lira, ta gurekin izketan jardukiko baluteke, esango ligu-teke guziak beren estu-aldietan ifisko guzietan Jaunak, Jesus maitegafiak lagundu izan ziela; ta beti garailari atera egin zirala; ta guk ere ori bera egiteko; Jauna baño altsuagorik, maitegafiagorik, oberik iñor ez dala ta. Eta esango al det otoitzetan baño lenago esan nai det otoi egin baño lenago pekatari geralako-damu-tu bear generala? ¿Zertako esan Jaunak norbaiti lenago entzutekotan biotz garbikoari entzuten diola? Jaunari zer edo zer eskatzekotan bada lenengoena eskatu bear diogu guri barkatzeko; damutuak gaudela ta.

Eta otoitzetan eta eskarietan ¿itz asko, egin bear al da? Galdera oni erantzun baño lenago esan nai dizutet zer dan otoitza.

Esango banizuteke otoitzik edefena kristau biziera dala ¿afitu egingo al zifiateke? Ez afitu, kristauak, bada otoitz asko egin afen ez diote biziera ona egiten ez duten kristauak Jaunari atsegiñik ematen; beraz Jaunak batez ere kristau biziera maite ta nai du.

Ona emen Jesus onak Fariseotafai ta esandakoa: «Efi onek itzez onesten nau; bere biotza ordea Nigandik oso ufuti dago.» ¿Zer esan nai ote duen Jaunak ofekin? Otoi dagigunean itz asko egitea baño obe zaigula kristau biziera.

Gure biotzeko asmoak eta gurak geok baño obekigo dakizki gure Jaunak; ez ditu ez ta ere aztuak guri bear beafezko zaizkigun gauzak; ez ditu beraz aditzeko

edo uleltzeko gure itz askorik bear; itz bat bederen esan ala, edo esan orduko zer nai ote degun Jaunak badaki ta.

¿Non ikasi ote zuen Zenturion gixañoak ain ederki otoi-egiten? «Zuk, Jauna, itz bat bakarik esan orduko nere gaixoa sendatu egingo da» esan omen zion Zenturion afek gure Jaunari; ta ¿itxu batek befiz? «Jauna: Ikusi nai det» eta Jaunak entzun izan zion, argia emanaz.

Apala, umila itz gutxikoa beti n. a. m.; afoa befiz beti itzontzi. ¿Zertarako gogora ekafi Publicano zergalaria, ta Fariseo afoa? ura apal-umila ta itz gutxikoa; au befiz itzontzi utsa. Jaunak apal-nai gaitu; ez ordea afo.

Badira kristauen artean otoi libururik izan ez; eta baldin badute ere irakurtzen jakin ez; eta ofegatik uste dutenak otoi-egiten ez dakitela.

Ez da otoi egiteko irakurtzen jakin bearik; otoi-egiteko eder-ederena biotz-biotzetik irtetzen dana bai da. Onak dira bai otoi liburuak; obeak ordea biotz-biotzetik ateratzen diran egiazko eskafiak. Ez estutu bada irakurtzen ez dakizutela ta; Jaunari asko dakitenak aña maite dezaiokezute ta.

¿Eta otoi-egitean zeñen aldez otoi egin bear ote dan? Lenbizi gure aldez; bada ¿zein ote da Jaunaren bearik ez duena? Ez ditugu etxe-koak ere beñere aztu bear. Eta ¿zer esan ote etsai-az eta kalte digutenaz? Jaunak beñepein Ebanjelioan agintzen digu etsaiak ere maite izateko; ta beren aldez otoi egiteko. ¿Eta garbitoki (purgatorio'ko) arima gaixoak aztu ote? Ez aztu, n. a. m., bada oiek Jaunaren ondoan daudenean gutaz oroitu egin-go dira.

Ala izan bedi.

SALBATORE EGUNA

2.ª HOMILIA IN FESTO ASCENSIONIS

I

«Deposuit potentes de sede et exaltavit humiles»
Andre Mari garbiak esan zuenean esan nai zigun Jaunak afoak eta zapaldu egiten dituela; apalak edo umilak befiz goraldtu. Ez da inor izan gure Jesus onak aña bere burua apaldu izan duenik; Betiko Aitak ofegatik ainbeste goretzi izan zuen. ¿Zenbat ote? Zeru lur oso osoaren jabe egiteraño. Bere burua Jaun onak ezer-ezeraño apaldu zuelako «*exinanivit semetipsum* Betiko Aitak ezin geiago goraldtu izan zion.

Begira gaurko egun zoragafi au; ta ikusi nola agertzen zaigun gaur gure Jaun ona.

Jesu Kristo gure Jaunak zerura jo zuenean bai omen zeuden mendi artan lagun asko nola zijoan Jesus zerura ikusten; eta Jauna zerura zanean, eta odei eder batek estali ta eskutatatu zionean, guziak afitu ta gelditu omen ziran; eta afitasun aundiagoa izango zuten nunt bait aingeru zoragafi batek onela esan zienean: «Galileotafak» ¿Zer ari zerate zuek emen zeru-begira? Zerurontz jotzen ikusi izan dezuten Jesus ori egunen batean befiz jeixten ikusiko dezute.»

II

Asko poztu ziran Jesusen lagunak beren Jauna ain altsu zerura jotzen ikusi ta. Orduraño ez baldin bazekiten Jaun ura Jaungoiko zanik, arezkeroztik aixa ta txit

erax jakin zezaketen; zerura igotzen ere ikusi bai zioten.

Gero aingeruak esan zienean etzala «orduan beñe-pein» beñiz lufera jetxiko, ta etxera juateko; ¿nork esan etxerakoan elkafi esango ziotena? Onelatsu ariko ziran noski: «¿Oartu al dezute, ta ikusi al dezute ederki nola igo dan zerura gure Jauna? Elias suzko gurdi batean eraman omen zuten zerura; gure Jauna beñiz bakar-bakafik igo izan da; ¡izein ederki zijoan bere etxera!! Andik etofi zitzaigun; eta ara jua zaigu beñiz; orain ¿zer egin bear degu guk? ¡¡Umezurtz gelditzen gera!! ¿Zer izango da gutaz?»

Gaurko Ebanjelioak dion «nubes lucida» baliteke izatea aingeru aldra pila edo talde eder bat, beren Efege Jaunari agur egiteko ateratakoa; ala diote beintzat Kristau arazoetan eta zeruko gauzetan guk baño geiago dakitenak; eta egia dirudi.

Gero aingeruak esan zienean «*andik alde egiteko ta*» ¡¡jura aiek artu izango zuten atsekabea!!

Esan ama bati ez duela beñiz seme alaba kutunik ikusiko; negar dario gaisoak; miñ aundiago deritzait neri artuko zutela gixaxo aiek aingeruak esan zienean *etzutela beñiz Jauna ikusiko*; bada agirian dago Jesus Jaun ongile on ura munduan izan diran ama guziak baño maitegafiagoa zala; ta ez diteke zalantzan jafi aiek guziak ziara maiteko zutela beren Jaun ona. Gixaxo aiek bada gidafi, artzai irakasle ta aitik gabe gelditu ziran; eta oso itun gañera; umezurtz antzera nunbait.

Eliseo Eliasen jañazaleari norbaitek esaten zionean bere irakaslerik gabe gelditu bear zuela, erantzuten omen zion ¡¡baietz!! bazekiela bai; baño bera ere bere atzetik juango zala; etziola bakafik utziko ta.

Bein esan omen zion Eliasek: Begira: nik auñera-

xeago jua bear det; zuk itxoin zazu pixka bat; eta Eli-seok erantzun omen zion berealaxen: Ez, etzaitut nik ifiolaz ere utziko; ta ez det ere zure ondotik alde egingo; ta suzko gurdi batean aingeruak Elias zeramala Eli-seok ikusi ta, ¡¡aiek Eliseo gixaxoak egingo zituen negar gafaxi samiñak!! Ofelakoren bat gertatuko zitzaien nunbait Jesus onaren jaraizale gixaxo aiei ere.

Uste det gixaxo aiek Olibete mendia utzi ta Jerusalem aldera jo zutenean, oso besteak itzuliko zirala; ta Olibeterakoan luftar eta lufezko gauzai itxatxiak bazeuden itzultzekoan befiz uste det zerutar eta zeruzale ere itzuliko zirala; mendi artan ikusi bai zuten Jesusen aunditasuna.

¡¡Au mundu nazkagafia!! esango zuten noski. Gure Jauna zerurontz jotzen ikusi degun ezkeru mundua gero ta nazkagafiago deritzaigu; ez bai da, mundua au gure egote lekua; ez da gure aberia ere; ¿zertarako jafi bertan gure biotza? Guk ere ori bera esan bear genduke; biotzez ordea.

Ez diteke itzez adierazi nolakoa ote dan zerua; atsegin lekua, poz tokia, Andre Mariaren jauregia, aingeru etxea ta gure abefia dala esan da ere ori guzia ez da ezertxore; zerua ori guzia, baño aundiago bai da. Zeruan daudenak bakafik esan dezakete, aiek bakafik adierazi; guk befiz ez.

III

Guda ondoan izaten dute guda mutilak guda saria. Kristauak ere eriotz ondoan izango degu gurea. Ez du Kristauak [beste munduan saririk izango *nisi legitime certaverit*, Kristau on zintzoari dagokion eraz bere etsaiakin lotu egiten ez bada.

Izan zituzten deun (santu) guziak beren etsaiak; garaitu zituzten ordea; ta ofela zerua irabazi izan dute.

Ez gaitu ez Jaunak naigabe ta atsekabetarako sortu izan; pekatari gera ordea; ta pekatu zofak nola edo ala ordaindu bear beraz; eta jez ote da ortarako biderik edefena ta zuzenena lan miñ, naigabe bidea? Bide ofi ekin izan zion gure Jaunak; baita ere deun guziak bide ori ibili izan dute; munduko atsekabe, ofaze, miñ iseka, ifi pafak eta eruapen edo egon afiz eramaten zituztela.

Igo zan bai Iesus zerura, ez uste izan ordea zeruan gutaz aztuta dagonik; ez ditu munduak bereak aztutzen; gaizki esan izan det, aztutzen ditu ta; Jaunak befiz go-goan gaitu beti; biotz erdi erdian josiak gauzka ta.

Jose Jakob en seme zintzoa gilzapean zegoela asma-tu ta igafi egin zion Faraonen mofoi bati bere etorkizuna; ta ordainez esan zion azkatu ta giltza petik atera ta gero, batez ere Faraonenean zegoenean beraz oroitze-ko. Baietz esan zion mofoi afek; baño lenago bezelako mofoitzarako Faraonek deitu zionean eta jauregian patxada aundian zebilela ¿uste al dezute Jose gixaxoaz oroitu zanik? ¡¡Bai zera!! Ez dira munduko aundizkiak txikiak oroitzen, oso berekoiak dira ta.

Etzaio ez gure Jaunari—zeruan dagola—ofelakorik gertatuko; zerutik maite-maiteki begirutzen gaitu ta; baita ere badauka gure ardura aundia ere. ¿Nola ote?

Jauna—zerura jua da—gu bakafik gelditu ez gaitzen utzi zizkigun bere ordekoak diran apaiz-jaunak eta; gure estu aldietan gure biotzak lasaitzeko ta zeruko atea irikitzeko eskubidea ematen ziela.

Jaun onak zerutik bidaltzen dizkigun esker mese-deak esaten digute biotz-biotzean josiak gaituela; ta «komuniokoan» Bere gurputz bikaña artzekoan esaten

digu gure biotzean bizi nai duela; Jaunak ba-zerura igo bazan ere-utzi zigun Berak zeukan guzia; bada «*al-dare santuan*» Ber-Bera gelditu izan zaigu.

IV

«*Banoa ni*» esaten digu gaur gure Jaunak; banoa bai; zerura ordea; andik jetxi nintzan; ara dagokit ba juatea. Zerura banoa zuenkatik da; zuenkatik noa zerura; zuentzako lekua prestatzera noa ta. Bizi-aldia-oso labuía da; badakizute zuek ere ori; emendik gutxira bada zuek ere Nerekin egon bear dezute. Zeruan bana-go ere munduan zuek bakafik bazeundeteke bezelaxen begiratzen zaituztet. Nik Betiko Aitaren ondoan nagola dagit (egiten det) Moises eta Samuelek beren efiaren alde zegitena (egiten zutena): *zuen alde zafi; zuen alde otoi egin.*»

N. a. m. Salvatore eguna da gaur: lasaitu bitez gure biotzak; Jesus zeruan gure zai dago ta. ¡¡Sursum corda!!

Ala izan bedi.



SALBATORE ONDOKO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. INFRA OCT. ASC.

I

Gaurko Ebanjelioan agertzen zaigu argi ta garbi Jesususen Jaungoikotasuna; bere jaraizale gixaxoak etorkizun zituzten neke bide ta egun gofiak argi ta garbi esaten dizkie ta. Egun latzak ikusi bear zituzten gixaxo aiek; maite dionari Jaunak atsegin pozak kendu egi ten bai dizkio.

Etorkizun zituzten gauza guziak aiei igafi ta gazti-gatu ondoan esan omen zien onela: «Esan dizkizutet gauz auek ikusi ta galbiderik (eskandalorik) artu ez dezuten.»

Orduan pekatu aundia da galbidea. Bai alaxen da ta bertaz zer edo zer esan nai det.

II

Bi alderdi daude munduan; batean Jauna dago; bestean befiz etsaia, deabrua txefena. Onak Jaunakin daude; gaiztoak deabruakin. Baditu Jaunak onak zerura eramateko bere orde zauden apaizak, misiolariak eta; baita etsaiak ere baditu bereak; eta oiek beti gu galdu ta afapatu naian dabilta.

Bazekien gure Jaunak gure etsaiak eta munduko gaiztoak gu galtzeko galbide aundiak jafiko zizkigutela; ta ofegatik asefe bizian esan izan zuen «*Voe homini*

per quem scandalum venit » ¡¡Amaika bider zorigaiztoa galbide edo pekatu bideak jartzen dituen!!

Etzizkien gure Jaunak bereai on bideak besterik erakutsi; ala ere ona emen esan ziena: «Gauza auek esaten dizkizutet galbiderik artu ez dezazuten» Orain bada ¿zer esan galbideak ipintzen dituzten kristau gaiztoaz?

III

Nonnai dakuskigu pekatu-bideak; deabruak nonai bai ditu bere ordezkioak; ez da beraz pekatu bide gabeko lekurik. Gure etsaiak laguntzale aundiak dituen bitartean Jaunak oso gutxi ditu.

Irakurri gaurko paperak, albistariak, eta onak izan ezkerro lagunik onenak dirala baldin badakizute gaiztoak eta ustelak eta nazkagafiak izan da ¿zeñek esan ote zenbaterañoiko kalte egin dezaketen?

Obe ez balira ainbeste eskuetan artu ez ditezken paperak. Beretan gaizki esaten da Jaungoikoaz eta kristautasunaz; *erlijio*ko gauzaz par egiten da; kristau onaz ifi; apaiz-jaunaz iseka; eta ikurtoni edo elizakoaz irain; ala ere kristau onak erosten dituzte; elizafa datozenak eta Jauna maiz artzen dutenak ere bai.

Paper gaiztoak, liburu loiak, eta *nobela* txafak dira deabruak asmatu izan dituen galbiderik aundienak; Paper-liburu-*nobela* zikin oiek dakarzkiten antz-irudi oiek (*efetrato* zikiñak) biotza, arima, gorputza lizundu, zikinindu, ta usteldu egiten dute; esan bezate bestela non ikasi ote duten apainduak baño erdi jantziak dabiltzan emakume kaskariñ oiek era txar ortan jartzen? Begira, oartu, ikusi paper lotsagafi lizun oiek dakarzkiguten antz irudi lotsagafi ta nazkagafiak, eta jakingo dezute bereala non ikasi izan duten.

¡Eta izango dirala emendik auffera ere oflako paper txafak beren etxietan sartzen utziko duten gurasoak! Ez det siñiztu nai; ez det siñiztuko ere; bada suak gorputza efetzen badu, ofelako papef txafak arima efe egiten dute; ta pozoiak gorputza il egiten badu; papef oiek arima iltzen dute. ¿Zein ote da seme aláben arima ilik ilusi nai duen gurasoa?

IV

¡Zine! ona gaztientzako batez ere galbiderik aundiena. Badifala ere onak; bai; alaxen izango da; ala ere ez dute oiek kristauen artean kalte gutxi egiten; ez naiz ausartzen esatera *zine* guziak kaltegarí dirála; baño bai zentzu gabeak ezik beste guziak esango digutela oso itxutu ta daudela seme-alabak *zinetara* dara mazkiten gurasoak. ¿Ez ote dakite auek neska mutilkoskofen biótza txit beratxa dala; ta *zinetan* ikusitakoa biotz-biotzean sartu egiten zaietela? ¿Ez ote dakite *aufak ikasia etxean ikusia* egia dala; ta *zinetan* ikusten diran gisa oroetako gauzak aufak ikasi egiten dituztela? Ez dizutet esan nai ere deabruak asmatu izan duen pekatu biderik aundiena *zinea* danik, aspalditik jakíña eduki beaf zenduteke ta.

«*Edozein zina*» ajolik gabe dijoana neketan izango da Kristau ona; ta gutxiago seme-alabak ajolik gabe daramazkiten gurasoak.

Betoz betoz gero oiek esaten seme-alabakin ez dezaketela eze; betoz esatera «au zoritxafa» seme-alabak oso biufi eldu dira; oso gaiztoak ditugu; il beaf gaituzte» Guk esango diegu: *Erein izan dezutena bildu egin dezute*: of Konpon.

Ez det uste gazteak eta galtzeko ta usteltzeko *zinea* bezelakorik izan ditekunik. Eriotzak, lapurketak, lizun-

keriak eta oien *Kidekeri* guziak *zinetan* ikasten dira; ta ofelako gauza nazkagafiak ikusten dituzten gazteak ¿zeñ ikasiko ote dute lapuf-eriozgilere ta gizon lizunak izaten ez bada? *Voe homini per quem scandalum venit.*

Lagun gaiztoak ere galbideak dira; baita dantza lotuak edo tximu dantz nazkagafi oiek ere; baño ¿bai al da munduan pekatu-bide ez dan gauzik? Ofegatik esan izan zuen gure Jaunak: *Voe mundo a scandalis.*

N. a. m. Alde egin beti mundutik; adiskide ta lagun leku izan beaŕean etsai leku gaiztoa da ta. ¿Pekatu baño zeñ etsai aundiagorik?

V

Oso bildulgaŕiak dira pekatu-erazten digutenak; bada Bernardo deunak dionez ofelako gizon gaiztoai deabruai baño bildul aundiagoa omen zien; eta ¡¡ziñetan!! bada deabruari pekatu eraztera datorkigunean «*Aitaregin*» da alde erazi dezaiokegu; ¿baño gisa txafai ta lagun gaiztoai ¡¡Ezda ere!!

Oña lagun txafak pekatu erazteko eskeintzen duten diru zizkoa; ofatx ematen duten ogi bidea; ofatx agindutako ifabaz-bidea; ¡¡ofa!! ¡¡oña!! bere menpean daukaten guzia. On asko egin dezakete dirudun eta aberatsak; baño baita ere ¡zenbat eta zenbat kalte egin dezaketen!

Diru zizkoak lots asko kendu izan du; ¿zergatik ote da ori? ura lenago ona; orain beñiz gaiztoa; lenago zintzo-zintzoa; orain lotsa gabea. ¿Zergatik ote lenago ain begiratu ta orain beñiz ain ajol gabea? ¿Zergatik lenago ain garbia ta orain ain ustela ta lizuna? ¿Zergatik ote ori? Zorigaiztoak orain eta beti berak inpernura juateko ta besteak ere eramateko ainbeste diru sautu edo *gastatu* egiten dutenak ¡¡Zorigoiztoak bai!!

VI

Aundia izugafia ikaragafia izan beaf du nai ta naiez Jaun zofotzak gisa ortako gizasemientzako prestatua daukan zeapen edo *kastigua*: oiek bere diruakin dagiten pekatua oso ikaragafia bai da; Ofegatik esaten du Jaunak: «zorigaiztokoa galbideak eta pekatu bideak ipintzen dituen.» Galbidea jartzen duenari obe litzaioke norbaitek efot-afi aundia lepotik zintzilika jafi ta itxas ondora bota egingo balio;» esan onekin adierazi nai digu Jaunak oiei datorkien inpernua ikara-ikaragafia izango dala.

Gure artean baldin balego pekatu bideak jafi ta Jaun onari kristau onak kentzen ari danen bat; jakin dezala gaizki oso gaizki ari dala; ta Jaunak biotz-biotzez gofotatzen duela; ta azkenean oso gaizki ibiliko dala. ¿Zergatik kendu ta ebatsi Jaunari bereak bakafik diran arimak?

Norbaitek arimen bat galdu egiten duenean Jauna naigabez bete egiten da; negaf dario; geroztik pekatu-bideak norbaiti jartzea pekatu aundi- aundia ta lafi lafia da.

Utikan bada galbide jarleak; eta guziok lagundu zaiogun Jaunari arimak eta lagunak zeruratzen.

Ala izan bedi.



ESPIRITU SANTUAREN ETORRERA

2.ª HOMILIA IN DOM PENTEKOSTES

I

Gaur itz egiten die Jaunak bere jafaizalari Espiritu deunaz; ta oso xamufki gero; bada «*Poz emale*» deitzen dio; ta alaxen da; poz atsegin guziak Beragandik eldu zaizkigu ta.

Espiritu deunak jafaizalien biotzak pozez bete zitueanean Pedro deunak bigundu zituen judu biotz asko; ta antziñeko garai aietan kristauak pozikan juaten ziran eriotz bila; Espiritu deunak Kristatasunaren aldeztuz iltzen ziranai atsegiñez betetzen zien eta. [Guri ere mundu ontan itun galbitzanean Espiritu santuak poza ekafiko digu: *Poz ekarle ta emale* omen da ta.

II

Begira zein apala dan gure Jauna; begira bere itz auen apaltasuna: *Aitagana noa ni; ta noalako etzerate itun jafi bear. Aita ni baño altsuago ta aundiagoa da.*

Jakiña da Jaunak esan zituela itz auek gizon zan aldetik; bada Jaungoiko zan aldetik bere Aita añakoa zan.

Oso itun zeuden jafaizale gixaxo aiek; berai alaitu beafean arkitu bai zan Jesus ona. ¿Etziran ba itun jafi-

ko irakasle gidari, aita, anai ta lagun gabe gelditu bear baldin bazuten? ¿Mundua eguzkirik gabe gelditu ta, ez al da itun itun gelditzen?

N. a. m. Gure arimari indafa damaiona Jauna da; ta Jaunik gabe egon ezkerro gure anima ilik dago; ta gure Jaunak gugandik alde egiten baldin badu galdu-galduak gaude.

Pekatu pean gaudela ta, Jaunak badijoala ta, utzi egiten gaituela ta, ¿bildufik gabe ta ajolik gabe geldituko al gera?

Gixaxo aiek bazekiten noski Jesus ura Jaungoiko zala; baita ere *gizon* zala, ta gizon zan ezkerro alde egingo zuela; baño *Jaungoiko* zanezkerro beti berakin egongo zala ere jakingo zuten nunbait; ala ere juan bear zuela ta, goibel-goibel jafi ziran.

Pekatu egin da, Jaungoikoak gugandik iges egiten du; ta gurekin asefe jartzen da; ala ere au guzia jakin da ere ez da gure biotza ituntzen; ez da iluntzen; ez degu negafik egiten. ¿Zergatik ori? Bakafik kalte gaitz aundiena Jaunaren adiskidetasunik galbe gelditzea dala ez dakigulako.

III

Jesus, n. a. m. beti ona; beti maitegaría, Ona zalako ta bereak biotz biotzez maite zituelako esan izan zien onela: *aitagana noalako etzerate itundu bear*. Pozikan nai zituen Jaunak bere jafaizaleak; bada norbaiti egitan maite zaionean bere poz atsegin, miñ atsekabeak *gureak* egiten ditugu; ta onelakoxeak nai zituen bere jafaizaleak: Bera bezelakoak.

Ni noalako zuek maite banauzute postu egin bear zerate: onela Jaunak esan da esan izan nai zien gutxi

gora bera: *¿ez al dakizute ni nere aitagana jua da mundu ontan irabazi izan detan saria artzera noala?*

Biotz pusken bat mundu ontatik iges egin da, ta Jaunak deitu ta dijoakigunean, gogoratzen baditugu gure Jaunaren itz oiek, nai ta naiez negar egin beafean gero ta geiago poztuko gera; il zaizkigunak Betiko Aitagana jua da betiko saria artzera juaten dira ta.

Bazekien Jaunak bereai ondo begirutzen; eta ortarako dira gaurko Ebanjelioko itz auek.

IV

Igarri ta jakin erazi dizkizutet nik gauza guziak gertatu baño lenago; (eta onela egin det) gertatu ondoan zuek siñiztu dezazuten. Garai artan landaratxo antzekoak ziran jafaizale gixaxo aien biotzak; eta etzi-rudien aien fedea Jesus onagan eduki bear zuten bezin sendoa.

Aurki, laster, agudo eroriko da azpi (zimentoak) sendoak ez dituen etxea.

Kristautasuna edo erlijioa etxe-jauregi eder baten antzekoa zaigu; beraz etxe guziak bezela azpi sendo-sendoak bear zituen; ez aztu bada Jesusen jafaizale aiek gure *erlijioaren zimentoak* ziranik; geroztik aien fedea zintzoa, sendoa, ta aundia izan bear zan; eta fede bizi-koak nai zituen gure Jaunak; guri ere era berakoak nai gaitu.

Jesus ongilea igarle jakintsua ere zalako gaztigatu izan zien bereai irugañen egunean ilen artetik befiz garailari atera egingo zala; ta berak esaten ziena guziak siñizteko; afezkeroztik ba egiazko Jaungoikotzat artu bear izango zioten; Ona zergatik esaten zuen Agustin deunak siñiztu zutela bai Jesusen jafaizaleak; ez ordea

fide nova fede beñiak; sed *aucta*; baizik aundi ta sendoago zeukaten fedez.

Jafaizaleak Jesus ilik ikusi zutenean «defecta» auldua, malaka zeukaten fedea; ilen artetik pixtu zanean befiz «refecta» sendotu izan zitzaien.

Etzuen Tomas deunak (Didimok) Jesusen pixkunderik siñiztu nai, bere zauriak eta ikusi ta ikutu ondoan ordea—lenago fede-makalekoa izan afen—siñizte berro-sutsukoa biurtu izan zan; bada Jaunari aozpeztu ta *Ene Jaun eta Jaungoikoa* esan zionean esan nai izan zion Jesus onari esan dezaiokegun gauzarik aundiena.

Jaunak gertakizun ziran gauza guziak jafaizaliei esan ondoan, eta aiek ikusirikan guzi-guziak bere Irakasle jakintsuak esan izan zien eran gertatu zirala, berealaxen asi ziran Jaunaren legea ta Ebanjelioa mundu osoan zabaltzen eta erakusten,

Zorionekoak gu ere-gure «erlijioa» egi garbi-garbia dala ezagutu ta-astan bagera sakon-sakonki ikasten, eta bere aginduak betetzen.

Gaurko Ebanjelioak esaten digu:

V

Etorkizun dala munduko gidaria. Gidari ori gure etsaia da; Jaunaren jafaizaleak ere izan zuten beren etsaia; ta afek arapatu ta ondatu zion Judaseri; ez uste izan ordea Jaunak etsaiari munduko gidaria ala nagusia deitzen diolako zeru ta lufaren jabe dala esan nai digunik; ez du ofelakorik adierazi nai; bada zeru lur jabea Jauna bakafik da; ta ez dezake etsaiak Jaunaren baime-nik gabe ezer egin. Etsaia munduko jabe ta agintari dala Jaunak gaur esatean esan nai digu mundukoak etsaiari

Jaunari baño gelago jafaituko diotela; ta alaxen da: munduan etsaia bai dago agintari, ta Jaunari oso gutxik jafaitzen bai diote.

Erne egon n. a. m.; ez lokartu; etsaia guk uste degun baño erneago dabil eta. Gu erne ta zintzo bagabiltza, ez gaitu etsaiak garaituko. ¿Nola ote garaitu Jesus bere jabe ta garailaria gure aldez badago?

Otoi egin esaten digu Jaunak; eta etsaiari garaitzeko ez lokartu, ta otoi egin beti.

Auxen da gure eginkizuna; ta Jauna gure aldez egon ezkerro—berak lagundu ta—eginkizun ori befeko degu.

Ala izan bedi.

;;Jakin!! eta ;;Ikusi!!

VIDE

DOMINICA 1.^a POST PENTEKOSTES:



in pagina 312

in pagina 312

in pagina 312

PENTEKOSTES ONDOKO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM 2.ª POST PENTEC.

I

Edefak dira ebanjelio guziak; baño gaurkoa ezin edefagoa da. Baderitzait gaur Jesus ona aita-on-on baten antzera—bere seme kutun-kutunak aldamenean dituela—guziai aolki edo konseju onak ematen ari zaiela; ta txit ona, oso erukitsua, ta ezin geiago barkazale zalako gaurko ebanjelioan agintzen digu Bera bezelakoak izateko.

Ufikaldu zaitzete lagun urkoaz; ez inortaz «pensamentu» txarik izan; barkatu beti; ta barkatuko zaitzete zuei ere. Onelakoxeak dira gaurko Ebanjelioan Jaunak ematen dizkigun onu edefak. ¿Zergatik bestientzako gu onak izan ez, Jauna guretzako ain ona izan ezkeror? ¿Berak guri ainbesteko maitasuna izan, eta guk Berari maite izan ez? ¿Berak guri ainbeste aldiz barkatu ta guk beñiz lagun urkoai barkatu nai ez? Amaika aldiz zorigaiztoak gai ontan Jaunaren antzekoak ez bagera; bera gurekin izango bai da gu lagun urkoakin: geran antzekoa; onakin ona, maitetsuakin maitetsua, zofotzakin zofotza, gaiztoakin gaiztoa, barkazaliekkin barkazalea; geroztik esan bearko gure Jaunak izango digun maitasuna ala gofotoa guk lagun urkoai diegun maitasun ala gofotoaren neufikoa izango dala. Lagun urkoari maite badiogu baita Jaunak ere maiteko gaitu; gofotatu ezkeror beñiz Jaunak ere gofoto izango digu.

II

Eman eta emango zaizute; auek dira gaurko Ebanjelioak esaten dizkigun itzak. Ez du dirudienez Jaunak biotz zufik nai: Bere antzera emankof eta esku zabal nai gaitu. ta.

N. a. m. Jauna onakin on, zufakin zur, zitalakin zital, emankofakin emankor egongo dala egi aundia denezkero, Jaungoikoaren izeneko bat, beartsu, pobre bat gure laguntza eske, ukar bila badatorkigu, ez utzi !!Jaungoiko aten!! ezer eman gabe, lagundu gabe ukar (limosnik) gabe: bada munduan gauden bitartean guziak Jaunaren afean txiro *probe* beartsu batzuek besterik ez gera; ta berak bizitza, etxea, osasuna, ta ondasunak ukar (limosnaz) bezela ematen dizkigu; ofegatik bada Jaunaren izenean zer edo zef eskatzera norbait guri etofi ta ¿guk eman ez? Ori egingo balu norbaitek, Jaunak ere ori bera egingo lioke zerbaiten eske Beragana juanda; esango bai lioke: *Etzera zu nere probientzako ona; ni-ere gogofa izango naiz zuretzako.*

Aberatsak eta noizpenka edo noizean bein badaukate beartsuen beafa; beartsuak befiz aberatsena.

¿Afitu egin al zerate aberatsak eta beartsuen beafa noiz edo noiz izango dutela aditu ta? Ez afitu, ez; egia bai da.

Aberatsak zerurako beartsuen laguntza bear dute; beraz aberatsak zeruratzekotan beartsuai lagundu ta zeruratuko dira; ez lagundu ezkero befiz estu estu ibiliko dira apike. Gogoratu orain Epulon aberatsa: ta Lazaro gixaxoari lagundu etziolako galdu zala ikusiko dezute.

Aberatsak beraz lagundu bear diete beti beartsu gixaxoai, ¿zertarako? gixaxoak beartasuna ta *probetasuna* eramate onean eramateko; ofela egiten badute, ta

aberats guziak egingo balute, ez lieteke *probeak* aberatsai ainbesteko gofotorik izango; ta batez ere Jaunak beti gogoan edukiko du laguntz ori; ordañ eta sariz zerua emanaz.

Beartsu gixaxoak aberatsen anaiafebak dira; beraz maite maiteki begiratu bea' diete; eta eriotz orduan entzungo dituzte onelako esan eztitsu auek: *Zuek bear tsuakin egifitakoa artu izan nuen Nik Nerekin egiña balego bezela. Zorionekoak orain; saritzat zerua daukazute ta.*

III.

Ixsu batek beste itzuen bat eskutik badarama biek zulora: Itxuak dira *fedea* gabeak; eta jakintsu jakintsuak badira ere ez dezakete inñori zeru biderik erakutsi; ta ¿zertarako esan zuzen-zuzen leiza zulora dijoazela? Fededunai befiz etzaie ofelakorik gertatzen; etzaie gertatuko ere fedea zerurako gidari azkafa ta bakafa bai da.

Itxutu ta ez dagonak badakizki bideko ari koskofak, lakatzak, eta usin guziak; beraz erori ta zikindu egiten bada, berea bakafik izango da efua (kulpa).

Baditugu zerura juateko zuzendarriak eta gidariak; auek aitor entzuleak eta eliz agintariak diranik ez diteke zailantzan jafi; ta auei entzun ezkeru Jaunari entzuten zaio; auek agindutakoa egin ezkeru ondo goaz; zuzen gabiltza, ez gera amiltegian eroriko; baño—zuzendaririk ez degula ta—munduko itxaso ikaragafi ontan ibiliko gera buruzagi gabeko itxas ontzia bezelaxen.

Mundu ontan ifisko asko ta pekatu bide aundiak daude; ta nonaitik sortzen zaizkigu etsaiak; ez dagikegu beraz zuzendaririk gabe ezer egin.

¿Ea — zuzendari gidari zintzo—ona izan eskero—nola begiratu bea' ote zaion? Ikastolan edo eskolan

neska mutilak irakasleari begiratzen dioten eran; seme-alabak aitaamari, itxuak lagunari, ta ilunpean dabilenak argi mutilari begiratzen dioten bezela; ofelaxen begiratu bea zaio zerura garamanari.

Egitzat daukate mutil-koskofak bere «*maisua*» dien guzia; eta ez da beren iritzian inor *maisua* aña dakienik; artu itzagun era berean guk ere gure zuzendariak; eta ezafi gogoan Jaunaren esan auk.

IV

Ez da ikaslea bere irakaslea añaakoa. Ikasten ari-danak asko dakien ikaslea izan nai du; ta irakasleak aña ikasi naian dabil beti.

Ona izango da ikaslea bere irakaslearen antzekoa izan ezkeru.

Gure Irakaslea Jauna da; ta kristau onak eta Bere ikasle onak izango gera Jesus onaren antzekoak izateko alegiñak egiten ditugunean.

Ez da ikaslea (mutil koskofa—ikastaroan ari dan bilartean beiñepein—irakasle añaakoa izango, ez da gu ere Jesus añaakoa; ala ere Jaunaren antzekoak izateko, egunero zef edo zef egin beafean arkitzen gera; ta bide ontan eta egiñal oietan zuzen-zuzen ibiltzeko ortxen dauzkagu on bidean ibiltzen erakusten diguten aitor entzuleak eta..

Berai entzun bada. *Ipsum audite. Zuen esanak dagizkitenak nereak dagizkite; ta entzuten ez dizutenak ez didate neri ere entzuten.* ¿Nori ote dagozkie obeto itz auk aitor entzuleai baño? Oiekin batean bagaude Jaunakin gaude; bere esanak egin da—Jaunarenak dagizkigu; Berak zuzendari eduki ezkeru, ez gabiltza okel.

Zofotzak dira gero beste itz auek: *Zuen lagun urkoen begietan zitza ikusi, ta zuen begietako zura ala ohea ikusi ez?* Itz ikaragafi auek *Ipokritai* esanak dira; aiek lagun urkoentzako zofotz, zofotzak zifan; beren buruentzako beriz lasai lasaiak. Aien biotza iñorena baño ustelago egon afen bazekiten bestien aúfean on irudia egiten: *gauza bat esan; eta bestea egin* orixen ziran *ipokrita* aiek.

Guk uste ezkeru besteak baño obeak gerala; ta gure utsak gugandik kendu beaúfean—lagun urkoenak oartu ta—lagunai beren arpegifa bota egiten badiegu, orduan *Fariseoak* gera; ta ez gaitu Jaunak nai. ¿Jaungoikoaren semeak izan nai degula? Makurtu zagun burua; ta Jaunak ontzat artuko gaitu.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTES ONDOKO IRUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 3.ª POST PENTECOST.

I

Auexek dira gaurko Ebangelioko itz aipagarrienak Entzun: *Congratulamini mihi, quia inveni ovem quoe perierat; Poztu zaitexzte; galdu zitzaidan ardia arkitu izan det eta.* Itz auek jakin erazten digute Jaunaren neufigabeko maitetasuna: bada Jaunak Publikano ta pekatariakin askotan bazkaldu ere egiten omen zuen: eta ¿guzia zergatik? ondu nai zituelako.

Guziak dakizute ardi galduaren ipuia; ta larogeita emeretziak utzi ta-eungafenaren bila ibili izan zan Jaun onak esan nai digu ardi gaixo ari berak asko maite ziola. Azkenean izerdi patxetan ibili bazan ere opatu zuen; eta pozaren pozez esan zituen itz auek. *Poztu zaitexzte nerekin batean: galdu zitzaidan ardia arkitu det eta.* Gu gera gu (esan dezakegu) Jaunaren artaldetik iges egin da galdu egin zan ardia, ta Beragandik igeska gabiltzanean miñ aundia ematen diogu Jaunari; Jaunak beti Bere ondoan nai gaitu ta; ofegatik beste ardi guziak utzi ta-gure bila dabil beti; ta oso urduri ta kezkaz beterik gañera.

¡¡Ura poza Beragana goazenean!! ¡¡Ura atsegiña pekatu utzi egiten degula ikusten duenean!! ¡¡Ura alaitasuna etsaiaren atzapafetatik iges egiten degunean!! Gerroztik asko maite gaitu Jaunak.

II

Iru mota-gisa edo erakoak gera bizi geranak: batzuek pekatariak: besteak pekatari damutuak; besteak befiz onak.

Pekataria da artzai onari *galdutako ardia*: damutua *Jaunak befiz arkitu* zuena; ta azkenean onak dira Jaunaren ondoan daudenak; eta Beragandik alde egiten ez dutenak. Jaunak asko maite ditu guziak.

Norbaitek uste izango balu Jaunak pekatariai asko maite dielako ez duela pekatuak gofotatzen ¡¡ezetz!! esango diot nik; oker dabilela; ta pekatua asko baño asko gofotatzen duela; pekatariari befiz maite diola bai; Bere odol bikañakin irabaziak bai gaitu; baño pekatua gofotogafi zaio.

«*Amat te*» dio Agustin deunak: Gizona zeranezkero Jaunak iñork aña maite zaitu. *Amat te* siñiztu asko baño asko maite zaituela; baño *odit tua*; zure gaizki egiñak, zure pekatuak gofotoaren gofotogafitatu.

Itzez mingañaz oso erax eta oso aisa esaten da: «*asko maite zaitut*;» egiñaz edo «*obraz*» ordea ¡¡jenel! gutxik maite gaituzte egitan.

Gure alde odola ixurtzeko aña norbait prest balego *ofek, ofek* maiteko ginduke egitan; bañan ¿non ote dago ori? Munduan beintzat ez: zeruan ordea bai; Jauna baida.

Gogoratu Jaunak *Bere* nekaldi (pasio) ikaragafian guregatik eraman izan zuen guzia; gogoratu, ta esan ¿zein da gure onaz ainbeste egin izan duena? Eta *Bere* nekaldiko miñ-atsekabe izugafiak befiz gutxi izan balira onatx emen-gurutzean josi ta zegoela, Betiko aitari esan ziona *Ene Jaungoikoa: ¿zergatik utzi nauzu?*

Beda jakintsuak esan ontaz: ¿*Quare me dereliquis-*

ti? jardukitzean esaten omen zuen *etzuela Jesus efukitsuak esan afeekin espa (keja)rik adierazi izan nai; baizik guziaz jakin erazi gure aldez oraindikan ere geiag jasan edo sufritu nai zuela*. Orixen, orixen da benetan eta biotz-biotzez maite izatea. ¿Zer ote dira maitasun onen ondoan munduko maitale guziak? ¡jezer ez noski!! ¿Egin ote diteke maitalearen aldez *bizitza* eman baño geiag? ¡Ez!! Jaunak bada pekatari guziak maite gaitu; ta gure aldez amaika bizitz emateko ere beti prest dago.

IV

Damu-damuak ere asko maite ditu. Ondo artu izan zuen Aita efukitsuak seme ondazale lizun ura befiz etxera zanean; eta aita onak agertu izan zion bereki-ko zeukan biotz-biotzeko maitasuna. Aita efukitsu ura gure Jauna da; gu befiz *seme-ondazalea*: Beragana jo ezkerro besarkatu ta barkatu egiten digu. *Revertere ad me* esaten du Jaunak *et ego suscipiam te* (Jer-2-11). *Itzuli Nigana; ta nere besoetan artuko zaituztet*. Jaunagana jotzen degunean beraz, ez degu bildurik eduki bear; Jaunak damu-damuak ikusi ezkerro laztanduko gaitu ta.

Pekatori damutuak Jaunak ain ontzat artzen ditue-nezkero ofekin adierazten du barkatu nai dituela; ta ori bera esan nai du Ezekiel igarliaren esan onek: *Pekataria, egindako pekatuaz damutu egiten bada pekatu guzi-guziak aztuko ditut*, ta onekin esan nai du *bildurik gabe Beragana jotzeko*; bada-pekatori txar-biufientzako beti eskuan zigofa badabil-damu-damu daudenen-tzako etzaio eskuan beñere zigofik erabili izan duenik ere gogoratzen.

Begira zein maite-ta xamurki artzen duen artzaiak otso-atzaparetatik kendu izan duen ardi gaixoa; ta ikusi orain nola artzen duen Jaunak *Beregana* jotzen duen pekataria.

Orain esango dizutet gogoratzeko befiz ere seme ondazale biufi ura; ta seme gixaxoa befiz etxera zalako, ¿aitak prestatutako jai aundia ikusi ta-zer esango ote dezute?

Ez aztu beñere artzai onak gaur esaten deguna. *«Poztu zaitezte Nerekin batean; galdu zitzaidan ardia arkitu izan det eta.*

Pekataria Jaunagana biurtzen danean jai aundia egiten omen da zeruan; eta zerukoak pozaren pozez omen daude; zeruan beste lagun-adiskide-anai bat geiago badaukatela ta.

Maitalerik aundiena ta bikañena Jauna da; ez degu ez munduan egiazko lagunik; egiazkoa Jauna bakarik da ta.

Gu onak ez izan da-Jaunak oñenbeste maite bagaitu, onak izan ezkeru ¿zer nolako maitasuna izango ote liguke? Entzun:

V

Gorotografia ta nazkagaría da beti pekatua; ontasuna befiz txit maitagaría; ontasuna ta Jaangoikotasuna bat-bat egitnik daude ta; ona dalako—Jauna Jaungoiko da; ta Jauna Jaungoiko dalako ona da.

Pekataria eta damu-damu diranak Jaunari oñen maitegari bazaizkio ¿zer esan onak diranaz? Gutxi esango nuke auentzako aita dala esan da; ama dala esan ezkeru befiz ez det uste ezertxore esaten detanik; zer edo zer esatekotan ba esango nizuteke al badezute biltze-

ko munduko guraso guziak; eta oiek seme alabarekiko duten maitasuna Jaunak guri digunaren ondoan jartzeko.

¿Jafi al dezute? ¿Baietz? Orain bada garbi-garbi esaten dizutet: *Jaunak diguna askoz geiagokoa da Auxen bera esan nai digute Zakarias igarliaren itz auek Ukitzen zaituztenak «ninikan» ukitzen didate» (Zak. 2.)*

Ona, Jaunak lagundu ta, ondo dabil beti; ta erori ez dedin beti bidaltzen dizkio Jaunak bere aingeruak. Onak eri egon ezkerro sendakiñ Jauna dauka; goseak badago janari zaio Jauna; egafi badabil edari; ilun badago azkafi; esate batean esateko, ezin ohea da Jauna onentzako; ořegatik Tobiasek esaten omen zion semeari: *Jau-nari lotsa ta bildur badiogu onez beterik gaudè*; esan nai izan zion Jaunari maite izan ezkerro, ondo zijoazela; Jaunak lagunduko ziela ta. Antziñeko garai aietan Danieleri eta labe gofian zeudela Jaunak lagundu izan zien; baita Antonio, Paulo, Hilarion ta basamortuan zeudela etzituen Jaunak aztu izan. Ez gaitzala beñere aztu.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE-ONDOKO LAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 4.ª POST. PENTECOSTES

I

Lotsa dariote kristau ustelak. Eizlariak egun osoan eizean ibili ta ezer gabe etxeratzen diranean, lotsa dariotela uste det; eta ofelakoren bat gertatuko ziztaion Pedro deunari ere; bada ori esan nai du noski esan onek: *Gau osoan araikeetan ibili, Jauna, ta // ezef: arapatu gabe!!* Lotsatu ta esango zion Pedro gizaxoak ori Jaunari; ta neri beintzat esan ofek gogora dakarkit beste gau ilun-ilun bat; eta auxen da pekatariak daukaten gau ikaragafia; gau ikaragafia bai da pekatarien bizitz osoa.

Gaua dator eguzkiak alde egin da; Jauna da gure arimaren eguzki edefa; beraz gure poz eta bizi emalea ere Jauna da; Jaunak animakandik alde egitean arima eguzkirik gabe gelditzen da; ilunpean geroztik; beraz jez al dezake Pedro deunaren erara esan: *Bizi aldi oso-osoan lan da lan ari ta, ez det zerurako deus ere egin?* Bai; alaxen da; pekatariak pekatutik alde egiten ez duen bitartean ez dezake barkaziorik izan; eta ez dezake zerurako ezer irabazi; ofegatik pekatarien bizialdia gau ikaragafia da. ¿Eta eriotzako ordua befiz? Orduan bai esango dutela: *Ainbeste urte bizi, ainbeste lan egin, ainbeste neke izan, ainbesteko egun latz-bel-*

tzak igaro izan; eta orain befiz... azkeneko orduan? ¡¡jesku utsik!! ¡¡irabazirik gabe!! ¡¡gauza negargafiakorik!!

N. a. m. Ilun-ilunpean dago Jaunak argitzen ez duen arima; ta ofela egon ezker ez diteke lanik egin; bafian pekataria Jaunagana biurtzen baldin bada ematen dizkio befiz Jaunak pekatuakin galdutako irabazi guziak. Oso edera da bai gai au; ala ere beste esan ontaz zerbait esan nai dizuet:

II

Afantzale aiek—tresna guziak utzi ta—jafaitu zioten Jaunari.

Jesus onak agindu zielako bota zituzten gizon aiek sareak eta Jaunak esandako tokira; leku artan afai asko ta aundiak afapatuaz; ofelako gauza afigafia ikusirik oso aritu ta gelditu omen ziran gau-osoan ezer afapatu etzuten afantzale gixaxo aiek; ta—Jaunagan uste osoa zeukatelako—tresna guziak utziaz jafaitu omen zioten.

Badira bai zuen artean—Jaunaren deia entzun orduko—Jaunari jafaitzen diotenak; badira gure artean Jaunaren esanekoak; eta bere legeko aginduak betetzen badakitenak; ¡¡jafaitu!! ¡¡jafaitu onela!! ofekin Jaunak atsegin aundia artzen du ta.

Beste gisakoak izan balira, aiek zalantzan bezela jariko ziran nunbait; onelatsu esanaz: «Baño ¿nondik ote atera jateko ta edateko? Beartsu dek Jaun ori; gu ere bai; ¿ta jafaitzen badiogu?... aunatu ta-ilko gaituk».

Etzuten ordea onelako gogoraziorik izan; tresnak eta biot-biotzez utzi ta—Jaunari jafaitu zioten eta. Ori

bera egin bear genduke guk ere; aitzaki edo akiakularik gabe ordea; Jaunak—*Beragan* uste osoa jafi ta—*Bere* atzetik ikusi nai gaitu ta.

Bein batean jua omen zitzaion Jaunari gazte bat esanaz: *Prest nago ni zuri jafaitzeko; utzi zaidazu ordea lenago nere aita zanari lur ematera juatea*. Onela erantzun omen zion Jaunak: *Utzi ilak; ¡¡utzi!! ilak eman dezaietela ilai luía*. Beste batean onela omen zion: *Arean eskua jafi ta—atzera begiratzen duena ez da zerurako ona*; ta esan oiek esan da—jakin erazi nai zigun Jaunak *Bere* jafaizaleak iraunkotak izan bear dutela.

Egin bide ta ikasbide edefa ematen digu Eliseo igarleak: Igarle ura kopura (figura) edefeko gizona omen zan; eta—etxeko tresnak eta uzten zituela—jafaitu izan omen zion Jaunari; ori bera egin zuten—Jesus Mesias jaio zala ta—beren jauregiak utzi izan zituzten iru efegeak. Jesus onari jafaitu ezkeror ¿nor ote da zerurako irabazia norañokoa ote dan esango ligukena?

III

*Beretza*ko nai gaitu Jaunak; baita deabruak ere; ta onek lefenak dagizki gu afapatzeko; ta bereak izateko naiko naikeri eskeintzen dizkigu. Ajolik gabe, ta aisa bizi nai badegu badatorkigu berealaxen etsaia nai deguna eskeintzen, opa deguna ematen; eta batez ere lotsa kentzen.

Zoritxañez lagun asko ditu etsaiak; eta oso efaxki lortzen edo erdesten du nai duena; ofenbesteko itxutasun negargafia kristau artean ikusi ta—galdetu diteke: ¿Beraz gure etsaia Jesus ona baño maitegafiagoa al da?

Ala dirudi beñepein; etsaiak Jaunak baño jafaizale geiago bai ditu.

N. a. m. Auek (etsaiaren jafaizaleak) zentzu gabeak dira; ez bai dakite nor dan gure Jauna. Jakin kristauak Jaun eta etsaiaren artean alde aundia dagola. Etsaiak atsegin asko agintzen dizkigu; ¿eman ordea? ¡¡ez!!; Jaunak eskeñi ta agindu egiten duena beñiz ona da; ta eman egiten du; Jaunakin dabilena poz atsegiñez jantzia dabil; eta zorionekoa da; deabru-etsaiaren laguna beñiz zorigaiztoa da; ta ez du biotzean iñoiz pakerik somatzen.

Jaunak kendu nai dizkigu gure biotzak dituen zalekeri txafak; berañ sendatu nai gaitu ¿nola ordea? Begira.

Egin zagun pixka batean eri gixaxo bat gure aúfean dagola. Badatorkio sendakin azkafa; ta eria ikusi orduko ona zer dion: Ufatu egin bear dizut besoko zaña; odol txafa dezu ta; ¿bestela? ¡¡ene!! bizi nai badezú ba ori egin bear da.

Ez baluke eriak sendakiñak; esandakoa egin nai, ez luke bizi naiko noski ¿ez da ala?

Jesus ona da sendakin ori; gu gera *eria*. Jaunak esaten digu: Ez badezute betiko il nai, uko egin zaiozute zuen buruari; ilduratu, ¿nola ordea? atsegin bidea artu beañfean gurutz bidea arturikan.

¿Guk beñiz zer diogu? ¿Baietz ala ezetz? Sendatu nai badegu, zerura nai badegu ¿gorputz griñak ezitu ta eskuratu ez? ¿Jaunari jañaitu nai diogula ta gurutzea artu ez? ¿Jaunaren adiskide bizi nai degula ¿ta jolas lizunak, jan edakeri kaltegañiak eta kendu ez? ¿lagun gaiztoakandik alde egin nai ez?

Agustin deunak Jaunagana biurtu naiaz zebilela izan omen zituen bere buruakin boñoka ta naste boñaste

aundiak; eta etsaiak onela esaten omen zion: *Utzi utzi ori geroxeagoko.*

Ori bera esaten digu guri ere. *¿Jaunari jafaitu nai diokela? Utzi; utzi zak geroxeagoko; Zartzen aizenan, gizona, zartzen aizenan... baño... ez jafamonik egin etsaiari; gaur egin ditekena ez da biyarko utzi bear eta.*

IV

Asi aldian oso neketsuak dira gauzak; eta malda aldatz gora zaizkigu; ori egia bada ere Jauna Bera etortzen zaigu laguntzera, ta guk guketz egin alak egin ezker, beste guzia Jaunak egingo du, ez bada lafitu zeru bidea gurutz bidea bada ere. Ainbeste deun edo *santua*k egingakoa ¿ez ote legikegu guk Jaunak lagundu ta?

Kristau onak aufera begiratu bear du beti; bere begiak gorontz begiratzeko dira ta.

Utzi bada arantzez jositako luña; jaso biotza zerurontz; eta emen Jaunari jafaitu ta gero Jauna dan bezel bezelakoa zeruan ikusi egingo degu.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE ONDOKO BOSTGARREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM 5.ª POST PENT.

I

Beti Jesus onaren afean juduak; beti Jaunaren aurka (kontra). Gure Jauna befiz beti maiteki; beti óndo erakusten; on egiten beti. Ez gaitu Jaunak odol-berokoak nai; ez da Judu antzekoak ere.

Ez bada zuen ontasuna Eskriba ta fariseonena baño ohea, etzerate zeruan sartuko: esan zuen gure Jaunak.

¿Eskribak eta gaiztoak al ziran? Ez dakit ba. Dana dala; Jaunaren legea aiena baño zofotzago zaigu. Gaiztoak ziran bai; bada lege-arazoak azalez bakafik begiraten omen zituzten; eta ofegatik Jaunaren beste esan au: *Antziñeko legean esaten zan: Ez gero inor il; bestela epaikariak erabakiko bai du eriotz emalea ilgafi dala. Nik befiz esaten dizutet anaien aurka asefe jartzen danari epaikariaren epai zofotza dagokiola.* Jaunak esan zofotz auekin kendu izan nai zizkigun eriotz bide guziak; eta, antziñeko legeak ez bai zuen gaizki egiña baizik galerazten gure legeak debekutzen dizkigu baita gogoak, asmoak eta itzak ere. Gauñ asefeaz itz egin nai dizutet.

II

Odola irakin-irakin jartzen zaigunean ez gerala bu-ruaren jabe ta, gure biotza ezi gabeko aberea dala ta,

biotza agintari balebil ur egiñak bezela afean jafitako traba ta eragozpenak eramango giñitukela ta ofelakoak esaten ditugunean ez degu egirik esaten; kristauak beiti gure buruaren jabe izan bear degu ta.

Asefe dagonak odolezko begiak dauzka; arpegia befiz ilun, azkenean izkera labuñ ta zofotza. Ez dirudi gizona danik ere, abere amorotua baizik. Neri beintzat ofelako gizona abere odolzalea baño izugafiagoa deritzait.

Ez kendu beñere asefe dagonari afazoirik; ez esan ezer; guzia alpefik bai da. Badirudi asefe biziak adimeneko argia kendu egiten diola; ta egitan kentzen duela; ez baidira asefe dagonaren esanak eta egiñak gizonari dagozkietenak; ero esanak dira ta.

Kain gogora dakardanero, ta katamotz antzera Abel gixaxoa bere atzapafetan ikusten detanean esaten diot nere buruari: *«¡¡Zorigaiztoak eriotz gñe guziak!! ¡¡Zorigaiztokoak asefe jartzen diranak!! ; amai-ka aldiz negargafiak asefe biderik kendu nai ez dutenak»*; abere odolzaleak baño-makufagoak biurten dira ta. Asefe jartzen dan kristaua ez da kristaua.

Badituela biotzak griñ txafak; eta etzaizkigula askotan gauzak guk nai bezin ederki ateratzen, eta lagunak gutaz gaizki esaten dutela ta zofegatik irakin, irakin jafi? zofegatik abere irudia egin? zofegatik burua nastu? zofegatik Jaunak debekatzen digun pekatuan erori? zofegatik inpernu gai biurtu? Pozoi-eden dario asefe dagonaren mingañak; eta—Jau-naren seme alaba izan beañean aberea dirudi.

Ondo esaten digu Jaunak asefe bide guziak kentzeko agintzen digunean; kendu ezker-ez bai dago gofoto biderik, eta bare-bare bai dago biotza; beraz ez da azperkunde (benganza) bildufik.

Begira giltzapean daudenak: asefearen ondorio txafak dira guziak. Asefatzen danak bada gaizki egiten du. ¡¡Kontuz ibili geroztik!!

III

Arestian entzun izan dezute asefearen ondorengo txafak ikusteko giltzapetuak ikusi bear giñitukela; aztu egin zait ordea esatea inpernuan ere arkituko ditugula. ¿Nork esan asefeak inpernuratu izan dituenak? Asko dira asefeak inpernura eraman izan dituenak; ez dira ere gutxi, asefatu ez diralako, inpernura jua diranak. ¿Nola ote au? ¿Asefatu ez diralako inpernura jua? Orduan zerura juateko ¿zer egin bear degu: asefatu ala ez asefatu?

Galdera zorotza da ori; ta bear dan eraz erantzuteko esango dizutet ez gerala zeruratzeko Kain eta giza-tzar antzean beñere asefatu bear; baño ez gero afitu esaten badizutet zeruratzeko ere, noizpenka Jesus onaren erara asefatu egin bear gerala.

Beraz batzuek asefatu egiten diralako inpernura egiten dira; besteak beñiz-asefatzen ez diralako, ez omen dira zeruan sartuko. Esate baterako: Biderik gabe ziorik (motibo) gabe asefe bizian jafi ezkeru pekatu da; ta-bidea ala zioa eduki ta-asefatzen ez danak ere gaizki egiten du. Ez izan beintzat beñere Kainen antzekoak.

¿Zein da beñiz, bidea izan eta, asefe jartzen ez diranak? Entzun:

IV

Euskaldun jatoren artean esaten da: *Denda badezu zaindu zazu; bestela galduko dezu.* Gurasoai ta esan.

dezaiekegu: *Seme alabak badituzu zaindu itzazu; bestela arima galduko dezu.*

Seme alabak oker dabiltzala ta ez badiete efietan egiten, eta ez badituzte on bideratzeko alegiñak egiten galbidean daude guraso oiek.

Oso ona omen zan Eli; ala ere onegi zalako, ta semientzako biguñegi zala ta, semeak zeatzen (kastigatzen) etzekielako bidali omen zion Jaunak guziak daki-gun eriotz ikaragafia.

Gurasoak bada biguñegiak baldin badira, ta gauza askotan «*ez ikusi*» egiten badute, ta bear danean Jesus otzaren erara ez badute zigofik artzen, asefea erakusten dutela, bildur bildur naiz; eta bildur egon ditezke.

Begira Jauna: Jerusalemgo eliz nagusian dago; asefe bizian eskuan zigofa daukala. ¿Zer dala ta? Eliza salerosle lotzagabez bete ta dagola, ta bertatik bota nai ditu.

Esan orain: asefatu ta ¿gaizki egin al zuen Jaunak? Ez; ez da ere ez dute gurasoak eta agintariak asefe jartzeko bidea eduki ezkerro asefe jafi ta pekaturik izango. Maiz dagokie guraso ta agintariak zigofa eskuan; eta etzaiete on bear ez danean «*ez ikusi*» egitea.

Asefe jartzen jakin bear ordea. Pekatu egin gabe asefe jartzen jakin bear gero. Asefatzeko eskubidea izan eta, asefatu egiten danak ez du asefe jafi ta pekaturik egiten; baño bere neufitik aterako balitz eta ez baleki asefe jartzen, orduan obe asefatuko ez balitz; geroztik asefean ere *neufia* gorde bearko. Bai. ¿Nola ordea?

Kafasi ojurik ez egin da; itz txafik esan ez da; birau esan gaiztofik gabe efietan eman da.

Oso negargafiak dira aita asefe dagola ta aurtxoaren magalean eskutatu egin bear duten seme alabatxoak.

Bein onela esan omen zion semetxo batek amari: *Amatxo: ¿edefa al da zerua? Bai: enetxo; txit edefa da. Ta... ¿an egongo al gera guziak? Onak izan ezkerro; bai. ¿Aita ere bai? Baita ere. Orduan ez det nik amatxo, an egon nai; aita asefe jartzen danean asko ikaratzen nau ta.*

¿Badirala ofelako gurasoak? Zerbait agindu bear dutela ta ez beñere ojuka ta kafasika agindu; ta zuen gauzak eta arazoak ondo ez dijoazela ta asefe jafi ta birauka asi ta ¿zer irabazten dezute? Itz, esan, eta biraukatik obekigo jafiko al zaizkizute gauzak? Ez dezute esan eta itz txarakin ezer egiten; Jauna asefatu baik. Obe zenduteke ofelako estu aldietan burua makurtu ta apal apalki Job *santuaren* antzera esan onela: *Ori nai du Jaunak: egin bedi Berak nai duen bezela* ¿Eta arazoak eta etxeko gauzak gaizki dijoazkietelako bere burua iltzen dutenaz zer esan? ¿Oien Kristautasuna non ote dago? ¿Zer erantzungo ote diote *¿Zetnek deitu ditxu?* Jaunak galdetzen dienean? ¿Zertara zatoz onera?

Nigandik ikasi esaten digu gure Jaun otzanak. Ikusi nai ez gaituen etsaien bat badegula ta ¿gofo tx zofo tzak jartzen dizkigula? aundiago ta zofo tzagoak sartu izan zizkieten Jaunari; ala ere *Jesus auten tacebat* guzia ixil ixilik eraman izan zuen gure Jaunak. Guk ere, era ontan badaramagu Jaunak bidalitako guzia, zerua guretzat izango da,

Ala izan bedi



PENTEKOSTE - ONDOKO SEIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 6.ª POST PENTEC.

I

¡Ene!! ta zein eztsuak diran gaur Jesus onak esaten dituen itz auek: *Kupida ematen dit giza píl onek. Jafaitu izan didate iru egunetan; eta ¡¡oraíndikan ezef ártu gabe!!*

Afoak aldioro afokeria agertzen du; apalak befiz apaltasuna; bere burua al duenero makurtu egiten bai du. Guziak Fariseoak ezik maite zioten gure Jaunari; ez bai zuen leku guzietan on baizik egiten.

Ez nau iñork maite; ez dit iñork ikusi nai: onelako esanak dietenai esan dezaiekegu: *Baño ¿zei dagizu zure lagunai' berak zuri maite izateko? ¿Egiten al diezu mesede ontarterik? ¿Ez al dezu iñorentzako ifi-par gozorik?* Ez naiz ba afitzen; eta ofela jaraitu ezkeru, e-zzaitu iñork maiteko; etzera maitegafia ta.

N. k. m. Onak izan ezkeru, ta Jesus onaren erara ongileak bazerate guziak maiteko zaituzte. Jesus gure Jauna ona bai zan, eta ongilea, ta efukitsua, txit maitegafia zan; eta atsekabe, naigaberen bat ikusi ala plametitu egiten zitzaion biotza; ta nolako biotz eder efukitsu, ona zeukan ikusteko entzun:

II

Lau mila gizonen artean dakusgu gaur gure Jauna; ta guziak zintzo zintzo entzuten zizkioten Bere Jaungoi-

kozko esan osasungafiak. Iru egunez baru ziran; ez baizuten iru egunez ezer artu. Plamentitu egin zitzaion biotza; ta ogi afai batzuek ugaritu ta, ase bete izan zitu; guziak aoa zabalik eta Jaunari *efege* egin naiaz gelditu zirala.

Etzioten gizon aiek Jaunari ezer eskatu; ala bear zutena eman izan zien Jaun ongileak.

Guk Jaunari zer edo zer eskatzekotan ¿zer eskatuko ote giñioke? ¿Zer eskatzen dute beartsuak eta etxez etxe eskean dabiltzanak?

Sendakiñak esango balio eriari: *¿Zer nai dezu? ¡¡O-sasuna: Jauna!!* erantzungo lioke noski; ta guk befiz eskatuko giñioke Jaunari *on zaiguna bakañik*.

Ez aztu ordea badirala lufezko ta zeruko ondasunak; eta ez atzendu Jaunak agintzen digunik batez ere *zerukoak eskatzeko*; ta ortarako Mendiburu Jesus lagun jakintsuak dionez: *mintzo on-onetarako bilatu bearke degu, al degun tokirik onena; ta al degunetan gure efiko edo beste edozein eliza; au da alabaña Jaungoikoaren munduko jauregia; ta au da bere zeruko ondasun aundiak eta esker mesedeak emateko Jaungoiko berak berezi duen tokia*.

¡¡Zein ederki ematen duen burua makur, begiak apal, eta biotza umil daukala otoi egiten dagon kristauak. Jaunak guri entzuteko, ta esker mesede ugariz biotza betetzeko toki jakiñik izan ez afen (bada nonai ta noiznai guri on egiteko beti prest dago) ala izan da ere al dithekenean naiago gaitu bere emantokia dan elizan; ofegatikan Jaunaren jauregia dan elizan egiten ditugu eskari guziak. Elizara dijoa bere semetxoaren osasuna nai duen amatxoa; elizara bere etorkizunari begira dagon gaztea; elizara adu (suerte) onaren bila dabilen

kristaua; ta pake-zorion eta bear degunen bila ari geranean zgora jotzen degu elizara ez bada?

¡¡«*Atta gurea*» bai dala eskari edefa!! Egunero esan bear degu kristauak. Bear zuena iritxi izan zuen gizapil aundi afek; eta Jaunari eskatu gabe gañera; ez uste izan beraz—Jaunari zer edo zer eskatu ta—eman gabe utziko digunik.

III

Misereor super turbam: Kupida ematen dit giza-pil onek. ¡¡Au esan edefa!! Artu zagun onela esana balitz bezela: *Badakust munduan jafaitu nai ez didan giza-pil aundia; ta negarez esan bear det kupida ematen didala. Maite det mundua, ta Nerea nai det; ez du ordea munduak nerea izan nai; zerurako nai ditut Nik guziak; ez dit ordea munduak jafaitu nai. Misereor super turbam: Pekatari pila ikaragafiak pekatu edena ura bezin efax edaten du; ta kupida ematen dit.*

Pekatariak asko maite ditu Jaunak, eta gure Jaunak biotz-biotzez maite badegu pekatari pila izugafiarren alde egunero otoi sutsu-beroak egin beafean gaude; onela egin da—launaren kupira arindu dezakegu ta.

Oso edefa da gai au; beraz—bidenabar bada ere ukituko degu.

Erofkoiak beti gizonak; pekatariak beraz; eta Jaunari efuki aundia ematen diogunak. Eror bidean beti gain bera, malda bera gabiltza; eta zeru-aldera baño efaxago jotzen degu lur aldera. Esan dezatela bestela Noeren garaietan ain ustelduak eta ondatuak zebiltzan mundufak; oso usteldu ta egongo ziran noski; Jaunak asefe bizian befogei-eguneko eufite ikaragafia bidali beafean arkitu zan eta.

Giza pīl aundi afek efuki aundia eman izan zion Jaunari; ala ere—Jauna zuzena da ta—pekatari aiei nola edo ala zeatu (kastigatu) bear; eta ortarako eurite ikaragaña bidali izan zien.

Pentapolisko Sodoma ta beste uri aundi aiek ere efuki ematen zioten Jaunari; baño—pekatari lotsa gabe biufiak ziralako—Jaunak efe ta—kiskaldu izan zituen. Israeldafak basamortuan zeudela ta, Jaunaren laguntza bear zutela ta, Jaunari efuki eman zioten: baño—pekatu egin zutelako—badakigu nola zeatu zituen gure Jaunak.

Asko dezakete Jaunaren adiskideak (esan nai det) asko dezakete pekatarien aldez otoi dagitenak. Abran, Moises Aaron, Samuel eta Jaunaren lagunak ziran; eta ¿zeñek ez ote daki zein indarezkoak ziran Jaunari beren efiaren aldez zegizkiten otoi sutsuak? Gogoratu Abran,³ Sodomo ta bekatari biufi aien aldez otoizka zegoela; ikusi Moises mendian besoak zabalik zituela ta Jaunari esaten bere efiari barkatzeko; oartu deun guziak pekatari aldez egin izan zituzten eskari, afenak; eta ikusiko dezute Jaunari aiek bezela pekatari pīla aundiak oiei efuki aundia ematen zitelera. *Onik ez* balego munduan, onezkero mundua ezer-estu ta legoke nunbait.

Galdetu zagun orain ¿zertarako dira apaizak eta? gaiztoen ustean ¡¡ezertako!!; onak befiz esango digute: «*Ez palego munduan apaizik, ez legokela mundurik re*»; bada—Sodoma ta beste uri aundi usteldu aien era—onezkero ezer ezta ta—legoke noski.

«Pentapolis» itz onek *Bost uri aundi* esan nai du; ta munduak ere—bost zati aundi dituen ezker—ez bala Abran antzeko apaiz otoi-egilerik uri aiek bezela ufa-tu ta legoke.

Noizpenka agertzen da ortze-edefean *zeruko zubi* edera; ta ikusi ala gogora dakarkigu Jaunak Noeri esan ziona: *etzuela geiago mundura arelako eurite ikaragaririk bidaliko.*

Apaizak eta kristau otoi egileak dira Jaunak mundu ontan jafitako *Efomako zubia*; eta Abraneri bere semea iltzeko zorian zegoela Aingeru batek besotik eutsi zion erara, baita apaizak eta Jaunari mundua zeatzeko dagola, eutsi egiten diote besotik; eta orduan Jaunak barkatu egiten digu.

Orain esan ezkeron onak eta munduko tximist ofatzak dirala ez genduke egia besterik esango; bada tximist ofatzak tximista guziak bereganatu egiten dituen bezela, onak ere ori bera dagite; onen otoi sutsuakatik ez bai du munduak kalte ondamen aundiagorik izaten.

Munduak dituen ongilerik aundienak bada apaizak eta kristau onak dira.

Basamoñtuan zeudela giza pil afeek Jaunari kupida eman zion; eta guziaz lagundu izan zien gure Jaunak; baita pekatari pilak ere kristau onai efuki ematen die; ta auek otoi dagiote, Jaunari esanaz: *Barkatu, Jauna, barkatu.* Egin zazute zuek ere ori.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE ONDOKO ZAZPIGAREN IGANDEA

2.^a HOMILIA IN DOM. 7.^a POST PENTEC.

I

Oraingokoak antziñeko kristauak bezelakoak bagina, ez luke Jaunak esango zugaitz txafak giñanik. Baratz-antzekoa da gure biotza; ta txafa izan ezkerro, gauz-onik ematen ez duen baratz antzekoak gera.

Baratzaiak baratza zaindu ta begiratu egiten duen gisara Jaunak ere gure biotza begiratzen du; ta ez bagenduke igali (*fruta*) onik emango esango luke zugaitz (arbol) txafak eta sutarako giñala.

Ez du Jaunak «*Jauna*» «*Jauna*» bakarik esaten ikasi izan duten kristaurik nai; ofelakoak asko dira munduan; eta ez dira ez egiazko kristauak, oker dabilta ta. Onelako auek irakufi dezatela gaurko Ebanjelioa; ta ikusiko dute ez dala zeruratzeko naikoa «*Jauna*» «*Jau-na*» esatea; geiago bear dala ta.

II

Gaizki oso gaizki ematen du esker onekoa ez dan kristauak. Biotzak maitasuna dario; suak befiz beti gorontz jotzen du; maitasuna su danik ere ez aztu; beraz gure biotz-suak eta txinpartak gorontz jo dezatela beti. Jaungoiko gure Jauna goian dago, ta gure Jaunak gure biotza nai du.

Guk, kristauak, guk maite bear degu Jaungoikoa; baño beste guziak baño geiago; esker mesede aundiak artu izan dituztenak zor aundiak izaten bai dituzte.

Ez galdetu *mesedez* zergatik maite bear ote degun Jaungoikoa beste guziak baño geiago; bada ori galde-tzen duenak ez daki, ta ez du ikasi beñere zer dan kristau izatea.

Jaunak norbaiti maite izatekotan gizonari apike; ta oien artean kristauari; bada zeru-lur-itxaso-eguzki-izar edefak eta guregatik egin izan ditu Jaunak, eta gu zeru-ratzeagatik Jesus Jaungoikoaren semea gizon egin da gure artera etofi zan, eta *Berari* zor diogu kristauak Jesus Jaungoikoak guregatik ixuri izan zuen Jaungoikozko odola. ¿Nola ote Jaunari ordaindu zor ori?

Israeldar^{ak} basamortuan zebiltzala ta, Jaunak ainbeste ta ainbeste miragafi berakatik egin izan zituela ta, esker txafeakoak ikusten ditugunean, asko asefutzen gera berakin; gure buruari onela diogula: *Ejiton gaizki zeudela ta, Jaunaz etukiz beterik uztafi astun ura ufa-tu ziela ta, gero itxaso zabal artan ito etzitezen Jaunak itxasoa erdibitu ziela ta, bide befi legofatik bezela itxaso erditik «pasatu» zirala tal goseak ez iltzeko «mana» bidaltzen ziela ta, etsai guziak puñukatu zizkiela ta, ¡¡azkenean ordainez Jaunaren aurka jar!! ¡¡Jaunaren «kontra» marmarka asi!! ¡¡ Ura efi mardarikatua!! Ez dakit nola laguntzen ote zien Jaunak ainbeste. Gero ta ongileago Jauna; ta aiek beñiz makuago. Ez diteke ofelakorik siñiztu ere.*

Baño n. a. m. Ez uste izan gero guk Isfaeldar aiek baño esker aundiagokeak artu izan ez ditugunik; Jaunak aiei baño mesede aundiagokoak eman bai dizkigu; beraz gu judu zital aiekin ofela jafi beafean, asefatu

gaitezen geron buruakin; ain ustelak izan da lotsagabe aundikoak gera ta.

Guk ere Jaunari, esker mesede ontarte ordez pekatua, marmara, iraiña ta ematen diogunik ez zalantzan jafi; geroztik siñisgabien pekatuak baño lafiagoak dira gureak; bada aiek jakin.ez da egiten dituzte pekatuak; guk befiz jakin da.

III

Seneka zan aspaldi artako gizonik azkafena. Jakintsu jakintsua zanezkero jafaizale asko izan omen zitu.

Gizon aundi ta entzun aundikoen erara beartsu bizi ta beartsu iñ egin zan. Iltzeko orduan zegoela esan omen zien jafaizalial: *Ez det ezertxore nere oroiz edo «efekuerdoz» zuei emateko; oso beartsu bai nago; ala ere zer edo zer zuei eman nai ta, «torizute» «imaginem vitae meae» «Artu-nere bizitzaren antz bidea».*

Kristauak. *Seneka* baño irakasle azkafagoa, ta jakintsuagoa, ta ohea, ta maitegafiagoa ta aundiagoa degu guk; eta Jesus ona da ori. *Torizute nere bizitzaren antz bidea: imaginem vitae meae* esaten digu Jaunak; eta zerura nai badegu artu egin bear degu.

Egi aundia da Agustin deunak esaten duen au: *Qui male vivunt et Christiani vocantur injuriam Christo faciunt* (Trac 5.º in Joan) ¿Kristau izan eta gaizki bizi? Orixen bai dala Jaunaren burutik par egitea; ta Jaunari egin dezaiokegun iraiñik itxusiena.

Maometafak Budatafak eta Konpuziotafak eta siñisgabe guziak gu baño legezaleagoak dira; legea guk baño zintzoago betetzen bai dute.

Baletorkiguke siñizgabien bat; eta gure artean bizi

bear baluke ¿zer esango ote luke? ¿Kristauak zeratela ta, ainbesteko «meká» ta birau zikin loi urdiak? ¿Kristauak izan eta Jaunaren aurka ari ta ari beti?; eta *meza-koan eta elizan* nola egoten diran Kristau asko ikusi ondoan esango luteke noski: *Gu zintzoago ta begiramentu geiagokin egoten gera gure Mezkitetan*; eta alaxen da; n. a. m,

Kristauak gu baño makufagoak dira: aiek ala diote:¿Zergatik? *Gauz bat esan: eta bestea egin* Kristau geienak egiten degulako.

Ez artu ez kristau gauzak, eta *erlijio*ko eginkizunak nafikan eta *txantxetan* bezela; Jaungoikozko gauzak diran erara baizik.

Jakin omen zuen Alejandro gidari azkafak bazegoela bere guda mutil (*soldadu*) artean bere izeneko mutil bat; oso bildurtia ordea. Deitu ta, onela esan omen zion: *Bitik bat; motel; kenzak nere izen ori; ala izan adi aizen baño «balientiagoa»*

¿Zer? ¿zer ote gera Jesus Jaungoikoaren guda mutil azkafak izan bear giñaken Kristauak? Gezufezkoak gera; alpefak, bildurtiak, eta ustelak, ¿Zer egin bada? *Alejandrok bere izenekoari esandakoa.*

Jaunak onela esaten omen zien juduai eta: *Abranen semeak baldin bazerate egin Abranek egindako guzia.* Guri ere ori bera esaten digu ¿*Kristauak zeratela? Ongi dago; bazerate ba, egin Nik egindako guzia; bestela kendu Kristau izen eder ori.*

IV

«*Kristaua*» itz onek esan nai du: *gizon zintzoa; gizon ona; ongilea, bikaña, maitegaría, lege zalea, eltzakoa, ta Jesus Jaungoikoaren antzekoa; ta onelakoak uste*

gaituzte sinizgabeak eta. ¿Onelakoak al gera? Lotsez beterik esan bear degu ezetz; ez gerala ez oiek uste gaituzten erakoak; «*gauza bat erakutsi; ta beste bat izan*» egiten degu ta. Txit edefa da bai gure erlijioa; kristauak ordea obienak, zintzoenak, garbienak eta ongülienak izan beafean ez gera gure erlijioak agintzen digun bezelakoak.

Maite zangun bai jaiotefia, jaiotetxea, gure ama, ¿erlijioa befiz? oiek guziak baño geiago maite zangun Jaungoikoa bai; baño biotz-biotzez.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTES ONDOKO ZORTZIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 8.ª POST PENTEC.

I

Esan bearko gaur Ebanjelioa txit ikaragafia dala; bada Ebanjelioak dioh epaikari (juez) zofotza Jauna be-
ra da. ¿Zer erantzungo diogu Jaunari kontu zofotza es-
katzen digunean? On-ona orduan doi-doi badabil, ¿nola
ibiliko ote da pekataria? ¿nola ibiliko gera gu?

Redde rationem villicationis tuæ: Jaunak diogunean
¿zer erantzun?

Gure biotzak lasaitzeko auxen da geroxeago Jaunak
esaten diguna: *Facite vobis amicos de mammona ini-*
quitatis esan nai du *dirudun-aberatsak izan ezker-*
datorkizun bizitzarako ondasun edo diru bidez adis-
kideak egiteko. ¿Nola ordea? Beartsu ta Jaungoikoaren
izenekoai lagundu ta.

II

Jaunak lagundu ta ¡¡jakiña!! txit efax zerura ditezke
aberatsak eta; batez ere—beartsuai lagundu ta—oso
efax zeruratuko da aberatsa; bada Jaunak biotz ona ta
biotz kristaua daukanari zerua ematen dio.

Jaunak esandako au befiz gogor xamaña da; batez ere
gaiztoak eta biotz-gogora duten aberatsentzako. En-
tzun: *Eman beartsuai;* ta beste esan au befiz: «*Væ di-*
vitibus» gogofagoa da.

Guziak bada ukar egile izan gaitezten, esan nai dizutet gaur: *Ukara dala Jaunari zor dioguna.*

Zofak izan ezkeror ordaindu bear; bestela ez liguke Jaunak guri barkatuko ta; zofak beti ordaindu bear dira; ezin bada befiz, naikoa da *egiazko gogoa izatea*. Oar-tu *esan detala egiazko gogoa*; ez ordea *gezuñezkoa*.

Zor aundiak ditugu Jaunakin; Jaunarenak bai dira guk ditugun gauza guziak.

Efegeak, agintariak eta zergak jartzen dituzte; ta beren menpekoak esanekoak izan nai badute, ta ez badute giltzapean egon nai, al eskero beñepein, nai ta nai ez.zergak edo kontribuzioak ordaindu bear-ko.

Jauna da munduko agintaria; ta bertan bizi geranok *zergaz* ona daukaguna: *Qnod superest date elemosynam* (Luc. 11-4) *Geiegian dezutena eman beartsuai*. Agindua dago zerga au; ta bete bear geroztik.

Jaunak legean agintzen duenezkero *lagun urkoa maite izateko*; ta norbaiti maite zaionean laguntzen bai zaio beti, berez datofen gauza da lagun urkoari bere beafetan eta estu-aldietan lagundu bear zaiola; ¿nola ordea? *ukar eman da*; ta lagun urkoari ukar ematea ez aztu Jaunari ematea bezela danik. ¿Ez al dakizute beartsuen eskuetan ukara jartzea Jaunarenetan jartzea bezelaxen dala?

Jaunak eman izan dizkizute munduan ondasunak eta, etxeak eta, lufak eta, abereak eta: orain ba ordainez eskatzen dizute: *Beartsuentzat ukara*.

III

Munduko agintariak, arestian esan izan dizutedanez, efiari ta menpekoai zergak jartzen dizkiete; Jaun-

goiko balira oiek opariak (sakrifizioak) ere eskatuko litzkieteke; oparia ordea Jaunari bakarik eman bear; *Be-rari* bakarik zor zaio ta.

Badakigu nolakoak ziran Abelek, eta Kainek eta Noek eta Abranek eta Jaunari eskeintzen zizkieten opariak; eta etzioten antziñeko aiek Jaunari ezer ematen zor ziotena baizik.

¿Afitu egin ote zerate esaten badizutet *oparirik aundiena ukafa dala*? Ez noski; bada ondo baño obeto dakizute Jaunak esaten duenean: *miser cordiam volo, et non sacrificium*, esan nai digula *ukafa opari guziak baño geiago nai duela*.

Gure Jaunak beraz juduai esaten zienean: *miser cordiam volo et non sacrificium* esan nai zien guri esan nai diguna: *biotz efukitsua izateko; ukar emale gerala*; ta Agustik deunak ere ori txit ederki ikasi ta zeukalako ona aspaldi artan kristauai esaten ziena: *Christiani sacrificium est elemosyna*; zorionekoak geroztik ukaf eman da Jaunari oparirik edereña dan ukafa ematen dioten kristauak.

IV

Eta ukafa bataioa dala esan da ¿zer esango dezute? Jeronimo deunak beñepein alaxen dio *bataio dala*.

Bataioak pekatuak kendu egiten dituela ta, ukafak ere ori bera egiten duela ta; beraz ukafa *bataioa dala* esan bearko ¿ez ote?

Zeren ederki esaten omen zion Tobiasek bere seme maite maiteari *elemosyna ab omni peccato et a morte liberat*. Bere semearen biotz-biotzean ezafi ta josi izan nai zuen ukafa; ta esan ofekin esan nai zion batez ere *ukar egile izateko*; ukafak pekatuak kendu ondoan eriotzatik ere alde erazten duela ta.

Bai dala egitan afigafia Anbrosio deunak esaten duena: *Ukafak bataioak baño geiago dezake*. ¡¡Baietz!! baietz dio; bada ez omen dizkigu bataioak bein baizik pekatuak kentzen; ukafak befiz kentzen omen dizkigu lagunai, beartsuai ta laguntzen diegunero. Beraz bataioak bein bakafik kentzen dizkigun bitartean ukafak zearo ta askotan kentzen dizkigu pekatuak.

Au guzia egia dan ezkeru ¿zein geldituko ote da al duenero beintzat ukafik eman gabe? Ukar gilea beti efukitsu; ematen ez duena befiz biotz gogor; lenbizikoai biotz efukitsua erakutsiko dio Jaunak; gogofari befiz gogof-gogofa.

V

Kalte aundiak dakarzkigute pekatuak; zeruko atea itxi egiten digute ta.

Ondo esan zuen Tobiasek *ukafak zeruko atea zabaldu ta inpernukoak befiz itxi egiten zituela* esan zue-nean; orduan ongileak eta ukar emaleak neketan ikusiko dituzte inpernuko su ikaragafiak. Esan zagun ere *ukafa zeruko giltza dala*; bada asko baño asko lagunduko die Jaunak ukar emaleai, batez ere eriotzako orduan.

Ukar emaleak-gaiztoa bada ere, beartsuai Jaunaren izenean ¡¡oartu!! ¡¡Jaunaren izenean!! laguntzen badie, deritzait Jaunak ere ordaiñez lagunduko diola berari; bada pekatuetatik alde egiteko indafa ta laguntza eman-gio dionik ez diteke zalantzan jafi ere.

Agustin deunak diogunez inpernuko ate zabalean buru belafi ta txit erne omen dago efukitasuna. ¿Zer dala ta? Efukitsu ta ukar emalearen bat ikusten badu inper-nurontz dijoala su ikaragafi artan ez omen dió utziko sartzen eta.

On asko dagite ukar emaleak eta. beartsuai lagundu ta. Begira nola.

VI

Esan ezkerro ez dituela Jaunak Bere gauzak iraunkofak nai, agertuko genduke ez genekigula zenbat maiten dituen Jaunak Bere gauzak.

Berak ofela nai duelako daude mundu ontan beartsuak; eta emen nai ditu orain gero Lazaro gixaxoaren ondora eramateko; ta ortarako eramate onekoak izan bear dute beartsuak. Mundua-mundu dan bitartean bada-izango dira bertan beartsuak; eta gixaxo auek gose egafiak il ez ditezen Jaunak agindu izan die aberatsai *Bere izenekoentzako onak izateko*; onak izanaz, eta beartsuai lagundu ta, gixaxoabizitzen laguntzen dieteta.

Ofegatik esaten du Krisostomo deunak badakiela *ukafak* gauza miragafiak ere egiten; ukar bidez gaitz eta eri asko sendatzen bai dira.

Oiean etzanda dagon eri ori laguntzik ez duela ta, laster il egingo omen da; gizon efukitsu on batek jakin izan du ordea; ta badijoakio laguntzera; ta eman dizkio bear dituen gauza guziak; eta ukar emale on ofi eskefak gixaxoa poliki poliki sendatzen ari da.

Onelako kristau onai eskefak ez dira asko goseak iltzen; eta agirian dago edukiko dituela Jaunak gogoan oiek beartsuai egindako on guziak.

Ukar emalea pekatuan erortzen bada ere laster jai-kiko da; beartsuen eskuetan jafi ta Jaunarenetara dijoazen ukafak jaikitzen lagunduko diote ta.

Norberari dagokion eran ukar ematen duenak ordainez asko artuko du; lufezko gauzen orde zerukoak artuko ditu ta.

Ala izan bedi.

PENTEKOSTE-ONDOKO BEDEREGATZIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. 9.ª POST. PENT.

I

Gaurko Ebanjelioa irakufi detanean uste nuen Jesus ona Jerusalemen sartzen ikusten ari nintzala; ta oso afitu ta gelditu izan naiz Jerusalem ikusi ala Jaunak negar egin zuela jakiteakin. Negar dagienak baruko maitasuna adierazten du: negar bak biotz malkoak bai dira. Baño Jerusalem ikusi ta ¿Jaunak negarka asi? ¿Zergatik ote? Uri aundi ari zetozkion egun ikaragafiak gogora etofit zitaizkiolako; ala dio gaurko Ebanjelioak.

Zuen biotza taupadaka ikusi ta-negar egin nai badezute, *irakufi, irakufi* Jerusalemefak jasan (supritu) beaf izan zituzten gauza guziak; eta esango dezute noski: *Jesus berez ain ona ta negar ez dakusgunean ez gera aritzen; bada maite zaionari gertaera txafen bat datorkiola ta, plametitu egiten zaio biotza; ta Jaunak Jerusalemefak azenbestean zituenezkero ez dira afitzekoak Jaunaren malkoak.* Negar zerion Jaunak Jerusalemefak gaiztoak ziralako: baita aien pekatuetan gureak ere ikusten zituelako, gugarik ere negar zerion.

Pekatarari geranezkero damutu gaitezten; Pedro, Paulo Malen eta Agustin deunen antzera negar egiten deguila; ta onela txukatuko ditugu Jaunaren malkoak.

Jerusalemen sartu ta jua omen zan bereala Jauna zuzen zuzen eliz nagusira; ta jaurtigi edo bota omen zi-

tuen andik an saltzen zeuden guziak; onela esaten ziela *Nere etxea otoi etxe da; ta zuek lapur etxe biurtu dezute*. Oso ikaragafiaak dira gero itz oiek.

N. a. m. ¡¡Gaur Jesus ona Jerusalemgo eliz nagusi-an dakusgu eskuan zigofa duela!! Adan eta Eba zorioneko baratza artatik bota izan bear zituenean etzien Jaunak bota, aingeru batek baizik; geroxeugo gizasemeak ainbeste ta ainbeste gaiztotu zirala ta; zeatzeko etzituen Berak zeatu izan nai ere; eurite ta su ikaragafia bidali ta, zeatu izan zituen eta. Amofa bizian jartzen diote noski elizan egindako pekatuak; bada bere eskuz eta Jaunak Berak zeatu zien Jerusalemgo eliz nagusian salerosketan zeudenai. Pekatu aundiak dira geroztik elizan egindakoak.

II

Nere etxea otoi etxe da; ta zuek lapur etxe biurtu dezute. Jaunaren etxeak ere *zerua ta mundua* dira: ta Jaunak asko baño asko maite duen etxea eliza danik ez degu zalantzan jafi beaf ere; esan diteke beraz iru dirala jaunaren etxeak; eta zein baño zein edefagoak: *Zerua mundua ta eliza*.

Nere etxea lapur etxe biurtu dezute; onela artu beaf da esan au; onela esana bezela: *Ez det Nik Kristau elizan, Kristauen artean lapufik nai, ta balego Kanpoan nai ditut*.

Ez du Jaunak berien artean sal erosketik galerazten edo debekatzen; bai daki bizitzeko beaf beafezkoak dirala: sal erosketan ordea ez du kaltegarizko gezufik nai; ez da ere ez du ikusi nai neufietan ziria sartzen duenik, gisa ontako Kristauak Jaunaren begietan lapufak eta judu zeken-zikoitz antzekoak bai dira: ta Bere etxe-jaurregia dan zerutik bota egingo ditu beti.

III

Dendarik badezu zaindu zazu; bañan munduko ontz ufe guziak baño geiago *balio* duen arima geiago zaindu bear da.

Diru pixka bat egiteagatik gezurketan eta ziria sartzan ari diran sal erosleak Jaunaren aurfan daudela nola ote dauden jakiteko oartu gaur Jauna zigofa eskuan daukala; ta esan: *Jaunak Pekatuen bat biotzez gofotatutzekotan, lapurkeria;* beraz arima denda baño geiago zaindu bear ko. Eta ¿nola egon bear ote degun elizan gaudela? Ez galdetu ori neri; jauregietan eta itzal aundiko etxetan sartzan oituak daudenai baizik. Eliza Jaunaren jauregia da, ta jauregiko nagusia Jaungoikoa da; ta elizan—otoi etxea bai da—eskean dabiltzan bearsuak bezin apal-umil eta zintzo egon bear degu. Badakizute au guzia; ta gero ta geiago etsi dezazuten gogoratu orain Jakobek Mesopotamiara zijoala ametsetan ikusitako mala (eskalera). Bertatik gora ta bera omen zebiltzan aingeruak; eta ainbeste aingeru zoragagafi ikusi ta onela esan omen zuen Jakobek: *Leku au bai dala ikaragafia; nik befiz jakin gabe!!* etzan leku ura eliza ¡jala ere Jakobi ikaragafia ta itzal aundikoaruditu bazitzaion ¿zer esan ote guk Jauna bertan egotez dagon Elizaz?

Elizak otoi-etxeak diralako bertan, goitik datozkigu aingeruak eskuak esker mesedez bete ta dituztela; ta goi aldera dijoaz befiz aingeru berak Jaunari eramatera gure eskari bero, ta otoitz santuak

¿Zer diote elizan jauregietan eta baño obekiago egoten ikasi ez duten oiek? ¿Zer diote elizara befiketan egotera datozenak? ¿Bai ote dakite zer dan eliza beren

apainkeriak eta erakustera eldu diran emakumeak? Emakumeak burua estali ta etofi bear omen dute; ortarako dira manteliñak; baño *aingeruai zor zaien begiramentu ta itzala* noizko gordetzen ote dute apainduak baño erdi jantziak etortzen diran emakumeak?

IV

Teodosio agintaria elizan sartzen zanero iñon baño apalago sartzen omen zan; eta bertan belaunika baño aozpeztuago Jaunari otoi eta otoi egoten omen zan; ez uste ordea efegeak ta agintariak zeukatzen leku goi ta jakiñean era artan egoten zanik; beste edozein gizon bezela efitafen artean egoten zala ta.

Begira Luis deuna Franziko efegea; ta Eduardo Ingleterakoa. Bat Akisgrango Elizan; eta bestea Kantorberykoan beartsu jantzirik egoten omen ziran; eta elizatarian barkazioa eskatzen omen zioten efiari.

Bein Dinamarkako efege zan Suetonek beraz gizon aundizki batzuek marmar egin zutelako il erazi omen zituen; eta apezpikoak edo gotzaiak egun batean ikusi zuenean efegea oso apaindua elizan sartzen esan omen zion: *¿Nola eldu zera Jaunaren etxera? Oraindikan afo-biufi-gogor bazaude jakin eliza apal-umilen lekua dala. Damu damu bazatoz, ez dira jantzi oiek damu dagonaren jantziak; zoaz emendik; eta ez ofela sartu elizan.*

Ixil-ixilik juan omen zan efegea bere Jauregira, ta apal-apal jantzi ta juan omen zan befiz oiñ utsik elizara.

Kyrietan zeudela gaztigatu omen zioten gotzaiari bazetofela befiz efegea; ta elizatarian eman omen zion barkazioa; abeslariari ixilerazi ta efegeak bere pekatu ikaragafia aitortzen zuela.

N. a. m. aiek, aek ziran egiazko kristauak; bada bazekiten guk baño obekigo elizan egoten.

Ez dute jantzi polit-edefak beartsu-eskale artean ondo ematen; eta kristauen artean beñiz gutxiago. Elizara otoi beroak egiteko datofenari Jaunak beti lagunduko dio. Izan ofelakoak.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTES ONDOKO AMARGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. X POST PENTEC.

I

Antustea dan afokeñiak nazka ematen du; ta Jaunak befiz gofoto aundia dio.

Gaurko Ebanjelioak dakar Fariseo ta zergalari edo (publikanoen) ipui entzuna; ta agirian dago ez degula kristauak gure bururik beñere afortu bear: bada ez degu Luzifer bezela inpernura Juan nai.

Ez dago gure artean otoi egiten ez duenik, uste ontan beñepein nago ni; ta gure otoitzak zergalari gixaxoaren antzekoak izango dira noski: apalak umilak, eta sutsu-bero-beroak. ¡¡Bai!! ¡¡bai!! on bidean irauteko otoi egin bear da; ta pekatu ala oitura txafetik atera naian norbait balebil otoi egin dezala ofek ere; Jaunagana jo ta—Jaunak lagundu egingo dio ta.

Fariseoa afo utsa zan; zergalaria befiz apal-umila. Ez gera Fariseo afoaren antzekoak beñere izan bear. eta otoietan izpilutzat zergalaria artu egin bear da beti.

II

Kristauak gera; beraz gauz onen bat egitekotan Jaunak erakutsi izan digun eran egin bear degu; eskubiak jakin gabe ezkeñak dagiena.

Ukar ematean ez Fariseoak eta Eskribak bezela soñu, tuturik jo: bada ukara ematen dutelako soñua

jo egiten dute; ta ofekin gorespen eta txalo bila dabilta.

Batista deuna da guk eredutzat artu bear deguna. ¡¡Ura bai zala gizon arigafia, ta guziak maite zutena!!

Juduak eta jakin nai izan zuten zein ote zan; eta basamortuan zegoela bidali omen zizkioten gizon batzuek «*èa zein zan*» galdetzera.

Afoa izan balitz zer gauzak ez ote lituke esango bere buruaz; apal-umila zan ordea; ta galdetu ziotenean ea «*Mesias ala Elias ote zan*» ezetz erantzuten zien beti; ¡¡ezetz eta ezetz!!

Agustin deunak dionez afoak beti omen darabil itz au: *Ni, Ni naiz*; apalak befiz beste au: *Ez naiz ni*. Ez da bere burua makurtzen dakiena (nere iritzian beintzat) gizonetzkoa; gizona baño geiago deritzait eta.

Jaunak agindu izan digu *Bera bezela apalak izateko*; ta ukafak eta egitekotan ixil-ixilik egiteko. Ona emen Jaunak gai ontaz esaten zuena: *Ukar ematean eta ez dezala ezkefak jakin eskubiak egiten duena*; ta esan nai zuen ez beñere gauza onak Fariseo afoaren antzera egiteko.

Galendu bear gera kristauak beti bestien artean gaudelarik; ez ordea gure afokeriagatik; apaltasunagatik baizik. Oso gaizki dago gauza onak txalo begira egitea; Jaunari begira egin bear dira ta; bada Jaunagatik ez, baño gizonagatik bai egin ezkerro, orduan ez dute ez Jaunak eta ez gizonak ontzat artuko; ez Jaunak; bada esango liguke: *Recepisti mercedem tuam*; ta ez gizonak ere; bada ¿nork ez ote daki gizona eskergabeke-ri utsa danik? ¿nork ez ote daki ez dakitela gizonak esker oneko izaten?

Zorigaiztoak Fariseoen antzekoak.

II omen zan Gregorio deunak diogunez bere sena-

fakin txit ederki, ta garbi-garbi bizi izan zan emakume on bat. Ez det esango oso maitegafia izango zanik; onak eta aingeru antzean bizi diranak oso maitegafiai bai dira. Ortzitzekoan edo lur ematekoan senafak guziaz adierazi nai omen zien bere emazte zanaren ontasuna; eta esan omen zion Jaunari: *Ene Jauna: Nere emaztea garbi-garbi juan zaizulako eskefak dizkizut.* Au esan orduko ilak (emazteak) deadarka esan omen zion *Ago ixilik; ez bai dik inork galdetu nola bizitu izan geran; eta ori ixil ixilik eduki bear ukek:* Esan onekin adierazi nai izan zion emazte zanak etzuela afoa izan bear; garbi-garbi bizi ta irabazi zuena bat batean galdu zezakeala ta. Guri ere ori bera dagokigu; gauz onak ixilik eduki; ezperen (bestela) irabazi beafean galdu egingo genduke ta.

III

Zerbait egiten badegu, jaunak lagundu ta, dagigu; Berari dana eskefiri bear beraz; oso oker geundeke us-te izan ezker Jaunaren laguntzik gabe egiten ditugula gauzak; bada bizi bagera Jaunagatik da; baita mugitu egiten bagera ere; ez diteke ba ezer egin Jaunak guri lagundu gabe.

Ez dezake txoritxoak ega egin egarik ez badu; gutxiago dezakegu guk ere gorontz jo ez badigu Jaunak laguntzen. Ez balu suak berotasunik ez luke berotuko noski; ta ez baligu Jaunak biotzik berotuko, ez genduke ere gauz onik inoiz egingo. Ezefeztu egingo^o litzake mundua Jaunak *Bere* esku altsua bertatik kendu egingo balu; ta ez balio kristauari lagunduko ez genduke ezer egingo; gaizki esan det; pekatua bakarik egingo gen-

duke ta. Geroztik dagigun guzia Jaunari zor diogu; ta Paulo deunakin esan bear orduan: *Sufficientia nostra ex Deo est. Zerbait bagera Jaun onagatik da.*

Badakusgu Moises bere efiaren etsai guziak garaitzen: Jaunak lagundu egiten ziola ordea. Dabid Goliaten aufean dago; il egin dio; baño Jaunak lagundu ta. Afigafia da Sansonen indafa: ez aztu gero indafa Jaunari zof dionik.

¿Deunak gauza miragafiak egiten zituztela? Ez diteke ukatu; baño ¿uste al dezute egingo zutenik Jaunak ez lagundu ezkerok?

Soli Deo honor et gloria esaten zuten deun guziak; ¿zein ergelak izango giñake ofela guk ere esango ez bagenduke.

N. a. m. Lapufa da bestiena arapatu egiten duena: kendu Jaunari, Berari zof diogun gorespena; ta lapufak gera; bada dagigun guzia-pekaturia ezik-Jaunarena da.

Ondo baño obeto datorkigu orain Dabid igarlearen esan au: *Non nobis, Domine, non nobis; sed nomini tuo da gloriam. Zuri, Jauna; zuri zof dizut egiten detan on guzia; zurea bai da, af zazu neri ematen didaten aintza ta gorespena.* Jaunaren begietan asko irabazteko ez luke Kristaiak bere ezpañetatik esan osasungafi au beñere kendu beaf.

Uste zuten fariseoak eta zegiten on guzia berak bakafik-Jaunaren laguntzik gabe-zegitela; ta ori zan aien pekaturik aundienetakoa; afokerizko pekaturia; ta Jaunak ofegatik gofoto amofa aundia izan zien.

IV

Paulo irugafena aita santu bat zan; eta aita santuak eta *oi duten eran* bai omen zeukan ikurdi (*escudo*) edef

bat; eta au omen zan Jesu-Kristo gure Jaunaren irudi edefa bertara gezi (flecha) bat zuzen zuzen zijoala. Bertan (esan naidet) ikurdi artan esan edef au omen zegoen idatzita. «*Sic mitte sagittam. Gezia (asmoak, gogoa eta) zuk ere eran ontan bota beaf dezu.*

N. a. m. Itz gutxiko idazkia zan ura: ala ere gauza asko esan nai zizkion; bada esan nai zion: *Zegien (egiten zuen) guzia Jaunagatik egiteko; ta Beragana zuzentzeko gauza guziak.* Oso efax jakin diteke guk orekin ikasi beaf deguna.

Kristauak gera jez ote? beraz gure gogopenak itzak asmoak, erabakiak, egintzak eta *Ad majorem Dei gloriam: launari begira, ta Beragatik egin itzagun.*

Itxas gizonak beti itxas ofatza ta artizafari begirtzen omen diote. Jauna da gure itxas ofatza; Jauna gure artizafa; bijoaz ba Beragana egiten ditugun on guziak.

Zeruan deun asko egon afen guziak bereziak (diferentziak) dira; ta bata bestea baño gorago dago. ¿Zergatik? Batzuek gauza guziak Jaunagatik besteak baño obekigo egin zituztelako noski.

¿Zeruan goi goi egon nai degula guk ere? Mundu ontan zergalari gixaxoaren antzera makurtu zagun gure burua; gauza guziak Jaunari begira egiten ditugula.

Ala izan bedi



ANDRE-MARIAREN JAIA

2.ª HOMILIA IN FESTO ASUMPTIONIS

I

Etzan Andre Maria lur ontakoa, ofegatik eramán zuen bere semeak zerura; ta kristau onak ori zinisten degu. Pozaren pozez dago gaur kristautasuna; bada gaurko jaiak iru gauz gogoratzen dizkigu; ta iruak zein baño zein pozgafiagokoak.

Andre Mariaren eriotz gozoa.

Bere pixtuera afigafia; ta

Bere jasokunde miragafia.

Íl zan Jesús ona; pixtu-ere egin zan ordea. Gure Andre Mari garbia ere Jaunaren besoetan gelditu zan lo gozo ederean; eta íl zan ere; baño gero ílen artetik pixtu ta bere Seme maiteak zerura eramán zuen.

II

Jakintsuak diogutenez Jaungoikoa zerura igo ta gero 23 urte geiago bizitu omen zan Maria mundu ontan; eta etzegokiola kristautasunari Andre Maria gabe gelditzea ta, etzitezkeela Jesusen jafaizaleak artzairik gabe gelditu ta etzituen Jaunak Andre Maria gabe utzi izan nai; jafaizale gixaxo aien fede-epelak su-emale bat bear zuela ta.

Jesus onaren ama garbiak Jerusalem bizi bear izan

zuen; eta uste dezakegu al zuenero egongo zala Maria Jesus onak ainbeste jasan bear izan zuen lekuetan; eta esango bagenduke Semea egunero zerutik jeixten zitzaiola ¿gezufen bat esango ote genduke?.

Bizi danak il bear; eta Grabiela aingeruak Andre Mariari agertu ta esan zionean aurki il bear zuela berak, ez diteke adierazi orduan Maria garbiak artuko zuen poza; bada etzeukan mundu ontan biotzeko maitetasuna, zeruan baizik; eta egia bai da maitea dagon lekuan biotza egoten dala Mariaren biotza zeruan zegoen.

Andre Maria bada beti egun aŕen begira zegoen; eta goitik il mezua (abisoa) etofi zitzaionean pozez lertu egingo zitzaion noski biotza.

Jakob zintzoak jakin zuenean Egiton bizi zala Jose bere seme kutun atsegiŕa, etzuen lenengo aldietan siŕiztu nai izan; azkenean ordea siŕiztu egin zuen; laster baŕio ariŕago Ejitorontz jotzen zuela; Jose ikusi nai zuela ta. Ofelakoxea da gurasoen biotza; batez ere amazko biotza.

Kondairak diotenez Andre Mariak mundu ontatik Jaunagana jotzerakoan, Jesus onaren jafaizaleak ufutian ari omen ziran Ebanjelioa ta erakusten; ala ere jakin zutenean Ama-garbiaren eriotza gertu ta urbil zegoela jua omen ziran guziak Jerusalem aldera, beren ama on onari azken agur ituna eman nai ziotela ta.

Andre Mariakin zeudela, agertu omen zitzaion Mariari Jauna; ta amaren arima semearekiko zeukan maitasunean urtua bai zegoen—gorputzatik alde egin omen zuen bereala; eta befi ori zabaldu ta jakin orduko jua omen ziran leku guzietatik Ama garbia ilik ikustera; gorputz ila Jetsemani aldera eramaten zutela.

Ez aztu gero, n. a. m. Andre Maria Jesusen amazanik; beraz—semeak amari asko ta efuz maite ziolako

etzion amaren gorputzari usteltzen utziko; ta irugafen egunean—kristauak uste degun eran zerura eramana—ilen artetik pixtu erazi omen zion.

Ofaintxen datozkit gogora Jaunaren itz auek: *Volo ego, ut ubi ego sum, ibi sit et minister meus*. Beraz zeru erdi erdian-ilen artetik pixtu ta—nai zuen Jaunak Bere ama garbia.

Eriotza pekatuaren ondorio txafa dan ezkeru ¿nola il ote zan Maria efurik gabe sortua izan ezkeru? Jesus ona bezel-bezelaxen noski.

III

Gaudeamus: Alaitzeko esaten zaigu gaur; eta alaitu bear gera; Andre Maria zeruan goi-goi dakusgu ta. Andre Mariaren semeak gera; beraz—gure ama zeruan ikusi ta, poztu gaitezen bai; ez bai dago—bere ama zorionez betea ikusi ta—poztutzen ez dan semerik.

Ea ¿nola ote dagon Andrea Maria zeruan? Ez ototzik egiten beñepein; agintzen baizik.

Ekafi gogora Ester Asueron afean zegoela, ta dakizutenak Mardokeo ta juduak etzerala il, bitartez Ester efergiña jafi zalako; jakingo dezute ez gerala gu ere gaizki ibiliko ta galduko Ester baño eskubide aundia-gokoa dan Andre Maria gure aldez egon ezkeru.

Ona ba gure aldez Andre Mariak dagiena; eutsi Jaunaren besoa; ta gugana ekafi goiko esker mesede ontarteak.

Ez balego Andre Maria zeruan Jaunaren afean, galduak geundeke noski; ez gaitu ordea aztu ta, guretzako biotz beratxa dauka ta.

Askotan jotzen degu Beragana; ta ikusten gaitue-

nero poztu egiten da; guri lagundu naiaz bai dago beti.

Hodie Maria Virgo cœlos ascendit; gaudete. Gauñ Andre Mariaren jaiia bai da poztu gaitezen guziak; Bitartekotzak zeruan Andre Maria degu ta.

Juduak eta oso pozik omen zeuden Moises, Aaron eta Samuelekin; zerbait nai zutenean aiengana jo ta Jaunak aiei nai zutena ta bear zutena ematen zietela ta.

Geiago poztu bear gera gu; Andre Maria bezelako Bitartekorik ez bai da iñor.

Atsegingafia da da gaurko jaiia; bada Jaunak Andre Maria zerura eraman eta, zeru lur mundu osoaren eñegiñ egiñ izan du.

IV

Dionisio Areopajitari galdetu ziotenean ea nolakoa ote zan Andre Maria onela erantzun omen zuen: *Txit edera da; ta ez dezaket besterik esan.*

Galdetu orain zuek ea Mariak zeruan esku aundia ote daukan; eta auxen bakarik esango dizutet: *Zeruko eñegiña da.*

Ez bai dago Jaunarentzat eziñezko gauzarik esan bear degu *guzia dezakela Andre Mariak ere*; ofegatik Galileako Kanan iritxi izan zuen nai zuena; Jaunak amari esan añen etzala etofi oraindik gauza miragafiak egiteko garaia, ala ere ama garbiari atsegin emateagatik ura ardo biurtu egin zuen eta.

Jaungoikoa on itufi da, Andre Maria beñiz esker mesede bidea; beraz Jaunak ematen dizkigun on guziak Andre Mariaren bitartez bidaltzen dizkigu.

¡Zein ederki datorkion Ama garbiari esan au: *Refugium peccatorum: Pekatari guzien gorde lekua.*

Ez da ez Andre Maria beste eñegiñ eta munduko

efege agintariak bezelakoa; bildurgafia izan beafean maitegafi zaigu ta; ofegatik ba maite degu kristau gu-
ziak.

¿Quæ est ista? esaten omen zuten zerutafak Andre-
Maria zeruan sartzen ikusi ta.

Bazekiten bai andre zoragafi ura Andre Maria zala;
baño oso afitu ta zeuden ainbateko al esku aundia Be-
ragan ikusi ta.

Oña nola goستن duen Jaunak Berak goretsi nai
duena.

Andre Mariak oinperatu izan zituen munduko gau-
zak; eta Jaunak ordaiñez zerukoak eman zizkion; An-
dre Mariak beraldu izan zuen Bere burua; Jaunak or-
daiñez goretsi izan dio. Zorionekoak ofela egin ezkeru.

Ala izan bedi.



PENTECOSTES ONDOKO AMAIKAGAREN IGANDEA

2. HOMILIA IN DOM. XI POST. PENTECOSTES

I

Eraman omen-zioten Jaunari mutu ta gof zegoen bat; Bere esku altsua ta ongilea afen gañean jartzeko esaten ziotela. Atera omen zuen Jaunak gixaxo ura lagunen artetik: eta listuz belafiak igortzi ta *iriki* esanaz, sendatu egin omen zuen.

Jaunak mesede aundia egin izan ziola ta-ez da afitzekoa gixaxo ura eskerdun badakusgu. Ona emen orduan guziak Jaunaz esaten zutena: *Bene omnia fecit. Gauza guziak ondo egin izan zituen.* Orixen da Jaunaz eta gutaz esan diteken gauzarik goragafiena. ¡¡Gutaz beti ori esango balitz!! Jakin n. a. m. ez duela Jaunak biotz erdoiturik nai: ta biotz garbiak eta nai gaituelako naigabeak eta bidaltzen dizkigu; ufea labe gorian bezela gu ere naigabetako labean garbitu egin beaf gerala ta. Zori onekoak mundu ontatik elufa bezin zuri dijoazenak.

Emen onak izateko ¿zef egin beaf ote degun?

II

Gauza asko beintzat ez; dagiguna ondo egin besterik ez. Goiko Jauu onak esaten zien juduai: *Egizute dana ongi.*

Nekazafi, margolari, ereslari, Koblakari ta izatekotan nekazari, ona, margolari bikaña, ta ereslari okitua izan eta ¡¡auferar!! ta Kristau izatekotan ona izan eta ¡¡auferar ere!!; ta Kristau ona izateko bete ondo aginduak; eta ¡¡kito!!

Ez da ez Kristaua ona ta okitua izango gauza asko egiten dituenean, baizik dagiena ondo egiten duenean.

Deun (santu) ak dira gauzak ondo dagizkiten Kristauak.

Paulino deuna Jerusalengo inguruetan bizi zala tapozaren pozez omen zegoen; eta egun batean idatzi omen zion Jeronimo deunari esanaz pozez lertzen zeukala biotza; Jerusalem txoriabatu ta bezela bizi zala ta.

Jeronimo deun afigafiak onela erantzun omen zion: *Ez dira txalogafiak Jerusalem bizi diranak; Jerusalem ondo bizi diranak baizik.*

¡¡Jerusalen!! itz onek Kristautasuna askotan adierazi nai digula ta-artu diteke Jeronimo deunaren esan ori era ontan: *Poztutzekotan gu bakafik poztu egin beaf gera Kristautasunean Kristauki bizi geralako.*

Geroztik ez dira onak otol asko dagitenak; ez da Jauna maiz artzen dutenak; ez da ere meza egunero eutzuten dutenak; baizik otoiak, Jaunartzeak eta mezak eta dagizkiten gauza guziak ondo ta Kristau eran egiten dituztenak. Onela egiteko ona arau edo bide batzuek.

III

Munduko asieran zero lur itxaso ta gauza guziak egin ondoan, esan omen zuen Jaunak *Ondo zeudela.* Gizona egin zuenean befiz, ez omen zuen ofelakorik esan; bada gizonak onak ala txafak ote geran esateko

etzaigu *azalari* bakarik begiratu bear; baizik biotzari; oratx ba zergatik dagokion norberari ona ala txafa dan esatea; beraz gauzak egitean geok begiratu bear degu ea nolakoak ote diran gure asmoak eta; baita zergatik egiten ote ditugun ere; aztu gabe ordea ea dagizkigun gauzak ikusi naiak geralako ala gure burua goresteko edo dagizkigun; bada onela egin eta, gauzak gaizki egiñak daude; ta Jaunagatik egin ezkerro befiz ondo egiñak dira.

Baño gure asmoak eta onak badira ere egiñalak egin bear ondo egiteko; ez baida naikoa asmo onak eta edukitzea; geiago bear da ta. Eta *geiago* ori da gauzak adorez, biotzez eta alik ederkiena egitea; Jaunak ofela nai bai ditu.

¿Ez ote dituzte mofoiak eta neskameak nagusi ta etxeko andrea begira dituztenean gauzak alik ederkiena egiten? ¡¡Alaxen da!! Guk ere gure eginkizunetan eta ari geranean, oartu ta gogoratu ezkerro Jauna gure begira dagola, gauzak ondo egingo giñituke apike.

Eta pekatuan ofenbeste aldiz erori egiten diran kristauak ¿zergatik erortzen ote diran? Jaungoiko begi aufean ez daukatelako. ¿Ez degula pekatu rik egin nai? Eduki ba Jauna beti gogoan.

Gauza guziak ondu egin nai ditugula? Era berean ez beñere Jauna begi aufetik kendu.

IV

Gauza askotan itoak eta nastuak dabiltzanak oso zabartuak daude, ta ez bai dago oien burua ari diranetan *dana dana* gaizki ateratzen zaiote. *Ari zeran gauzan ari ari beti*; ta gauzak ondo egingo dituzu. Soñularia soñu jotzen ari danean gogoa soñuan dauka; ta

ondo jotzen du soñua. Gofantzi ta afeta aundiko gauzetan ari geranean, ez bagabiltza zintzo; ta ez bagaude buru belafi, ez degu gauza onik egingo; ¿nola ote? ¿bi erbien atzetik dabilen txakura bata ta besterik gabe gelditu egiten bada? Ona emen argi ta garbi esan nai dizutedana.

Meza entzutekoan, entzun beti beste zer egiñik ez bazenduteken eraz; Jauna artzekoan artu ere beti beste arazorik es bazenduteke bezela; otoi egitekoan egon artan bakafik; esate batean esateko *egin gauza guziak* zuentzako beste eginkizunik ez balego lez; eta ondo egingo dituzute.

Plutarko jakintxuak diogu aspaldiko gezufezko Jaungoikotxo aiek zituzten apaizai—opariak eskeintzen ari ziran bitartean—ojulari batek onela esaten ziela: *Egizu egiten ari zerana*. Ederki esana; ta guri ere ondo baño obeto datorkiguna gañera.

Baño norbaitek esango dit orain: *Etsaia ordea ez dago beñere lotan; eta beti gauza onetan nastu ta zabartu egiten gaitu; bates ere Jauna artzekoan, meza-koan eta*.

Egia da; ta orixen bera gertzatzen zaigu guziaz; ez oreгатik ordea estutu; Jauna guk uste degun baño efukitsua bai da; ta etsaia, gu nastu naian badabil ere, badakizki Jaunak gure asmoak eta; ez lafitu bada; orduan galdu beaſen asko irabazi diteke ta.

V

¿Gauza guziak ondo egin nai ditugula? *Egin beti azkenekoak balira bezela*. Ondo egingo giñituke, gure buruari onela esango bagiñioke: *Au egin bear det; baño azkenekoa balitz lez; baneki au egin da il bear*

nuela ¿egingo al nuke? Eta egitekotan ¿nola egingo ote nuke? Auxen, auxen da n. a. m. gauzak ondo egiteko biderik zuzenena.

Agirian dago guziak ilkoak gerala; ta egun guziak begiratu ezker guretzako azkenak balira bezela, egun artan egindako gauzak: otoitzak, mezak, aitortzak eta ¡¡zein ederki egingo gifutekean!! Gure otoitzak zein baño zein sutsuagoak!! ¡¡eskariak bero-beroak!! ¡¡mezak txit ederki entzunak!! ¡¡aitortza iñoi baño apalago!! ¡¡Jaunartzea ezin baño ohea!! ta abar.

Oso edefa da au guzia; ta ez bai dakigu noiz izango ote dan gure azken eguna ¿nola ařapatuko ginduke erioztzak oraintxe bertan lapur antzera baletorkigu? Asko izan dira meza esan baño lenago egunero aitortu egiten ziran apaizak; eta bazekiten aiek egiten arestian esan deguna. ¿Gu aien ondoan zef ote gera?

Txit ederki bizi izan bati esan omen zioten: baze-torkiola azken ordua; ta elizakoak artzeko; ta patxada aundian onela erantzun omen zien: Ogeitamaf urte auetan egunero aitortu izan naiz: eta beti azken-aldikoa balitz bezelaxen; ez dit ba azken orduak ajolik ematen.

Zorionekoak gu ere onela bizi ezker.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE-ONDOKO AMABIGAREN IGANDEA

2.^a HOMILIA IN DNM. XII POST PENTEC.

I

Ez dira ez Jaunaren aginduak aztunak eta neketsuak. Ez aztu abereak beti amaren ondoan dabiltzala; ekañ gogora ez dirala txoritxuak eta amak agindu arte kabi tik ateratzen; eta—atera ta ere—ez dute amaren ondolik alde egin nai; amari asko maite diotela ta.

Amaren magalean ain gozo-gozo lotan dagon aurtxo txikiak ¿nori maite ote dio amari baño geiago?

Agindu abereai ta, aitama maite izateko; ta afitu egingo lirake; ez bai da gurasoak maite izateko agindurik bear; biotz ona baizik. Gaiztoa ta txaf ustela dirudigure biotzak; Jauna maite izateko agindua bear bai du.

Jaunaren lenbiziko aginduan esaten 'zaigulako Jaunari gauza guziaz baño geiago maite izateko, lotsatu bear giñake; bada seme-alabak gurasoak maitatzeko ez dute agindurik bear: ¡¡Gu Jaunaren seme-alabak izan; eta Bera maitatzeko agindua eduki bear!! ¡¡Au lotsa!! Ez da ez aztuna kristau legea; leguna ta arifia da ta; bada abereai ta egaztiaz ta aurai beren aitamak maite izatea aztun ez bazaie guri Jauna maitatzea arifia izan bear zaigu.

II

¡¡Bai!! Maite bear degu Jauna; ta *biotz biotzez gañera*. Su dario gure biotzak; biotzak bada—suak éfe bezela—maite egin bear du.

Berez maite du zoriona gure biotzak; ta munduko gauzak ofenbestean badauzkagu, da zoriona berakan dagola uste degulako; zorion bila gabilitza ta.

Begira pinpilin pausak: lorez lore dabilta; gu ere alaxen gabilitza lorez-lore, pozez-poz, zorion bila beti; baño arkitu gabe, iñon iritxi gabe; bada Jaunagana ezik beste toki-leku-gauz-guzietara jotzen degu; baño alpefik; zoriona nunbait egotekotan Jaunagan egotez dago ta.

¿Jakituri edertasun poz bila gaudela? ¿Zein ote Jauna baño edefago jakintsuago ta poz emaleagorik? Zerk edo zerk bada gure biotza ase betetzekotan, Jaunak bakafik, n. a. m.

Agintzen digu bai Jañnak *Bera bakafik maite izateko*; ta ofekin agindu egiten digu *Beragan dagon zoriona maitatzeko ta bilatzeko*. Zoriona ordea agindu gabe bilatu ta maite bear da.

Begira Asistar Franzizko deunari negafez eta dea-darka diola: *Etzaio maitasunari maitatzen*. ¡¡Ori esana!! Deun zoragafi afek iñork bezela Jaunari maite ziolako ofenbeste ta ainbeste ilduratu egiten zuen bere burua; ta beti zebilen bere odol guzia Jaunagatik ixuri nain; eta mundutafak etzutela Jauna bear ainbat maitatzen eta, negar zerion gixaxoak; ¡¡jura biotz aundi edera!

Jauna maite ezkerro geroztik Beragan dauden atsegin poz guziak maitatzen dira; ta beartsuak bagera ere-Jauna maite izan da, aberats gaude; ta negar egin afen po-

za darioko du gure biotzak; esate batean: *Jauna maite ezkerro zeruan bezela biziko gera.*

«*Hoc fac et vives*» esan zion Jaunak lege gizon bati. *Egizu au; ta biziko zera.* Ilirik dago ba Jauna maite ez duen biotza.

Jauna maitatzekotan *gauza guziak baño geiago maite bear* omen zaio. Jaunak gurekiko daukan maitasunaren ondoan ez bai dira ezer munduko maitasun guziak.

¿Itxasoko ur guziak zer ote dira titare batean bildu ta dagon ur pixkaren ondoan? Gutxiago dira munduko maitasun guziak Jaunak guri digunaren aldean. Jaunari bada nola edo ala ordaintzeko biotz oso osoa eman bear zaio; ta *oso-osoa* esan det, gauza erdibiturik Jaunak nai ez duelako.

¿Eta noiz ematen zaio biotz osoa? Jaunari gauza guziaz baño geiago maite zaionean *Berak* asko maite gaituela ta-guk ordainez Bera asko maite izan ez? Ofa non dagon Maria Madalena; ¡¡Zein eredu ta izpilu edefa daukagun beragan Kristauak!!

III

Jaungoiko gure Jaunak agintzen digu *Bera bakatik maitatzeko*: ta ori egin bear da; bada zein edo zein ala norbait maitatzekotan, maite bear da ¿zein? *egitan maite gaituena*; ez degu ez inon arkituko Jaunak aña maite gaituenik.

Agirian dago Bere legeko aginduak zofotzak dirala; ala ere betegafiak dira; ta bete ezkerro adieraziko degu Jaunari diogun maitasuna; ta poztuko da.

Ez du Jaunak gure maitasunen beafik; baño maitasuna gure onerako eskatzen digu; ta ordainez zerua gure-

tzat dauka: Ez da Berekoai Jauna *Bera bakarik maite-
tzeke* esaten digunean; bada-ori esan da-gure ona baka-
fik nai omen du.

Jesus gure Jauna basamortuan zegoela agertu omen
zitzaion zirikalari etsaia onela esaten ziola: *Munduko
edertasun guzia iretzako; aozpezturik neri guf egitekot-
tan ordea*. Jaunak beriz asefe bizian erantzun omen
zion: *Utikan Satanask; Jaunafi bakarik guf egin bear
diogu ta*. Badakigu Kristau guziak esan onek adierazi
nai diguna; beraz mundukeriak eta-alde batera utzi ta-
Jauna maite dutenak Jesus onaren antzekoak dira; mun-
dukerietan itoak dabiltzanak beriz deabru- antzekoak.

Gauza guziak esagunago ta maiteago: ¿ez ote? ne-
ketan maiteko degu beraz Jauna, guretzako nolakoa ote
dan jakin gabe; ofegatik ba gogoratu egunero berak
egiten dizkigun mesedeak eta.

IV

Gurasoai *beti beti* maite bear zaie; alaber Jaunafi
ere; aspertu gabe ordea; ez bai da beñere Jauna gure-
kin aspertzen; beti guri laguntzen ari bai da.

Ez du Jaunak pekatua baizik ezer geiago gofotazen;
pekataria ba txit maitegafi zaio; pekatuak befiz nazka
ematen dio; ta pekatariak bagera ere ongile daukagu
beti Jauna; ta ongile dagolako bizi gera; maite gaitue-
lako laguntzen digu; ta Bere biotz-biotzekoak geralako
esker mesedez bete egiten gaitu.

Jaio bañó lenago maite ginduen; jaio giñanean Bere
biotz efukitsua guban zegoen; eta orain ere bizi generala
gurasoak beren seme alabak bañó geiago maite ditu
kristau guziak; bañó noiz edo noiz agertzekotan Bere

maitasuna ¡¡eriotz orduan!! eta ¿guk ordainez *beti beti ta biotz-biotzez* Jauna maite ez?

Nequè Creatura alia poterit nos separari a charitate Dei (Rom. 8-38) Guk-nai ez da-ez gaitu iñork Jaunagandik alderatuko. Pekatuak bakarik alderatzen gaitu ta; ez bai du Jaunak gure biotzean pekaturik ikusi nai; orduan-guk ez nai ezkerok-ez gaitu Jaunak maite gabe utziko.

¿Eta naigabeak eta bidaltzen dizkigunean ere maite ote gaituen? Orduan iñoiz baño geiago ¿Nola ote? Erax; ofela zerurako irabaz-bide aundiak ematen dizkigu ta. ¿Naigabeak eta zerura garamatela geroztik? Bai; alaxen da; Zorionekoak bada naigabeak eta: betoz betoz; Jaunak bidaltzen dizkigunean gure onerako omen dira ta. Beraz neke pean gaudenean-ez gaituela Jaunak maite esan beaŕean-esan beaŕ da orduan gero ta geiago maite gaituela. Begira zerua. Maite zagun Jauna ta guretzako da

Ala izan bedi.



PENTEKOSTES ONDOKO AMAIRUGAREN IGANDEA

2. HOMILIA IN DOM. XIII POST PENTEC.

I

Ebangelioak diogunez amar ziran Jaunak sendatuko legenardunak; eta amafak batean Jesus ongileari eskefak ematera jua beafean, ¡¡afitu n. a. m!!; bat bakafik jua omen zan.

Munduan ere bederatzí aien antzeko asko dira; ta obe guretzako gure Jaunakin ez bagíña gu ain eskergabeak.

¡¡Legenafal! Gaitz onek gogora dakarkit beste gaitz nazkagafí bat; ez nolanaikoa gero; izugafien artean izugafiena baizik: Lizunkeria da; ta ez dezake íñork berak egindako kalteak adierazi.

Legenar nazkagafí onek zikindu egiten gaitu; efe ere bai; ez bai da munduan lizunkeria besterik azaltzen; beraz erne egon beti.

II

Alejandriako Klemente deunak *Metropolis vitoru m Pekatu ta zikinkeri guzien etxea* deitzen dío munduari. Munduan bizi zeratenak esan dezakezute ea munduari ondo ote datorkion izen ori.

Deun jakintsu afek munduan bizi ez da, ofela deitu bazion, ikusi egin izan balitu mundu *batu-bafuko* pekatu ta zikinkeri guziak ¿nola deituko ote lioke?

Guziak diote mundua txit ondatua, ta oso usteldua dagola; ta alaxen egon bear du noski; mundutaf geienak mundukeri ta atseginkeri zirtzil-usteletan ustel-ondatuak dabilta ta.

Begira nola dagon mundua: ez da bazter guzietan zikinkeria besterik agertzen. *Mundus totus in maligno positus est* (Joan 5 19) Mundu osoa gaiztakeri utsa da geroztik; ala dio Juan deunak; eta esan onek gogora dakarkit Remijio deunaren esan ikaragafi au: *Ex adultis propter hoc vitium pauci salvantur*. Esan nai du inpernuan ito egiten diran gazte geienak lizunezko pekatuakatik itotzen dirala.

Kendu mundutik lizunkeria; ta asko izango dira zerura zuzen-zuzen dijoazanak; inpernura diran geienak beifnepein—lizunak diralako—juaten dirala ta.

Ona emen pekatu nazkagafi ontan ez erortzeko egin bear dan lenengo eginkizuna.

III

Ez inoiz gogotik kendu Jauna gure begira dagonik. Guk baño begi zofotzagoak ditu Jaunak; bada guk azala baizik ikusten degun bitartean Jaunak azala ta bafua batean dakuski; ez dago beraz Jaunarentzako iluntasunik, toki leku eskutaturik, ilunik, ez da basamortu ixilik ere; erne bai dago beti; bere begiak eguzkiak baño argi geiago dariote ta.

Orduan bada gogorazio txafetan naste bofaste gaudenean, eta bafu ustelak asmo txafak darabilzkinean, eta gorputz griñ zirtzilak ernatzen zaizkigunean, ez dago ez Jauna lokaturik; guzi-guzia badaki ta.

Txarkeriak naiz ixilpean, naiz bakafik egin badakizki Jaunak; eta ikusi egiten ditu guziak; ez gero nolana,

kopetan eta orma batean ezañita baleuden eran dakuski ta. Gure gogoak asmoak, erabakiak eta ixilak izan afen Jaunarentzako dira enparantza (plaza) zabal batean egiñak balira bezelakoak.

Iuan omen zitzaion bein Efren deunari pekatu erazi nai izan zion bat eta onela esan omen zion deun afek: *Ederki dago; baño pekatua egin bear degu guziak ikusi dezaketen lekuan.*

Ez diteke ori; erantzun omen zion besteak; bada lotsa pitin bat bederen izan ezker ez diteke ofelako pekatu agirian egin. Orduan deun aundi afek esan omen zion. *Gizonen afean pekatu egiten alketu edo lotsatu zu; ta Jaungoiko zofotzaren afean ez? Ez badezu gizonen afean pekatu ori egin nai; gutxiago egin diteke Jaunaren afean.*

Onelako itzaldi mamitsua entzun ondoan ondu omen zitzaion pekatariari bere biotza; ta barkatzeko esanaz damutu omen zan; basamortu batera damuzko negar egitera zijoala.

N. a. m. Maiz etofiko zaigu etsaia pekatu eraztera; ta datorkigunero esan bear diogu gure buruari Jose Jakobon seme garbi afek emakume lizun afe esandakoa: *Ez nezaket nik ofelako pekatu egin. ¿Nola pekatu egin, ez badit Jaunak neri beñere gaitzik egin? eta guzia ikusten ari bada?*

Gogoratu batez ere zuek gazteak esan auek; eta esan zuen buruari: *Jaunaren afean nago: ta ez def pekatu egin nai:* Zorionekoak ez badezute Jauna gogotik beñere kentzen.

IV

Jauna gure epaikari zofotza izango dala ta ¿pekatu egin? Epaikari-afean gaizkileak dardarka egoten dira;

beti bildufez daude; ¿nola egongo ote dira lizunak Jaun epaikari zofotzaren aurrean daudela?

Jauna norbaitekin zofotz egotekotan, lizunakin n. a. m.; bada Paulo deunaren itz auek *Fornicadores et adulteros judicabit Deus* (Hebr. 13) ori esan nai dute. Geroztik egun ikaragafi artan-guziok bilduf-ikaraz josi ta-egongo bagera, Jauna lizunakin ifnorekin baño zofotzago egongo omen da; ofegatik bada esan diteke egun ikaragafia ura batez ere lizunentzako izango dala ikaragafia. N. a. m. Ikaratu gaitezen, ain zofotz epaitu egingo gaituena Jauna izango da ta.

Orain lizunezko pekatuak egiten badira ifnork jakin eta ikusi ez ditzaken lekuan egun ikaragafi artan Jaunak-mundu guziari deitu ta-bakotxari esango dionean: *Pekatu ura egiten ari zifnanean uste zenduen etzifnuela ifnork ikusten; guzia ikusten ari ninizan Ni. Uste zuten zure lagunak garbia zifnala; ta nunbait ikasi izan zenduen lagunai ziria sartzen; Neri befiz etzait beñere ziririk sartzen.*

Aitof entzuleari esateko lotsa ematen duen pekatua ere Jaunak guzien aurrean agertuko du; ta lagunen aurrean egiteko lotsa ematen zuen pekatua ere Jaunak guziaz jakin eraziko die.

Ez dago bere baruan gorputz griñik somatzen ez duenik; ori jatofizko pekatuaren ondorengo txafa bai da.

Jeronimo deunak basamortuan bere burua ilduratzten zegoela somatzen bazituen ¿guk somatu ez? Bai; somatzen ditugu; deun afigafi afek bezela ixilerazten jakin beaf ordea.

Ona deun aundi afek esaten zuena: *Baderitzaidan egunero azken eguneko tutu zofotza entzuten ari nintzala; ta bildufez josita nengoen beti.*

V

Epai ondoan zerua ala inpernua emango zaigu. Egi utsa da Paulo deunak lizunaz esaten duena; ta esaten duenean «*ez dutela oiek zerurik ikusiko*» egia garbi garbi esaten du.

Lisimako efege altsuak, guda ikaragafi batean zegoela oso egafi aundia izan omen zuen; eta egafiz ez iltzeagatik bera ta bere guda mutil guziak etsaien menpean gelditu omen ziran.

Bein eskeñi omen zioten uf ontzia; ta negar malkoz beterik onela ezan omen zuen: *Orain artuko detan atsegin labur onen ordez galdu egin ditut nere ondatsun guziak; eta lenago efege egon eta orain menpeko biurtu izan naiz.*

Ori bera esango dute lizunak ere inpernuan daudela: *Nere buruari eman izan nion atsegin zikiña: ta zerua ofegatik galdu, ta || orain inpernuan egon!!*

N. a. m. Oso laburra da pekatuak ematen duen atsegiña; pekatu egin da-irabazi egiten dan inpernua befiz betikoa da.

Alde egin zagun beti lizunezko pekatuetatik.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE ONDOKOA MALAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. XIV POST PENTEC.

I

Guziak dakigu zein diran gaurko Ebanjelioak esaten dizkigun bi nagusiak. Ez ditekela bi nagusien mofoi egon eta, Jaunak ori esatean, esan nai du ez ditekela Jaungoikoakin eta etsaiarekin batean mofoi ala lagun egon; beraz nagusitzat Jauna ala deabrua aukeratu be- arko.

Ondasun eta diruari *mammona* deitzen dio Ebanje- lioak; *mammona* Jaunaren etsaia bada ere ez da etsaia *ondosunak* diralako; baizikan ondasunetan leporaño daudenak Jaunaren arazo gelenetan oso otz eta ajol ga- beak diralako. Ez dute gisa ontako gizonak dirua baizik gogoan; eta zertarako? Ez on egiteko beintzat; ez da beartsuai laguntzeko; baizik lasai, ta aisa bizitzeko.

Ondasun eta diru bidez oso efax irabazi dezakete zerua aberatsak ¡jakiña! kristau onak izan ezkerro; gaiz- toak badira beriz esan dezakete inpernu bidea zaiela dirua. Ondasun zale izan ez gaitezen ona Ebanjelioak gaur esaten diguna: *Begira txoritxoak eta soroetako loretxo polit edefak. Badauka Jaunak oien ardura; ez dute beraz oiek biyarko egunari begiratzen; bada txoritxoak erein gabe bildu egiten dute; loretxoak be- fiz Salomon bere edertasunez baño txukunago jan- tziak dira.*

Txori ta loretxoen ardura daukanak edukiko du bai gurea ere; ez beraz bildufik izan; txoritxoak eta geiago *balio* degu ta.

Gero esaten dizkigu esan auk: *Quærite primum regnum Dei; et hæc omnia adjicientur vobis*: esango baligu bezela: «Onak izan ezkeru, ta Jaunaren esanak bete, ta egin ezkeru Jaunak ordaiñez janari edari ta jantziakin lagunduko dizute; bada zuek, Jaunaren gura edo gogoia egin da, Jaunak ere zuena egingo du.»

II

Ez da mundua gure egote lekua; ez da ere gure etxea.

Udaldian enarak eta oso pozik eldu dira gugana; baño ez bai dute giro otzik nai, ta leku otzetatik igeska bai dabilta udazkenaren susmoa orduko guziak elkartu ta ego aldera jotzen dute; laster baño ariñoago ala ere.

Ezin gindezke gu ere negafa darion lur ontan egotez egon; ez bai dezaioke munduko giro otz txafak guro biotzari berotasun atsedetik eman. Gure abefia ta gure betiko bizi lekua zerua dala ta an bizi bear degu betirako.

Ez du Ipar Amerika aldean egotez bizi bear duenak Europa aldean bizitzeko Jauregirik egingo; ta egingo balu, txoro ergel bat besterik ez litzake izango; orduan gure bizi lekua zerua izan ezkeru ¿zertarako bizi emen mundua betiko bizitza balitzaiguke bezela?

Orain diru biltzen ari zeratenak baliteke diru pil aundi ori zuek uste ez dezuten eskuetara juatea; ta ala ere ontzufeak egiteko ¿orenbesteko lefenak egin? Obe da zerurako erein, mundurako baño. Gurea bakafik izango da zerurako ereiten deguna; mundurako ereiten dana befiz ¿noren izango ote da?

Diru bilketan ari ta, norentzako izango ote dan jakin ez; esaten du liburu santuak. ¡¡Ori zori txafa!!

Bizi omen zan ondasun aundien jabe zan aberatsa; eta esan diteke etzuela ondasunetan besterik oldozten edo *pensatzen*. Diru amets gozoetan zebilela, entzun omen zuen onela zion otsa: *Stulte: zentzu gabea; Gaur bertan deituko dizute; ta ¿norentzako izango dira lefenak egin ondoan bilduko dituzun ondasun oiek?*

Diru egiten ainbeste nekatu ta ¿gero bestientzako dirua? Lan egitekotan norberak beretzako dagi. Zeruko lana guretzako izango da; ¿mundukoa befiz? ¿Zernek daki zerientzako izango ote dan?

Aberatsak beartsuai lagundu ta asko irabazi dezakete zerurako; ta ukar emaleak eta Jaungoikoaren izenekoan laguntzaleak zeruan sari edefa izango dutenik ez beñere zalantzan jafi. Itxasoko apafak bezelakoak dira diru ondasunak.

Munduko ondasunak eriotzakin batean iges egiten digute; zerukoak befiz gurekin batean daramazkigu. Ondasunak eta bildur ematen zioten Jaunari. Ona zergatik.

III

¿Nola egiten da dirua? ¿ta ondasunak? ¿Irabazten dana ondo irabazita al dago? Badira beren irabaziak ondo egiñak dituztenak; txalagoñiak dira oiek; bada gogoraturik diru egiteko egindako lefenak eta beartsuaz oroitzen dira; ta geienetan ukar emale zintzoak izaten dira. ¿Zer gauza ohea zerua irabazteko ukara baño? baño irabaziak eta gaizki egiñak dituztenai esango nieke: *Erne egoteko, Jaungoikoa oso zofotza dala ta.*

Zekena beti on gose. Esan nai du gizon zeken zikoitzak gogoa beti diruan daukala: diru egin ezkeru

¿beste gauzogatik zer? Ondo ala gaizki irabazi ta ere ¿zer? Kupida aundia ematen diote oiek Jaunari; ta Paulo deunak dio: *ez dirala zeruan sartuko.*

Kristauak eta diru arazo ta artu emanetan zabilztenak erne egon eta kontuz eta kristau eran ibili gero:

¿Zertarako esan *irabazi goia* (usura) debekatua da-gola? ta lapurkeria danik ez aztu; aztu ezkeroko pekatu aundi ortan oso eñax eroriko ziñateke ta. Lukufak (usu-reroak) irabazi goi zaleak dira, ta beren burua garbitzeko ona diogutena: *Dirua diru da: ta zofean ematen degunean ez degu galdu nai.*

Ez dute dirurik galdu nai; ta arima galdu egiten dute. Badira neufiak dirua zofean emateko; ta ortarako jafi ta dagon legea gorde egin bear da.

¿Zer? ¿Zeken lukufak dirua beartsuai zofean eman eta lagundu egiten diotela? ¡¡bai zera!! bada norbaiti laguntzekotan lagundu bear zaio, ez *beherik* kenduaz; baizik *guretik* emanaz. Zeken lukufak beñiz eman bea-fean kendu egiten diote.

Beartsuai lagundu bear zaie beti; baño zekenak eta lagundu bea-fean, lertu, ito ta ondatu egiten dute; bada ogei duro zofean ematea laguntza bada, euntik ilabete batean bi, iru, lau kentzea beartsu gixaxoa lertzea da, itotzea da. Ez da ofelakorik gure legean zilegi; ta era ontan irabazitako dirua lapur dirua da; ta launaren bar-kazioa nai ezkeroko biurtu bear da atzera diru ori.

Dirua ematean bada ¡¡jerne egon!! eta ez beñere neufitik atera; bete beti gai ontaz kristau legeak agin-tzen duena; ta sal erosketan ibili zuzen, iñori ezer kendu gabe; ta ez irabazi goirik eskatu; ta onela egin-da Jauna pozik egongo zaigu.

Lagun urkoai laguntzeagatik ez da iñor beartsu biur-

tu izan; beartsuai dirua kentzeagatik ala zeken zikoitz izateagatik ordea bai.

Zekena beti gose; asko izan da ere beti geiago nai-az; ta guzia beretzako nai; ta azkenean guzia galdu egingo du; bada eriotzako orduan etsaiak afapatu ta daukan guzia kendu egingo dio. Inpernua norbaitentzako bada zekenentzako dago.

Jaunak gorde gaitzala.

Ala izan bedi.



PENTEKDSTE-ONDOKO AMABOSTGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. XV POST PENTEC.

I

Gaurko Ebanjelioak Naimgo alargunaz itz egiten digu: bere seme bakar ilaren beñak ematen dizkigula.

Ebanjelioa irakurtzen ari nintzala gogoratu zaizkit Monika deuna ta Agustin bere semea. Gero gogora ekafi izan ditut bere semeakatik ainbeste negar dagiten ama erukigafiak; nere buruari onela niola: *Ez da kite ez (¿nola jakin?) seme alabak zenbaterañokea dan beren amak dieten maitasuna*. Gisa ontako gauzak oldotzen nengoela artu det gai ontaz itz egiteko asmoa: oroentzako osasungafia bai da.

II

Zofen bat izan ezker ordaindu bear; beraz semeak ordaindu beaño beren gurasoakiko dituzten zor aundiak. Ez det ordea uste osotoro ordainkuko dituztenik; gurasoen aldez al aña egin da ere—ez bai da bear aña beñere egiten.

Entzun Aristoteles jakintsuak diona: *Diis, parentibus, et magistris non potest reddi œquale*: ta esan naidu; *Jaungoiko, guraso ta irakasleagatik asko egin da ere—ez diegula* bear aña beñere ordainduko.

Eta ¿seme-alabak zer egin bear ote dute gurasoe-kin dituzten zofak ordaintzeko? Gurasoak eskatzen dietena noski; ta ¿zer nai ote dute gurasoak? Jaunak laugarfen aginduan esaten duena bakafik; eta ona emen Jaunaren agindua: *Lots izan eta maite gurasoak.*

Likurgo lege giñe azkafak esaten omen zien bere menpekoai: *Ez da nerea lege au: Jaunak biali duena da ta;* eta bete erazteko esaten omen zien: *Betetzen badezute ori Jaunaren oldea edo naia egingo dezute; ta Jaunak atsegiñ artuko du.*

Jaunaren agindua bete ezkeru *Bere* naia egiten dala jakiteko ez degu guk Likurgorik bear; bada ez degu gurasoak maite izateko begiratu bear ea onak, jakintsuak, zintzoak, maitegafiak, zafak ala gazteak ote diran; bai-zik gurasoak gure aitamak dirala; ta ofegatik iñori baño geiago maite bear zaie.

Gero ¿uste al diteke ta siñistu ere bai badirala munduan beren gurasoaz lotsatu egiten diran seme-alabak? ¿Seme-alaba afo utsak bere gurasoaz lotsatu ote gurasoak berak nai luteken añako ontz-uferik ez daukatelako? Gurasoak beartsu daudela ta, asko dira ofegatik lotsatu egiten diran seme-alabak. Oso gutxi dira *Aita Santu* baten antzeko semeak.

Aita santu bat bere Kardenal, apezkitu ta apaiz-jau-nakin zegoen aldi batean, sartu omen zan aiek zeuden gelan nolanaiko gizontxo bat; eta *aita santu* ura-bere-aita ikusi orduko-juan omen zitzaion aguf beroa egitera bere menpeko-jaun agurgafiai onela esaten ziela: *Auxen da nere aita maitea; ta biotz biotzekoa zait Neri.*

Etzuen ez aita santu afek jakintsu aien begietan bere aunditasunik galdu izan; ¿galdu? ¡¡bai zera!! bada ez dute gizon zintzoak gizon aforik ikusi nai; ta afo-afuak.

ta egitan nazkagariak dira beren gurasoaz lotsatu egiten diran seme-alabak.

III

Badaki Jaunak Absalon, Kan Ruben, eta beste seme gaizto biufiai zeaten; eta seme-lotsagafiak aien burutik asko ikasi beaŕ dute.

Jaunak azken egunean esango badie beren lagun urkoakin onak izan ez diranai: *Utikan Nigandik* ¿zeŕ esango ote die gurasoakin gaizto-gogor-biotz gabeak izan diran seme-alabai?

Salomon jakintsuak esaten du *gurasoai in «opere» on egin da-laguntzeko*; beartsu badira zerbait ematen die tela; zaŕ badaude beŕiz etxetik ez bialduaz: ta eri egon ezkeru maiteki begiratuaz.

Oartu n. a. m. Gurasoakin onak baldin bazerate-zartu egiten zeratenean-zuen seme-alabak ere zuekin onak izango dira; biotz-gogofak bazerate beŕiz era-berekoak izango zaizkizute semeak ere. Ondo dijoazkio gauzak bere gurasoakin ona danari; gaiztoari beŕiz oso gaizki

In sermone «itzez» ere agertu beaŕ omen dute-Salomonek diogunez-seme alabak gurasoekiko duten biotz-ona. Norbaitez ondo itz egitekotan gurasoaz; n. a. m.

¿Zertarako esan Kanpotafai etxetan gertatzen dana?

Guk uste degun baŕno amaika aldiz zitalagoa da mundua; ta asko dira beste etxeko gauza txafak jakin eta-poztu egiten diran giza txafak.

Omni patientia esaten du gero Salomonek; eta ondo esana dago; bada seme alabak batez ere gurasoak zaŕak diranean eruapen *pazienzi* aundia izan beaŕ dute.

¿Burutik daudela zaŕak? Naiko lan daukate gixaxoak;

eta gazteak oiekin beti onak izan bear beraz; berez edo izatez zafak efukigafiak dira ta.

¡¡Bail! Gurasoai itzal eta begiramentua zor zaiete; baita adifean edo gu baño geiago diranai ere.

Oso maitegafia zan Isak Abranen semea; ta aitari itzal aundia ta lotsa aundiagoa omen zizkion; eta aitak esan zionean Jaunak agindu ziola semea iltzeko ta, Isak gixaxoak burua makurtu omen zuen, Jaunak aitari agindutako eriotzarako prest zegoela esanaz.

Eta... Jaunaren deia somatu ta, semeak ¡¡baietz!; gurasoak befiz ¡¡ezetz!; eta batzuek besteakin *baiezka ta ezezka* dabiltzanean ¿zer esan ote ortaz? Afeta ta gafantzi aundiko eginkizuna da ori; ta egia danezkerro Jaunari gurasoai baño lenago entzun bear zaiola, gazteak eta gurasoak gai ta arazo ontan kontuz eta *poliki poliki* ibili bear dute; ta alik ederkiena erabakitzeke ortxen daude aitor entzule zintzoak, eta apaiza jaun jakintsuak.

IV

Ez daki ez inork zer eta nolaoak diran gurasoak; jakitekotan bakafik jakingo dute aita ta amarik gabe gelditzen diranean; eta ¿nork bete ote orduan gurasoak utzitako uts aundia?

Izango dituzte begiratuko dituzten osabak, izebak, adiskideak eta lagunak; baño oiek arduradunak, zintzoak, onak, leialak eta maitegafiak izan afen, ez dute gusoak utzitako utsa ifloiz eta *sekulan* beteko.

¿Zer ote dan ama? Gogoratu Agar basamortuan bere seme Ismaelekin negar zeriola. Ekafi gogora Tobiasen ama maitegafia; ta zer dan ama jakiteko ez gogotik be-

ñere kendu Andre Mariak bere Jesus onakin egindako guzia; azkenerako zer dan ama jakiteko entzun:

Ama on bat oñaze ikaragafiakin oiean edo guatzean zegoela gaztigatu omen zioten eriotza laster baño ariño zetorkiola; ta *¡¡bitartean semea uruti!!*

Galdetzen omen zuen egunero ea noiz eldu ote zan bere enetxoa. Onelako batean iletsia zegoela aurkeztu omen zan semea ufutitik etofi ta; orduan ama ga-xoak-semea ikusi ta bestea omen zirudien; eta senda-dagileak galdetu zionean: *Andrea, ¿bai al dezu oñazerik? Ez Jauna;* erantzun omen zion; *enetxoa nerekin bai dago.*

Dabid efegek Absalon bere semea, ñla ikusi ta kafasika asi omen zan: *¡¡Ene Absalon maitea, ene maitea; ni zure lekuan ñl izan banintz!!*

¡¡Eta zer nolako negafak Jakobenak ere, Jose bere seme kutuna ñla zegoela uste zuenean!! Ez da ez gurasoen maitasuna bezelakorik.

Jaunak bada agintzen digunean *gurasoak maitatzeko* ez du gauza aundirik agintzen; abereak eta *berez* egiten dutena guk ere oso efax dagikegu ta; baño agindu zigunezkerok bazekien munduan izango zirala arkaitzezko biotzak, eta katamotzak baño seme gogofagoak; eta ¡¡kontuz ibili bear dute auek!!

Maite, maite beti gurasoai; zafak egonda ere maite beti; ta Jaunak ordaiñez maiteko zaituzte.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE-ONDOKO AMASEIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. XVI POST. PENTEC.

1

Farisoen artean nagusiena omen zan Jesus onari bere etxera bazkaltzera juateko esan ziona; ta Jesus juan zan aren etxera.

Baita ere juan ziran etxe artara beste fariseotar batzuek; baño aiek zelatan omen zeuden; Jesus aiek zer ote zegien eta zer esaten ote zuen jakin nai zutela ta.

Larunbata zan; eta juduentzako jai eguna; beraz etzan lanik zilegi.

Bai omen zan etxe artan urmindun (idropiko) bat: ez dakigu zer izango ote zan, fariseoak berariz ara eramitakoa edo; dana dala, antxen zegoen eri ura; ta judu zital aiek ikusi nai zuten ea jai-egun artan (larunbatan) Jaunak sendatzen ote zion eriar.

Jesus ordea Jaungoiko zan; eta onela galdetu omen zien maikideai: *¿Larunbatan sendatu al dezaioke norbaiti.*

Guziak mutu gelditu omen ziran; orduan sendatu egin zuen urmindua; ta berealaxen esan zien juduai: *Idi ala aberien bat—putzura erori ezker—egun ura larunbata izan da ere—¿ez al dezute putzutik erori-ala ateratzen? ¡¡Guziak ixil-ixilik!!*

Gero an zeudenai—áfo utsak ziranezkero ta zer edo zer ikasi beafean zeudelako—gure Jaunak esan zien ezteietara ta juaten ziranean ez toki garai edo lenbizikoetan jartzeko; baizikan azkenekoetan: Geroztik ez gaitu Jaunak áfo ikusi nai.

II

¡¡Áfokeria!! ¡¡Áfoa!! Áfoak mundu ontan áfobian ariak bezin ugari dira, beraz munduan fariseo antzeko asko dago; bada edozein gauzetarako ez dala iñor berak baño trebe ta egokiagorik uste dutenak guk uste degun baño geiago dira.

Esan, esan oiei azken lekua beti aukeratzeko; ta erantzungo liguteke: *Egin dezatela ori beren ezefeza ta gauzeza ezagutzen dutenak; ¿baño nik? ¡¡ez da ere!!*

Aundinai ta áfoen ustean ez da iñor bera añakorik. Auxen da oien ikufiña: *Ni; ni; ta beti ni: nere aufetik iñor: eta nere atzetik ezer.*

Agintari badira txalo, gorespen eta txurikeri guziak berentzat nai dituzte; ta beste norbaitek badaramazki ala beste norbaitentzako badira, begira nola irakitzen zaien odola; ofa zein urduri ta asefe dauden; eta nola ez ikusi naia, on damua ta gofotoa duten.

Itxasoak ibaietako ur guziak bildu egiten dituen eran áfoak ere txalo guziak beragan bilduak nai ditu; ta ori iritxi edo lortu ezkerro—ez dio ezerk ajolarik; nai duenik ez badu befiz iristen ¡¡aiek aser-aldiak!! ¡¡aiek miñak!! ¡¡aiek ojuak!! ¡¡aiek negafak!!

N. a. m. oso negargafiak dira oiek; beti urduri (nerbioso) ta kezkaz beterik bizi dira ta. Norbait bada éru-

kigafia izatekotan aundi naia noski. ¿Nork esan ote goi-goi egoteko aundi-nai afoak dagizkiten juan etofiak, bizkar biurtzeak, eta palagu—eztikeriak?

Arkitu omen zuten bein leku goi-garai-batean mafaskulo bat; eta ea nola igo ote zan leku artara galdetu ziotenean erantzun omen zuen: *Afasta nafastaka*.

Eduki beti gogoan orain entzungo dezutena; ta jakingo dezute nolakoa dan aundi naia.

III

Lisimako zeritzaion gizon batek egin bear omen zuen leoi ikaragafi batekin bofokaldi izugafi bat; eta adiskide ta lagun guziak esaten omen zioten bofoka egiteko izkiluak (armak) labanak, aitzo zofoztak eta artzeko; baño ez omen zien Lisimakok jaramonik egin; etzuela ezer bear eta.

¿Ero ote zegoen? ¡¡Bai zera!! Gauza ta bofokaldi aietan trebe zegoen nunbait; eta etzuen ofegatik ezere beafik; ez ezpatarik, ez labanik, ez da izkilurik ere.

¿Zer bearko ote zuen bada? Iñori gogoratuko etzai-zuten gauza bat. ¿Zer dala ta? *Autsa n. a. m. autsa nai izan omen zuen*. Sakelak eta paltrikerak ba autsez bete ta-atera omen zan bofoka lekura.

Bofoka asi orduko, ta leoia bifintzera zijoakionean begiak odoletan eta gorpuz ileak afo afo leoi ikaragafiak zituela, bota omen zion begietara zeraman auts guzia; leoia itxutu ta gelditzen zala. Orduan Lisimakok leoiari sastakada edefak emanaz garailari ta txapeldun atera omen zan: ¡¡aixxa ala ere!!

Badaki gure etsaiak ere Lisimakok aña; bada norbait galdu naian dabilenean bere arimako begietara afokeri-

autsa ta efautsa bota egiten omen dio, itxutu egiten dio-la; bada afokeriak itxutu egiten du gizona.

Ez du Jaunak aforik zeruan sartzen utziko; bada zerutik lufera ain apal umil jetxi izan zan Jesus otzanak zeru gai guziak Bere antzekoak nai ditu.

IV

Aritu-ta geldituko zifateke noski esango banizkizuteke aundi naiak eta afoak beren naikeriak betetzeko egiten dituzten zitalkeriak eta doġorkeriak; iñork somatu ere ez ditzaken erakoak dira ta.

Romulo ta Remo bi anai ziran; eta Remok il erazi omen zuen Romulo; bera Efomako agintari-bakafa izan nai zuela ta.

Abimelek ere berak bakafik agindu nai ta ofegatik il erazi omen zituen irufogeitamar gizon; uste bai zuen etziotela aiek agintzen utziko.

Eta ¿Ataliaz zer esan? Okoziasen ama zan Atalia; eta agintzeagatik ere il erazi omen zituen bere gogoak etziran guziak.

Gai oni jaraitu nai izan ezkeru, ez genduke iñoiz bukatuko. Nola edo ala bukatu bear ordea; ta bukatu dezadan entzun Krisostomó deunak esaten duena; *Amor principatus ut homo fera esset effecit.* (In Psal-7); esan nai du aundi naiak eta aginzaleak abere odol zale antzeko biurtu egiten dirala; guk beřiz geiago esan dezakegu; orelako giza txafak abereak baño makufago biurtzen dira ta. Bestela esan ¿bai ote dago abere artean agintzeagatik bere aitamarik iltzen duenik?

Ez noski; gizonen artean beřiz badira.

Tuliak agintzeagatik bota omen zien zaldiai bere

aitaren gorputza; zaldiak ostikoka ta lertu ta zanpatu egiten zutela.

Badakigu Absalonek agintzeagatik egin izan zuena Eta ¿zaztuko ote zaigu noizbait Herodes afo zital lotsagabe ta biotz gabea? ¿Nola ote aztu bera bakarrik agintzen egoteagatik il erazitako aul gaixoak?

Aundi naiak eta (befiz esango det) kezka betarik bizi dira; ta nai dutena iritxi baño lenago ea beste norbaitek berak baño lenago iritxi ala irabaziko ote duen bildur badira, iritxi ta gero bildurago omen dira; uste bai dute beazak ere etsai biurtzen zaizkiotela; aundi naiak bada nonnai etsaiak dakuski.

Zorionekoak amaika aldiz mundu ontan leku azkenak nai dituztenak; zeruan goienak oientzak izango dira ta.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE ONDOKO AMAZAZPIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM XVII POST PENTEC.

I

Ez diteke zalantzan jafi ere gure Jauna Jaungoiko danik. Esan kristauai ez dala Jesus Jaungoiko; ta ori da bere gurasoak gezurtiak zirala ta bere sinismena befiz gezur utsa dala esatea bezelaxen.

Gaurko Ebanjelioak —lenengo zatian itz egiten bai digu Jaunari ta lagun urkoari zor dizkiegun maitasunaz —ez det lenengo zatirik aipatuko; guziak dakizute ta.

Gaur azaldu nai dizkizutet Ebanjelioko itz auek:

II

¿Zer deritzaizute Kristoz? ¿Noren semea da? Dabidena baldin bada ¿nola izan diteke ori? Eta etzekiten fariseotafak zer erantzun.

Jaunaren Jaungoikotasuna adierazi nai digute itz oiek; eta ez bai zekiten fariseotafak ofelakorik, asko lotsatu omen ziran; zer erantzun jakin gabe gelditu zirala.

N. a. m. Ez beñere lotsatzeko ez da bide egokiagorik bear ez diran gauzetan ez sartzea baño. Ez lirake

sasi jakintsuak—lotsa pitin bat bederen eduki ezker—ez lirake ez bear dan ezdabaidetan sartuko; bada gelnetan lotsatu ta burua ezin garbiturik arkitzen dira.

Lur-soro--aro-giro arazoetan uts asko dagi nekazaritarik ez dakienak; eta iñork baño geiago befiz erlijioko gauzetan ezer jakin gabe sartzen danak.

Ixildu bitez bada betirako beren leptotik par egiterik nai ez duten sasi jakintsu, txatxo oiek; eta fariseotafak gaur ain lotsatu ta ikusiaz ikasi dezatela beren burutik.

Oartu gero fariseoak Jaunari esandako esan eztitsua: *Irakasle: Badakigu beti egia erakusten dezula,*

Gure Jaunak esan leun au entzun ala galdetu zien: *ea Kristoa zer uste zuten.*

Beste batean galdetu zion era berean Pedro deunari, ta Pedrok bear zan erara erantzun ziolako Jauna poztu egin omen zan; eta gañera esan zionean lagundu izan ez bazion Goiko Jaunak etziola erantzupen ura eman izango. afitu egin omen zan; eta guk era ontan artu egin bear degu esan ura: *Ni Jaungoiko naizela siñizten dutenak nere jaraitzaleak dira; ta Jaunari eskefak siñizten dute; beraz Jaunak lagunduko die beti.*

III

Norbaitek esango baligu ez dala Jesus Jaungoikoa, esango giñioke guk fariseoak Jesus onaz esaten zutena: *beti, beti egia esaten zuela ta; beraz etzala gezurtia.*

¡¡Tifa bai! Bein baño geiagotan gure Jaunak adierazi izan zuen Bera Jaungoiko zala; ta ofekin egia esaten zuen; Jaungoiko zan eta; Jaungoikoa egi utsa bai da, ta guk ori dakigulako siñizten degu Jesus Jaungoikoa da-

la; Fariseoak eta befiz etzekiten nola izan zitekean baitan Dabiden seme ta Dabiden Jaun izatea; guk befiz badakigu Jesu Kristo gure Jauna gizon dan aldetik Dabide gandik datofela, ta bere ondorengoa dala; baita ere Jaungoikozko gizona zan ezkeru badakigu Dabiden Jaun zala. Ona emen beste afazoi batzuek.

IV

Ez diteke izketan erakutsi abereai ta piztia; adimen eta ezaguera gabeak dira ta. Badira ordea izketan ikasten duten egazti batzuek; eta orain gogora ekafi nai dizkizutet *Anon Jaungoiko da* esaten ikasi egin zuten egazti batzuek.

Anon ura Kartagoko agintari afo-afo bat zan; eta bere afokerian erakutsi izan zien egaztia *bera Jaungoiko zala esaten*.

Anon afek Jaungoiko izan nai bazuen eta beste agintari batzuek ere ori bera nai izan bazuten ere etzuten ordea iritxi izan; ez bai da Jaungoikotasuna aberastasuna bezela iristen eta erosten; eta gañera gizona gandik eldu dana gizona izaten bai da.

Norbait bada Jaungoiko izateko Jaungoikoagandik etofi bearko.

Noizbait agertzen bazaigu Jaungoiko dala dionen bat esan dezakegu *burutik egiña dagola*; ta lelo artan balego esan dezaiokegu: *Jaungoiko bazera, egin Jaungoikozko gauzak*.

► Eta ¿zein izan ote da Jesus ona ezik Jaungoikozko gauzak egin izan dituen?

Jesus ona jaio baño lenago gaztigatu ziguten antziñ antziñteko igarleak; jaio zanean aingeruak abestu ziz-

kioten abesti gozo xamurak; bere bizitza osoan etzituen Jaunak Jaungoikozko gauzak baizik egin izan; eta ofe-gatik aitortzen degu *Jesus Jaungoiko dala*; ta ori sifisten degulako esker bero beroak eman bear dizkiogu Jaunari.

Eta ¿zer esan ote Eguzki aldetik izar befi eder bat ikusi zutela ta Belen aldera jo izan zuten iru efege edo Magoaz? ¿Zertarako agertu ote zan igarleak aspalditik gaztigatu izan zuten izar befi ura ez bazan munduari jakin erazteko Mesias Jaungoikoaren semea jao egin zala?

Jesus Jaungoiko zalako eskeñi zioten efegeak kedatza edo *inzienzoa*. *Deum fatentur munere*.

Entzun Jesus bataiatzekoan odei artetik atera zan otsa: *Au da nere seme kutuna entzun Berari*. ¿Zer esan nai ote zigun Betiko Aitak ori esan da? Jesus ura, bere semea Jaungoiko zala besterik ez.

V

Ez da munduan beste gauzaz jardukitzen munduko artu-emanetako ta diruaren gora-berako gauzaz baizik; mundukoak gisa ortako arazoetan itoak dabilta ta.

Ea Jesus ona mundutafa ala zerutafa ote zan ikas-teko ta jakiteko oartu bere esanak; ¿noiz mintzatzen ote zan munduko gauzaz? Beñere; munduko arazoak eta ajola gutxi ematen zioten eta.

¿Zertaz aritzen zan bada? ¿Zertaz itz egiten zuen? ¿Zer erakusten zuen? Zerubidea; ta zeruko gauzak; beraz ¿etzala Jesus Jaungoikoa? ¡Izan gabe!!

Irakufi, kristauak, irakufi beti Ebanjelioa; ta liburu deunak; eta bertan ikusiko dituzute Jaunak sendatu

izan zituen itxuak, efenak, sofak, elbafituak eta mutuak; eta oiek ezagutu ondoan aoa zabalik geldituko zerate; ta ¿zer esan ilak pixtu ta ikusi ondoan?

¿Zertarako gogora ekañi basamortuan zegoela egin izan zituen gauza miragafiak?

Ortxen daude deabruak ere deadarka esaten *Jesus Jaungoikoa zala*.

Eta ¿gogoratuko al dizkizutet Jesus onaren eriotzan gertatutako gauza miragafiak?

¿Eta uste al dezute ez balitz gure Jauna Jaungoiko izan irikiko zizkigula zeruko ateak?

Maite zagun bai gure Jauna; guretzako beti ona izan da ta.

Ala izan bedi



PENTEKOSTE ONDOKO EMEZORTZIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM XVIII POST PENTEC

I

Mundua nolakoa ote dan ez dakienen bat gure artean balego esango nioke nik: Irakufi gaurko Ebanjelioa; ta ikusiko dezu ez dala mundua marmar utsa baizik.

Jesus ain ona ta otzana izan eta—ainbeste on munduan egin da—etsai asko irabazi izan zituen; eta sendatu zituen eriak, eta bere bidez argia ikusi zuten itxurak, eta garbi garbi elufa baño garbiago gelditutako lehenardunak, eta ilen artetik pixtutako ilak gorensten zioten bitartean, bazeuden ere Jaunaz maisiatu ta gaizki esan egiten zutenak.

¿Egiten zituela Jaunak gauza miragafiak? Antxen zeuden juduak esaten Belzebuk laguntzen ziolako egiten zituela.

Gaur esaten zaigu Jaunak bein elbafitu bat sendatu ta barkatu ondoan etxera bidali zuelako juduak *biraulari* deitu ziotela.

Ez afitu ofegatik; n. a. m.; bada etsaien bat bade-gu-gauza afigafiak guk egin afen—beti gutaz gaizki esango du; gauza guziak alde txarrera botatzen dituela.

Gaur *birauaz* itz egingo dizutet.

II

Blasphemat; esan izaten zuten Jesus onaz juduak. Ori esatea bai dala befiz birau ikaragafia!! Ez dezake

Jaunaz iñork ori esan deabruak baizik; eta—birauak esan da—¿zertarako esan gañera Jaunari iraindu egiten zaiola?

Pekatu guziak aundiak dira; Jaunaren aurka (edo kontra) koak dira ta. Ez dezake beraz iñork neurtu ta adierazi birau zikiñaren zenbaterañokotasuna; neufi gabeko nazkagafitasuna bai dauka.

Inpernuan esaten dira pekatuak aundienak; eta deabruak dira esaleak; birauka ari bai dira beti; beraz *mekaka ta* ari diranak deabru zital—madarikatu biurtzen dira.

¡¡Eta muunduan Jaunaren seme batek deabruantzean itz egitea, *orixen* bai dala gauza negargafia!!

Judu-iritzian ere dirudienez biraua izango zan pekatuak aundiena; ta Jaungoiko ta gure begietan ere era berakoa da: aundia, nazkagafia, gofotogafia, ta lafia; zuzen-zuzen Jaunaren *kontra* dioa ta.

N. a. m. Biraua da deabruak asmatu izan duen pekatuak nazkagafiena; ta birauengatik datozkigu munduan dakuskigun kalte, eurite, gosete, gudate eriotza eta ondamen guziak.

III

Beti gorensten dio gure biotzak maite dionari; ta norbaitek guk maite diogunaz gaizki esan ezkeroz antxen gaude gu asedeka *zaude ixilik* esaten; *nik ofi asko maite diot eta*.

Ofela adierazten da egiazko maitetasuna. Guk norbaiti biotz-biotzez maitatzekotan Jaunari bakafik n. a. m; gure aita ta egile maitegafia zaigu ta.

Ez degu gure gurasoaz beñere gaizki esaten; eta norbaitek gure guraso maitegafiaz gaizki esango baluke ¡¡jene!! ¡¡ja zer masaleko ta belafiondokoak eraman-

go lituzkean!! ¡¡gurasoai egindako iraiña (injuria) semeai egiña bezelakoa bai da.

¡¡Arira bai! Gofotatu egiten diogunari kalte aundiak opa dizkiogu; oietaz gaizki esaten degunean bezela orduan pekatu egiten degula; ta gofotatu beaŕean *maite bear genduenaz gaizki esaten badegu* befiz gaizkiago egiten degu; ta bere buruz *mekaka* ta asiko bagiña orduan pekatu lafiagoa izango litzake; ta edozeiñek esan zezakean orduan ustel-ustel zegoela gure biotza.

Baño esker—mesede—ontarte aundiak egiten dizkigunaz gaizki esan ondoan *mekaka* birauka asi ezkeror ez ordea gauza aundiagatik txikiagatik baizik esan n. a. m. orduan ¿ez al litzake ori pekaturik nazkagafiene-takoa izango?

Begira ta oartu zein dan Jaungoikoa. Berak zaitzen gaitu, eguneroko janaria ematen digula; bizi bagera Berak iraun-erazten gaitu, egunero guri laguntzera dator-kigula. Ain ona izan da, ta ori guzia jakin da ¿zer esan ote Jaunaren aurka birauka asten diranaz?

Biotz gogoŕa, dolofa, gaiztoa, txafa, ustela ta nazkagafia daukate kristau biraulari guziak. Baño ¿*Kristau biraularia* esan al det? ¿Nola izan ote diteke ordea kristaua ta biraularia batean izatea?

Gurasoak maitegafiak badira maitegafiagoa da gure Jaungoikoa; zuek bada ofelako birau aundiak entzun da ¿zer egiten dezute? ¿Zein da zuen artean Jaunaren alde orduan jartzen dana? ¿Zenbat dira befiz—Jaunaren aldez atera beaŕean—ixildu egiten diranak? ¡¡Au lotsa! ¿Eta agintariak befiz zer dagite? ¿Ez ote dago legedian biraularia ixil erazteko *isunik* (multa)?

¿Eta gurasoak zer dagite bere semeak biraulari dirala jakin eta? Eta ¿beren menpekoak biraulari amofor-

tuak dirala dakiten nagusiak oraindikan ere etxean edukiko al dituzte onelako giza txar ustelak?

IV

N. a. m. Beste pekatuak aundiak izanik ere—askotan galdu egiten dute beren lafitasuna; ez du ordea birauak beñere bere nazkagaritasunik galtzen; beti pekatu aundia da ta.

¡¡Zein negargariak diran edozein gauzagatik birauka asten diranak!! Pekataria pekatu lafi batetik bakafik inpernuko su ikaragarrian erortzen bada, esan *birauak* milaka esaten dituztenak zer nolakoa inpernua izango ote duten?

Birauak oituraz eta afontean eta zer esaten ote duten jakin gabe esaten dituztela aitzakiz diotenak ez dute afaizoik; eta pekatu ori oiturazkoa bada ere—nai ta naiez kendu egin bear dute.

V

¡¡Gaurko legeak antziñeko erara zeatu (kastigatu) ko balituke biraulari guziak!!

Franziko Luis efegek erabaki, ta agindu omen zuen biraulariari *mingaña kentzeko; ala burni gori-goriz zulatzeko; mingaña Jauna goresteke zegoela* ta.

▲ Mahometaren legeak ere agintzen omen zuen biraulariak erdibitzeko ala bifintzeko.

Gaurko legeak ofelakoren bat aginduko balu ez legoke noski ainbeste biraulari.

Befiz esan nai det, gure artean ainbeste biraulari badago, gure efuz dala; guk nai degulako; ta guziak aundiak eta txikiak, aberatsak eta beartsuak, gizonezkoak eta emakumezkoak geran baño kristau sutsuagokak eta obeak bagaña ez legoke ez munduan ainbeste biraularirik. ¿Baño zeñen artean ote nago? ¿Siñisgabien artean edo? ¿Ez ote nago Euskal-efian? Eta ¿esan bear al diot euskaldunari ere ez biraurik esateko? Lotsatu egiten naiz; eta lotsatu bear ziñateke; bada ez omen dago Euskal-efia baño efi garbiagorik.

¡¡Gezufa!! Ienago izango zan ori; ¿orain befiz? baztertu ta dago gure izkuntza; ta ugari dira *mekaka* ari diran euskaldunak; oraingo Euskal-efia beste edozein efi bezin nazkagaria da; oraingo Euskal-efia birau efi da ta. ¿Zergatik ote? Erdal zaletu, ta geiegi gañera erdal zaletu egin dalako. Ez naiz erderaren etsaia; ¿nola izan baldin badakit zenbat eta izkuntza geiago jakin obe dala?

Ez da ori esan nai detana; auxen baizik esan nai ditutet: euskera maitatzeko, euskera gordetzeko, euskeraz itz egiteko; ta birau zikiñak gugandik alde-erazteko; ta ortarako gorde euskalduntasuna, gure oitura onak eta gure izakera.

Era ontan gu Euskal-efiarentzako izango gera; Euskal-efia befiz Jaungoikoarentzako.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE ONDOKO EMERETZIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM XIX POST PENT.

I

Ona emen nik mundukoai dietena: «Oso txoroak zerate: bada Jauna zuek zerurara eraman naian dabilen bitartean, ez dezute zuek juan nai.

Or, kafikaz kafika, etxez-etxe, mendiz-mendi dabil-tza Jaunaren *misiolariak* eta, zuel zeruko zoriona es-keintzen; zuek befiz ez diezute jaramonik egiten; ez diezute entzuten, ez dezute zorientasunik nai.

Begira gero Jaunari entzuten etzaionean asefe bi-zian jartzen dala; oientzako zeruan prestatuak dituen alkiak bestientzako gordetzen dituela. Ez diteke geroz-tikan Jaunakin nafikan, txantxetan eta befiketari ibili.

¿Badirala Zeruko bidean eta aitzaki maitzaki dabil-tzanak? Ofela ez ibiltzeko ona gaur adierazi nai dizute-dana: *munduko gauzen nolakotasuna.*

II

Gure begiak gorontz begiratu beafean, beirontz begiratzen dute; ez du gure biotzak ofegatik (dirudienez beintzat) zeruko gauzen ajola aundirik; eta ez bai ditugu guk bear bezela zeruko gauzak begiratzen ofa zergati-kan dagon gure biotza mundukerietan ito ta.

¿Ainbestekoak ote dira munduko gauzak? Ikusi zagan pixka batean bada ere.

Ez dago beartsuentzako dirua añakorik; eri dagonak osasuna nai du; mofoiak nagusitasuna, bere buruaren jabe ez danak befiz azkatasuna. Uste degu orok ez deguna izan ezkeror zorionekoak izango gifiakela.

Uste du eriak sendatu ezkeror zorionekoa izango dala; ta beartsuak esaten du-diru apur bat eginda-lasai bizi ditekela; badakigu ordea ez dala onelakorik gertatzen; bada gauza bat eduki ondoan beste baten bila gabiltza; ez du geroztik gure biotza ezeñk asebetetzen; beraz esan bearko munduko gauza guziak gezur utsak dirala, ta beti iruzur egiten digitela.

Dirua da mundutafak geiago maite dutena; ta gazteak diru pixka bat egite afen irabazira dijoaz, lanean lefenak dagizkitela, ta atsedenek artu gabe beti beti diru egiten ari dirala.

¿Zeri begiratzen ote diote gurasoak geiago ea nondik atera ote dezaketen irabazi aundiagoari ez bada?

¿Zer oartzen ote dute eskongaiak geiago ea bere lagun izan bear duenak dirua bai ote daukan edo?

Begira dendak; oartu sal erosleak; ikusi diru geiago izateko nonai egiten diran elkartasunari, entzun gizonen arteko elkar izketak; eta ikusi ta ikasiko ez bazenduteke mundutafen gogoa, ta asmoa diru asko egitea dala, itxuak baño itxuago zinateke noski.

N. a m. Diru egite ori deritzait gauza txikia ta afeta gutxikoa. ¿Ea zergatik? Gure biotza ain txikia izanik, munduko diru guziak bete ezin dutelako.

¿Zein ote Salomon baño aberatsagorik? Txit aberats egongo zan apike, Sabako eñegiña Salomon ikusteagatik bere eñiak eta utzi bai zituen. Salomonen jakituriaz, aberastasunaz, edertasunaz eñegetasunaz eta

esan diteken guzia Salomon nolakoa ote zanaren ondoan ez omen da ezer; eta gauza aundiak, edefak, eta afigafiak esaten baditugu ere, ez omen ditzakete adierazi Salomonen aunditasuna ta. Lasai biziko zan noski; nai zuen guzi guzia bere eskuetan zeukala ta. ¿Uste al dezute zorioneko zanik? ¡¡Bai zera!! Izan balitz ez lituke esan aukeratu izango: *Munduko gauza guziak uskeriak eta arimaren oñazeak dira.*

Orduan bada ¿zer da mundua? Ezer-eza baizik ezer ez; ¿ta edertasuna? ori bera. ¿Aberatasuna? Beste aintbeste. Eta ¿aunditasuna? Baita ere. Geroztik *mundu guzia ke utsa da.*

Oso txoroak izan ziran, Jaunak delitu ta juan nai ez tzelá erantzun zioten gaurko Ebanjelioko gizon aiek. Ez aztu, n. a. m. zeru ta munduaren artean alde aundia dagonik. Bazekiten deun guziak nolakoa zan mundua; etzuten ofegatik munduakin ezer nai izan.

Zein ederki esan izan zion bere aitari Alemaniako agintari aundi baten semeak onela esan izan ziola: *Banoa aila zerua irabaztera.*

—¿Nola ote?

—Mundua utzi ta.

—¿Mundua utzi nai al dek?

—Bai; Jauna: mundua utzi ezkeru, Jaunak zerua emango dit; eta zerua irabazteko mundua utzi egin nai det.

III

Ez dute munduko gauzak asko irauten. Paulo deunak munduari *Figura* deitzen dionean, egi aundia dio; mundua aundia iruditu afen oso txikia bai da. Edefa da la esaten badute ere, oso itxusia da; aundi-eder aberats antza badauka ere ez da *Figura* baizik, *irudimen utsa.*

¿Non ote daude aspaldi artako efege agintari jakintsu ta izen aundiko gizon afigafi aiek?

Batzuek *gazte*; ta besteak *zar* il egin ziran guziak.

Zesar agintari azkara zala ta; Alejandro befiz gudara afigafia, Sanson indar aundikoa, Absalon *kopura* (figura) edefeko, ta Salomon oso jakintsua ta txit aberatsa ta ori guzia aspalditik ikasi degu; baita ere ez daukagu aztuta guziak il egin zirala.

Eta orain ¿zein ote da aietaz oroitzen dana? Azkarak, jakintsuak indartsuak, aberatsak edefak, aundiak maitegafiak izan zirala ¿ta zer Jaunak zeruan artu izan ez baditu?

Bein agindu omen zion Jaunak Isaias igarleari onela esateko: *Ez da aragi guzia ongafia besterik, munduko aunditasuna befiz loretxoa bezelakoa.*

Deadar egiteko agindu zionean adierazi izan nai zion egi ori mundutar guziak entzun bear zuten egi aundia zala ta *mundua osoak jakin zezan deadarka esateko*; ta deadarka esan zuen Isaiasek gogoan beti eduki bear degun egi aundi ori:

Betoz orain munduko aundi naiak, zekenak, zikoi-tzak, afoak eta; betoz lizunak, zitalak, dolorak; eta esan bezate: mundua ofelakoa izanik ¿zertarako begiratu ote ainbeste munduko gauzak? Munduko gauzak lorea bezin ariñ zimeldu egiten badira, ¿zeruko gauzak zergatik maite izan ez?

Mundua ta bere gauzak igeskofoak dira; ¿zer esan bada gaurko Ebanjelioak zerura juateko *aitzaki matzaki* dabiltzala esaten dizkigun gizonaz? Oiekin asefe dago launa.

IV

Badirudite munduko gauzak guretzako onurakofoak dirala; ez diete ordea gizon zintzoak jaramonik egiten.

Ezer gabe etofi giñan mundura: ta ezer gabe aterako gera, aberatsak diru guzia munduan utziko dute; jakintsuak jakituria; indartsuak indaía; norberak daukan guzia; ta zer edo zer eramatekotan bakafik eramango ditugu emen egiñitako gauza onak ala txafak.

Aberatsak—aberats-aberatsak badira ere-emen utzi bearko guzia; ta jauregiak eta gauza eder asko eduki afen—nai ta naiez emen ere utzi bear; ofegatik beartsuak eta geienetan aberatsak baño patxada aundiagoakin iltzen omen dira; bada zerbait utzitzekotan ¿zer utziko ote dute beartsu gixaxoak nai gabea negafa ta beafa ez bada?

Diru bidez egindako pekatuak kezka aundia eman-go diete aberatsai; ta munduko artu-emanetan itoak bizi izan diranak befiz gogoratuko dituzte dirua egiteko esandako gezufak, eta egiñitako lapurketak.

Obe zaigu emen Jaunaren deia entzun eta zerura jozuzen, azken-orduan estu ta lafi ibili baño.

Gaurko Ebanjeliaak esaten dizkigun gizonakin bezela Jauna gurekin asefatu ez dedin izan gaitezen bere esanekoak; eta Jaunak lagunduko digu.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE-ONDOKO OGEIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM. XX POST PENTEC.

I

Gaur dakusgu gure Jauna sukafak edo berotasunak jo zuen gazte baten aitakin izketan. Aita gixaxoak esango zion nunbait bere semea sendatzeko; Jaun altsua zala bazekiela ta. ¡¡Bai!! Jauna oso ona zan; eta entzun zion; bada esanaz *sendatu egin da zure semea*, sukafak bat-batean utzi omen zion gazteari.

Bere senideak eta ori jakin zutenean ezagutu omen zuten Jaunaren eskubide aundia; ta siñiztu omen zuten Jesus onaz esaten zan guzia. Zorionekoak bertako nagusiak, seme-alabak eta onak diralako menpekoak ere on biurtzen diran etxeak.

Gaurko Ebanjelioak narama munduko eritasunaz eta naigabeaz itz egitera:

II

Ez dago naigaberik ez daukan etxerik; etxe aundi? eder eta aberatsenetan ere ez dira ez sartu gabe geldituko eritasuna ta naigabea ta eriotza; ez bai diote oiek ifiori barkatzen. Gaur emen sartu dirala ta, ofelako gazte mardul-edefa ařapatu egin dutela ta, biyar befiz

beste etxe artara juan bear dutela, ta adiñeko lorean zegoena afapatu bear zutela ta, azkenean afapatu egin dutela ta, era ontako befiak noiznai entzuten ditugu.

Gaurko Ebanjelioan ikusi diteke baita ere gazteak eritu egiten dirala; bada etzan dirudienez Regulo aŕen semea adiñ aundikoa ta urtietan aureratua.

Semea gaizki xamar zeukala ta, *Regulok* jo egin zuen Jaunagana; guk ere orobat munduko sendakaiak eta ez dezaketela ezer geiago ikusten degunean, beste ainbeste egin bear degu: *jo Jaunagana*.

Eri guziak sendatuko balira ez litzake iñor ilko; bañio eriotza gure lenbiziko gurasoen pekatuak ekafitako gauza bai da noiz edo noiz etofiko zaigu guri ere; ta orduan makurtu bearko gure burua.

Ona emen gaizki gaudenean nola jo bear degun Jaunagana.

II

Gauzak Jaunak nai duen gisara gertatzen zaizkigu; poz-atsegiñak ere Jaunak bidaltzen dizkigu; ta gauzarenbat ez balizaiguke guk nai bezin ederki aterako, izango litzake Jaunak afela nai ez duelako.

¿Osasun ona daukagula? Jaunari eskerak eman bear dizkiogu. ¿Eri gaudela? Egin beste ainbeste ta aufera; Jaunak eritasuna gure onerako bidaltzen digu ta. Agirian dago beraz, Jaunak ofela egin da on bat egin nai digula.

Bagenekiri eritasunak eta ondo eramaten, galdu egin bearean, beste mundurako irabazi aundiak izango giñituke apike.

¿Nor ez ote daki garbitokiko suak arimaren zetakak (mantxak) kentzen dituen eraz naigabeak eta eritasunak

ere kendu egiten digutela? Eri gaudenean bada gaurko Ebanjelioak esaten digun aitaren antzera jo zangun beti Jaunaga, esanaz: «Jauna; zuregatik eramango det eraman onean nere onerako bidali didazun miñ, eritasun, eta naigabe au.

III

Baita ere jo bear degu Jaunagana beste era batera. Askotan arkitzen omen dira sendakiñak onela esaten dutela: «Badaukate gauza-guziak bere neufia; guk egiñalak egin izan ditugu; baño ez dezakegu ezer» Onekin esan nai dute beste munduko gauzak *prestatzeko*; elizakoak artzeko, azken ordua badatořela ta.

¡¡Arira ba!! Badakigu noiz edo noiz atera bear gerala mundu ontatik; egunen bat azkena izango zaigula ta; au guzia jakin da, eriari esan bear zaionean gaizki dagola ta elizakoak artu bear dituela ¿zergatik estutu ta lafitu orduan?

Asko dira jakin gabe iltzen diranak; eta badakigu oiek geienak *elizakoak artu gabe* iltzen dirala: norbaitek esan izan balie gaizki zeudela ta *elizakoak artzeko*, ez lirake ez elizakorik gabe il izango; baño... norbaiten efuz txakur antzera il izan da: ¿Eta aien arima befiz? Inpernuan badago ¿zeñen efuz izango ote da?

Baño ¿zeñiek esan ordea eriari il egin bear duela ta elizakoak artzeko? ¿Ez al litzake gixaxoa entzun ala ilko? ¡¡Bai!! esaten etzaiolako, il egiten da gixaxoa kristau ez balitz bezela.

N. a. m: Ez da iñor elizakoak artu dituelako iltzen; asko bai dira elizakoak artu ta sendatu egiten diranak.

Sendakiñak dionean eria gaizki dagola *elizakoak* eman bear zaizkio; ta orduan guziak—batez ere etxe-

koak—Jaunagana jo bear dute, elizakoak artu ta iltzen diranak zerura dijoaz eta.

¡¡Zein poz aundia artzen duten etxeakoak onela esaten dutenean: *Guk gixaxoari al aiña zaindu gifiogun; ala ere il egin zitzaigun gixaxoa; baño elizakoak ere oso ederki artu izan zituen*. Auxen izaten da etxeakoak izaten duten pozik aundiena.

V

Regulo afek onela esan omen zion Jaunari: *Nere semea il baño lenago atoz nerekin etxera*.

Munduan ere esango balitzaioke Jaunari onela: «Jauna: nere semea, nere alaba, nere aita, nere ama, anaia, afeba, senafa, emaztea, aitona, amona il baño lenago betor etxera» ofela esango balitzaioke ez lirake ainbeste *elizakoak artu gabe* ilko.

Eriari egitan, kristauki, ta biotz-biotzez maite diotzak esaten dio: *artu elizakoak*; eta Jaunari befiz esaten diote: *Betor Jauna nere etxera*, ta eri gixaxoa artara jartzen da; ta Jauna artu egiten du; ta—gorputza sendatu egiten ez bada ere—arima sendatzen da beti; pozaren pozez gelditzen dala, ta il ondoan zerura dijoala.

¿Baño nork deitu apaiza? ¿Zertarako? ¿Ez ote da eria—apaiza ikusi ta—kezkaz eta bildurez beteko? ¿Apaiza deitzea ez al da il ezkilak jotzea bezelaxen? ¿nork eman eriari *labanakada* ori?

▸ Ez dira kristauak onela mintzatzen diranak; ez bai dute egiazko kristauak onela baizik esaten: *Jauna, etxe ontara baldin badator etxekoai ta eriari on aundia ekafiko digu Beofek*.

Zoritzafez asko dira azkeneko orduan Jaunari *Be-*

tor nere etxera esan nai ez diotenak; eta ez dira gutxi ere, etxekoen efuz *elizakoak* artu gabe iltzen diranak.

N. a. m. Deitu Jaunari eriotzako orduan; deitu apaiza jaunari; jaun oiek eriai beti on aundia dakarkiete ta.

Ikaragafia da azken-ordua; ta ordurako egiten dan guzia-asko izan afen-gutxi da; ez bai da orduko beñere naiko egiten.

Zein ederki esan izan zion Regulok Jaunari: *Nere semea il baño lenago betor nere etxera*. Era berean esaten diote etxekoen bat il baño lenago eriarentzat Jauna etxera ekar erazi nai duten kristau onak.

Eria il da gero, Jaungoikoa ta apaiza il-etxera badijoaz ¿zer irabazten du ilak? Ez dira *elizakoak* ilentzako; bizientzako baizik. Askotan deitzen zaio apaiz jaunari eria il egon eta. ¡¡Gixaxoak!!

Bai; alaxen da: neufigabekoa da Jaunaren efukitasuna; baño Jaunaren efukitasuna pekatari damu-damuentzako da.

¿Elizakoak indar aundia daukatela? Bai; baño bere garaietan bizirik artzekotan. Ez da ordea elizakoak artzeko garaia zer artzen ote dan jakiten ez danean; ez da ere sukafak eri gaixoa txorabiatu ta daukanean; asko dira azken orduan erdi txorabiatu ta zeudela elizakoak artu zituztenak; eta gero sendatu ziranean esan izan zigutenak: *ez det gogoan elizakoak artu nituenik ere*.

Orain bada esaten badet azken ordurako utzi egiten diran elizakoak ez dirala ondo artzen ¿zer esango dezute?

Ez utzi biyarko gaur egin ditekena; eritu ezkeroko erne ibili; ta elizakoak artzekoan artu beti alik ongiena; onela egin da, kristau on antzera bizi ta il egingo gera ta.

Ala izan bedi.

PENTEKOSTE-ONDOKO OGGITABATGAREN IGANDEA

2.^a HOMILIA IN DOM XXI POST PENTEC

I

Goiko Jaun ona da gaur Ebanjelioak esaten digun mofoaiari barkatu egin diona. Mofoi afek-Jaunaren ondotik alde egin orduko-arkitu omen zuen berari zor zion lagun bat; eta esan omen zion *ordaintzeko berealaxen zor ziona*; ta erantzun omen zion gixaxoak *ezin zuala orduan; al zuenean ordainduko ziola; ta bitartean itxoiteko*. Etzion ordea biotz gogor afek barkatu nai; ta zor guzia ordaindu bitartean giltzapean sartu omen zion gixaxoari.

Jaunak jakin omen zuen guzia; ta deituaz gizatxar ari, esan omen zion: *Txatxoa; nik zuri barkatu zure zofak; ¿zuk befiz zure zordunari barkatu nai ez?*

Deitu omen zituen boferoak eta, gizatxar ura beren menpe ikaragarian jartzen zuela.

Ona gero Ebanjelioan Jaunak esaten dizkizun azkeneko itzak: *Ez badiezute biotz-biotzez zuen anaiak barkatzen, ez dizute Betiko Aitak zuei ere barkatuko*.

N. a. m. Badakigu orain gure Jaunakin ondo egote-ko ta adizkide bizitzeko egin bear deguna.

II

Gu gera burua makurtu ta, barkazio eske Jaunari dijoakion mofoia; aitortzera goazenero Jaunak beti bar-

katu egiten digula; ta ez baligu Jaunak ainbestetan barkatu izan, onenean onezkero inpernuko suan eretzen geundeke nunbait.

Jaunak beti barkatu egiten badigu ere-barkatzen digu—guk ere zordunai barkatzekotan; bada mofoi dolor afek bere zordunari barkatu nai etziolalako asko asefatu omen zan Jaun efukitsua; gurekin ere—ez badiegu zordunai barkatzen—era berean asefatu egingo dala. *Barkatu ta barkatuko zaizute.*

Uste izan zagun pixka batean Jaun efukitsuaren seme maitea zala mofoi zital ari zor zion ura; ta afek barkatu nai etziona; ta esan: Jaunak—berari barkatu ta-ikusiko balu etziola berak bere semeari barkatu nai zñola jafiko ote litzake Jaun ura? Asefe-asefe noski.

Ez digu ez Ebanjelioak esaten zofaren barkazio eskale ura Jaun onaren semea zanik; baño badakigu kristauak gure lagun urkoa dala beti barkatu egiten digun Jaunaren semea.

Esan ba: Jauna beti guri barkatzen egon; eta z¿guk bere seme kutuna dan lagun urkoari barkatu nai ez?

Ez aztu gero Jaunak eta agintariak beren semeai egindakoa berai egiña balego bezela artu egiten dutenik; ta guk ez badiogu barkatzen Jaunaren semea dan lagun urkoari, ez da ez digu Jaunak guri ere barkatu naiko.

Au egia dala jakin dezazuten gogoratu nai dizkizutet orain azkeneko egunean Jaunak esango dituen itzak. Bere eskubi aldean daudenai esango omen die:

Atozte; nere Aitak maite dituenak zerate ta; atozte: ta sartu zeruan; goseak nengoen, eta jaten eman zifidaten; egafi nintzan; eta edaten eman zifidaten.

Orduan aiek onela esango omen diote: *Baño Jauna: zzer dio? z¿Guk zuri jaten eta edaten eman? zNoiz ote?*

Befiz esango omen die Jaunak: *Bai; zuen lagun urkoakin egindako guzia Nerekin egiña balego bezela artu izan nuen; eta atozte orain Nerekin batean.*

¡¡Ura kristauak orduan artuko duten poza!! ¿Biotz txafeakoak beriz? Beartsu bat ikusi orduko beragandik alde egiten zutenak, eta etsaien bat izan, eta barkatu nai izan etziotenak ¿zer entzungo ote dute orduan?

Munduko jaietako pafa-pafa dirua botatzen bazekitenak; baño Jaungoikoaren izenekoai laguntzen etzekitenak, eta gauza onetarako zufak eta eutsiak ziranak ¿nola ikaratuko ote dira Jaunari: *Nescio vos: Etxaitzuetet ezagutzen entzun da? ¡¡Zuen lagun urkoa nere seme maitea izan eta zuek maite izan ez!! ¡¡Ni beti zuei barkatzen egon; eta zuek barkatu nai ez!! Ez da zeruan Kainik sartuko. Nescio vos. Badakizute norako zera-ten; ¡¡surako!!*

Oso itz edefak dira auek: *Barkatu ta barkatuko zaizute.*

Jaunak bada gurekin edukiko du guk bestiakin izandako neufia: *Cum sancto sanctus eris; cum perverso perverteris;* Jauna onakin ona izango da; gaiztoakin befiz gaiztoa.

Oso txoro-ergelak dira beraz lagun urkoari, etsaia bada, ere barkatu nai ez diotenak.

Norbaitek esan dezake orain:

III

Oso gaitza da, oso zaila etsaiari barkatzea: oso gogor zaigu; ta ezin diteke ori. Nik erantzungo diot one-la: ¿*Ez al dakizu Jaunak zu pekatari izan da, barkatzen dizula? Zuk bada barkatzekotan barkatu zazu Jaungoi-*

koagatik; Juugoikoari begira; ta Jaunak zuri barkatzen dizulako bakafik; eta ez dezu onela egin da, esango barkazioa malda gora zaizunik. Eta malda gora bazai-zu ere, gogoratu *lana astunago, ta irabazi geiagoko* izaten dala.

Gai au azaldu nai dizutet pixka bat geiago.

Lagun urkoa ala etsaiaren iraiñak oso erax eta txit aisa barkatzen dituenak Jaunaren begietan irabazi aundiak izango ditu bai; baño ¿zer esan ote barkatzeko ta iraiñak aztutzeko lan gaitzak eta gogofak egin bear dituenaz?

Onek zeruan beste afeak baño irabazi aundiagoa izango duela deritzait; bada *lana astunagoa, gaitzagoa gogofagoa* izan zaio; beraz *irabazi geiago*.

Badakite kristau ez diranak beren kideak eta adizki deak maitatzen eta barkatzen; kristauak befiz geiago egin bear degu: ¿zer ba? Etsaiari barkatu; baita kalte dagigunari ere; ¿zergatik onela? Jaunak Ebanjelioan ori agintzen digulako bakafik.

Entzun gai ontaz Agustin deunak diona: *Jauna; zorionekoak maite zaitutenak; baita zuregatik ere lagunak maite dituztenak; eta askoz geiago zorionekoak zuk agintzen dezulako etsaiak barkatzen dietenak.*

Oso zofotza da bai agindu ori; baño etsaia maitatzeko esaten zaigunean, eta barkatzeko agindu ta esan da—agindu nai zaigu *ez berai kalterik opa izateko; ta ez asperkunde (benganzarik) artzeko.*

Gure buruari ba onela esan bear zaio: *Etsaia beti etsai; badakit ez nauela ofek ikusi nai; ala ere Jaunaren semea dalako; ta Jaunak agintzen didalako ez diot gofotorik izan nai; nere eskuan balego al añako mesede-ontarte egingo nizkioke; bada ni Jaunaren etsaia izan afeen Jaunak mesede aundiak egiten diz-*

kit; eta beraz Jaunari begira ta Jaunagatik barkatuko diot.

Esteban deunak barkatu izan zien arika eman ziotenai; ta lekukoak (martirak) ere ori bera egin zuten; ez uste izan ordea Jaunari begira egin etzutenik; bada munduari begira egin izan bazuten ez degu uste izan bear beren biotzak ori aginduko zietenik.

Jesus ona gurutz-iltzatu ta dago; Aitarik gabe dago-la dirudi; bada *quare me dereliquisti* deadar egin zion bere Betiko Aitari.

Era itun-ikaragafi artan bazegoen ere guri erakuste afen barkazioa dala gauzarik aundiena, edefena ta kristauna ona Betiko Aitari esaten diona: *Barkatu, Jauna, barkatu; ez bai dakite zer dagiten* (egiten duten).

Bukatzeko: Otoi dagigunean ez ditugu munduko guziak aztu bear; eta guzien alde otoi egin bear da, otoi-bero-bero oietan etsaiak ere sartu egiten ditugula; au Jaunarentzako gauza atsegingafia bai da.

Barkatu bada; ta barkatuko zaizute. Munduan izan diran gudate, ta bofoka, ta naste-bofaste guziak gofotoak ekafiak izan dira.

Kendu gofoto-bideak; eta ez degu etsaik izango; ta badegu ere-barkatu; Jaunak ori agintzen digu ta.

Ala izan bedi.



PENTEKOSTES ONDOKO OGEITABIGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM XXII POST PENTEC.

I

Juan omen ziran Jaunagana judu ta Erodestar bazuek leun leunki onela esaten ziotela: *Jauna, Irakasle ona* ta onelako beste txurikeri asko; ta Jaunagana juan izan baziran ere bakar bakafikan juan omen ziran ea zerbaitean afapatzen ote zioten ikusteko,

Eta galdetu omen zioten Jaunari bidenabar edo zearka bezela ea zilegi ote zitzaien juduai *Zesaferi* zerga ordaintzea.

Bazekizkien Jaunak judu aien erabaki ta asmo zitalak; eta erantzun omen zien jakituri aundiz beteak diran itz auekin: *Reddite quæ sunt Cæsaris Cæsari; quæ sunt Dei Deo: Eman Zesaferi ta Jaungoikoari bakotxari berea.*

Zesaf ¡¡Au itza!! Baditugu guk ere guretzako *Zesar* diran agintariak; eta bete bear ditugu beren esanak eta aginduak.

Ez dizutet gaur gai ontaz ezer esan nai. Gaurko itz gaia Judu ta Erodestafak eman bai didate.

II

Oso sogafia da judu ta Erodestar aien biotza; ez ordea maitegafia dalako; gezufezkoa ta nazkagafia dalako baizik:

Bazabiltzate toles gabeko biotz bila, ez juañ jafen!! judu antzekoengana; biotz leial zintzoa opatu ta arkitu beaŕean nazkagaŕi nazkagaŕia arkituko zenduteke ta.

Badakigu guk zu egi esalea ta erakusle ona zerala esan zioten mingaiñ leun aiek; baŕuan ordea etzuten ofelakorik sifiizten; biotzean asmo txafak gordetzen zituzten eta. Onelako galdera egin da jakin nai zuten judu ta Erodestar aiek ea agintarien *kontrakoren* bat esaten ote zuen gure Jaunak. Esaten bazuen «ezetz» antxen zeuden aiek *Zesaren* aŕfean; Jesus ona salatzen agintariari, zergak ez ordaintzeko Jesusek esan zuela ta; «baitetz» zergak ordaindu bear zirala befiz esan ezkeren esango zieten juduai ta Jesus ura aberkide txafazala; juduak Eŕomatafaŕi ta zizkieten zergak ordaindu bear zirala Jesusek erakusten zuela ta.

Gisa ortakoak dira bi arpegikoak; aŕfetik adiskideak; atzetik befiz etsaiak: esan diteke bi mi edo miñgañekoak eta bi biotzekoak dirala. Oiek izango dituzte itz leunak; biotza ordea edentsu ta pozoŕi.

Espiritu deunak dio bi arpegiko oiek oso nazkagaŕiak dirala; Bernardo deunak befiz esaten digu ez due-la iñork gofoto aundiagorik *meresi* etsaia adiskide antzean saldu egiten duenak baño.

¿Zein ote da makufago: gaizto utsa, ala gaiztoa izanik on-irudi egiten duena?

Azkeneko au da gaizto-makufena; bada otsoa—beti gaiztoa baldin bada ere—ardi lafuz jantzi ta—ardi bila dijoanean amaika aldiz makufagoa da. Gaurko judu ta Erodestafak ofelakoxeak ziran ba. Aŕfetik: *Jaun-ona; erakusle jakintsua ta*; ¿baño atzetik? ¡¡Ene!! Jaunak gorde gaitzala era artako giza txafetatik.

III

Jauna, irakasle ona ta gisa ontako esan eztsuak aiek Jaunari esan zizkiotenean egi utsa esaten zioten bai; ofelakoxea zan eta. Baño gauza bat da *esatea*; bestea befiz esaten dana *somatu* ta *siñistu izatea*.

Askotan gauza bat baruan somatu ta ere—beste bat gelditzen da ixilean baruan; eta orixen da munduan beti ikusten deguna; ofegatik gezur utsa da mundua; ta ofegatik daude munduan ainbeste judu antzeko; ta ¡¡nai ta naiez oien artean bizi bear!!

Jakin nai bazenduteke ea nolakoa ote zan judu biotza, begiratu Judu zital aiek Jesus onarentzako zuten on damu ta ez ikusi nai ta amofo gofoto aundiai; ta biozkeri nazkagafi onek esango dizute oso ustel ustela zala; ez bai zan biotz aietan txorikume gaixorik ikusten; baizik zuge-pozoi ta edentsuak: ta auek ugari ala ere.

Arapatu nai izan zioten judu aiek Jaunari uts eta gaizki esanen batean; ¿baño al izan? ¡¡Bai zera!!

Jauna Jaungoiko zan; etzeraman beraz guk bezela Beragan uts egitea; ofegatik etzezaken Jaunak utsik egin; *dana, dana* bazekien eta.

¡¡Ipokritak!! «*Hipokritæ*» deitu zituen gure Jaunak, beren asmo zitalak bazekizkiela adierazi nai ziela; ta bere burua garbitzeko esan izan zien guziak dakizuten *Reddite quæ sunt Cæsaris Cæsari; et quæ sunt Dei Deo*.

Erodes eroa izan da munduak ikusi izan duen *ipokritarik* aundiena; gogoratu Mago aurfear zegoela egin izan zuen on irudia; *berak ere aur jaió beñari gur egin nai ziola* ta esaten zienean; ta gogoratu ezkerio il erazi izan zituen aurtxoak ere ikusiko dezute juduak ere bere antzekoak zetozela.

¿Eta ezagutu nai al dezute beste *ipokrita bat*? Ez dago ufuti; gertu daukagu; Jaun onaren ondoan badago ere—beragandik oso ufuti dago. Judas zaio; ta norbait gaiztoa, zitala, ta dolofa dala adierazi nai degunean berez datorkio gure mingañari izen txar-au: *Judas*.

Judas deitzen diegu bi arpegiko gizonai; Judas biotz gabeai; Judas saltzaleai; Judas *ipokrita* guziai.

Utikan (gure artean balego) utikan gugandik, guk nai ez baditugu, Jaunak gutxiago nai dituen Judas antzekoak.

IV

Oso gutxi dira *Alejandro aundia* bezelakoak izan diran agintariak; azkafa bezin itxuralari edo *ipokriten* etsaia omen zan; ez omen zuen onelako gizonik aipatu nai ere; baño ura—aundia bazan ere—azkenean gizon itxularien menpean erori omen zan; eta afezkeroztik ezin omen zan ofelako gizon txurikalaririk gabe bizi; ¿nola ote bizi aiek gabe Jupitefen semea zala bigunleunki egunero amaika aldiz esaten bazioten?

Esan leunak atsegin zitzaizkion; oso itxu tu ta bai zegoen; eta itxutu ta gaude gu ere—onak, zintzoak, leialak, maitegafiak, jakintsuak eta gerala entzun da—siñiztu egiten degunean.

Etzan—Sanson itxutu ta zegoela—ezertarako gauza; eta filisteotafak begiak kendu izan zizkiotenean nai zutena egin omen zuten etsaiak berakin.

Txurikalariak ere bere mingañai leunakin itxutu egi-ten gaituzte; beren menpean zorigaiztokoak gelditzen gerala.

¡¡Zein itz eta esan eztsuak juduak eta Erodestafak Jaunari gaurko Ebanjelioan esandakoak!!; baño etzio-

ten afapatu izan Jaunari; ez bai zien Jaunak entzun ere; txurikeri utsak zirala guk baño obekigo bazekien eta.

V

Fill, si te lactaverint peccatores, ne acquiescas ei. Pekatariak txurikalari badatorkizu ez jaramonik egin ez entzun.

Liburu deunak *pekataria* esan da *mundu ustela madarikatua ta Jaunaren etsaia* esan nai du; eta *lactaverint esanaz «txurikatu egiten badizute»* esan onek ea zer esan nai ote digun?

Badakigu arimak eta galtzeko ez dagola dirua bezelakorik; diruzko palaguakin asl.o galtzen bai dira; beraz mundua ta pekatariak diru bidez eta palaguz nola edo ala gu galtzera datozkigunean gogoratu orduan orain esango dizutedan gertaera gogoangafi au.

Aitarik gabe ta gelditu omen zan Napoleesen neskatx gazte bat; lagun onena munduan bere ama beartsu beartsu zeukala. Aita bizi zala aisa xamar bizi baziran, aita il ezkeroztik beartasun aundian bizi bear izan omen zuten; batez ere aitak jokalaria pufukatu izan da ondasun guziak galdu izan zituenezkero.

Aingerutxo bat omen zirudien neska x lirain afek; etsai asko beraz izan bear; eta beartsu bizi afen oso aberats zegoen; Jaunaren bildurtasunean bizi zan eta.

Ain beartsu bizi zirala ta, amak esan omen zizkion neskatx garbi afek entzun ere nai izan etzituen asmo txar batzuek; alabak artara baño lenago il nai zuela; ta asmo aiek amari burutik kendu bear ziozkala ta, esaten omen zion amari Jaunagan uste izateko; Jauna oso ona zala ta, Berak lagunduko ziela.

Saldu itzagun. ama, esan omen zion, etxeko tres-

na guziak; eta etxeko tresna saldu egin zituzten; bañola ere beti beartsu, beti estu, beti itun.

Etzutela saltzeko beste gauzarik eta moztu omen zuen gazteak bere ile edera; ta *ar beza* esan omen zion amari; ta *saldu beza*; ta *bear bada nere burua eriotzarako emango det*, *Beori bizi dedin*.

Ama gaixoa alabatxoaren ile edera eskuan zeramala atera omen zan karikara, eta erosle baten begira zegoela; neskaxa bitartean otoi ta otoi omen zegoen gurutze baten aurrean.

Ofa nondik arkitu izan zituen amak aundizki edo *prinzipe* batzuek ile eder ura erosi nai zutela; ea ile eder ura ilen bateon batena izan ote zan bildupez ordea.

Esan omen zien amak.

—Obe litzaioke ile onen jabeari ila balego; baita bere ama gaixoari ere; bada ez genduke dagigun ainbat negar egingo.

—¿Zer dala ta?

—Ez da ez jabea il; oraindik bizi bai da.

—¿Non dago ba? esan; jakin nai degu ta.

—Aitarik gabe gelditu zan nere alaba bakara, ni befiz alargun; beraz biek laguntzarik gabe gaude.

Esan zien ama gaixoak gertatu zitzairen guzia; ta aundizki aiek biotz beratxak ziranezkero biotza plamenturik, neskaxa ikusi nai zutela ta ezagutu ondoan eraman omen zuten beren jauregira; ama alabak jauregian alik ederkiena zaintzen zituztela.

Jaunak laguntzen ditu bereak; ifiskoetan badaude ere.

Ikasi Kristauak batez ere gazteak, neskax onen burutik garbitasuna gordetzen; eta munduko palaguari ta esan biguñari ez jaramonik egin.

Ala izan bedi.

DOMINO SANTO EGUNA

2ª HOMILIA IN FESTO OMN. SANCT.

I

Bere eginkizuna da ta, erakusleak beti erakutsi beaf. Jesus ona da gure irakaslea; ta munduko aberastasunari ta *ezer eza* deitzen dienean, munduak «*ezeztz*» esaten badu ere, Jaunari siñistu beaf zaió.

Gaurko Ebanjelioa irakufi ta-ikusi ditezke *zorionaz* esandako gauza aundiak; eta Jaunak gaurko itzaldi marmitsu au mendi batean esan bai zuen, deitzen zaió itzaldi oni *mendiko itzaldia*.

Guziak-antziñ antziñekoetatik asi ta-Jaungoikoa ikusi naián gabilta; alpefikan ordea; ez bai dezakegu munduan gauden bitartean Jaungoikoa ikusi; ala ere ikusi nai bagenduke gaurko Ebanjelioak esaten digu—biotz-garbiak izan eta—ikusiko degula. *Beati mundo corde quoniam ipsi Deum videbunt*. Gauzarik edefena auxen da ba: *Jauna ikustea*.

II

Zorionekoak biotz garbiak; Jauna ikusi egingo dute ta. Beraz badagokigu guri biotz-garbiak izatea. Bafío ea ¿zein ote dan biotz garbia?

Au jakiteko jakin bear da lenago zein ez ote dan; eta auek dira pekatariak; beraz pekatu gabeak biotz garbiak dira. Ofegatikan esaten du liburu deunak:

¿*Quis ascendet in montem Domini, aut quis stabit in loco sancto suo?* ¿*Nor ote da Jaunaren mendira igoko dana?* ta ona omen bereala esaten duena: *Innocens manibus et mundo corde. Esku ta biotz-garbia*; ta egiazki; bada ¿zeñek ez ote daki Jauna garbitasun utsa danik? Beraz Goiko Jaun onakin batean bizitzeko biotz-garbia izan bear; pekaturik gabe bizi bear; Kristauentzako gauzarik beafena orixen dala.

Sagañak, udariak, musikak, aranak eta bakoitxa bere ondotik eldu dan eran—gogorazioak, itzak eta biotzetik (bere ondotik) eldu dira; ta gogorazio, itz eta egite garbikoak diranak biotz garbia azaltzen dute; ofegatik Jauna ikusi egingo dutela.

Badakigu ba orain zein diran biotz garbiak; baita ere ez aztu ez gerala Jaunaren laguntzarik gabe biotz garbiak izango.

Biotz zikin, lizun, ustelak zikinkeria ta ustelkeria dariote; guziaz nazkagafi ta gogaitgafi zaizkigutela; ta ez duela Jaunak gisa ontako gauza ustelik nai jakiteko oartu Noe bizi zala bidali izan zuen mundu osoa itotzeko eurite ikaragafi ura; *Omnis caro corruperat viam suam: mundutar guziak ustel ustelduak zeudela ta.*

Etzuten aiek Jauna ikusi izan; ez da ere ez dute ikusiko biotz ustelak; ustelkeriak kristau arima itxutu egiten bai du.

Gure biotza noizpenka—pekatu egin da—usteldu egiten dala ta, garbitu nai degula ta, oña or garbitzeko Jaunak utzi izan dizkigun gauza edefak: *elizakoak*; eta garbi-garbi—Jauna ikusteko eran—norbaitek iraun nai balu artu beza maiz Jauna; ta garbi iraungo du noski,

Ez aztu gure biotza ezi gabeko aberea baño maku-fagoa danik; eta gorputz grñ zirtzilak eta biozkeriak ezi ta eskuratu ta menperatu nai ditugula ta-ortan ga-

biltzala ta—nai ta naiez ilduratu bearko gure burua; beti ordea: ta—zeruan diran deunen antzera—aspertu gabe gañera.

Bein baño geiagotan entzun izan dezute *Jaunari lili artean bizitzea atsegin-zaiola*: ¡¡Arira bada!! ez galdetu orain ea zein diran *lilioak*; biotz-garbia dirala ez bazenekite, gutxi dakizutela esango nizuteke ta.

¡¡Bai!! ¡¡ez!! onelaxen eta garbi-garbi erantzuten dute gizon zintzoak, eta leialak; eta orixen bera erakutsi izan zigun Jaun onak; ¡¡baietz!! ala «ezetz» garbi esateko agintzen zigula.

¡¡Bai!! ¡¡Ez!! Onela garbi erantzuten dutenak ere biotz-garbia ta toles-gabekoa adierazten digute; ta ez dizutet esan nai Jaunari ere atsegin zaizkiola; bada *jakñen gañean* zaudete, edo ondo baño obeto dakizute etzuela Jaunak gizon itxuralirik iñon ikasi nai.

Beraz ba Jaunari atsegin emateko izan beti biotz garbiak; pekatu bidietatik aldiorq iges egiten degula; ta onela egin ezkeru uste izan gaurko Ebangelioak digun erako zorionekoak izango generala.

¡¡Ura gure poza biotz garbiak izan da, Jaunari emen *serbitu* ondoan zeruan bere edertasuna ikusiko degunean!! *Beati mundo corde quoniam ipsi Deum vide bunt. Zorionekoak biotz garbiak, Jauna ikusi egingo dute ta.*

IV

Eta ¿zer esan beste zoriotasun ontaz? *Zorionekoak paketsuak; Jaunaren «seme» deituak izango bai dira.*

Ez diteke pakarik gabe bizi; beraz paketsuak zorionekoak dira; paketsu biziko dira ta, ¡¡Pakea bai dala gauza edefa!!

Egon gindezke pakean *gure buruakin*; eta *lagun urkoakin*.

Gure buruakin paketsu egon ezkeror zorionekoak gera; bada ¿zeñek ez ote daki pekatu egin da urduri ta keskaz beterik bagaude, pekatu gabe, bizi ta biotza paxada aundian egoten dala?

Gure Jaunak zerutik jetxi ta pakea ekafi zigun; eta begira zer nolako pakea abesti gozo xamufak aingeruak abesten zituztela eskeiñi izan zizkiguten aingeru berak *Gloria in excelsis Deo; et in terra pax hominibus bonae voluntatis*.

Etzan orduraño munduan izan naste bofaste ta amofa baizik; eta Jesus onak mundura etofi ta, kendu egin zituen guziak, gure burua eta lagun urkoakin pakean bizi ezkeror munduan zeruan bezela bizi gindezkelata ta.

Pakea guziaz on bazaigu, baita ere oso ona da lagun artean zabaltzea; bada etzuen Goiko Jaun onak bere bizitza oso osoan ori besterik erakutsi izan; eta bere jaraizaleak ere ortan beti aritu izan zirala ¿nork ez ote-daki?

Jaunak geiago maite izen zuen gauza pakea izan zan; orobat guk ere pakea maite bear beraz; lagun artean ere launaren antzera pakea zabaltzen degula; bada Jaunari maite diotenak baita ere maite bear dituzte Jaunak maitatutako gauza guziak.

Bein batean esan omen zioten Jaunari bere ama ta kanpoan bere zai zeudela; ta onela erantzun omen zien *Nere Aitaren oldea, ta naia dagitenak oiek, oiek dira nere ama ta anaiak; oiek ditut nik nere ama ta anaitzat*.

Gaurko Ebangelioan bada esaten zaigunean: *zorionekoak paketsuak; Jaunaren seme deituak izango dira ta*

Jaunak esan nai digu Bera pake utsa dala; ta *Bera* bezelakoak: otzanak, pake zaleak eta izateko. *Discite a me.*

Erein beti, erein n.a.m. zuen biotzean pakea; ta ez aztu zerua zero baldin bada, dala pake lekua dalako; inpernua befiz inpernu dala bertan pakerik ez dagolako.

V

Zorionekoak dio geroxeago bide onezko neketan da biltzanak; zerua berentzako izango da ta.

Neke, atsekabe ugari dago munduan; ta ez dezake inork ukatu atsekabeak eta Jaunari begira eraman da-zeru bide zaizkigula: ori jakiñik ba-ta gero ta geiago poz-tu izan geitezen-ofatx gure Jaunak gaurko Ebanjelioan esaten diguna: *Gizonak eta zuetaz gaizki esaten dutenean eta baita ere isekatu ta Neregatik (persegitu) egiten zaituztenean eta Neregatik negafezko gauzak eraman beaiean arkitzen zeratenean // zorioneko-ak!! zeruan txit goi, zero erdi-erdian egongo zerate ta.*

Mundua gofoto lekua dala diote; ez bai dago bertan on-damu ta ez ikusi naia besterik.

Bizi geran guziok gauza asko eraman beaiean gaudes; batez ere onak edozeinek baño geiago jasan (supritu) beaiean dira: Jesus onak bezela guzia eraman onean eta ixilik eraman beaf dutela.

Gaiztoak befiz-onak baño geiago diranezkero-onen lepotik iseka-iri-paf badagite ere-ez dute onak ofegatik aspertu beaf, zerugaiak Jesus otzanaren antzekoak izan beaf bai dute.

Pozikan daude onak munduko atsekabeak eta Jaunagatik eraman ezkerok: ta Kristau guziak Jaunaren guda mutilak gera ta, beraz palagu gutxikoak izan beaf;

guda-aldian neke asko izaten dala ta; baño ¿nork adierazi ote guda azkenerako Jaunak prestatu ta dauzkan poz-atsegin gozoak?

Oso pozgafiak dira Jesus onak gauñ erakusten dizkigun gauza guziak: gorde itzagun biotz biotzean; gauzarik edefenak zaizkigu ta.

Umezurtza da Aitarik gabe gelditzen dana; negargafia da beraz. Ez gaude aitarik gabe; Gure Aita beti Ebanjelioan zeru-bidea erakusten dago ta. Jo zagu estu aldi guzietan Beragana; Bera gure gidari izan ezkeru-zuzen zerurontz goaz eta

Ala izan bedi.



PENTEKOSTE ONDOKO OGEGITA IRUGAREN IGANDEA

2. HOMILIN IN DOM XXIII POST PENTEC.

I

Txit eder zaigu Jesus gnre Jaunaren irudia; ta ikusten degunero beti atsegiñez begiratzen diogu.

Neretzako beñepein irudi atsegingarrienak dira Jesus *ongile* agertzen digutenak; eta orduan ikusi orduko esaten diot nere buruari. *Irudi onek esan nai dit Jesus itxas ontzian zegoen batean ekaitzari bare bare egoteko agindu izan zion aldi ura; beste onek Lazaro — gixaxoaren pixkundera; beste onek beñiz elbafituaren sendatze atigafia:* baita ere bein baño geiagotan ikusi izan degu gaurko Ebanjelioak gogora dakarkigun gauza atigafia; bada ¿zeñek ez du ikusi irudian Jauna Jairenean aren alaba pixtutzen ari zala?

Gaurko Ebanjelioa irakurtzen ari nintzala—biotz-biotzean sartu zaizkit itz auek: *Ez dago neskatx au il; lo gozoa-gozoan bai dago.* ¡¡Auek itz xamufak!! bada esan nai digute neskatx ura—ilik bazegoen ere—Jaunak esnatu bezin eraxki pixtu zezakeala, Jaunak Beragan al guzia zeukala ta.

Gure onerako beste erara artu nai det nik esan ori; bada neskatx afeak gogora dakarzkite jaunaren besoetan lo gozoan gelditzen diran ilak; eta oietaz esan diteke: *Ez daude ilak; lo-gozo-gozoan daude ta.*

II

¡¡Bai!! Artu ditezke itz auek kristau eran bizi ondoan kristauki il izan diran kristau onai esanak balira bezelaxen; ez baida auentzako eriotza lo gozoa besterik. Lo gozoan dagona ikusi ta—esaten degu: *¡¡zer lo gozoa daukan oñek!! ¡¡ez dauka nekerik!! ¡¡neke guziak juan izan zaizkio!!* ta auxen bera esan diteke Jaunaren besoetan il diran kristau onaz; eriotza gaiztoentzat txit ikaragafia bada, onentzako lo gozo-gozoa izaten da ta. Guk ba onela esan da—esan nai degu ila—Jaunaren besoetan lotan gelditu bada ere—aingueruen artean esnatzeko dala. Kristau onak eriotzarik onena izaten bai dute.

Aurtxo txikia—amatxoaren magalean dagola—patxada aundian, eta iñoren bildurik gabe dago; amak gorde ta zaindu egiten diola bai daki; ta gero ain xamurki, ta gozo gozo badago aufa, ¿nola egongo ote da kristau ona Jaunaren besoetan? Ez dago aita-amarik Jaungoiko ona bezelakorik; ez dago munduan Jaungoiko bezelako aita amarik ez; eta Jaunak gorde ta zaintzen dituela ondo daude kristau onak Jaunaren zaipean; ilak egon afen zeruan bizi-biziak betirako daude ta. ¡¡Eriotza gozoa kristau onena bakafik!!

Ez da beraz Kristau eriotza eriotza; lo atsegingafia -gozoa-ta pozgafia baizik; bada neke-lan ondoko loa onelakoa izaten da beti: gozoa, atsegingafia ta poza darriona.

Nekazariak, ikazkiñak, itzaiak eta langile guziak-lanak lertu ta etxeratzen diranean etxean prestatutako aparria edo artu ondoan-pozaren pozez lo egitera juaten dira; atsedena artu beaf dutela ta; beraz beti atseginga-

fia izaten da neke-lan ondoko loa; era berakoa da ba-
Jaunaren besoetan il ondoan-Kristauak egiten duten lo-
gozoa ere; bada eriotza atsegingafia izaten dute oiek.

Pekatoriak-lo egin afen-ez dute atsedunik artzen; lo
ikaragafia bai da oien loa; beti kezka betarik eta beti
urduri daudela. ;;Zein ikaragafiak diran beren ametsak;;
Gaitzen bat egin zeta lo gozoa izan? ;;Ez!! ez diteke
ori; ez da ofegatik gaiztoen eriotza lo gozoa; eriotza
ikaragafiena bai ordea; bada onak entzuten badute:
Pretiosa in conspectu Domini mors sanctorum ejus;
gaiztoak befiz entzuten dute: *Mors peccatorum pessi-*
ma.

Ez dute onak eriotzako orduan bildufik; Jaunak be-
soetan artuko dituztela badakite ta. *Beati mortui qui*
in Domino moriuntur ;Gaiztoak befiz?

Biamonereko eguna egun txafa, kaltezkua, iluna ta
neketsua izango zaiola jakin da oiera dijoanak zlo egin
ote dezake pozez eta alai? Ez det uste; biaramonean
urkamendira jua bear dutenak ez ditu lokartzen; ezin
dute; eziñezko gauza zaiete; ;;nai ta ezin!! orixen
bai dala gauza negargafia; kristau txafen eriotza ere
ofelakoa izango da benetan, gau ikaragafia, eriotza ilu-
na ta izugafia; deabruak beren zai daudela badakite ta.

Kristau onen bat ilik ikusten degunero gogora da-
tozkigu gaurko Ebanjelioak dakarzkien Jaunaren itz
auek: *Non est mortua puella; sed dormit.* Ez dago nes-
katxa ilik; lo gozoan dago ta.

N. a. m. kristau bizierari eriotza ona dagokio; baño
Jaunaren laguntzarik gabe ezin eriotza onik izan. Es-
katu ba gau ta egunez kristau onaren eriotza gozoa, Jo-
se deuna bitartekotzat degula.

III

Ez dute kristau onak eriotzako orduan ezefen bildufik; bada pekatuak barkatuak egon ezkeror etzaio Jau-nari bildufik izan bear; beraz azken orduan *eliazakoak* ondo artu ezkeror—bildufik gabe il diteke.

Bidenabar bada ere ešan nai dizutet eriotzako orduan guk egin dezakegun gauzarik edefena. Ona omen; eta gorde gogo gogoan: *Eskeñi ordu ikaragari artan Jau-nari neke miñ-oñaze eritasuna «eriotzakin batean»*; bada deun jakintsu batek diogunez eskeintza ori biotz biotzez egin ezkeror sartu omen diteke edozein zuzen zuzen zeru erdian *Purgatorioa* ikusi gabe; Jaunak ordu artan eskeñitako *miñak eta eriotza purgatoriotzat* artzen dituela ta; geroztik *eriotzaren eskeintza «garbitoki» zaigu*.

Traxi aldean aspaldiko garai artan norbait jaiotzen zala ta, negar egiten omen zuten guziak; eriotzako egu-nean befiz par; ez dakit nik zergatik izango ote zan ori; dana dala, zer dan bizitza ta zer dan eriotza dakigunen-tzako ez da ori afigafia; bada mundu ontara eldu dana negar egitera dator; iltzen dana befiz (ona izan bada) il da atsegin artzeko zerura dijoa.

Gu bada norbait il da zerura dijoakigunean poztu egin bear gera: gu baño obeto egongo dan lekura di-joala ta. Bizitzarik edefena zerukoa bai da.

Bein galdetu omen zioten Ambrosio deunari ea bil-dur ematen ote zion eriotzak; eta erantzun omen zuen jjezetz!!; baño ¿aideak, adiskideak, lagunak, senideak eta utzi beafak ez aldio bildufik ematen? Ez da ere; ta ¿eriotza berak? Gutxiago.

¿Nola ote ba ori? ¿Zergatik ez dezu bildufik?

Eriotza, neke-miñ oñaze guzien azkena dalako. Eriotza guretzako gauzarik edefena ta gozoena dalako.

IV

Gure Jaunak—Lazaro gixaxoaren obitegira zijoa—esan omen zituen itz auek: *Lazarus amicus noster dormit; sed vado; ut a somno excitem eum: Lazaro a-diskidea lotan dago; ta esnatzera nijoakiot*. Au bera esan nai izan zuen Jaironean ere.

Etzegoen Jaunaren begietan neskatiñ ura ila; bada Jaunaren besoetan iltzen diranak lo gozoan gelditzen dira.

Munduaren ustean ilik daude onak ere; Jauna ta Eli-za ama deunaren iritzian befiz ez; zeruan betiko bizi dira ta. Ilak, (gaiztoak) inpernura dijoaz; biziak (zerukoak) il ezkoñak dira.

¿Zeñek esan zer ote dan zerua? Mundu au txit edefa da; zerua befiz amaika aldiz edefagoa; ez da zerua bezelako lekurik; ez da ordea zerua zeru leku edefa dalako; baizik Jaungoikoa bertan dagolako; ofegatik bakafik dira zorionekoak zerukoak; Jauna ikusten dutelako.

Ez balego Jaungoikoa zeruan; eta ez baluteke zerukoak Jaungoikoa ikusiko, zerua atsegin lekua, edertasun tokia izan afen ez litzake zeru izango; inpernuan befiz Jauna dan bezelakoa ona maitetsua agertu egingo balitz ez litzake inpernu inpernu izango; zeru baizik.

Beati mortui qui in Domino moriuntur.

Ala izan bedi.

PENTEKOSTE ONDOKO OBEITALAUGAREN IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM XXIV POST PENTEC.

I

¿Pekatu bidietatik alde egin nai dezula? Gogoratu beti munduaren azken eguna. Beti gogoan eduki ta—ez det uste pekatu lafian erori ditekenik ere.

Jeronimo deuna basamortuan zegoela ikaraz beteoa omen zegoen; azken egunean aingeruak jokö duen *tutu* ikaragafia beti entzuten ari zala ta.

Txit ikaragafia izango da bai egun ura; egun izugafi aren ondotik datorkigun epai zofotza befiz //ura, ura bai izango dala egitan gauza ikaragafia!!

Guk egindako gauza guzien *kontu* zofotza Jaunak eskatzen digunean ¿zer erantzun ote? Onak doi-doi ibiliko baldin badira, ¿*quem Patronum rogaturus «cum vix justus sit securus»?* ¿Kristau gaiztoak eta nola ibiliko ote dira? *Iñoren laguntzarik gabe.*

N. a. m. Mundu ontan gaiztakerien bat egin ondolan—beti izaten da aitzakien bat: *ixxutu ta egin zala; ta odola irakiten zegoela ta:* egun artan befiz Jaunaren afean gaudela ¿zer aitzaki aterako ote diogu? Lotsarik aundienean egongo gera noski.

II

Badira munduan gauza txafik iñoiz egin ez balute bezela bizi diran gaiztoak; eta—pekatari aundiak badi-

ra ere—¡¡ajola gutxi!!; bere kidekoen artean edozein bezelakoak agertzen dira ta. ¡¡Lotsagabeak!!

Gauza ixil asko dago munduan; Jaunak ordea guzia daki. Gure lagunak eta ez badakite ere nolakoak ote geran—ez da Jaunakin ofelakorik gertatzen; Jaunaren begiak gizonenak baño zofotzagoak bai dira; gauza ixilenak ere Jaunak badakizki ta.

Jose Jakoben semea bere anaien aurrean agertu zanean *Ni naiz Jose* esaten ziela; *jura anal gaizto aiek artu izan zuten bildufa!!* Ez omen zekiten zer esan eta zer egin ere; bildufak ito-ta omen zeuden eta.

Ni naiz Jose: esan onek ekafi omen zizkien aiei gogora *Jose onakin* egindako txakurkeriak; eta berak saldu izan zuten anai ona *Ejiton ain goi goi, ta agintari aundiena* ikusi zutenean—bildufak josi-ta omen zeuden; arnasarik ere artu ezin zutela; ta lotsa ikaragafia zeriota. «*Lertuko gaitu orain onek*; esango zuten beren baitan; *etzai ez astu anaiuri guk berakin egin izan genduen gaiztakeria ta gauza itxusia*; *oraingoan gureak egin du noski*; *galduak gaituk* esango zioten noski elkafi.

Ni naiz Jesu Kristo: gaiztoak azken egunean Jaun zofotzari entzun da ¡¡jura bildufa!! ¡¡jura ikara!! ¡¡jura lotsa!!; bada Jetsemanin judu gaiztoai *Zehen bila gatozte* Jaunak galdetu ta—*Jesusen bila gatoz* erantzun onondoan, eta *Ni naiz* Jaunak befiz esan da—guziak zerfaldo erori egin baziran, ¡¡esan!! *Ni naiz Jesus* gaiztoak Jaunari zofotz-zofotz entzun da—¿nola jariko ote dira? ¿Zer somatuko ote dute beren biotzean? ¿Nora joko ote dute? ¿Zer egin? ¿Laguntza bila nora ote jua?

«*Ni naiz*» *Jesu Kristo* esan onek gaiztoai esango die: *Zuek birau zikiñez eta irain gaiztoz bete zenduten Jauna* «*Ni naiz*»: *Zuek Jaungoiko nintzala jakin*

aŕen etziñidaten siñistu: Ni naiz zuek siñistu nai etzenutena; «Ni naiz» Jesus zuentzako lege bat egin izan nuena; ta zuek bete izan nai ez. Pekatu ixil eskutatu aiek iñork ikusi gabe egin izan baziñituzten ere, ikusi izan zituen batek; Nik ikusi nituen. Nik eskeindu nizuten gurutz bidea. «Ni naiz» zuek pekatu egin da il zendutena; eta zuen epaikari zofotza orain «Ni naiz»

Gaiztoak onelako esan ikaragafiak entzun ezkeroko esango omen dute: *Gaizki ibili izan gera; galduak gauden beraz: Jaunak guretzako inpernua prest dauka ta. Betoŕ gure gain mendiko arkaitzak; eta zanpatu ta lertu gaitzabela. Betor sua; ta efe gaitzala; ura ta ito gaitzala; eriotza. ta il gaitzala. Iriki bedi luŕa, ta iretsi gaitzala; baño guzia alpefik izango omen da: ortze ta luŕa ere egun artan txit ikaratuak egongo dirala ta. ¿Gauza negargafiagorik zer ote? Laguntzarik aundiena Jaunarena; ¡¡Jauna befiz orduan beren etsai ikaragafiena izan!!*

¿Orduan aitzakika ibili? Adanek pekatu egin da aitzakiz esan omen zion Jaunari: *emakumeari, bere andrearari atsegin emateagatik jan zuela sagafa; emakumeak befiz etsaiak iruzur egin ziola; ta ¿guk befiz zer esango ote diogu? ¿Onak izateko etzigula iñork lagundu izan edo? ¡¡Gezufa!! esango digu Jaunak; bada eskatzen zidaten guziak bazeukaten nere laguntza; ta kristauak laguntza geiena.*

¿Etsaiak gogor egiten zigula ta? Erantzungo digu Jaunak: *Bere bila; ta bere atzetik ibili ziñaten ordea; eta utzi niñuzuten zuek; Ni ¡¡deika!! ¡¡deika¡¡ ibili; ta zuek befiz ¡¡igeska!!*

¿Ez genekigula zer egiten genduen? Esango digu: *Jakin bear zenduten; bada ortarako ziñaten kristauak; eta bazenekiten nere laguntza izango zenutela beti.*

Ez diteke ez orduan aitzakirik atera; arnasarik ezin arturik bildufez josi ta ibiliko gera ba. Eta *¿orain dum tempus habemus* ain ajolarik gabe bizi?

III

¿Baño norbaitek lagunduko al digu orduan? Munduan ifisko ta estu aldietañ gabiltzala badatorkigu bat eonbat beti laguntzera; baño ¿azken egun artan?

¿Ez al dakizute orduan guziak lagun bilketan ibiliko gerala? Egun artan seme-alabak gurasoai eskatuko diete laguntza; gurasoak befiz seme-alabai; afebak anaiai; anaia afebai; emazteak senafai; senafak emazteai; aundiak txikiak; txikiak aundiak; ta elkafi erantzungo diegu: *Zoaz emendik; nereakin geiegi det eta.*

Koreb, Datan eta Abiron-lufak iretsi ta, il ziranean ¿egia al da etxeakoak, senideak eta lagunak lagundu bea-fean txaloka asi zirala? Josefo edeslariak beñepen alaxen dió. *¡¡Lagundu guri!! ¡¡lagundu!!* esaten omen zuten aiek; lagunak eta etxeakoak ordea lagundu nai ez; eta ifi-pafaka gañera. Eskatuko diete gaiztoak onai laguntza; auek ordea ez diote eman naiko; Jaunak ez emateko aginduko die ta.

Lætabitur justus cum viderit vindictam. ¿Zergatik poztu ote guraso onak seme-alaba gaiztoak orduan estu ta lafi ikusi ta? ¿Zergatik poztu ote befiz seme-alaba onak beren guraso gaiztoen estutasuna ikusi ondoan?

Ez omen da orduan izango ez gurasorik, ez seme-alabarik; ez senar-emazterik; ez da ere ezer; Jaunaren zuzentasuna baizik.

Deituko diegu laguntzeko aingeruai; baño ¿ainguruak orduan lagundu ote? ¡¡Bai zera!! Bizi geran bitartean lagunduko digute bai; baño orduan ez.

Orduan aingeruak esango digute: *zaindu genduen alik ederkiena Babilonia; baña etzan sendatu: utzi lagun bada* (Jer 51); ez dute beraz gure aldez orduan aingeruak ezer egingo.

¿Deunak (santuak)? Ez da ere; lenago esan dizutedan bezela—ez bai da aldi ura iñori laguntzeko; ¡lagunbila ibili; ta guzia alpefik!!

Eta zer esan Andre Mari garbiaz? Guziak dakigu Jaunaren afean dagola eskubide aundia daukala. Ori egia denezkero, ta esku aundikoa bada ere—ez dezake egun artan gure Amak ezertxore; bizi geran bitartean nai duena dezake bai; egun ikaragafi artan beñiz ezer ez. Geroztik kristau gaiztoak ¿ez al dute babeslerik izango?

Ez; *Spes impiorum peribit: gaiztoen itxaropena betiko galdu egingo da ta*. Orduan ba ez da izango ez aitarik, ez amarik, ez afebarik, ez anairik; ez *santurik*, ez da Andre Mariarik ere. Arnasa pitin bat degun bitartean oiek gure aldez daude beti; baño bizitza laburra dala ta, il egin gerala ta, orduan utzi egingo gaituzte.

Baño ez lafitu, kristauak; orduko aldezaririk altsuena erakutsi nai dizutet eta. Ona non dagon; mundu ontan; eta gurekin batean, beñere utziko ez gaituela; aurki ezagutuko dezute; ta ezagutu ondoan ez utzi ez; ordu artan laguntzarik onena berea izango zaizute ta.

¿Nor ote dan? Entzun: *Opera enim illorum sequuntur illos. Kristau biziera* da bere izena; ta izango da orduan gure lagunik onena. Ez gaitu eskutik utziko; beti gurekin egongo da ta; gure aldez orduan jartzen dala.

Egun ikaragafi artan guziak uzten gaituztela *kristau bizierak* esango digu: *Guziak uzten bazaitu ere etzaituk nik utziko; zuk munduan bizi zifala egindako kristau biziera naiz; eta orain nik zuri lagundu bear.*

On egin zangun beti; ta egun artan gaiztoak kezka
beterik eta ilun-ilun badabiltza ere gu pake-paketsu ta
patxada aundian egongo gera ta.

Ala izan bedi.

Muskaria (Tudela) 1926'ko (Abenduan)
Guzia Goiko-Jaun-ona ta Euskal-eriatatik.



PENTEKOSTE ONDOKO IGANDEA

2.ª HOMILIA IN DOM 1.ª POST PENTEC.

I

Ez du Jaunak gure ona besterik nai; ta ofatx ori guri jakin erazteko nola aurkezten zaigun gaur bere lagun lagunai apañi aundi bat ematen dien gizon baten gisara.

Jakintsuak diogutenez—zerua adierazi nai omen du apari onek; eta //zein eskergabeak eta ajola-gabeak izango gifañakean Jaunak guri deitu ta—aitzaki—maitzaki ibiliko bagiña!! Zein biot txikia ta kaskafa agertuko genduke: *Barkatzeko; ezin degula juan eta*—Jaunari esan ezkerro. Onelakoak izan beaŕean erantzun zaiogun beti onela: *Banoa oraintxen bertan Jauna: zure gauza guziak atsegin zaizkit eta.*

Ez ibili ez—Jaunak deitu ta—aitzaki maitzaki; deitzen digunean—gure onerako deitzen bai digu.

Badauka bai Jaunak—mundu ontan gaudela—gure ardura, ta aundia ala ere; ez digu ofegatik munduan janari ta edaririk gabe uzten; gero zeruan ere eriotzaren ondoan zerua ematen digula.

Gai ugari ematen dit Ebanjelio onek.

II

Ez gera jaio ez jateko ta edateko; baizik bizitzeko jan eta edan egin bear degu.

Ez baleuka Jaunak gure ardurarik edo ajolarik—ez litzake guretzako egiazko aita izango; badauka ordea; ta daukalako iñor baño aitago zaiгу.

Txio-txioka egaka dabiltzan txoritxo gaixoak baño geiago gera gu: baita ere itxasoko ur urdiñetan igerika ari diran afaitxoak baño; eta oiei—basamortuetan mafuka dabiltzan abere pizti ikaragafiai bezela—Jaunak ain maiteki begiratzan badie—egunerokoa ematen die—¿zer? ez gaituela Jaunak oiei baño geiago begiratzan eta maitatzen uste izan? ¡jai!! ofela uste izan ezkerо ¡izer nolako buru kaskarin ergela agertuko genduken!!

Begira Jaunak gurekiko daukan maitasuna. Gu mundura baño lenago *prestatu* izan zigun *mundua* deritzaion jauregi eder au.

Ez duela iñork argi gabeko etxerik nai ta, ofa Jaunonak guri argi egiteko, non ipiñi edo piztu erazi zituen eguzki ilargi ta izar edefak:

Jan eta edan gabe ezin gindezkela bizi ta, goseak ez iltzeko ofa etxe ondoan ditugun igali (fruta) ta barazki (berdura) gozo-gozoak; egafiak ez itotzeko befiz ur garbi osasungafiak nonai agertzen zaizkigula.

Bazekien Jaunak gure artean batzuek aberatsak eta besteak beartsu *probeak* izango zirala; ta azkeneko auker e bizi ditezen, agindu izan die aberatsai (*oartu: agindu izan die*) bere izenean beartsuai laguntzeko, ta begiratzeko.

Askotan janaria ta motelegi ta geza-geza egongozala ta—gauza motel—gezak gafazteko ofa non sortu izan zituen gatza ta; gauza gafatz, samñiak gozatze-ko gizonak gozokiak eta asmatzen zituztela.

Berotasunik gabe ez dezakela lufak emankor iraun; eta soro, landa, lur aldiak eta landaratxoak beren gara-

ian ezetasuna bearko zutela ta oña non dauden eguzkia ta ibai, itufi efeka ta zubeldiakin batean, lufari ezetasuna dakarkion euri gozo-gozoa; ta oña ere ordaiñez lufak damazkien igali gozoak: azak eta babafunak eta, txitxiroak eta, lur sagafak (patatak) eta, ur azak (letxugak) eta, sagafak eta, udariak, musikak, matzak, gariak eta.

Badirudi Jaunak esaten duela: *Txorikumeak eta ez ditut iltzen utzi nai; etzaituztet beraz goseak iltzen utziko. Jan, jan zuentzako sortu erazi ditutedan gauza auek; guzientzako: onentzako eta gaiztoentzako egin izan ditut eta.*

¿Eta gure arimarentzako zer ote dauka prestatua.

III

Jaunaren antzekoa da gure arima; ez gindezke *arimarik gabe* bizi, gure izatean daukagun *gauzarik aundi ta bikañena* beraz arima da; ta Jaunak berak ori adirazten digu; arimak mundu osoak baño geiago *balio* duela esaten digula,

¡¡Arira ba!!

Il ez dedin gorputza ta iraun dezan ainbeste gauza on eta osasungafi *prestatu* izan badizkigu Jaunak ¿zer esan ote *gure arimaz?*

Gure arima sendo sendo bizi dedin egin izan zuen gure Jaunak apari aundi eder bat; ez ordea toki leku ilun batean Jerusalem uri edefean baizik. (Ez aztu Jerusalem uriak maiz Kristautasuna adierazi nai digula),

Janariak jalearen antzekoa izan bear duela ta, gorputzari gorputzezkoa dagokiola ta, gorputzezko janaria ematen baldin bazaio; arimari (Jaungoikozkoa dan ez-

kero) Jaungoikozkoa eman bearco geroztik; bada ez badu arimazko janariak gorputzik ase betetzen; gutxiago ase beteko du gorputzekoak gure arima.

Oartu orain Jaunak arimarentzako egindako janaria; ortarako gogora ekafi Jaunak Jerusalemene azkeneko aparian egindako gauza miragafia; ogia Bere gorputz; ardoa befiz Bere odol egiten zuela.

Begira aldare nagusira; ta or ikusi dezakegu Jauna gure onerako janari, edari, sendaki ta bizitza egiten zaitzula.

O sacrum convivium esaten dute apaizak Kristauai Jauna eman ondoan: *Au bazkari edefa; janari Bera (Jesus Bera) ematen zaitzugu ta.*

N. a. m. Jesus jaio ta laguntzarik gabe gelditu ez gindezen eta lagunik onena Bera zitzaigula ta, *se nascens det in socium* laguntzat eman zitzaigun Bera zerutik jexi ta.

Gero gure arimak sendo bizi bear zuela ta, bizitzarik onena Beragan genduela ta *se convescens in edulium* janaritzat ere eman zitzaigun Bera; ogia *Bere gorputz*; eta ardoa *Bere odol* apaiza jaunak mezakoan biurtzen dutela.

Gaurko Ebanjelioko lagunak bada gaizki aritu izan ziran gure Jaunakin aitzaki maitzaki egon ziranean; bada gaixo eriak osasun bila sendakiñagana jo bear du; beartsuak aberatsagana; egafi dagonak itufira; guk befiz beti gure sendakin, Jaun, eta atsegin guzien itufi dan Jaunagana.

Gaiztoak gerala ta ez degula ofegatik maiz Jauna artu bear? Badaki bai Jaunak gaiztoak gerala; ta onak nai gaituelako deitzen digu; bere maian berakin batean nai gaituela; ez aztu beñere Jauna mundu ontan pekatari bila zebilenik; ez da ere ez gogotik kendu *aldarean* pekatari zai dagonik.

Zerutik—jaiotzekoan— Belengo estalpera jetxi zan eran—egunero mezaerdikoan jeixten zaigu gure onerako aldarera; jeixten danero eskuak esker mesede *graziz* bete-beteak dakarzukiela.

Esker oiek ematekotan gnori emango ote dizkio eskatzera dijoakionari ez bada?

Eri bagaude bada aldarean dago sendakin; itun egon ezkeru, poz ekarle; ilik bagaude bizitza emale; ta Jauna *komuniokoan* artzen degunero arima *zeru* biurtzen zaigu; Jauna gugana etortzen dala.

IV

¡¡Zerua!! ¡¡Au itza!! Aipatu ala, ta entzun orduko itun dagona poztu egiten da; negar dagiena alaitu; neketsu dabilena befiz lasaitu; ta zerua guretzat egiña dago la siñisten degula gure buruari esaten diogu ¿*Noiz ikusiko ote det zerua?*

Asko poztuko da gure biotza zerua ikusi ta. Orain Jaunaren edertasuna guk ikusi ez afen, (lañopean bezela bai gaude) zeruan *sicuti est* dan bezelakoa ikusi egingo degu; *Bera* azken gabeko bizitzaren jabea ta Jauna izango dala.

Ozkarbian (pirmamentuan) agertzen diran izar edefak baño geiago izango dira zeruan izango ditugun mai-kide ta lagunak.

¡¡Ura kristau onaren poza deun guziakin lagun onakin (oi dan bezela) *iketan* aritu ta!! Ez da zeruan aforik izango.

Gogoan edukiko dezute noski—Israeldafak basamortuan zeudela—izan zuten *Manna* ura.

Norberaren gogokoa omen zan janari ura; eta ez omen zan—artu ondoan—iñor aspertzen; gutxiago as-

pertuko gera zeruan; Jaunak zeruan prestatua daukan janaria Bera bai da; ta *Mana* baño mila bider gozoagoa beraz: bazkari luzea gañera; Jaunak irauten duen aña iraungo du ta.

An (zeruan) nai gaitu Jaunak; ta ara deitzen digu; aitzakika ikusten gaituela asko asefatzen dala.

Jaunak deitzen digunezkero goazen Beragana; zerua toki ta gauzarik edefena eskeintzen digu ta.

Ala izan bedi.



ARKIBIDEA

Dom. 1. ^a Adventus..	11	orian
› 2. ^a ›	16	›
Immaculata Conceptio	21	›
Dom. 3. ^a Adventus..	27	›
› 4. ^a ›	31	›
Nativitas D. N. J.	36	›
Dom. infra Oct. Nat.	41	›
Circuncisio.	46	›
Epiphania.	51	›
Dom. infr. Oct. Epiph	57	›
Dom. 2. ^a post Epiph	62	›
› 3. ^a › ›	66	›
› 4. ^a › ›	71	›
› 5. ^a › ›	76	›
› 6. ^a › ›	81	›
Dom. Septuages.	86	›
› Sexages.	92	›
› Quincuages.	98	›
Sanctus Joseph	103	›
Dom. Quadrages.	108	›
› 2. ^a ›	113	›
› 3. ^a ›	118	›
› 4. ^a ›	123	›
Dom. Passionis	129	›
› Palmarum.	134	›
› Ressurrec..	139	›
› Quasimodo	144	›
2. ^a post Pascha	149	›
3. ^a › ›	154	›
4. ^a › ›	159	›
5. ^a › ›	164	›

5. ^a Ascensionis	169	ofian
› Infra Oct.	174	›
Pentekostes	179	›
2. ^a post Pentekostes.	184	›
3. ^a ›	188	›
4. ^a ›	194	›
5. ^a ›	199	›
6. ^a ›	204	›
7. ^a ›	209	›
8. ^a ›	214	›
9. ^a ›	219	›
10. ^a ›	224	›
Assumptio B. M. V..	229	›
11. ^a ›	234	›
12. ^a ›	239	›
13. ^a ›	244	›
14. ^a ›	249	›
15. ^a ›	254	›
16. ^a ›	259	›
17. ^a ›	264	›
18. ^a ›	269	›
19. ^a ›	276	›
20. ^a ›	279	›
21. ^a ›	284	›
22. ^a ›	289	›
23. ^a ›	295	›
Sanct. Omn.	301	›
24. ^a ›	306	›
1. ^a Post Pent.	312	›



Irakurle: zuzendu onela uts aundienak

32 ^{en}	ofian dai da	<i>bai da</i>
38 ^{en}	» pretisiores	<i>pretiosiores</i>
41 ^{en}	» bera zu	<i>zera zu</i>
42 ^{en}	» esan ofen	<i>esan orek</i>
46 ^{en}	» Jaungoiko odola	<i>Jaungoikozko odola</i>
48 ^{en}	» ut emendi	<i>ut emendik</i>
48 ^{en}	» jartzeagatiz	<i>jartzeagatik</i>
61 ^{en}	» ez bazera	<i>ez bagera</i>
76 ^{en}	» Jaunak ardura	<i>Jaunak gure ardura</i>
83 ^{en}	» Konfesioa	<i>Konfesioak</i>
89 ^{en}	» ¿Ez al dezazet?	<i>¿Ez al dezaket?</i>
98 ^{en}	» lenengo aginduak	<i>lenengo agindutik</i>
105 ^{en}	» elizakoa on bazaio	<i>elizakoak, on bazaio</i>
123 ^{en}	» gizapi-lakaragafi	<i>giza-pil-ikarugari</i>
127 ^{en}	» izan deta	<i>izan eta</i>
128 ^{en}	» egin omen; zuen	<i>egin omen zuen</i>
130 ^{en}	» baziñituzte	<i>baziñituzteke</i>
144 ^{en}	» asko izan zirala	<i>asko izango zirala</i>
151 ^{en}	» animan	<i>animam</i>
151 ^{en}	» gure Jaun bezela	<i>gure Jaunak bezela</i>
176 ^{en}	» iilik ilusi	<i>iilik ikusi</i>
180 ^{en}	» Jaunak	<i>Jauna</i>
202 ^{en}	» aurtxoaren	<i>amatxoaren</i>
205 ^{en}	» ala bear zutena	<i>ala ere, bear zutena</i>

